

# Txantxangorri kantaria

Ataño



nauk beintzat.  
Neguaren arnas izoztuak epeltzen asten.  
anean, eta mendiak txapel txuria erantzita be  
lea jazten, txantxangorria, txukun, lirain ta ep  
ia, atariko garo-metaren gañean kantari som  
tuko dek, goizean, eguardean, eguerdian, arr  
saldean, illunabarrean, berdín beti, kabia egite  
ko garaia baitu eta inguruan an baidabilki ma  
tea.

Udaraberri, urte-giro goxoa dek ori gazte  
arentzat. Neretzat ala uan beñipin: lagun o  
baten billa asi bear nuan garaia. Orduan ixili  
egon? Ametsetan ere bertsoan aritzen niñu  
noski ni. Orduko nere lagunei galde akiek, orain  
dik bat edo beste bizi dituk-eta. Aiek esang  
ditek nolakoa nintzan ni: atsegiña, alaia, ezi  
egona. Nere bertsolari-garra gauzik txikiena  
piztu-erazten zin; biotza maitasunaren mend  
baineukan, eta zeukanetik ixuri bear.  
Orduko bertsorik ez nian bat bakarrik jaso  
... punbait. ... lizanean, et



hauspoa





ATAÑO

# TXANTXANGORRI KANTARIA

HAUSPOA LIBURUTEGIA

4

ATAÑO (1912-2000)

Txantxangorri kantaria / Salvador Zapirain "Ataño" ; [editorea], Antonio Zavala ; hitzaurrea, Joan Mari Irigoien ; egokitzapena, Xabier Andonegi, Pello Esnal ; edizio-lanak, Pello Esnal ; marrazkiak (azalekoa eta barrukoak), Idoia Beratarbide. - 3. argit. (lehenengoa euskara batuan). - [S.l.] : Hauspoa ; Donostia : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Lankidetzta, Gazteria eta Kirol Departamentua, 2020.

267 or. : ir. ; 20 cm. - (Hauspoa Liburutegia ; 4)

Aurkibidea

LG D 0139-2020. - ISBN 978-84-7907-815-7

1. Zapirain, Joxe (1873-1957). I. Zavala, Antonio (1928-2009). II. Irigoien, Joan Mari (1948-). III. Andonegi, Xabier (1967-). IV. Esnal, Pello (1950-). V. Beratarbide, Idoia (1977-). VI. Gipuzkoa. Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes. VII. Izenburua. VIII. Saila.

929 Zapirain, Joxe (1873-1957)

821.361-82"19"

1. argitalpena: 1979 (Auspoa, 137-138)
2. argitalpena: 1993 (Sendoa; Auspoa, 137-138)
3. argitalpena: 2020 (Hauspoa, 4)

#### HITZAURREA

© Edizio honetakoa: Joan Mari Irigoien.

#### TESTUA

© Jatorrizkoa: Salvador Zapirain "Ataño", Antonio Zavala (editorea).

© Egokitzapena: Xabier Andonegi, Pello Esnal.

Edizio-lanak: Pello Esnal.

*Hauspoa bildumaren diseinua:* Javier Lopez Altuna.

*Maketazioa:* Gipuzkoako Foru Aldundia.

*Marrazkiak (azalekoa eta barrukoak):* Idoia Beratarbide.

ISBN: 978-84-7907-815-7

Legezko Gordailua: D-0139-2020

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak, S. L., Gudarien etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

ATAÑO

# TXANTXANGORRI KANTARIA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanikidetzta, Gazteria  
eta Kirol Departamentua

Donostia, 2020



## AURKIBIDEA

Hitzaurrea (Joan Mari Irigoien) .....	9
TXANTXANGORRI KANTARIA	
Txantxangorri kantaria .....	23
Bordaxar .....	37
Jaio eta lehenengo urteak .....	43
Aitona .....	51
Gudaondua .....	65
Mutil koxkorretan .....	69
Juan Kruz.....	77
Sendi-bizitza .....	87
Aldaketak .....	103
Txirrita .....	111
Gaztaro .....	115
Kinto-urteak .....	119
Kanpoan uso, etxean otso.....	125
Harrapazka .....	137
Donostiara .....	147
Atsolorra.....	153
Nekepean .....	161
Izurritea .....	169
Alargun .....	177
Semeak.....	181
Semeen jolas eta bihurrikeriak.....	183
Erkala edo Errepublika .....	197
Azkeneko gudatea.....	207
Guda ondorean .....	231
Saturnino.....	235
Nire azken urteak gaur arte.....	247
Atea zabaldu .....	253
Hiztegia .....	261





## HITZAURREA

Salbador Zapirain —Ataño, ezizenez— Bordaxar izeneko baserrian jaio zen, Erreterian, nahiz eta altzatarrok, maiz, bordaxartarrak altzatatartat hartzen ditugun, baserria bi herrion arteko mugan dagoenez gero —Ataño berak aitortuak dira hitz hauek: *Orain, Altza alderako joera zeukaagu. Askoz hurrerago baitaukagu, gainera*—. Atañoen bizitza, ondorioz, ume-umetatik, baserri kontuetara lotua izan da. Eliz kontuetara ere bai, kaputxinoa ere izan baitzen. Beste datu bat: altzatarrok, hemen Altzan —Los Boscoko auzoan—, kaputxinoen parrokia bat genuen; are gehiago: haiekin konfiantza handia hartu eta, nola haiek Hondarribian komentu bat zuten, pilotaleku bat ere bazuena, hara joaten ginen noizean behin... baita, pilotan egin ostean, bertako komunitatearekin bazkaldu ere: bisita haietan, beraz, Ataño ikusteko eta harekin solasean aritzeko aukera izaten genuen. Beste datu bat: gure aita zena, 1936ko gerra zibil inzibilaren ondoren, Altzako medikua izan zen, eta behin baino gehiagotan ikusi genuen hura Bordaxarrerako joan-etorria egiten.

Bordaxarkoak, beraz, hur-hurreko jendea genuen —oraindik ere halakoxea dugu—, eta horregatik, beharbada, primeran gogoratzen dut zer sentitu nuen *Txantxangorri kantaria* —1979 edo 1980an— lehen aldiz irakurri nuenean: poz handia sentitu nuen, hain iruditu zitzaidan nobela hura duina —kalifikatibo superkalifikatiboan aroan, gero eta atseginagoak ditut kalifikatibo xumeak, xuxenagoak ere badirenak, nik uste, idazlan bat literarioki baloratzeko tenorean, su-festetatik urrun—; nik, bestalde, 1973an *Oilarren promesa* argitaratu nuen, bi xede edo bi bultzagarri zituena, nobela idazteaz gain, euskara ere ikasi nahi bainuen... gure hizkuntza, alegia: bai —nolabait

esatearren— egunerokotasunaren euskara, euskalkiak euskalki, eta bai euskara ahalik eta hoberena, ahalik eta jasoena, jantziarena: Axularrena berarena agian...! Bada, askotan pentsatu izan dut: lastima Atañoek ez zuela bere *Txantxangorri kantaria* urte batzuk lehenago publikatu! Nekez aurkituko bainuen nik, *Oilarraren promesa* idazteko, Atañoena baino eredu hoberik, euskarari eta idazkerari dagokionez! Izan ere, *Oilarraren promesan* erabili nuen euskara eta idazkerarekin konforme ez nengoelako, horregatik berregokitu bainuen goitik behera nobela bere 2. argitaraldian.

Baina esan berri dudana egia bada, egia da, halaber, egunotan egin dudana *Txantxangorri kantariaren* bigarren irakurketak —edo hirugarrenak edo auskalo zenbatgarrenak: hitzaurre hau egiteko, puskaz puskako eta paragrafoz paragrafoko irakurketa ezin zehatzago bat ere egin behar izan baitut— are gehiago hunkitu nauela eta gozarazi. Badira liburuak, izan ere, bigarren irakurketan ez hain ederrak iruditzen zaizkigunak, eta badira alderantzizkoak, zenbat eta gehiago leitu, orduan eta hobeak iruditzen zaizkigunak: bada, *Txantxangorri kantariarekin* haxe gertatu zait. *Txantxangorri kantariak*, gainera, bere bidea egin du —eta egiten segitzen du— euskal letren munduan, non, oro har, gero eta gehiago estimatzen baita Atañoen ahalegina: merezimendu osoz, ene iduriko.

Interneten aurkitu ditut, esate baterako, Atañoen jardunari buruzko erreferentzia batzuk. Horien artean, bere burua kritikari literariotzat jotzen ez duen arren, Mikel Ugaldereen artikulua argigarria azpimarratuko nuke hemen [honako helbide honetan aurki daitekeena: [www.errenteria.net/eu/ficheros/57\\_20378eu.pdf](http://www.errenteria.net/eu/ficheros/57_20378eu.pdf)]. Eta nola hitzez hitz nagoen ados Mikelek *Txantxangorri kantariari* buruz idatzi zuenarekin, hala, artikulua laburbildu eta funtsezkoa ematera mugatuko natzaizu, informazio horrekin nahikoa eta sobera izango duzulakoan, irakurle.

Zer dio, bada, Mikelek, artikulu horretan? Dio, Salbador Zapirain 'Ataño', ezbairek gabe, euskara garden eta bizi bezain aberatsaren iturri garbia dugula; dio, Ataño, euskal letretan, albora ezineko erreferentzia dela, baita katebegi ezin baztertuzkoa ere, *Txantxangorri kantaria* idatzi zuenetik; dio, Atañoaren liburu hau irakurtzerakoan, kontalari bati entzuten ari zitzaion sentsazioa izan zuela; dio, liburuaren entzun egin zuela irakurri baino gehiago: begiekin baino, belarriekin gehiago irakurri zuela, alegia; dio, garai bateko bizimodua eraikitzeko —baserria, auzo bizitza, erlijioaren eragin gehiegizkoa, aisialdiaren apurraz baliatzeko aukerak, ohiturak, pentsaera, usadioak, hizkera, portaerak, baloreak... gudaren ezpata zorrotza bizi izan duen familiaren samina eta ezina... hizkera, iruditeria...—, hitanoaren eta ahozkoaren baliabideak lehenetsi zituela, beste aukera batzuen aurrean.

Eta are gehiago dio...

Mikel eta ni, izan ere, kezka batek batzen eta uztartzen gaitu, horregatik ibili baikara biok urteetan euskara-irakasle gisa. Euskararen aldeko borroka honetan, gomendio bat ere emango dizugu, irakurle: euskara ez da bakarra eta molde asko ditu; Atañoak darabilena, berriz, on-ona da, ezin hobea... xumea bezain aberatsa. Horregatik, bide segurutik jo nahi baduzu, Atañoaren idazlanak irakurtzeak berebiziko mesedea egingo dizu: bertan aurkituko duzu, bai, ur fresko eragingarririk! Beste ikuspegi batetik, berriz, hain urruna ez den gure iraganaren historia ezagutzeko parada ezin hobea da Ataño, bere kontakizunak maisuki kontatzen duena. Bide batez, ez dezagun ahantz, euskara, hizkuntza izateaz gain, gure nortasunaren eta izaeraren euskarria dela. Izan ere, gure arbasoak, menderen mendetan, euskararen baitan bizi izan dira. Eta urak bere ibilbidean aurkitzen dituen elementuak garraiatzen dituen bezala, halatsu euskarak ere. Horregatik, zordun gatzazkie gure aurrekoei eta erantzule gaituzue ondorengoen aurrean, iragana ezagutzen dugun

neurrian hobeto landu ahal izango baitugu geroa: hori ere badio Mikelek bere artikuluan; eta, horretan ere, ni Mikelekin ados.

Hondarribiko komentuan izaten genituen elkarrizketetan, zernahi izaten genuen hizpide, eta, beraz, Atañoek lantzen zuen baratzaz mintzatzen ginen —tomate eta patatez, letxuga eta porruetz, babarrun eta azenarioez... baita zomorro kaltegarriez ere: Atañoek, haien artean, *luhartza* zuen deabruen deabruzat—, edo literaturaz mintzatzen ginen... Haietako egun batean esan zigun: “Orain dela bizpahiru aste, hain zuzen ere, *Oh, Euzkadi...!* aldizkariako kazetari bat etorri zitzaidan elkarrizketa bat egitera”. Urte batzuk igaro dira geroztik, eta erdi ahaztuta nuen elkarrizketa hura... baina interneti begira eta begira ibili naiz, eta aurkitu dut, azkenean, elkarrizketa hura, nahiz eta kazetariaren izenik aurkitu ez... datuak sarean sartu zituen operarioari ahaztu egin zitzaiolako-edo... Elkarrizketa orotan bezala, kazetariak galderak egin, eta Atañoek erantzuten saiatzen zen. Hark, hasteko, zera galdetu zion, ea laburtu zezakeen bi hitzetan bere bizitza, eta Atañoek: “Baratzean aritzen naiz lanean, bai. Bizitza osoan hori besterik ez dut egin: lan eta lan. Igandeetan eta negurakoan, berriz, idatzi, eguraldi txarra iragartzen dutenean bezala”. Edo, gaia guztiz aldatuz, batuari lotutako gorabeherak zituen solasbide: “Nahi eta nahi ez behar da batua: orain, zer batua, hori da diferentzia. Idazteko beharrezkoa dugu, bai, baina euskalkiak hiltzen hasten baldin badira, orduan, gaizki ibiliko gara. Nik, auzi honetan, ikasitakoari segitzen diot eta kitto”. Edo Atañoek bere intimitatearen atea irekitzen zion noizbehinka elkarrizketa-tzaileari: “Bazkalondoetan irakurtzeari ekiten diot, siestara beharrea”. Euskal idazleetan, berriz, Txomin Agirre zuen kuttuna. Are gehiago: Txomin Agirreraren eragin erabatekoa ere nabaritzen zaio Atañoeri *Txantxangorri kantarian*, 4. kapituluko honako esaldi honetan, esate baterako: “Nire aitona zena, harixe Jainkoak zerua diola, ezin nezakek isilik utzi. / Hura zuan gizon puska! Hortxe-

hortxe ni halako bi bai! Handia ezik, ona ere bazuan". Edo, inoiz ere, Arestiz mintzaten ziren. Eta Atañoek baietz, irakurri zituela Arestiren poema batzuk, "baina nik ez dut ulertzen poesia hori, kosta egiten zait, baina irakurri dut, bai". Eta kazetariak ea nola sortu zen *Txantxangorri kantaria* galdetu, eta Atañoek: "Aita Zabalak eskatu zizkion nire anaiari aita eta osabaren bertsoak; hura jakin nuenean, berriz, harengana joan, eta orduan esan nion: 'Nik badut nere aitaren historia lege bat edo egina'. 'Eman'. Eta liburua irakurri eta argitaratuta gero, Aita Zabalak esan zidan: 'Hau ia nik atera dudana liburu ederrenetakoa da'. Ondoren, berriz: 'Zuk bertsoan egiten duzu, baina ez dakit ez ote zaren hitz lauak hobea...'" . Eta, *Txantxangorri kantaria* zela-eta, ea kritikaren bat jaso ote zuen, eta Atañoek: "Txarrik ez... *Zeruko Argiak* bi edo hiru bider hitz egin zuen, eta beti ondo; eta gero *Goiz Argik*, ondo ere. Basarrik ere bai. Azkenean ondoen ondoena hitz egin zuena Labaien. Honek kritika oso ona egin zuen, nire euskararena, liburuarena, joskera eta guzti: 'es un libro muy conseguido'. *Diario Vascon* esan zuen". Eta kazetariak galdetu zion: "Baduzu idazteko sekreturik, Salvador?". "Ez naiz aritzen hemen zer jarri, han zer kendu; datorkidan bezala egiten dut: taka-taka taka-taka... Badakit, gainera, aholku hori zeinek eman zidan: Don Manuel Lekuonak. Gasteizen. Esan zidan: 'Bai, askotan, idazten hasten garenean, alkandora plantxatuarekin hasten gara, eta ez luke horrela behar'; zaildu egiten du horrek: nik zer jarri behar dut, hau jarriko dut".

Gizon berezia eta idazle aparta (arestian esan dut ez nuela superkalifikatiboetara joko, baina, hondarrean, haietara jo behar: zer erremedio...!) gure Bordaxarko kaputxinoa!

Iraganera begira jartzen naizenean, umetako irudi fantastiko bat datorkit... edo bi, hobeto esanda: bata bikote bat da, Silvestrek eta bere arreba (?) Valentinak osatua —haiek Altzara zetozenean, *pelegrinoak* bertaratu zitzaizkigula esaten genuen—; biek ala

biek jantzi zahar batzuk eramaten zituzten, hamaika urratuz zartatuak, hemen petatxu, hor zulo eta han adabaki; jende pobrea zen, bistan da, alderrai zebilena, batetik bestera bai, baina norarik gabe; kaleko pobreetan pobreenak ziren, beraz, hurkoen errukiaz bizi eta gaua edozein aterpetxotan egiten zutenak, izarpean ere bai aterperik izan ezean... botila bat ardo lagun, hori bai!; urtean behin Altza ingurura azaldu, eta etxez etxe ibiltzen ziren... etxejoaun edo etxeoandreei ohiko galdera egiteko, ea etxeo tresnaren bat matxuratua ote zuten, aterkiren bat edo beste zernahi... bai baitzekiten, azkenean, ez zirela esku-hutsik joango, ontzi matxuratua konpondu gabe utzi arren, plater bat babarrun-edo jasoko baitzuten ordain, etxe edo baserri bateko nagusiarengandik.

Bigarren irudia Joxe Zapirain bertsolariarena da, Bordaxar izeneko baserriaren jabearena. Joxek txapela eta makila zeramatzan, jakina: inork galdetuko balit, hala ere, hark benetan ote zeramatzan txapela eta makila, italierazko esaerarekin erantzungo nioke: *traduttore, traditore*, batek ez baitaki azkenean gure iragana oroimen ezin zuzen eta zintzoago baten erabakien arabera eraikitzen dugun, edo gerora ikasi eta behin eta berriz errepikatzen ditugun topikoen arabera. Urrunera joan gabe, nire bi anaiek beste era batean oroitzen dute Joxe Zapirainekin bizi izandako pasadizo hura. Nik, ordea, neuk oroitzen dudan eran jakinaraziko dizuet.

Hala, bada, Joxe, ene arreta pizten zuen gizon adintsua zen, esan ere esaten baitzen herrian bere buru-nahastaldiak ote zituena... Altzako neska-mutilok, berriz, haren berri jakiten genuenean —Joxe Altzan zebilela jakiten genuenean, alegia—, harengana joan, eta atzetik jarraitzen gintzaizkion, harekin batera “Hurra, hurra...!” oihukatzen hasten ginela, ia automatikoki; gizonak, segidan —are maitagarriagoa egiten zaidanak, *Txantxangorri kantaria* irakurtzen dudan bakoitzean—, hura

bataio *sui generis* bat balitz bezala, eskua patriketan sartu eta hurrak botatzen zizkigun. Bai, badakit neska-mutilok gizona zirikatu eta hari ere egingo geniola barre, umeok, antzeko egoeretan, halako jokabide maltzurrotara makurtu ohi baikara, liburu-egileak berak *Txantxangorri kantariaren* 21. kapituluko pasadizo labur honetan —zeinean Joxek saskigile bat duen mintzakide— adierazten duenez: “Etixerik etxe ibiltzen zen saskigile bat bazuan. Ia urtero bueltaxka bat egiten zian gure etxera. Lehenbiziko egunetan, zer ez zizkioten egin gizagaixoari! Egun batean, gaztaina-morkotsak jarri zizkiotean... Beste batean, berriz, txindurriak... Goizean, haserre xamar, esan zidaan: ‘Ez dakit zer ziren, Joxe, baina zimiko gaiztoa egiten zuten xomorroren batzuk banituen nik bart ohean!’. Berehala bururatu zitzaidan nire seme bihurri horien lana izango zela. Ikustera joan gintuan biak... eta txindurritz betea ohea! ‘Hebainduko ditut, bada, gaur!’. ‘Utzi bakean, Joxe! Ikusi ditudan ume guztiak holakoak dira! Ez lirateke bestela umeak izango!’. ‘Bakarka egokitzean ume xaloak dira, agintzen diedan edozer egiten baitidate! Ama falta baitute, ama!’. Asko maite zitian eta azken aldera zorutzen egoten zituan sutondoan haren ipuinak entzuten. Izan ere, saskigile zahar hark ez zekienik ez al zuan Euskal Herrian. Handik aurrera betiko ba-keak egin zitiztean”.

Hiru irudi —Silvestre, Valentina eta Joxe—, fantasiaren garban ditudanak eta noiznahi datozkidanak, ez, hala ere, presentzia irreal bat bezala, baizik eta, *traduttore, traditore* guztien gainetik, erreal-erreal. Ezer baino lehen, hauxe esan beharko bainuke, *Txantxangorri kantaria*, lehenik eta behin, nobela errealista bat dela, familia baten belaunaldiz belaunaldiko gertaera eta gorabehera errealak abiapuntu dituen, bi protagonista nagusi bitarteko: Joxe, kontalari printzipala, eta Ataño, Joxerengandik mila kontu jaso —ez bakarrik pasadizoak, haren pentsamendu eta gogoetak ere bai— eta haiei buruz



liburua idazten duena; nobelaren bigarren mailako protagonistak, berriz, ugari dira, gehienak Bordaxarko harrizarrekin eta bordaxartarren joan-etorriekin lotuak.

Eta, hala ere, zergatik jotzen dut *Txantxangorri kantaria* nobela errealistatzat, errealitatea, berez, xinglekeria eta inozokeria orotatik harat, atzeman ezina bada?

Literaturaren munduan bada urrezko maxima bat, obra baten balioa eta kalitatea erabakitzen duena —ona edo txarra den, bestela esanda—; bada, mundutxo horren parte sentitzen garenek hainbestetan errepikatzen dugu maxima hori, non, hondarrean, literaturarekin zerikusia duen idazlan bat egiteko orduan, *conditio sine qua non* bihurtzen dugun. Eta zein da, bada, maxima hori? Hauxe: obra batek (poema, ipuin, edo nobela batek...) balio literariorik izango badu, sinesgarria izatea du aurrebaldintza, baldintza eta ezinbesteko postbaldintza. Aurrez aurre dugun errealitatea da, ordea, eta guk begiz ikusten duguna, sinesgarri: aurrez aurre dugun mahaia, aurrez aurre dugun koilara, aurrez aurre dugun objektua... Erantsi faktore horiei nobelagilearen intentzioa, ahalik eta pasarterik errealean idaztera bultzatzen dituen, nola baita Atañoen kasua, *Txantxangorri kantariak* ikuspuntu ezin zintzoagoa duen nobela autobiografikotik ere asko baitu... Puntu honetara iritsita, baina, bertan sor dakiguke korapilo askaezina. Gaurko gizartean, izan ere, jarrera eklektikoak nagusitzen ari zaizkigu; eta, ondorioz, bakoitzak nahi duena sinesten du, edo nahi duena idazten du, edo komeni zaiona... ahaztu gabe, gure mundu horretan, sinesmen horren berme eta sostengu direla, maiz baino maizago, gure barne-joera makurrak: inbidia, zeloak, zekenkeria, e.a.

Berriki jaso nuen e-mail bat, gonbit baten berri ematen zidana: jende batek *Auspoa* bildumako ale batzuk euskara batuan egokitzeko asmo ezin txalogarriagoa zuela —bizpahiru ale egokitu

dituzte dagoeneko—, eta ea nik horietako bati hitzaurrea egingo ote nion. Nire atsegina, jakin nuenean niretzat aukeratutako obra *Txantxangorri kantaria zela!*

Berriarekin batera, beste poz-iturri bat ere banuen, ez baininduten sari literario bateko epaimahaikidea izateko gonbidatzen: *aleluia...!* Izan ere, askotan gonbidatu izan naute —handik eta hemendik— zeregin horietarako, baina, horrelakoetan, antolatzailerei hasiera batean baiezkoa ematen nien arren, denborarekin nire jarrera aldatu, eta orain, haietan parte hartzeari uko egiten diet. Arrazoi pisutsu bezain pertsonala dut horretarako: barka digresioa, irakurle. Kontua da literatura egiteko mila modu daudela, eta kontua da, literatur lanak epaitzeko orduan, zera sentitu nuela halako batean, erabakien balantza beti —beti-beti, alegia— *neure gustuko* lanen aldera makurtzen nuela, *gustua* banu bezala, obra baten balioa neurtzeko faktoreen artean, eragingarririk handiena zuena. Eta beste literatur balio guztiak —estetiko-estilistiko-soziologiko-semiologiko-eta-abarrekoak—, zer...? Harik eta sariketa batean, bi nobela iritsi zitzaizkidan arte: batek nire gustuak asetzen zituen, biribila zen gainera; bestea, beste muturrean zegoen: nobela itsusia irudituz zitzaidan —gaia ez nuen atsegin; are gehiago: oka zeragidan—, baina oso egitura originala zuen, berritzailea. Bildu ginen epaimahaikideok —hiru gizonak eta bi emakumeak osatzen genuen epaimahaia—, azaldu nien neure buruhaustea —gure arteko eztabaida zegoen puntuan, argi ikusten nuen, besteek botatako aburuen arabera, nire botoak erabakiko zuela saria—... eta ni, egoera estu hartan, sufritzen eta sufritzen... esku artean nuen auzia kontzientzia-arazo eta min-iturri bihurtzen zitzaizkidan bitartean. Aspertu zitzaizkidan, bai, epaimahaikoak! Eta batek esan zidan: “Zirt edo zart, Joan Mari”; esan nuen “Zirt”, baina berdin esan nezakeen “Zart”. Hainbeste sufritu nuen bilera hartan, non handik irten bezain laster esan bainion neure buruari: “*¡Fini!*”.

Esan dizut, irakurle: gaur egun, bakoitzak nahi duena sinesen du, eta zeuk erabaki nik orain kontatutako istorioa egiazko edo gezurrezkoa den, baina jakizu, hala ere, gezurrezkoa izan arren, egi-egiazkoa ere izan zitekeela. Geroztik, dena den, sari batetik deitzen didatenean epaimahaikide kargurako, uko biribila ematen diet: zuzenegi jokatu nahi izateak, izan ere, neure buruarekin zehatzegia izatera narama —neure burua katramilatzer, alegia—, sarira aurkeztutako literatur lanak baloratzeko orduan: hortik korapiloak eta konplikazioak, eta hortik nire ezintasuna. Gorabehera horiek, beharbada, ez nituzke hain estu hartu behar... Edo bai. Ez dakit.

Bueno.

Esan dut esateko asmorik ez nuena, eta esan dezadan esan beharrekoa: poz handia eman zidala, alegia, hitzaurrea egiteko enkarguak! Zorretan bainengoen Joxe Zapiain handiarekin. Eta haren seme Salbadorrekin. Gaur laudatu egin nahi baititut aita-semeak: aita, Joxe, bere kristau-euskaltasunetatik, hain bizimodu gogorrari duinki egin ziolako aurre —arestian esan dut nola bizitzaren azkenaldian burua ere nahasten zitzaion aldika, baina zertzelada horrek Joxe mesprezatzera eraman beharrean, hura are maitagarriagotzat hartzer, narama, errukiaren errukiz... hitzeko gizona baitzen Joxe, eta hitzak urrunegira eraman baitzuen—; eta laudatzen dut, halaber, semea, Salbador —Ataño—, hain nobela hunkigarria idatzi zuelako, bere aita Joxe eta bordaxartarren saga luzea protagonistatzat hartuta.

Lehentxeago hautatu dut nobelaren puska bat, 21. kapituluari dagokiona eta haurren balizko ontasun-gaiztotasunei buruz diharduena. *Txantxangorri kantaria*, izan ere, zapiraindarrek bizi izandako anekdota batzuen bilduma da funtsean, 27 kapitulu dituen eta kapituluz kapituluko egitura ezin xumeagoa duena (27 maila dituen eskailera bat, funtsean!). Esan behar baitzuet,

irakurle, nire hitzaurre hau egiteko lehen asmoa zera izan dela, nobela arreta erabatekoaz irakurtzea —hitzez hitz eta lerroz lerro, paragrafoz paragrafo eta kapituluz kapitulu—, irakurketarekin batera, hitzen arteko hitzik distiratsuenak azpimarratzen nituen bitartean; lerroen arteko lerrorik gogokoenak; paragrafoen arteko paragraforik airosenak, eta kapituluaren arteko kapitulurik biribilenak. Gero, nik azpimarratutako zati horietako batzuk zuri irakurtzera eman, irakurle; zure irakurzaletasunean inbidiaren hazia piztu, hazia zeure burmuinetan leherrarazten ahalegindu... Baina, egiteko horietan ari nintzela, hara zer gertatu zaidan: ia liburu osoa —hitz, lerro, paragrafo, eta kapitulu guztiak, alegia— azpimarratu behar izan dudala! Eta orain, sekula egin ez dudana egin beharko dut, ondorioz: *Txantxangorri kantaria* bera *Txantxangorri kantariaren* hitzaurretzat hartu! Bueno. Soluzio hori ere ez legoke gaizki: ale bakoitzeko bi argitaratu eta bi kobratu, salmentak bikoiztu... eta aupa, mutilak!, ea idazleok ere noizbait aberasten garen...

Erdi txantxetan nabilkizula antzemango zenion, irakurle, baina hara: nobela osoa nobelaren hitzaurretzat hartzea erabaki xeble bezain irrigarria bada ere, esaldi solte batzuk, agian bai, hauta ditzaket, eta zuri eskaini, zizka-mizka batzuen gisan, ea zizka-mizka horiek zure apetitu literarioa piztu, eta liburua begi itxi-ireki batean irensten duzun. Ez zinateke lehenengoa izango...

Baina oraintxe ohartu naiz hitzaurre bakoitzak bere neurria duela: nik, berriz, susmoa dut neurri guztiak hautsi ditudala, eta, beraz, irakurle balizkoen aurrean *ridicoloa* egin baino lehenago, ahantz ditzadan ez hanka ez buru duten ideia itxuragabe hauek, eta eman dezadan hitzaurre hau amaitutzat hemen.

JOAN MARI IRIGOIEN



# TXANTXANGORRI KANTARIA



## TXANTXANGORRI KANTARIA

*Zarrast! Zarrast!* Etxe gaineko aldapa harritsu batean segan ari zen. Ile moztu berriko gizon baten lepondoa bezain berdin eta txukun uzten zituen harkaitz inguruak, albitz<sup>1</sup> ximelak ere arruntean<sup>2</sup> ebakiz. Lekurik erosoena bukatu ondoren, segaren orpo-barrenarekin gainbehera harri ondoetako belar banakak mozten ari zen.

Altzairu eta harri-hots ugari bazerabilen, baina segaren ahoak ez zuen harri-mutur txikienik ere ukituko. Erremintaren berri, gutxi zekiten hark bezain ongi.

Eguna ordurako gainbehera zetorren; eta, hartu zuen saila bukatu nahirik noski, burua jasotzeko ere betarik gabe han ari zen, jo eta jo, gerri makurka. Horregatik, hitz egin nion arte ez ninduen nabaritu ere.

—Arratsalde on, Joxe! Hori da sasoia, hori! Ez al zarete zahar-tzen edo...?

Burua jasoz nor nintzen ezagutu ondoren, segaren eskulekua galtzarpean jarri eta atsedean puska bat hartuz, erantzun zidan:

—Baita hiri ere, Ataño! Ongi etorri! Larri eta arnaska habil! Apusturen bat egin al duk?

—Txerri koskor bat bezala gizentzen ari naiz, Joxe, eta izerdi puska bat ateratzen ote dudan presaka igo bainaiz.

—Gizentzen? Eta argaldu egin nahi? To sega xahar hau. Eman iezaiok honi, aldapa gora eztanda gaizto egiten ibili gabe.

---

<sup>1</sup> Albitz: Lastodunen familiako landarea, hosto luze latzak dituen eta kare gutxi lurretan hazten dena.

Gazt.: lastón. Frants.: foin, plante de la famille des graminées.

<sup>2</sup> Arrunt: Guztiz, zeharo.



Jaitsiko dituk, bai, hire erraldeak<sup>3</sup>. Zer uste huen, bada: jan eta edan oparo eta alferkerian biziz, lirain eta segail<sup>4</sup> irautea? Ez zeukaat nik sobranter handirik!

Eta bertso hau kantatu zidan:

Erraldiak geitzeko  
ez badek gogorik,  
ez daukak zertan utzi  
mokadu goxorik:  
eman akiyok oni,  
sega xar au torik;  
metu ta liraintzeko  
ire gerri lorik,  
botiketan etzegok  
olako pildorik.

—Hori ere bizimodu tristea da, Joxe. Ilunetik ilunera lanpean itoa, eta gaur bezain behartsu bihar eta etzi. Zure urteekin, gainera!

—Halere ez diguzue, bada, esker handirik ematen. Bazirudik denen almazena baserria dela. Honantz datozen gehienak hutsik zetozak, eta beti zer edo zer eraman nahi. Biziko bagara, berriz, jo beharra zeukaagu guk hemen. Ez baitute oraindik guretzat erretirorik asmatu. Kaletik dakarkigun gauza errearen truke zetorrek; gurea, berriz, garestiegi dela-eta, lana zer den ez dakien batek jartzen zioz salneurria. Gu beti galeran. Ongi

---

<sup>3</sup> Erralde: Ganadua pisatzeko erabiltzen den neurria, hamar libarren baliokidea.

<sup>4</sup> Segail: Pertsonen mintzatuz, luzea eta mehea, mami gutxi eta hezur handikoa. [Tarteka, hemen bezala, oin-oharretan ematen dugu hitz baten esanahia. *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Orotariko Euskal Hiztegia* baliatu ditugu horretarako. Kasu gutxi batzuetan, erdal ordaina ere ipini diogu, bai gaztelaniaz [Gazt.] eta bai frantsesez [Frants.].

Liburuaren amaieran, 261-267 orrialdeetan, zerrenda batean jaso ditugu denak.]

gure kopetako izerdiz oratzen diagu, bai, jaten dugun ogia. Zenbait agure bezala ibiltzea ere ez duk niretzat egina. Hirurogei urtetarako, agure gordin askoak, kolperik jo gabe, besteren bizkar jan eta edanez, makila txiki bat eskuan, millonario batzuen gisa, lasai asko paseoan hor zebiltzak. Alferrak alaenak! Gauza den arte lan egin behar dik gizonak. Jainkoak berak ere sei egunean lan egin omen zian; zazpigarrena jai. Egun hori ez duk oraindik niretzat iritsi.

—Eta guk ez dugula lanik egiten uste al duzu?

—Ez iezadak adarrik jo, Ataño! Hire gilbor<sup>5</sup> handi horrek ezetz zio. Zuek urtearen lautatik bat ez duzue lanerako; hiru eta gehiago alferkeriarako, berriz. Lautatik hiru lanpean zerama-tzaagu baserritarrok; atsedenerako bat ez zaiguk iristen, eta itsuek ere ikusten ditek hori. Egunaren hirutatik bat sartzen duzue lanean; bitik gora guk. Zuen lana ez baita txantxetako; leher-tzen baitzarete; eta, jakina, larunbat-arratsaldea ere jai. Igande eta jaiak zer esanik ez, berriz. Gero, ongi pagatutako oporraldia. Kontuak atera itzak, bai, eta, tontoa ez bahaiz, laster igarriko diok ez garela gezurretan ari. Ez zegok guretzat holako mokadu goxorik. Halere, gure gauzen salneurria, alfer horiek jarri behar. Kontzientziarik ere bai al duzue zuek?

—Barkatu, Joxe: gauza horiek utzi ditzagun bazterrera eta batu gaitezen, denean dago prakak bete lan eta. Baina harritzen nauzu. Leku zakar honetan horren garbi eta arruntean ez dakit nola ebaki litekeen. Belar xamurren bat izango da hori?

—Laurogeita lau urte bete-beteak zeuzkaat. Belar zailik ez zegok halere niretzat. Segak aurrean harrapatzen duena, han zihoak ipurdiz gora.

—Laurogeita lau urtetaraino bai? Berrogeita hamarretik gora ezetz jokatuko nizun eta!

---

<sup>5</sup> Gilbor: Sabela.

—Arraioa! Nire semerik zaharrenak ere ondotoz beteak zeuzkak. Norako asmoak dituk?

—Ibilgiro ona dagoen arratsalderoko joera dut nik hau. Kale-zulo horietako ke min horrek ez dit onik egiten.

—Bejondeiala, motel! Orain al hator alarauka?<sup>6</sup> Halako base-  
rri polita utzirik kalera jaitsi eta gero! Han ere txakurrak hanka-  
hutsik, alegia?

—Nire kalerako abian aitaren begiratu triste hartaz oroitze-  
an, urteak dira, baina gaur oraindik ere bihotza korapilatu egiten  
zait. Ongi edo gaizki egiten nuenik ez zidan esan, baina zer pen-  
tsatzen zuen igartzen ez zegoen zaila: Heure buruari bakarrari  
begiratu behar badiok, bahoake, motel! Gure azken urteak go-  
xatzeko, ama eta biok hi hazten ez gaituk alferrik nekatu! Heu-  
rekoia alaena, hoa nire begien aurretik!

Eta ni joan egin nintzen, gurasoak laguntzarik gabe utzita.  
Ongi egin al nuen? Ez, Joxe. Gaizki egin nuen. Seme on batek,  
batez ere kristau denak, hil arte zaindu behar ditu bere gurasoak;  
hil eta gerora ere, haien oroitza beti maite. Ni lasai eta ongi  
bizitzearren, ez daukat nire gurasoak behar gorrian uzteko  
eskubiderik. Nire ihesak haien heriotza aurreratu besterik ez  
zuen egin. Gaur bezala pentsatu izan banu, ez nuen egingo.  
Orain han dago besteren mende halako baserri polita; mendi-  
gain zoragarri horiek ikusi gabe ezin badut etsirik hartu, bihotzak  
damu badu ere, honezkero hala beharko du, ba. Baina gaur,  
beste egiteko denak utzita, zure bila nator, Joxe. Zurekin hitz bi  
egin nahi nituzke.

—Eskerrik asko, motel. Banaizela oroitzea ere ez duk gu-  
txi egin, neskatxa gazteren baten ondoren habilela uste nian  
eta. Hori besterik ez bada, nahi duanean hasi hinteke. Egokiera

---

<sup>6</sup> Alarauka: Oihu ozenak eginez.

hoberik ez duk askotan harrapatuko. Ahal dudana egiteko gupidarik<sup>7</sup> ez zeukaat.

—Lotsa ematen dit aitatzek ere, baina egia biribila izaki. Euskararen bizi-eusle zareten horiek gaur arte egon zarete, bada, horren zokoratuak. Esnatzen hasi ote garen... Itxurak hala dira behintzat. Noizbait behar-eta, bazen ordu. Zure bertso eta bizitzako gorabeheraren batzuk emango ote zenizkidakeen eskean natorkizu, Joxe.

—*Zokoratuak* diok? Horixe bai gezur biribila dela! Nire larruan bizi bahintz, ez huke hori esango. Hankapean, makilaka, astaputz<sup>8</sup> batzuk bezala, barregarri ibili gaituzue, eta zokoratuak egon garela, alazankoa?<sup>9</sup> Bejondeiala, motel! Hik jotzen diguk Astigarraga aldetik!<sup>10</sup>

Nire bizitzaren berri ikasi nahi al huke orain? Ondo isil eta ilunpean bizi izan gaituk. Halere, bake handirik ez zigutek eman, ez. Gaur inon ezin kabitu eta ezin egon den jende berri honi nire isileko bitzta honek ez zio argi askorik egingo. Bizimodua ateratzeko, leku gutxi aski izan diat nik.

Paperetan jarritako bertsoak nahi badituk, berriz, hor dituk nonbait. Erretereriako *Bertsolariyan*<sup>11</sup> atereak ere bakarren batzuek izan behar ditek. Aisa bilatu dezakek horien aztarrena. Oraintxe urte batzuk ere, beste liburu txiki bat atera zidatean, baina ez bertso guztiak; eta ez nik bidali bezala ere: komeni ez zitzaien lekuan aldaketa barregarri batzuk eginda; besteak zeharo kendu, berriz. Bertso-sail osoak galdu nitian betiko, ez bainituen nik ordezekoak etxean gorde. Horiek egin dutena guk

---

<sup>7</sup> Gupida: Errukia.

<sup>8</sup> Astaputz: Astakirtena, ergela.

<sup>9</sup> Alazankoa: Alajainkoa.

<sup>10</sup> Astigarraga aldetik jo: Adarra jo.

<sup>11</sup> *Bertsolaria*: Bertso-aldizkaria, Erretererian 1931-1932an argitaratu zena.

esatea ere zilegi ez. Baina, bat-batean aurrez aurre kantatutako bertsoak liburu batean baleude, gazte eta indartsua bahaiz ere, ez hioke lurrari kenduko<sup>12</sup>. Mingainetik atera ahalean haizeak eramán zitian; harrapa itzak orain! Idazten ere ez baikenuen ikasi. Hemendik Ameriketaraino argindarra jartzeko adina *palo-palo* egina nauk ni. Horretantxe joan zitudan nire eskolako urte aleak. «Tontoa zinelako!» esango ditek askok. Behartu izan nauten lanetan, inoren atzetik ibiltzeko ez nauk ona izan. Nire aurrean ez zuan beti giro. Begira iezaioak, bestela, ea laurogeita lau urteko aitona baten sega-modua den hau. Bertsotan, lasterka eta segan, hiru akzio horietara neurtzekotan, laurogeita lau urteko aitona kaskazuririk bada inon, nahi duena eta nahi duenean datorrela. Gipuzkoa guztiko erronka botea zegok; bandoa ere jo ezak, nahi baduk.

Gizon txiki bat, gantz eta koipe-kutsurik gabea, zaina eta gia<sup>13</sup> besterik ez daukana; gitarraren lokarriak bezain tiran, eten zori, bere lepoko zainak; baina haren bihotzak bazeukan kemena. Ume bat bezain zalu<sup>14</sup>; diz-diz zegioten begiek; haren ibilera eta imintzioek hamalau urteko gazte batenak ziruditen. Holakoxea da Joxe bertsolaria gorputzez; lan hau bukatzerako, zerorrek ezagutuko duzu zenbaterainokoa zen espiritua.

Uhal batetik gerrian zintzilik zeukan sega-potoaren gainean jarri zuen sega, bi behatzekin ahoa garbituz; arin-arin eragin ondoren, sartu zuen arraitza<sup>15</sup> bere lekuan; orpoz bota zuen

---

<sup>12</sup> Lurrari kendu: Berez, "harria lurrari kendu" da esaera, eta harri-apustuétan erabili ohi da, norbaitek harria lurretik ezertxo ere jasotzen ez duenean. Pasarte honetan, bertso-apustuaz ari da Joxe, eta esan nahi du laguna bertsoetan ez litzatekeela hasteko ere gai izango.

<sup>13</sup> Gia: Okelaren zaina; okela biltzen duen mintza.

<sup>14</sup> Zalu: Arina, malgua.

<sup>15</sup> Arraitz: Segarria (sega zorrozteko harria).

sega, altzairu-hots bizi bat beraizik<sup>16</sup> ere atereaz, eta han hasi zen, nire aurrean bertan, belar ebakitzen. Bide puska batean jarraitu ondoren, sega belarpean sartuta utzirik, nire aldera itzuliz hala esan zidan:

—Honenbeste urterekin horren zalu nagoenean, zer ote nintzen ni gaztetan?

Eta, erdi barrez, erdi serio, bertso hau kantatu zidan:

Nere denboran egiña naiz ni  
majiña bat aztarrika,  
txiki xamarra izanagatik  
etzait palta indarrika;  
munduan bada larogei ta lau  
urtez gorako zarrika,  
desapiyua egiten diyet  
sega, bertso ta korrika;  
nolanaikua etzan izango  
ni sortu niñun paurrika.

Ni zer erantzun ez nekiela ikusi ninduenean, alai barreari eman zion berehala, berean jarraituz:

—«Hauxe duk aguretxoa! Zertaz ote dauka honek bere bu-rua?» esango duk, noski. Zer nahi huke, bada? Holakoxeak egin gaitik Jainkoak, eta ni beti umore onaren aldekoa nauk. Negarrez ere aspertuxea bainago.

Gero, serio jarritz, sega bere eskuetan hartuta, jarraitu zuen hizketan:

—Oraingo zenbait gaztek ez zekiat, motel, kortsea darama-ten eta burruntziren bat irentsi duten. Ezin ditek gerririk bigundu;

---

<sup>16</sup> Beraizik: Berariaz, nahita, propio.

segarako, berriz, bigundu beharra zegok. Arraizten<sup>17</sup> ere inork ez ziek erakutsi; berek ikasteko ahalgorik ez ditek izan, berriz. Hasi orduko, zizel-muturra zirudik horien segaren ahoak. Pika-tzeko aitzakiatan, itzalera gero. Orduak eta orduak pikaldi batekin irauteko, onak zeudek horiek. Hasieran bai: bazirudik belaze guztia gosaltzeko ere ez dutela. Ordu-erdirako, tomatea baino gorriago jarriko zaizkiguk, eta kito. Hankapetik ezin kendu. Akuiluarekin zirikatuta ere, ez litekek pausorik emango. Basarana bezain beltz-berde izango nauk ni; baina horiek ez bezalako iraupena zeukaat. Tabernan erronkak jotzea balitz, orduan bai: ni bezalako hamar ikusteko ere ez litizketek. Lanak erakusten, ordea, nor nor garen! Xentero! Garai batean harrapatu behar nik horiek aurrean! Hankak moztuko ez banizkie, atzera pasa beharko zitean, bai; agudo asko, gainera. Horiek esango zigutek gero, aurpegira guri, lehengo zaharrek lanean ez genekiela. Gaur bertan ere, nire aurrean harrapatuko banitu, baten batzuek gaizki ibili beharko litekek.

—Bejondeizula, Joxe! Zerorrek aurea hartu didazu; horixe galdetu nahi nizun: lehengo zaharrak gaurko gazteak adina bazirela, eta oraingo aurrerapenik gabe lan bikain askoak egin zizkigutela; sendi zoragarriak hazi ere bai iskanbila handirik gabe; iritsi ziren lekuan beren bertso eta ateraldiekin, umore on ugari zabalduz, gainera. Horixe azalarazi nahi nuke: zahartzaroan, indarrak ahitu eta bat ahuldu denean, exkaxa dela-eta zokoratztea erraz da.

Begiratu zorrotz bat egin zidan, ondoren esanez:

—Ni zirikatzen al hator? Liburutxoak egin eta salduz txanpona poliki ateratzen duala entzun diat, bai. Holako dohainik ez zeukaat nik; ez bainuen idazten ere ikasi. Semeak bai; nik asma-tutako bertso mordoxka polita jarri zidaan paperean; haiek ere,

---

<sup>17</sup> Arraiztu: Arraitzez sega zorrotzu.

zoritarrez, leihoan zeuden lekutik haizeak eramanda, behien azpiak egiteko izan zituan.

Eskatzen didaan hau inoren onerako bada, bihoa. Ai, baina errukarri haut. Aitona gizajo honen bizkar jolas eta barre eginaraziz txanponak irabazi nahi badituk, har bihurtuko ahal zaizkik denak! Jakinaren ganean jartzen haut, gainera, nire burutik ateratzen diren bertsorik gaiztoenak hiretzat izango direla. Ni hil eta gero argitaratuko bahu, berriz —diruarengatik horixe ere egingo genikek euskaldunok—, semeak hor geratuko zaizkidak; zeinek hortzak erakutsi ez zaik faltako.

Urtetxo batzuetan bizi al gaituk, izan ere. Lanpetik burua ezin jasorik dabilen baserritar gizajoa, euskaldun garbia delako, denen jostailu eta barregarri hor dabilkizue. Pertsona ez balitz bezala edozer bihurrikeria egin ondoren, eraman handikoa delako, «¡Es casero!» esanda egina zegok. Inongo paper zikin, antzerki edo zirkutan, baserritar galtzipurdi<sup>18</sup> gizajoren bat, gilbor handi, pipermorrozko sudur gorri, gerrikoa arrastaka, adabaki desberdinez osatutako galtza zaharrekin, erdara mordoiloan hitz eginez, ez baduzue azaltzen, jaiak gezak direla, ez dutela graziaz diozue. Euskal Herrian bere lekuan zein dago: euskotar euskalduna edo euskotar erdalduna? Zergatik orduan horien bizkar ez duzue irririk egin nahi? Kalkuak alaenak zuek! Ama beraren semeak ez ote gara, bada, denok? Hark erakutsitako hizkuntzan ari gaituk gu; horiek ez; halere, gu barregarriak. Nork bere hizkera dabilenak merezi al du holakorik? Hamaika iseka gaizto egin diguzue behintzat. Geron<sup>19</sup> buruak barregarri jartzen ari gaituk. Berriz ere egongo gaituk gauden lekuan! Euskalduna ez duk, ezertan ere, horiek baino exkaxago.

---

<sup>18</sup> Galtzipurdi: Gizon ezereza.

<sup>19</sup> Geron: Geure.



Nahi duzuen esan eta egizue, guregatik axola handirik ez dizute behintzat eta; baina agure kaskazuri honek lehengo lepotik zeukak burua. Sartu den jende berri honen eder egitearren, ez diat nire nortasunik saldu; diru eta losintzek ez ditek nire bihotzik usteldu; nire guraso maite haiek erakutsitakorik ez diat ukatu; lurpean sartzen nauten arte ere ez nauk isilduko. Zaharrok joan ahalean euskara ere bazoak. Euskaldun erdaltzale horiek ez duzue errurik txikiena izango.

—Ez duzu arrazoi makala. Dirua bitarteko denean, euskalduna ez da euskaldun. Hain diruzaleak al gara, izan ere, gu. Esnatzen hasi ote garen... Galdu genuen bidea aurkitu ote dugun berriro... Hala dirudi. Gainontzean, nik akzio txarrik egiteko beldurrik ez eduki; irabazi bila ere ez nabil. Euskarak dakarkidan irabaziekin, praka berri asko ez dugu egingo. Maitasunak bakar-bakarrik narabil ni horrela. Gaurko egunari berea eman diozu honezkero, eta kezka gaizto horiek bota itzazu behin betiko, bai, eta eseri gaitezen hemen, eguzkiaren azken laztan epel eta iparhaize arin eta maitale honen intzirira. Zure bertso eta bizitzako gorabeheraren batzuk emazkidazu mesedez.

—Nire bizitzako berri jakin nahi al huke? Ez didak gutxi eskatzen, motel! Ez baitira denak bart arratseko kontuak. Nire burua ere nekatuxea zegok. Gertakari asko, buruko ganbara-zokoetan traste artean galduak. Ilunpean dauden zatar zaharrak hegora airatzea ez duk askotan komeni, berriz, eta badakik norberak bere buruaren alde egiten duela.

Solasean ari ginen lekutik gainbehera, beheko sakonean, ke jario, ikusten genuen hainbeste maite zuen bere baserri zahar hura. Ordurako, itzalak, ezkoa<sup>20</sup> isuriz, zokoak menderatzen ari zituen. Gu halako patxadan ikusita, noski, aldameneko meta-

---

<sup>20</sup> Ezkoa: Hezetasuna.

ziri-muturrean kantari hasi zitzaigun txantxangorria. Entzun zuen orduko, bertsolaria izaki, irribarrez hala esan zidan:

—Hona nekazariaren laguna den txantxangorri maitea! Horixe nauk ni: txantxangorri kantaria. Horrexek zeramak nire antzeko bizitza. Urte-giro guztietan kantatzen duen beste txoririk ez duk. Hotz eta bero, udara eta negu, gose eta egarri, zorion eta zoritxar, txantxangorria kantari sumatuko duk. Bertsolari bat bezala. Ni holakoxea nauk behintzat.

Neguaeren arnasa izoztuak epeltzen hasten direnean, eta mendiak txapel zuria erantzita berdea janzten, txantxangorria, txukun, lirain eta apaina, atariko garo-metaren gainean kantari sumatuko duk, goizean, eguarterean, eguerdian, arratsaldean, ilunabarrean, berdin beti, habia egiteko garaia baitu eta inguruan han baitarabilkio maitea.

Udaberri, urte-giro goxoa duk hori gaztearentzat. Niretzat hala zuan behinik behin: lagun on baten bila hasi behar nuen garaia. Orduan isilik egon? Ametsetan ere bertsotan aritzen ninduan noski ni. Orduko nire lagunei galde iezaiek, oraindik bat edo beste bizi dituk eta. Haiek esango ditek nolakoa nintzen ni: atsegina, alaia, ezin egona. Nire bertsolari-garra gauzarik txikienak pitzarazten zian; bihotza maitasunaren mende baineukan, eta zeukanetik isuri behar.

Orduko bertsorik ez nian bat bakarrik jaso; denak hor galdu dituk nonbait.

Udarako bero zapalak hasten direnean, eta eguzkia bazterrak kiskaltzen, txantxangorria ere moteldu egiten duk; baina, erne bahago, goiz eta arratsetan beti kantari sumatuko duk.

Nik ere kantatzen nian, ez lehen bezain maiz, ez bainintzen txantxangorria bezain aske geratu. Maitea etxeratu nian, eta habia ere betetzen han neukaan nahiko lana; maitasuna ere, kanpora isuri beharrean, etxe-zuloan bertan asetzen baitzen. Garai horretako bertoak badituk nonbait.

Udazkenean, gauzak urritzen hasten direnean, udarako aukerak ekarri zituen txori betizu<sup>21</sup> guztiek alde egiten ditek; ez txantxangorriak. Hau orduan ere kantari sumatuko duk. Ezinean beharbada, baina ez dik bere lurrik utziko; hemengo eskeraren<sup>22</sup> edo lubakiren batean sortuko zuan, eta bizia hemen utziko dik.

Hamaika larrialdi ibili ditiat. Dena zegoen lekuan utzita alde egiteko hamaika zirikaldi<sup>23</sup> ere bai. Baina nora joan? Heurea duan lurrean ezin bahaiz bizi, besterenaren bila abiatu? Urruneko in-txaurrek ez naitek lausotu. Luze eta gaiztoa izan duk nire udazkenea. Bihotza lehortzerainoko erasoek zapaldu naitek; baina, halere, nire bertso-jariorik ez duk agortu. Aberats etxeetan jaten diren txangurru, angula, izokin eta haragi-xerren irrikan ez nauk bizi. Han behean dakusagun etxe txiki txukun hura duk nire sortetxea, eta laurogeita lau urte hauetan hantxe bizi nauk. Jainkoak nahi dezala bizia ere bertan uztea. Bizi diren nire bertsorik gehienak garai honetakoak dituk.

Neguan, berriz, zenbat erruki ez dit ematen txantxangorriak! Bular gorri hura puztuta, zer janik ezin bilaturik, lehorpe eta ukuiluetan barrena, zenbatek ez du katu- eta txori-arteetan<sup>24</sup> beren bizia uzten! Zizare-buztan bat bilatzen badu, huraxe aski dik, epel pixar bat nabaritu orduko kantari hasteko. Datorrenari aurpegi emanik, bere lurrean hilko duk.

Nire negua ere hurbil duk oraintxe. Lehenengo egunak joanak dituk, noski. Laster banoala eta isilik egon? Ez, motel, ez!

---

<sup>21</sup> Betizu: Zaputza, jendearen lagunarteari ihes egiten diona.

<sup>22</sup> Eskera: «Hitz honek txikitako oroitzapen asko dakarzkiz gogora. Nola ibiltzen ginen Bordaxar inguru hauetakako baso, sasi eta sastraka artean oilagorretan eta. Eta nola aitak hitz hau erabiltzen zuen zer izendatzeko eta hemengo hurritz, erramu, elorri, sastraka, sasi edo otez egindako itxitura, askotan lubaki eta lur-sailen muga eratzen zuena.» [Iñaki Zapirain Olaziregi, Erreterria, 1961].

<sup>23</sup> Zirikaldi: Tentaldia.

<sup>24</sup> Arte: Animaliak harrapatzeko tresna; tranpa.

Nabilen lekuan kantari sumatuko nauk azkena jo arte, nahi duenean datorrela. Baina ez diat idazteko asmorik.

Txantxangorriak bere habia asko maite badu, ai motel!, euskara eta Euskal Herria nik baino gehiago maite duenen bat aurkitu ote liteke gero?

Bai, horixe nauk ni: meta gainean kantari ari den horixe, txantxangorri kantaria. Urretxindor izateraino ez bainaiz iritsi, baina Jainkoak ematen didanarekin laket<sup>25</sup>. Zetozkidan bezala gauzak hartuz, denei bihotz ona zabalduz, negarrez edo barrez, urte-giro guztietan kantari.

Irabazi gehiegiaren atzetik ere ez nauk ibili. Sardinzar baten faltarik ez duk izan gure sukaldean, eta huraxe aski zuan niretzat. Munduko milioi guztiak baino nahiago diat nik bihotz otxan, apal, atsegin eta goxo bat aldamenean. Honek beti poztuko hau; haiek, kezka besterik ez ditek emango.

Grazia gutxiko kantaria bada ere, lan aspergarriren batean bakarrik ari naizela, *plust!*, bere papar gorri hura erakutsiz, aurreko hurriz baten zipotz<sup>26</sup> gainean ezeren kezkarik gabe kantari nabaritzeak beti lasaitu izan naik. Horrek berezkoa dik hori; horrek daukana ematen ziguk. Horien kontua daukan Jainkoak gurerik ez ote du edukiko?

Gure Jainkoak bere nahi hutsez eman didan bertsotarako erraztasun hau ere, gehienetan behintzat, lagun hurkoaren onerako erabili diat. Hamaika taberna-zulo, herriko jai, hamaika hiletatan ere lagun hurkoen bihotz saminduak alaitzen ahalegionak egin ditiat. Bertso batzuk kantatuz, zenbat barruko nahigabe isil ez ditut arindu! Lehertuko ez banaiz, inork entzun edo ez entzun, nik kantatu beharra zeukaat. Hori, nire arnasa bezala, berez datorrena duk.

---

<sup>25</sup> Laket: Gustura.

<sup>26</sup> Zipotz: Ziria.

Baina jaio eta orain arteko bidean hainbeste lokatz-zulotan zikindu banaiz ere, beti artizarraren<sup>27</sup> argira nabilek; bataioan Jainkoak itsatsi zidan sinesmenaren argira. Zamapean ez lehertzez geroz, zerbaiten beharra banian.

Txantxangorria ondo isil eta bakean bizi duk gaixoa; eta, inori saririk eskatu gabe, denak poztearren kantatzen dik. Hark ere, ordea, etsai gaiztoak izaki, eta haien atzaparretan erortzen duk askotan.

Ondo isil eta ilunpean bizi izan nauk ni ere. Ez zidatek bake handirik eman halere. Idatz ezak bai, Ataño, liburu hau! Ez niregatik; nireak egin dik oraintxe. Bizi izan naizen bezala, isil eta ilunpean alde egin nahi diat hemendik. Ondoren datozen gazte horiek esnatzearren idatz ezak, bai, Ataño! Zoriontsu bizi behar nuena, gudate madarikatu horiek ilundu ditiztek nire bizi-tza honetako egunak. Eraso batetik burua jaso orduko, bestea gainean. Holaxe joan dituk nire laurogeita lau urteak. Erbeste honetan lau egun igaro behar eta besteren erruz negarrez, beti anaiak elkar hiltzen. «Gudazale madarikatuak!» maiz aski esaten zian nire aita zenak, eta «Gudazale madarikatuak!» izan dadila nire mundu honetako azken irrintzia ere.

Gazteak: maite zaitetze eta ez elkar hiltzen ibili, maitagarria baita bizia.

Hi bezain liburu-egile ona banintz, *Txantxangorri kantaria* izenarekin bataiatuko nitek liburutxo hau.

---

<sup>27</sup> Artizar: Egunsentian edo ilunabarrean Eguzkiaren inguruan ikus daitekeen argizagia.

Gazt.: Venus. Frants.: Vénus.

## BORDAXAR

Txantxangorri kantariak badik bere habia. Asko maite duena, gainera. Hobeak, erosoagoak, atseginagoak ere, beharbada, gehienak izango dituk. Baina hori duk nirea, eta ez zeukaat salzeko. Bere ama, eder eta aberats ez delako, zapuzten duen semea, ezin genezakek semetzat eduki. Bere aberri, sorterri eta jaio eta bizi izan zen sehaska goxoa maite ez dituen, niretzat ez duk gizona. Behean, ketan daukagun hori duk txantxangorri kantariaren habia. Ahoa ez ezik, bihotza ere bete-bete egiten didan Bordaxar.

Maitaleak ezin dik maiterik ahaztu. Txantxangorri kantariak ez dik Bordaxarrik ahaztuko.

Nireak kontatzen hasi baino lehen, habiaz hitz batzuk esatea, zer deritzok, Ataño?

—Nire iritziz, beharrezkoa dela. Bota dakizuna!

—Garai batean, Jainkoak zekik noiz, ikazkinen txabola txar bat omen zuan hori, baso itsu baten erdian jaso. Hortik Antxo aldera, mandabide<sup>28</sup> zakar bat ebaki zitean lehenengo. Hor egiten zitiztean beren txondorrak; ikatza ere bai, jakina, eta mandoz Antxo aldera atera gero. Poliki-poliki, arian-arian, tokirik erosoan jan zituztenean, garbitu zitean sakon hori dena. Errazenak ebaki eta akitu zituztenean, beste nonbaitera joan zituan hortik. Aurreko hegal horiek denak, nire gaztaroan ikaztu zitiztean. Ametz ederrik bazuan hortxe. Itzalik ez zeukan sakon horretan, esan beharrik ez zegok belarra mardul eta ugari etorriko zela. Artzainen batek laster joko zian begiz sakon babes ordeka xamarra eta hezea zela, artalde batentzako aukerakoa. Lehengo txabola xaharra handitu, berritu, eta hor moldatu zian bere eta artaldearen lekua, lehengo txabola xaharrari *Borda* izena jarriz.

---

<sup>28</sup> Mandabide: Mando-bidea; mandazainek-eta mandoekin erabiltzen zuten bidea.

Ondoren etorri zituan diruzaleak eta dirua zutenak; negozio-ko gizonak, alegia. Dirua zutenez gero, lehengo borda koskorra handitu. Dena bertako gauza. Ez zian garraio ibili beharrik. Harri eta zuhaitz faltarik ez zuan bertan. Inorenak ez ziren barrutiak, beretzat hartu. *Bordaxar* izen berria jarri eta bi bizitzatan bereizi; bi bizitza kaskar, ondo kaskarrak halere. Horra bi sendiren lekua moldatu.

Orduan ere, orain bezala, ezkonduko zituan noski, eta gai-xoak han sartuko zituan maizter. Negozio-ko gizonak, haien etxe-premia ikusirik, etxegintza kosta zitzaion baino errenta handiagoa jarriko ziean, urtero ordaintzekotan; eta lasai han joango zuan herri handiren batera, maizterren bizkar bizitzeko asmoan. Urtero-urtero berak jarri zuen halako bi kobratuz, bapo gure aberatsa. Berea kobratuz gainera, jarri zuen diru pixarra gora eta gora; baserrian baseritarrak egiten zuen aurrerapen guztia nagusiarentzat baitzen. Horra nekazariaren izerdia: mando batek adina lan eginda bizi zela, jan, jantzi eta aterpea bazuela, gaur bezain behartsu bihar.

Lehen zeukana, kolperik jo gabe hazi eta hazi; ez zeukana, berriz, ito ez besteak egin eta behin ere gorakorik ez. Bideren bat egiten bazuen, nagusiarena zuan; luberriren<sup>29</sup> bat ateratzen bazuen, nagusiarena zuan; zuhaitzen batzuk aldatzen bazituen, berdin.

Hauek denak eginagatik, etxetik bidaltzeko beldurrak, beti erregaliaren batzuekin, losintxaz, agurka, buru-makurka, nagusiaren eder nola egin ezin asmatuz. Gaur arte, holaxe zapalduak bizi izan gaituk nekazariok. Izaina<sup>30</sup> beti gure odolak edaten.

---

<sup>29</sup> Luberri: Zuhaitzak, zuhaixkak, otea, iratzea eta sasiak kenduz, lantzeko prestatu den lurra.

<sup>30</sup> Izain: Zizare mota xurgatzailea, ur gezetan bizi dena eta gorputzetik odola ateratzeko erabiltzen zena.

Gazt.: sanguijuela. Frants.: sangsue.





Gure baserri xahar hau behinik behin ez duk oraintxekoa izango. Diotenez, San Inazio Paristik etxera etorri zenean, hemen hartu omen zian atsedean. Errenteriako Galtzarabordatik Bordaxarrera, hemendik Konkorrenera, ez zuan bide-laster eroso. Berak jakingo zian zergatik egin zuen hori.

Gure abizeneko lehengo zaharrak noiz sartu ziren hemen, ziur esateko ez zekiat nik. Udaletxean jakingo ditek, noski.

Goiko harrobi handi hori indarrez kendu zigutenean, horko garbitasunak egitera joan zen batean, hala esan omen ziotean semeari:

—Ez zarete oraintxe-oraintxe sartuak etxe horretara zuek! Zuen berrehun urtez gorako arrastoak bazeudek hemen!

Berrehun urte horietan, zentimorik bota gabe eta buruhauste handirik gabe, jaso eta jaso aritu izan dituk nekazariaren izerditik aberatsak. Etxe-konpontze guztia, maizterraren bizkar. Etxea salgai jarri gero; lehen ere ederki kobratua zeukak bere balioa.

Gudatean, lanerako inor gutxi gintuan; baina negu partean ez genitian nolanhiko lanak egin.

Aitzondoko Joxe Martin, goian bego, oraindik sasoiko gizona —ezbehar batek eraman zian mundu honetatik—, oso langile artetsua zuan. Hark lagunduz, dotore jarri genian etxe-barrua. Bi sukalde zituena, zaharra bota; bi ukuilu zituena, bateratu. Bi bizitzak bereizten zituen erdiko horma lodi horretan, hamar zulo egin eta antolatu genitian behien ganbelak<sup>31</sup>; eta bi bizitzatan bizi ginenak, denak batera pasa eta ukuilua bestera. Jainkoak bestek ez zekik guk han zer lanak egin genituen. Nahi eta nahi ez egin beharra baitzegoen. Haren barruan, bestela, ez baitzegoen bizitzerik ere.

Gudate ondoren, ordea, dirua lur jota geratu zuan. Nagusiak, berriz, Frantzian bizi baitzen, ez zeukaan baserri hauekin

---

<sup>31</sup> Ganbela: Aska.

negoziorik, eta denak subastan ateratzea pentsatu zian. Horretarako, zenbatean jarri behar zuten, ikusleak etorri zituan. Hain etxe ederra ikusi zutenean, txoraturik geratu zituan. Erosi nahi bagenuen, gu ginela lehenengoak, eta laurehun milatik gorago-ko eskainia egin zigutean. Guk ez geniean erdirik ere eskaini.

Etxeko aurrerapen guztia gurea zela, guk egina; ez bazen eroriko, nahi eta nahi ez berritu beharrean aurkitu ginela esan genionean:

—Etxea nirea da, eta nire etxean egindako aurrerapenak nireak dira! —erantzun zigan.

Hori ere legea izango duk: guk jarri genuen dirua eta egin genuen lana harena zela eta hari ordaindu behar geniola, etxerik erostez geroz.

Donostiako *Falanger*a jo zitean orduan semeek; haiek baitzeukat indarra. Haiek ere oso-osorik nagusiari eman ziotean arrazoi. Handiak denean zeuzkak helduleku onak. Ez gaituk, ordea, gu ere atzera geratzeko eginak; haien ateari jarri genioan maratila.

Etxea harena zuan, jakina; barruti batzuk ere bai, baina ez denak. Erostenak eta onenak nireak zituan. Etortzen ziren erostun guztiak, hemen ez zegoela ezertan hasterik, ez, eta joaten zituan.

Geuk lehenbizi eskainitakoa baino ere gutxiago ordainduta egin gintuan etxearen jabe. Ordurako ederki ordaindua zegoan etxe horren balioa.

Ederki kostata egin zuan, bai, txantxangorri kantaria bere habiaren jabe. Jaunari eskerrak, gaur dena nirea duk.



## JAIO ETA LEHENENGO URTEAK

—Orain itzalak hartzen ari duen beheko etxe xahar honetan sortu ninduan ni, eta mila zortziehun eta hirurogeita hamahiruan argira azaldu. Ez zekiat etxean edo kanpoan; ez zidatean gurasoek esan. Nolanahi dela ere, ez zebiltzaan gaixoak ondo; gudatea bete-betea baitzebilien.

Gure aberri maite honetara, elkarri txanda ezin harturik zetozak ezbeharrak. Orduan ere ez geundean bakean, ez, gu. Nire guraso maiteek poz hainbat nahigabe bazerabiltean. Etxe guztia soldaduz bete edukitzen baitzuten. Egundo bukatuko ez den seta hori, azkeneko *zurien* eta *beltzen* auzia bete-betea zebilela etorri bainintzen ni mundura. Izan ere, xelebrea gaituk euskaldunok. Zerikusirik ez daukagun arazo denetan sartzen baikara. Zer axola ziguan guri, hau edo hura Madrilan errege jarri edo ez jarri? Bat bestea baino hobea izango zela guretzat? Bazitekean, baina biak zapaltzaile.

Azkenean, euskaldun gizajook etsaiari salduz, Judasena egin zitean. Bi alderdiek, elkar besarkatuz, bat egin zitean. Gure askatasun pixarrak kentzeko pozez zebiltzanek ez zitean aitzakia txarra izan, armiarmak eulia bezala betiko lotuta uzteko. Larrugorrian bizi gaituk geroztik.

Etxea gudariz bete zegoela etorri ninduan ni mundura. Horregatik, ez zekiat etxean edo kanpoan jaio nintzen. Gudari bihotz-gogortu haien artean ez baitzen atsegin izango.

Nire aitajaun zenak zenbat aldiz ez zidan kontatu nire bataiorakoan gertatu zitzaiena. Beltzek, Donostia, Altza-gain eta Errenteriako inguru hori guztia beren esku zeukatean. San Markos eta Txoritokieta, aurreko bi mendi lehor horiek, berriz, zurien mende zeudean. Gure baserri inguru horietan iskanbila larrian ibiltzen zituari goikoak eta behekoak elkarrekin. Itsasoa harkaitzari

zaplaka aritzen den bezalaxe, bi suren erdian baitzegoen gure etxea. Orduan ere erasotzera zetozen beltzekin topo egin omen zitean bidean. Haiei lekua uzteko baztertu zirenean, haien buru egiten zuen mikelete bibote-handi batek, fidagaitz xamar, zorrotz galdetu omen ziean:

—Zer daramazue hor?

Haiek, berriz, Ama Birjinak Herodesen soldaduei bezala:

—Haurra, jauna —erantzun omen ziotean.

Mikeleteak ez ziean sinistuko, noski:

—Ikustagun! Ikustagun!

Eta, ni ikustera joan zenean, ez zekiat zer aurpegi jarriko nuen. Amandreari begiratuz eta erdi barrez, hala esan omen zioan:

—Dagoeneko, karlista amorratua duzue hau. Bere begi itsuekin, usainera ezagutu nau ez naizela bere aldekoa; mingaina aterata, iseka egin dit.

Nirekin zihoazenek, barre eginez, erantzun omen ziotean:

—Kristau zintzo eta euskaldun jatorra izan dadila, bai, eta hor konpon zuri eta beltzak!

—Karlidak aurrean bidaliz, San Markos gain horretan hamai-ketakoa egin baietz gaur!

—Bai, zuen betiko leloa! —esanda, aurrera jarraitu omen ziotean nirekin. Beltzek ere bai beren bidean gora, oihuka eta irrintzika.

Harkaitz txiki gain horretan zeukatean zurietakoek beren guardia aurrelaria. Etsaiak harkaitz artetik gora nabaritu zitue-nean, sutu ziean gainbehera, beltzak hurbil zirela goikoei adieraziz; eta, ahal zuen bezala, mendiaren haranzko aiekara<sup>32</sup> ihes egin zian. Ez zeukaan, ez, ihesbide erraza, bi suren erdian hartzen baitzuten.

---

<sup>32</sup> Aieka: Aldea, alderdia.

—Guardiako txakurrak zaunkaka ihesi zoazak! Gaurko hamaiketako San Markosen egin baietz!

Irrintzika hasi omen zitean beltzek sua. Gure etxeokak, jakina, dena zegoen bezala utzi eta etxe-zulora, baten bat gailentzen zen arte.

Bataiotik etxerakoan, dena isil; ez omen zuan kinkiorik<sup>33</sup> ere. Bide-bazterretik San Markos aldera begiratuz, hala esan omen zioan nire aitajaun zenak amandre zenari:

—Gaur ere gure beltz gizagaixoei kukuak oker jo die. Goiko mendian lehengo ikurrin zaharra dabil dantzan. Hamaiketako hoztuko zitzaien.

Ihesari eman ziotenean, goikoak hurbil xamar izango zitiztean, nonbait; eta, hil eta elbarrituak biltzeko betarik hartu gabe, irrintzika igo zirenak aldapan behera itsumustuan eta larri sartu omen zituan Donostia xaharrera, San Markos gainean zeukaten hamaiketakoaz ahaztuta. Orduko balak ere sartu egiten baitziren.

Etxe-azpi aldetik, harkaitz txiki gain honetan, zabalgunek bat baduk, *Kanaleko goiko txabala* deritzana. Bala galduren batek jota, hor geratu zuan mikelete bat, zulo txiki batera erorita, ezin joanik, hilzori.

Hark ere, bere herioan, adierazi nahirik noski bere egoera triste hura, inoizka sutzen omen zitian tiroren batzuk. Batek behinik behin, sukaldeko leihoko markoa zulatuta, bataiotik ekarri eta oraindik amandrearen besoetan nengoela, honi bularrean harramaxka bat eginik, nire burua joko ez joko igaro eta aurreko horman ziplatuta<sup>34</sup> geratu omen zuan bala. Zenbaitek adinakoa izan banu, garbitzen naik bertan. Tiroan ia bi txori. Gaur oraindik bala-zulo hura han zegok leihoan.

---

<sup>33</sup> Kinkio: Hotsa.

<sup>34</sup> Ziplatatu: Sartu.

Izutuak geratu omen zituan denak. Aita zenak esan ere bai orduan:

—Ai, seme, seme! Odolezko bataioa ere ez huen urruti! Niri ez ezik, hiri ere gudateek ez ditek on handirik ekarriko!

Ez zian gezurra esan. Gudate horien zipriztinek ederki asko igurtzi naitek geroztik. Nire saminaldian maiz aski esan ere bai neure buruari:

—Hobe huen orduan bala txar hark hil bahindu! Jainkoaren aingeru, honenbeste neke gabe biziko hintzen betiko zorionean; eta orain nola bukatuko duan ez jakinki, gainera.

Nire bataioko bazkari-legea egitera zihoazaan. Hura handik tiroka ari zela arrisku txarra baitzeukaten, dena zegoen bezala utzita, gazteak, nire aitajaun zena ere bai, mendira atera omen zituan. Odolusten, ia azkenetan, harrapatu zitean. Bataiorakoan niri begira-begira egon zen mikelete bibote-handi hura omen zuan. Berehala elkar ezagutu omen zitean, eta aitajaunari bake-bakean eskua luzatu ere bai; eta, bien eskuak bat eginik, denek batera *Nere Jesukristo Jauna* errezatu omen zitean. Eskerrak eman nahi zituen itxuran, irribarrez, gazte haien besoetan eman omen zian bizia. Gorroto handi gabe zebilean hura ere gudan. Bertan zuloa egin, lurra eman, zurezko gurutzetxo bat aihenez<sup>35</sup> lotua gainean jarri, aitagure bana esan eta lasai-lasai bazkaldu omen zitean. Gaur oraindik bilatuko nitizkek bere hezurak. Izen handiko gizona omen zuan; mikelete Arandia edo hortatsuko izenekoa.

Hainbeste urtean, itxuragabeko gudate odoltsu hark leporaino ase eta nazkatua zeukan jendea. Udara aldean behinik behin, gudari bat ikusi gabe asteak igaro ondoren, gutxiena uste zen orduan azaltzen zituan zuriak edo beltzak, harrapatzen

---

<sup>35</sup> Aihen: Beste landare batean edo zernahi gauzatan kiribildurik hazten den landare kimua.

zutena berekin eramanez, baita mutil sasoikorik ere topatzen bazuten. Odol hotzean bere anaia bat hiltzeko prest dagoen bati urte guztiko irabaziak kendu eta sendi gizajo bat, inorekin sartu gabe bake-bakean bizi zena, miseriarik gorrienean utziagatik, zer axola behar zaio? Banku batetik indarrean lapurreta egiten duen bati bi tiro ematen zizkiolek, eta beste hori ez al da indarrean lapurreta egitea? Jainkoak goikoentzat eta behekoentzat eman zitian bere aginduak; eta gizon petral honek, behin agintzen jarriz gero, zergatik bere onerako, Jainkoarenak zapalduta, jarri behar ditu bereak?

Hamasei urtetarako bere hazi-burua hartutako<sup>36</sup> anaia bat banian; halako sarrera batean berekin eraman zitean. Aita zenak, hamaika atzera-aurrera eta hainbeste ate jo ondoren, noizbait etxera bilarazi zian. Borondatez joaten ez zirelako, joka hebaintzen<sup>37</sup> baitzituzten. Espartin-zolarekin<sup>38</sup> joka, sekulako beldur-tzen zitiztean; eta, beste halakoren bat hartzeko izuz, gurasoak utzi eta ihesi joaten zituan. Oinaze ikaragarria dela ziotean gure lehengo zaharrek.

Gudaren bukaera laster zela-eta igarri ziotenean, Altza aldeko jende horrek pegaizo<sup>39</sup> gaiztoren bat egin nahi zigutean. Gure baserri maite hau, negu partean behinik behin, zuriz bete egoten baitzen. Hori zitean beren aterpe. Beren bilerak ere askotan hor egiten zitiztean. Seiehun gudaritik gora bizitako neguak bai omen zituan. Gure etxean ez zegoan biharko ezer uzterik, egunean egunekoa eta kito bizi zirela. Behetik salarako zurubi edo eskailera, bide aldapatsu baten antzera, mailarik ere ez ezagutzeraino, betiko gorabeheran lokatzez bat egina egoten

---

<sup>36</sup> Hazi-burua hartu: Hazi behar duen guztia hazi.

<sup>37</sup> Hebaindu: Zehatu, jipoitu.

<sup>38</sup> Espartin: Abarketa, alpagata.

<sup>39</sup> Pegaizo: Bihurrikeria, maltzurkeria, akzioa.



omen zuan. Seme-alaba gaztez betetako sendi bat bizi behar etxe berean, haien tartean. Hainbeste jenderekin ezin buruturik eta etxean lotarako lekurik ez zegoelako, mendi-zulora joaten gintuan arratsean lotara, dena arrotzen mende utzita.

Gipuzkoa guztiko behi-sariketa batean lehenengoa atera zian gure etxeko behi gorritzat batek. Orduko oroigarri emandako asko maite zuen medaila eder bat bazian aita zenak. Oraindik ere zokoren batean hor izan behar dik nonbait. Holako arrats batean kutxatik ostu ziotean. Hura galdutako aitaren pena! Bihurtzen zionari bost duroko eder bat agindu zioan. Garai haietan bost duro diru handia zuan. Ostu zuenak, damututa noski, mairan<sup>40</sup> ore-eginean<sup>41</sup> ari zen ilunabar batean, oretara bota zioan amari, jende artetik, isilka, bost durokorik eskatu gabe. Horietan ere, elkar hiltzen zekenduak<sup>42</sup> egon arren, kristau bihotza zutenak izaki oraindik. Holaxe bizi gintuan, eta gehienon bake-nahia ez zuan nolana hikoia.

Hainbeste ekinalditan gure txoko maite eta aurreko mendi lehor horiek ezin hartua, min zitean beltzek; eta azken orduan, guda bukatu aurretik, beren akzio txarra egin nahi zigutean. Nondik edo handik kanoi koskor bat sortu zitean. Altza gain horretan jarrita, hamaika saio egina omen zuan; baina ale bat bakarrik ez omen zian San Markos gaineraino iritsi. Alferrik ari zirela etsitakoan, beste demoniozko asmo bat hartu zitean: inguruko baserriak erraustea.

Hiru urteko ume mukizua nintzelarik, gudaren bukaera aurki zela-eta gure txoko honetan jendea alai eta pozik zebilen batean, zanpateko gaitzak<sup>43</sup> bazirela nonbait eta zer ote zen ikusi-

---

<sup>40</sup> Maira: Orea egiteko erabiltzen den aska modukoa.

<sup>41</sup> Ore: Masa, pasta.

<sup>42</sup> Zekendu: Zeken bihurtu, bihotz-gogortu.

<sup>43</sup> Gaitz: Oso handia.

makusi<sup>44</sup>, bazkaltzen ari ginen lekutik atera gintuan, eta bidez behealdetik aurre horretantxe bertan zegoen baserri kaskar bat errausten ari zituan. Ataño, hire izena zeukan baserri kaskar hark ere. Oso tirabide<sup>45</sup> erosoan baitzeukaten, berehala goi-beheak joarazi eta kiskali zitean. Orain berriro arte bere horma zahar batzuek zutik iraun ditek. Hamaika txepetxek habia egindako horma zaharrak.

Zurietako amorratuenetako bat zuan horko maiorazkoa; handi, ausarditsu eta indartsua, gainera. Lau beltzetako batera, eta berak bakarrik, gatibu egin omen zitian behin. Etxea erraustu zioten amorruez, Altzako hiru edo lau baserririk onenak kiskaliz, ihes joan zuan hemendik. Zahartu eta gero, noizbait azaldu zuan hainbeste akzio txar egin zuen herrira. Xaharra eta luzaroan minenez ederki ahitu eta gero, Jainkoari kontu eman zioan gaixoak.

Ataño erraustu orduko, gure baserriari eraso ziotean. Zerbairetarako gauza ziren puskak, oraindik gelditzen ziren pixarrak, atera zitiztean kanpora; eta nahi zutena egin, han geratu gintuan isil-isil begira.

Azpitik zetozenak, gainera baino lehen, mendia jota leheretzen zituan; goitik zetozenak, berriz, *fi-fi-fi* gainari eraginda, aurreko harkaitzean. Inondik inora ezin zitean gure etxerik asmatu. Aurreko mendixka horren kolkoan babestua baitago. Etsi zutenean, espioi bat bidali zitean: gure baserri hori non zegoen hark erakutsiko ziela. Alfer-alferrik zituan haien jardunak; kanoi txar harekin ezin zitean ezer egin. Hemengo gazteek, espioia harrapatuta, bizia kendu ziotean. Hiru urte nitian artean, eta gogoratzen nauk. Orduantxe utzi ziotean bakean. Lehenbiziko gudatean kiskali zuten baserria, zutik geratu zuan azkenekoan. Gaurko aurrerapenak izan balituzte, laster bukatuko zitiztean

---

<sup>44</sup> Ikusi-makusi: Begira, zer ikusiko.

<sup>45</sup> Tirabide: Tiramena, (arma baten) helmena edo irispeidea.

etxe xahar honekikoak. Aurreko dolare<sup>46</sup> hartan, gero luzaroan eduki omen zitean kanoi xahar hura, eta goizero huraxe ikusi gabeko onik ez omen nian izaten.

Hainbeste urteren buruan, bukatu zuan guda odoltsu hura ere. Nik ezer gutxi sufritu nian, ume bainintzen oraindik; baina nire guraso maiteak gorriak ikusiak zituan. Hainbeste urtean etxea jende arrotzez betea, nahi zutena jan eta egiteko eskubidea zutenak, besteren gauzen jabeak. Ia sortzen zuten guztia besterentzako.

Etxea bete ume, aziendak<sup>47</sup> erdiak bederen kenduak. Etxe zikina, porrokatua, berri-berritik hasi beharra. Lau urte haietan, lehen egina jan, berririk egin ez, doi-doi bizi zirela; besterik ez. Erraz zegoan burua jasotzen! Seme-alabei dote ona emateko alibio ederra! Bazter guztiak hondatu; zelaiak urteetan ongarritu gabeak; elkarren gorrotoa hazi; gauzak zuzendu beharrean, okertu... Gudaren ondorenak! Lehenengo, etxea kiskali. Berritu eta burua jasotzen hasi ziren orduko, beste eraso. Buru egiten zutenek, berriz, jolas baten bukaeran bezala, elkar hartu zitean. Haiiek, gehienak behinik behin bizirik atera zirenak, beren graduekin eta beren lekuetan geratu zituan. Bitartean, mendeko jende arloteen negarrak, nork xukatuko zituen? Gudako umezurtz eta alargun gaixoei, nork lagunduko zien? Isilean negar egin behar, errukarri maiteak; eta, biziko baziren, gizonen itxaropen handirik gabe, lanari lotu behar berriro, hurrengo erasora arte.

Gudazaleak, berriz, lehengo lekuetan, herria odolustu ondoren, sekula bezain handi eta aberats, beste guda baten moldaketan. Horientzat ez zegok zigorrik. Txikiaren bizkar, handiak jolas. Euskal Herria, berriz, guda bakoitzeko kate-maila bat estuago.

---

<sup>46</sup> Dolare: Mahats aleak, sagarrak eta kidekoak, zukua ateratzeko, zanpatzen diren tresna; tresna hori dagoen tokia.

<sup>47</sup> Azienda: Aberea; haragitarako, esnetarako edo lanerako hazten diren abereen multzoa. Ganadua.

## AITONA

Nire aitona zena, harixe Jainkoak zerua diola, ezin nezakek isilik utzi. Salbador zian izena. Zazpi urte nitueneko hil zuan nire aitona, eta hartaz nola oroitzen naizen ni oraindik! Neure begien aurrean ikusiko banu bezalaxe! Hainbeste maite al nian, izan ere. Nire gurasoek lan egin beharra zeukatean; eta, jakina, seme-alaben eder egiterik ez askotan. Amari lanean ez galaraztearren, beraizik eramaten baininduen aitona, nire ordurik gehienetan behinik behin aitonaekin nitian jolasak.

Hura zuan gizon puska! Hortxe-hortxe ni halako bi bai. Handia ez ezik, ona ere bazuan. Bere belaunen gainean eserita, makinatxo bat ipuin gozo entzuna nagok. Lanerako ez zuan gauza, zahartua baitzen ordurako. Hainbeste urtean berak laiatu eta landu zituen lurrak ikustea oso gogozkoa zian, berriz.

—Lur maite honek emandako irabaziz, seme-alabak aurrera atera ditiat; eta horko neke eta izerdiaren sariz, Jainkoak bere ondora hartuko naik aurki.

Askotan entzun nizkioan hitz hauek. Sinesmen handikoa baitzen.

Hanka hankari ezinik, eta halere egunero ateratzen zuan, eta ni behar beti bere ondoan.

Xarraka-xarraka bere blusa motz hura jantzi eta, bi eskuak ipurdi gainean jarririk, barrutiko bazter guztiak aztertzen zitian. Nire gurasoak lanean ari ziren lekura joango zuan. Haiekin hitz-aspertu<sup>48</sup> bat egin ondoren, aurrera berriz ere. Beheko txoko hartan haritz luze eta mardul bat bazuan; bere hura artzaren beso luze haiekin neurtu gabeko onik ez zian izaten.

---

<sup>48</sup> Hitz-aspertu: Hizketaldi aski luze eta lasaia.

—Hegi honetan ez zegok holako zuhaitzik. Honek daukan hostaje eta itxurarekin, orain arteko markak hautsiko ditik! — esan eta kontent gizona.

Patar<sup>49</sup> hartan gora, erbia bezain arin ateratzen ninduan ni; hura, berriz, ezinean gizajoa. Gehiegi zamatutako tren-makina zirudian, aldapak gora ezin igorik, arnaska. Askotan esan zidaan:

—Ai, bilobatxo! Ez nauk ezertarako gauza! Pipiak jota nagok! Hau izango duk noski nire azken ateera<sup>50</sup>. Ai, umetxo! Hire urteak baneuzka! Hi argira, ni ilunpera! Zer egingo diogu, bada? Hire urteak izan nitian nik ere eta... Exkaxagoak badituk; hamaika gazteagok aurea hartu zidatek!

Baina hurrengo arratsaldean ere betiko ateera.

Muino baten gainean eseriko zuan, eta arnasa lasaitu arte, igeltsuzko pipa txapelpetik atera; toxa<sup>51</sup> ere, gehienean, berak erein eta landutako tabakoz betea edukitzen baitzuen. Behatz handiarekin zanpaka-zanpaka beteko zian pipa. Toxa gorde eta dunda<sup>52</sup>, bigarren edo hirugarren kolperako, piztuko zian. Haize pixka bat eman ondoren, pipa sutu eta lasai, ke jario, han egongo zuan nire jolasei begira.

Ni, berriz, txakur txiki baten antzera, erdi larrubixirik lasterka eta iraulka, zaldaleak irabazten<sup>53</sup> han ibiltzen ninduan bere inguruan, batean jaitsi, bestean igo; ez zitzaidan niri arnasarik berotzen.

Pipakada bukatzen zuenean, esku zabalaren gainean kolpe batzuk emanaz garbitu eta sartuko zian berriz ere txapelpean pipa, eta bere ondora deituko nindian.

---

<sup>49</sup> Patar: Aldapa, aldatsa, malda; aldapa handia.

<sup>50</sup> Ateera: Irteera.

<sup>51</sup> Toxa: Tabakoa gordetzeko zorroa.

<sup>52</sup> Dunda: Metxa.

<sup>53</sup> Zaldaleak irabazi: Lurrean bueltaka ibili. (Batez ere, astoz, zaldiz eta abarrez esan ohi da.)

—Honezkero jolasean aspertu haiz, Joxe, eta hator hona!

Ni bere belauen gainean hartuta, bolada batean pentsakizunez isil-isilik mendi aldera begira jardungo zian; gero hala esango zidaan:

—Ikusten al dituk mendi-hegal hauek, zeinen eder eta hezeak dauden? Horko zuhaitz-aukera? Horiek denak nireak dituk oraindik; eta, Jainkoak nahi badu, hiretzat geratuko dituk gero. Nireak direlako ere maite itzak, nik maite ditudan bezala. Horko barrutirik kaskarrena ere ez duk saldu behar gero! Dirua berehala joango zaik, baina hori betikoa duk.

Gero, xoxo, birigarro, kuku, txori eta kilkerren kantu-zalaparta entzunik:

—Zerua leku ona izango duk; baina, ai, mundua ere ez duk bada txar-txarra! Beti sasoikoa izatez geroz, inork ez likek hemendik joan nahiko. Zahartu eta ahuldu egiten, ordea. Orduan zertarako haute munduan?

Luzaro pentsakizunez, norbaitekin hizketan ari balitz bezala, isil-isilik egon ondoren, bat-batera zutituko zuan, eta:

—Goazen etxera! Bihar ere zabalduko ahal dik eguna!

Harri-gain batean lehortzen zeuzkan tabako-orriak sorta batean hartuz, etxera joaten gintuan. Upelategira zuzenean; han, upelaren gainean zegoen basotik, bi edo hiru basokada edango zitian, eta bapo gure aitona. Nahi eta nahi ez laster utzi beharko zituela jakinki eta ezin etsi halere. Norbera jaio eta bizi eta ibili duen lurrari maitasuna hartzen baitzaio.

Hura zuan gizon puska, luze eta zabala, gilborrik gabeko segail eta tentea. Oraindik ere, bere ile zuriaren gainetik, txapela, aurrera isurian; igeltsuzko pipa zuri bat ezpainenetan; txapinen<sup>54</sup> gainetik, ardi-larruzko abarka handi batzuk; eta blusa motz bat soinean, bere besoak dilindan eraginean zituela, zahartuta ere

---

<sup>54</sup> Txapin: Etxean ibiltzeko oinetako biguna.

gizon gozoa zuan hura. Nire burua adinako atzaparrak bazitian hark. Aita zena ere gizon polita zuan; aitonaren alderatzekorik ere ez, ordea. Haren bularreraino ez ninduan, berriz, ni. Semeak handiagoak ditudanari eskerrak; beti txikitzen-txikitzen, azkeneraino ahituko ote ginen beldurrak hartu nindian, motel!

Arrats batean, gizagaixoa su ondoan, bilobatxoan ondoan artoa aletuz, kontu-kontari ari zela, minzuria<sup>55</sup> egin eta oheratu zitean. Sendagilearen aginduz, bihotzekoa zuela-eta, arrats hartan bertan hartu zitian elizakoak.

Apaiza Jaunarekin etorri zenean, argi xamar oraindik aitona; ez zuan asko izutu eta bihotz-barrendik hitz hauek atera zitzaizkion:

—Lehen ni joaten nintzen zure etxera; gaur Zerori zatoz nirera! Jainko maitea, ongi etorri! Ordu larri honen zain nengoan aspaldian!

Elizakoak hartu zitian, eta goiz aldera, ondoeza eginda, gorputz geratu zuan.

Bere hil-kaxan kandelen erdian hilotza zegoela ere, errespetuz begiratzen ziotean auzoek hari. Sinesmentsua zuan oso; eraman handiko gizona, gainera. Jaio eta hil arte bere bizimodua atera zuen etxetik eraman zitean betiko. Ez nian berehalakoan etsi. Sutondoko<sup>56</sup> aulki hartan noiz eseriko beti zain, baina ez zuan etorri. Betikorik ez baikara inor.

Bere sasoiari, aitona hau bilduko zuen kristaurik ez omen zuan inguru honetan guztian. Ona bai, baina akzio txarrik ez egin hari.

Lehenbiziko zuri eta beltzen gudatean, gorriak ikusitako gizona zuan hau ere, gizajoa. Urteetan etxea besteren mende. Gudate hartan etxea erre eta aziendak ere, ziren aleak, bertan

---

<sup>55</sup> Minzuri: Zorabioa.

<sup>56</sup> Sutondo: Baserrietan, beheko sua dagoen tokia.

kiskali zizkiotean. Etxea jaso ondoren, zorrak ordaindu behar, eta aziendak ere behar, bazeukatean galtzak bete lan. Etxeko lanaz gainera, kontrabandora jo behar. Afizio gaitza baitzuen orduan kontrabandorako jendeak.

Karabineroak, berriz, etsairik gaiztoenak. Horien errainurik<sup>57</sup> ere ez zitean ikusi nahi izaten etxe inguruan. Gure txikitan ez genian hemen erdararik aditzen; halere, karabineroak inguruan zirela jakitean, hamaika bider kantatu genitian, norbaitek erakutsita, honako bertso txar hauek:

Carabinero,  
poco dinero,  
poca fuerza,  
mutur beltza.

Bere anai-arrebarik gehienek ezkondata etxetik alde egin ondoren, aitonak asko maite zuen anaiarik gazteena bere ondoan bizi omen zuan oraindik. Argiaren orduak baserri-lanean igarota, gau askotan, txanpon zikin batzuk irabazteko pozez, Jaizkibel atzeraino joaten omen zituan kontrabandora. Kaxatzarrak bizkarrean zituztela, handik Astigarraga alderaino gero. Lekutan zegok Jaizkibel atzetik Astigarraga; aldapa ederrik ere bai bitartean. Gehieneko jota ere, bost edo sei sos zorritsu irabazteko. Bi anaiak batera ibiltzen omen zituan gehienetan. Behin, ordea, aitona etxean geratu eta anaia gaztea bakarrik atera omen zuan. Hura ere laster ezkontzeko asmotan omen zebilean, eta pezeta batzuk egin nahi. Arrats gaiztoa zuan oso, eta gutxiena uste zuen lekuan harrapatu zitean gizajoa. Kontrabandoak orduan zigor izugarria zian, larrutzen baitzuten bat.

Ongi gogoan zeukaat oraindik. Aitarekin soroan ari nintzen batean, hau ere zigarro-erretzaile amorratua baitzen, etxe

---

<sup>57</sup> Errainu: Itzala.



azpian barrena bi karabinero pasa zituan, harkaitz-hutsune batean hamabi tabako-landare aldatu zeuden ondo-ondotik. Bakoitzak bere barrutian beretzako adina egiteko ere ez zeukaan eskubiderik. Arto-sailaren erdian hutsune bat utziz, han aldatzen zitiztean askotan; artoa hazten zenean ez baitzen tabakorik ikusten. Gaur egunean ere lege zuzenik bazeukaagu, baina legeak zituan haiek ere.

Aitaren beldurra ez zuan nolanahikoa. Karabineroak ezkutatzekeo betarik utzi gabe, agindu zidaan:

—Hoa lehenbailehen, Joxe, eta tabako kaxkar haiek ipurditik atera eta leizean behera bota itzak!

Beretzat aldatutako hamabi tabako zikinengatik halako es-tutasunak bazituen aita zenak, kontrabandoarekin harrapatutako beste gizajo hari zer ez zioten egingo?

Hura ere indartsua izaki nonbait; eta, sekulako borroka-saioa egin ondoren, ihes egin ziean; baina atzetik sutu ziotean; eta, ahal zuen bezala, bizirik iritsi zuan etxeraino. Bi egun konturik gabe iraunda, hil zuan hogeita lau urteko mutil gaztea.

Ordura arte inork negarrez ikusi ez zuen anaiak bere anaia hilotzaren aurrean ume batek bezala negar egiten omen zian. Ordu hartan bere ondoan ez aurkituaren damurik bizitza bizitz ez omen zitzaioan joan. Anaiarekin batean han izatera, bi karabineroak bertan txikituko omen zitian. Ez zuan horretan geratu: bi karabinero haiek harrapatzekeo egokierarik izaten bazuen, garbituko zituela zin egin omen zian.

Nire aita zena, hamar bat urteko mutila; inon karabinerorik ikusten bazuen abisatzeko beste agindurik ez omen zioan eman aitonak.

Karabinero horiek Altzako alkatearen lagunak zituan. Gaiztoz ezagunak biak. Jakina, *no entindokoak*. Gure etxe inguru hauetan barrena, Errenteriako mendi-bideak gora, lasai-lasai Goizueta alderaino inoizka joaten zirenak. Aitonak bazekian gu-

txi gorabehera haien atzera-aurreren berri. Non itxoin eta non eraso, ondo ikasia edukiko zian.

Handik hilabete batzuetara, eguarte batean, patxada ederean Berrazpingo aldapak gora zihoazela, berak ikusi omen zitian.

—Kaletik datorrenean hire amari esaiok nire zain egon gabe bazkaltzeko lasai!

Metro-erdiko makila lodikote bat eskuan zuela, karabineroei aurrea hartzeko asmoan noski, Txoritokietako harkaitz zakar horretan gora igo omen zuan. Gozoa joango zuan! Ez zuan atsegin izango haren aurrean!

Karabineroen bidera aterea zela ikasi zuenean, izutu omen zuan ama gaixoa. Lehen koinatuak bezala, orain bere gizonak bere burua galduko zuen beldur.

Gauerdi aldera, nondik ez zekiagu, ez baitzuen non harrapatu zituen egundo esan, baina etorri zuan, ez bere andreak nabaritu gabe. Kriseilua eskuan andrea beheara eta gizona gora, eskailburuan topo egin omen zitean biek. Lasaitu omen zuan berriz bizirik ikusi zuenean, eta nahigabez hala esan omen zioan:

—Garaietan zatoz etxera!

—Handia da, orain ere nabaritu nauzunean! Zuek ez al duzue lorik egiten edo?

Baina laster antzeman zioan aitonak, bere erruz, egun eta gau gaiztoak pasa zituela andre gaixoak; eta, errukituz, hala esan omen zioan:

—Barkatu, barkatu! Bi *no entindoko* ñaño horiek horren erraz galduko nindutela uste al zenuen?

—Zatoz, zatoz sukaldera! Zerbait jarriko dizut!

—Ez, maitea, ez! Lo egin nahi dut, presaka gainera! Gauerdian paseak gara honezkero eta.

Bakean oheratu omen zuan gizona; emaztea ez, ordea. Bi makila luze eskuan zituela ikusi baitzuen bere gizona etxeko

sarreran, bai agudo asko non ezkutatu zituen bilatu eta zer ziren ikusi ere: karabineroen bi zizpunak<sup>58</sup>, orduko fusilak. Andre gaixoa izutu omen zuan; etxeko bakearen axola handi gabe, bere senar trakets hark lan txarren bat egin zuelako, bi karabineroak hil zituelakoan baitzegoen. Baina ezikusia egin eta bi zizpunak bere lekuan utzi zitian; zer edo zer laster azalduko zela, bai, eta orduan hitz egingo zuela.

Hurrengo arratsaldean auzoko sagar-jotzea zitean gure dolarean. Hortxe erdi joan zutela, Altzako alkateak etorrita deitu omen zian. Inor ez zuan harritu; aitona ere ez izutu. Oso elkarren lagun baitziren, eta gutxi gorabehera bai baitzekien zertara zertorren. Biak sukaldera sartu zirenean, irribarre gozo atseginez galdetu omen zioan aitona:

—Arrainean, alkatea! Ez dauzkak sudur makalak! Nondik nora antzeman diok nire lana dela hori?

—Bejondeiala, motel! Aztia al haugu? Zertara natorren esan baino lehen asmatu?

—Ez nekian *no entindoko* horiek horrenbeste maite hituenik!

—Lege-zapaltzaileen etsaiak direla, bazekiat hori, eta hi ere gehienean zapaltzaile haizela ez zegok ukatzerik!

Alkatearen hitz hauek min eman ziotean aitonari; eta alkateak ere laster antzeman zioan, eta pixarren bat izutu zuan, noski.

—Jainkoaren legeak inork ez bezala beteko ditiat nik. Gizonari bizitzeko adina eskubide ematen ez dioten beste lege txatxu horiek, nork bete behar ditu? Inori ostu gabe nire bizimodua handik edo hemendik ateratzen dudan jakiteak, zer aurrerapen lekarke? Zeinen alde nenbilen ere ia ez nekiela, nire adinik onenean, hainbeste urte hortxe galdu nitian mendirik mendi alferkerian, sendi gizajoa miseriarik gorrienean utzita.

---

<sup>58</sup> Zizpun: Zizpa; antzinako fusil mota.

Handik etxera, bai al dakik zer aurkitu nuen? Etxe maite hau kiskaltzen! Bertan hauts bihurtu zituan bizimodua ematen ziguten aziendak; bertan hauts bihurtu zituan izerdiaren izerdiz bilduta geneuzkan uzta pixarrak; eta beste gainerako traste eta lan-tresna guztiak ere bai. Soinean geneukana bakar-bakarrik salbatu genian, eta lau horma zahar horiek, belztuak eta soilak, ke jario, zerurantz begira, doi-doi oraindik ere zutik. Ondo eta lasai bizitzeko alderdi ederra!

Etorri nintzenean, ukuilua husteko beta banian, baina ama maitea zuan niretzat lehenengo. Ez zuan xaharra oraindik; gaitz gaizto batek jota, aspaldian gaixo zegoena, ezertarako gauza ez eta ohean. Etxea sutan; behiak ukuiluan marruka; ama maitea, berriz, suz inguratua, leiho ondoan, inora ezinik oihuka. Denetarako neroni bakarrik. Eskailera txar batekin, leihoz kanpotik, ahal nuen bezala ezin jaitsirik ari nintzela, goiko har-kaitzarte horretatik sutu zidatean etxe-sutzaileek, noski. Besoko zauri hau orduan hartutako balazoa duk. Eta guda bukatu zela egunak zituan; gorrotoa ez, ordea. Aurrez aurre ezin zutenek, atzetik egin behar lana. Ama ezin salbaturik dabilen seme bati hiretarrek eskaini zioten laguntza duk hori. Holakoak zarete gudazaleak: berezko bilauak! Basapiztia gaiztoenak ez dik holako bihotzik!

Ama jaitsi nueneko, ukuilura hurbildu ninduan; baina beranduegi: goi-beheak jota, labe gori bat besterik ez zuan hura. Enborrak pilatuta garretan eta haragi-erre-usaina. Horretatik bizi behar duen batentzat, zer den badakik hori? Ez hire ontzako urreak eduki banitu. Ni ikusi nindutenean, hor azaldu zituan su-ematzailen ihesi joan ziren nire anai-arreba gazteagoak. Ez ninditean gutxi poztu, hil eta sutara boteak ote ziren beldurrak hartu nindian eta. Ihesi joan zirenari eskerrak, motel; bestela ez zekiat hori ere nola ez zuten egingo. Sei egunen buruko, ama

gaixoa gorputz zuan. Dolare<sup>59</sup> xahar horretan utzi zian mundua. Horixe zuan guda madarikatu haren saria! Armak utzi eta gero, honda hadi!

Basoko puskarik onenak botata, mando zahar batek adina lan eginez, noizbait jaso genian etxea. Aterpea bagenian. Behar-beharreneko puskak falta, ordea, oraindik. Ez zer jantzirik, ez oherik. Ukuilua, berriz, huts. Zer egin? Nora jo? Errukizko hitz bat ere ez nioan inori entzun. Ardit<sup>60</sup> bat bakarrik inork ez zidaan eskaini. Auzoek ere, ni bezala zurietaoak, beren buruekin zeukatean lanik asko, irabazle zineten horiek emandako zerga eta multak ezin ordaindurik. Arreba eta andre gaztea etxean utzita, kontrabandorako bidea hartu genian bi anaiok. Poliki moldatzen hasi ginenean, hire lagun maite horiek hil zidatean anaia. Non henbilen orduan? Ez hintzen gure etxe alde honetara asko azaldu! Horiek arrisku txarrean ikusitakoan samurtu zaik bihotz hori? Guri, berriz, hitzetik hortzera legez fuera gabiltzala? Zuek bakarrik bizi behar al duzue? Inuzenteak hiltzera bai; horretarakoxe ekarri dituzue horiek? Joan zeneko guda madarikatuaren ondorenak! Kanpotik datozenak, kukuak dituk horiek; ezin mantendurik ari garen txantxangorriak, berriz, euskaldunok.

—Hori duk etorria, motel! Uste nian ez hintzela isilduko!

—Aspaldi honetan trinko eta korapilatua eduki dudan bihotz honek min baitauka, min! Nik behar haudanean, ez haiz egundo azaltzen; beste horiek, berriz, semeek ama bezala samurtu haute. Holako lagunak zeuzkaat nik!

—Barkatu, barkatu! Gorriak ikusia haizela bazekiat. Baina oraingo hau lan txarra egin duk, adiskide! Zein den balekite, gaur bertan hilko hindukete. Lege-zaintzaileak dituk horiek, lege-zaintzaileak!

---

<sup>59</sup> Dolare: (Kasu honetan) dolarea dagoen tokia.

<sup>60</sup> Ardit: Balio gutxiko dirua.

Sukaldea dardaratzeraingo barre-algara gozoa egin ondoren, erantzun omen zioan aitona:

—Hil? Zerekin? Non dituzte? Hik eta haiek ez behinik behin; izatez geroz ere, atzetik. Ahal izan balute, lehen ere ez zitean aukera txarra. Hurbil asko eduki naitek. Ni aurrean ikusi orduko, oiloak azeriaren ondoan bezala, nora jo eta zer egin ez dakitela geratu ez dira, bada? Ai, zer lege-zaintzaileak, esku-hutsik doan baten aurrean armak botatzen dituztenak! Horiek al dira horren lege-zaintzaile maiteak? Berak zeudek haiek, berak, larri asko! Ez nieke haien larruan egon nahi. Baina, nola antzeman diok ni naizela?

Aitonaren azkeneko galdera honek lasaitu zian alkatea. Aurreragi sartu eta aitona pixarren bat mindu ote zuen beldur baitzen, eta bai baitzekien txarrean egia ateraraziko zionik ez zela sortu.

—Hori asmatzeko, ez nian aztiatara jo beharrik. Gertatuaren berri eman zidateneko, bururatu zitzaidan: hau holakoren lana duk! Zin egina hintzela ere entzun bainuen. Umil asko jo zitean bart nire etxeko atea: ai eneka, hebainduak, xahutuak<sup>61</sup>, zizpunak galduta. Hori okerrena.

—Ezer ahal baduzu, lagun iezaguzu, alkate jauna! Gureak egin du bestela! Ez dakigu hartza zen edo zer zen hura! Gurekiko lanak laster egin ditu behintzat!

—Armarik gabe, galduak zarete! Gertatua isilik edukiko duzuela zin egiten badidazue, ezeren aztarrenik ea ateratzen dudan ahaleginak joko ditut nik, zizpun zahar horiek nonbaitik<sup>62</sup> ekartzen ote dizkizuedan.

Han geratu dituk, heriotza-penarekin kaperan daudenak bezala. Ikusi bahindut bezala, xuxenean hona natorrek. Ziur bazekiat hi haizela. Bertan hil ez hituenean, galtzeko asmorik

---

<sup>61</sup> Xahutu: Jipoitu.

<sup>62</sup> Nonbaitik: Nonbaitetik. (Iparraldean erabili ohi da. Atañoak ere horrela darabil.)

ez darabilkiala ikusia zegok; eta hire lagun maite honi ezer ukatuko ez dioala bazekiat ongi. Orain duk, motel, bihotz on hori erakusteko garaia!

—Maltzurra haiz, bai, hi, benetan! Horientzat nondik guri kenduko, egokiera bila habil beti. Horregatik etortzen haiz; horregatik gauzak hire laguntzat. Halere, ez ditiat galdu nahi.

Haiek kurririk! Urdeak ere, hiltzerakoan, handiagoak ez ditik egiten. Lasai kontu-kontari zihoazela, itsumustuan sartuta, buruak elkar joaraziz, zerraldo! Korde gabe utzi nitian. Gero, besorik beso elkarri lotuta, ahuspez jarri eta zizpun haietako bati baketa<sup>63</sup> kenduz, lastaira<sup>64</sup> bezala, aukeran hebaindu nitian. Baketa bigun hark txistu egiten zuen bakoitzeko, izuz «¡Perdón! ¡Perdón!» oihu egiten zidatean. Errola<sup>65</sup> ederrak baditiztek bizkarrean. Txikitzeko asmoan hasita, to, errukitu egin ninduan! Ez nauk uste bezain gaiztoa. Nire hil zuten anaiaren andregaiak oroitu ninduan: hilotzaren ondotik alde egin nahi ezik, negarrez orduak nola igaro zituen. Horiek ere lagunak izango zituztela... Haiek errukitu zitzaizkidaan, eta barkatu egin nieran. Nirea egin nuenean, bi zizpunak hartuta, jauzi batean txaran<sup>66</sup> ezkutatu ninduan. Ez nitian hil nahi, horiek ere kristauak izango dituk noski eta; neroni arrisku txarrean jartzerik ere ez. Orain, agidanean, horien bizitzak nire esku zeudek. Ja, ja, jai!

Algara luze bat egin ondoren, bi atzapar handi haiek sartu omen zitian lehengo su zaharreko tximinia-barrunbera; eta, ezker eta eskuin bi zizpunak hartuz, alkateari eskaini omen zizkioan.

---

<sup>63</sup> Baketa: Eskopeta garbitzeko erabiltzen den altzairuzko hagaxka, zumea modukoa.

<sup>64</sup> Lastaira: Ehunezko zaku modukoa, handia, gai bigun edo malguz betea dena, gehienetan somierraren gainean jarriz, lo egiteko erabiltzen dena.

Gazt.: colchón, jergón. Frants.: paillase.

<sup>65</sup> Errola: Erredura.

<sup>66</sup> Txara: Zuhaixka asko hazten den eremua.

—Tori itzak! Horiengatik ezeren okerrik baletorkit, kontu eman gero gure lagun izateak laster bukatuko direla. Txitarena egingo nitek!

Orduantxe sukaldera sartu omen zuan andrea, eta pozez esan omen zioan alkateari:

—Eraman, eraman traste zahar horiek hortik, tximiniape horretan enbarazu besterik ez dute egiten eta. Lan gaiztoren bat egin digu orain ere honek!

—Ez, etxeokandre! Ederki astindu ditu; jipoi ederra eman ere bai; baina oraindik bizi dira; eta, biziko badira, hauek behar.

—Eta, zuk bai al zenekien hauek non zeuden? —harrituta galdetu zioan gizonak andreari.

—Jakingo ez nuen, bada? Sartu eta ordu-erdi baino lehen bilatu nituen.

—Karabinero guztiak baino etsai gogorragoa diat hau! Honekin ezin diat! Tori itzak, tori itzak! Eraman itzak, Jainkoaren izenean! Hitzean al hago?

—Hitzean al nagoen? Lagun maite batek hiltzea ez badut nahi, hala beharko!

Aitona oso kontent geratu zuan egin zuen lanez; berak nahi bezalaxe atera baitzitzaizkion gauzak. Amona, zer esanik ez. Alkatea, berriz, karabinero gizajo haien bizia bere eskuetan zeramalako, atsegin eta harro. Egundo baino elkartuago geratu zituan bi lagunak; karabineroak, berriz, alkatearen morroiago. Holakoxea zuan nire aitona.

—Garai haietan hori bazitekeen; baina, gaurko egunean, hori egingo duen amaren semerik ez da<sup>67</sup>.

---

<sup>67</sup> Ataño tartekatzen da orain Joxeren hizketa luzean; eta Joxeri zuzentzen zaio. Ondoren, Joxeren erantzunaz amaitzen da kapitulu hau.

Eleberri osoa, azken batean, elkarrizketa luze bat da, nahiz eta oso tarteka hitz egiten duen Ataño Joxerekin, eta beti zuka. Ia beti Joxek hitz egiten du, eta beti hika, nahiz eta paragrafoek ez daramaten marra luzerik [—] hasieran.



—Ez; gaurko armen aurrera doana bere burua hil nahi duenen bat duk, edo burutik egina zegok. Orduko armak, ordea, motelak zituan.

## GUDAONDOA

Lehen esan dugun bezala, noizbait guda bukatu zitean. Handiak beren lekuan geratu zituan; mendekoak, berriz, etsaien eskuetara saldu zitiztean. Batek ala besteak irabazi, axola handirik ez zitzaienak zituan denak ere, haiek. Agintarien tartean euskaldunik bai al zen? Orduan hasi zuan askoren istilua. Gudatea baino, ondorena txarragoa dela ziotek; gaur ez, noski, baina orduan bai. Orduan guda, batzuek egiten zitean. Atzean bizi zirenek, jakina, gose eta miseria gorriak igaroko zitiztean; baina, lasai ez bada ere, gaur adina heriotza-arrisku gabe. Aurrean zebiltzanentzat zituan arriskurik gaiztoenak; haiek baitzebiltzan beti aurrez aurretan, eta bala artean bizi zenari, noizbait egokitu egiten ustekabeko sastakoren bat.

Gaur, ordea, aireko hegazkin horiekin, urrutieneko txokoraino zeramatek guda eta heriotza. Gaur, seguru dagoen txokorik ezin litekek aurkitu. Ezin pentsa ahalako kalteak egin litzakek gaur gudateak. Europako azken gudari begiratu besterik ez zegok: urez eta airez, zer txikizioak egin diren. Guda bukatu orduko, berriz, aurrerapen horiek denak herriaren onerako dituk. Heriotza bezala zeramatek bizia eta bizitzeko erraztasuna.

Gudaz aspertu zirenean, bada, negargarritzko jolasari azkena eman ziotean, euskaldunok egundo baino lotuago bilduz.

Tristeak zituan benetan hurrengo hiru edo lau urteak gure etxerako. Jakina, ni txoria baino alaiago biziko nintzela, artean hiru urte baintuen nik. Niretzat ez zuan ezeren faltarik izango; ama ere oso ume-maitalea bainuen. Baina nire guraso eta anai-arreba zaharragoek ez zitiztean ordu goxoak igaro. Etxea garbitzen ere bazeukatean lanik asko, hainbeste urtean ez baitzen behar bezala garbitu. Udarako lana zuan garbiketa,

orduan mendi aldera ateratzen baitziren soldaduak; baina guda bukatu zenean bezala, egundo ez. Jainkoak bestek ez zekik zenbat simaur eta zikinkeria atera zituzten gure etxe barrendik. Mandoa bera ere botako zian gure etxe-zuloko usainak. Pentsatu besterik ez zegok seiehun soldadutik gora biltzen ziren egunak bazirela. Negu partean behinik behin, beti betea egoten omen zuan. Lehenbiziko lana etxe-garbiketa zitean. Etxe-aurre horretan, hor egon zituan, egunak eta egunak, belar-meta adinako txondortzarrak sutan, arrasta-laino<sup>68</sup> itxi batek bezala, sakon hau guztia ketan estaltzen zutela. Amak, berriz, etxeko maindire, lastaira, koltxoi, estalki, denak egosi zitian, zorritz betea baitzegoen etxea. Ez zituan berak nahi ordurako galdu. Hamaika upel ur ekarri zitean gure iturritxotik, etxea garbitzeko. Teilatu-solairuak konpondu eta etxea barru eta kanpo zarez zurutu bitarte, ez zuan ama konformatu; bai karea oparo botarazi ere.

Orduan giza indar handia baitzegoen gurean, batzuek etxea garbitzen zuten bitarte, dolare-gain horretan egundoko zakar-pilak egin zitiztean besteek; karobirik ez zutela erre urteak baitziren; aita, berriz, bere karobi-erretze horrekin ez baitzen isiltzen ere. Ote, elorri, sasi; egur onik ez zitean erre nahi izaten. Hura, pagota bezala, okindegira saltzen zitean. Etxerako ere bai, jakina, lehengo su zaharrak asko behar baitzuen; eta etxeko ogi-laberako ere bai, etxean behar zena bertan erretzen baitzen. Etxe-garbiketa bukatu zenean, bada, karobi-erreketa hasi zituan. Bat bestearen ondoren, ez zuan hilabete batzuetan ke faltarik izan hemen. Karobi-erretzea, orduan behintzat, lan nekoso zuan, sutarako enbor handirik ez baitzuten sartzen; eta, zakarkeria harekin erretzez geroz, eman eta eman aritu behar zian. Nire anaia gaixoek hamaika izerdi ateratzen zitean. Urtzen zituan, karobi-erreketa hasten zirenean. Ni ere gero horretan hamaika

---

<sup>68</sup> Arrasta-laino: Lurrazalaren gaineko lainoa, herrestan mugitzen dena.

ordu gaizto igaroa nauk. Ez zuan sagardo eta pitar eskasiarik izaten, eta horri eskerrak. Hala izerditzen denak zerbait ere behar dik. Gero, bazter guztiak karetu eta irauli zitiztean; leku erosoena goldez, beste sagarpe eta harri-tarteak laiaz.

Jana beharrezkoena dela jakina zegok, baina jantzia ere nahitanahiezkua duk. Garia eta artoa ereiten bazuten, lihoa ere erein beharra, eta lihoak lur ona behar dik. Guda-urteetan ez baitzuten ezertarako aukerarik izan. Mendi-kasko horren beste aldean baduk erreka-xidor bat; han egiten zitiztean lihogarbiketak, mendi sakon honetan ez baitago urik. Hara bizkarrez eramaten zitean lihoa; ekarri ere bizkarrez, ez baitzegoen astoz ibiltzeko biderik ere. Gaur kexatzen gaituk gu. Gaurko emakumeek ez ditek baseririk nahi. Nire ama gaixoaren lekuan jarriko nitizkek. Bi ordu baino lehenago alde egingo liketek etxetik. Hara eramaten zitiztean, bada, denak. Han dagoen putzu-zulo handi batek, gaur oraindik, *Liña-putzuet*a zeukak izena. Dena garbitu, etxera ekarri, landu eta lehortzen zenean, hasten zuan ama langilearen kalbariorik gaiztoena: ardatzean, hari-eginean, gero iruteko<sup>69</sup>. Lo-susta<sup>70</sup> handirik ez zian egiten; arratsean ere han ariko zuan bere lan aspergarri hartan.

Hainbeste urteko itxuragabeko gudate hark bazter guztiak agortu baitzituen. Gero, anai-arreba batzuk ere hazi xamarrak zituan, beren bizimodua hartzeko adinekoak; ez baitzen orduan gazte baten arreoa<sup>71</sup> prestatzen erraza. Dirua daukanak gaur dena egina zeukak. Atzera-aurrera ibili gabe, nahi duen guztia etxera ekarriko ziotek. Orduan, ia urteetako lana zuan baten arreoa prestatzea. Egia esan nahi badut, lau-bost urtez gora

---

<sup>69</sup> Irun: Ehuntzeko gaia hari bihurtu.  
Gazt.: hilar. Frants.: filer.

<sup>70</sup> Lo-susta: Lo-kuluxka; siesta.

<sup>71</sup> Arreo: Ezkonsaria, dotea.

igaro zituan, gudateak egin zituen beharren-beharreneko zuloak estaltzen.

Gudaren bukaeran hasi zuan askorentzat kalbarioa. Gudan aurre xamar ibili zirenak harrapatu nahirik hasi baitziren. Hamiakak gure etxe, dolare eta harkaitz-zulo horietan igaro zitiztean egunak, Frantziara isilean joateko moldaketak egiten ziren arte. Asko Gipuzkoa barruko jendea zuan; baina Bizkaia alde, baita erdal herritik ere etortzen zituan, mendirik mendi, baserririk baserri, itxoinka-itxoinka, bai baitzekiten Gipuzkoa aldeko baserririk gehienetan beren aldekoak zituztela eta, salketa txarrik egin baino, bizia bera ere lehenago emango zutela. Gure etxe honetan behinik behin, bihotz onez, maitasun garbiz hartzen zitiztean. Halako saltzaile bilauren bat izan balitz tartean, hilko zian nire aita zenak.

Gudak ezer ere ez dik onik, eta bere txarrenetako bat, gorrotoa ereiten duela; eta gorrotoak bere etsairik ezin dik, berriz, ahaztu. Egokiera datorkionean, egurra. Harrapatu eta galdu zirenak bazituan, baina gure txoko honetan ez zuan inor ere galdu.

## MUTIL KOXKORRETAN

Behin gudaren zipriztinak garbitu eta etxea abian jarri zutenean, hasi zuan niretzako kalbariorik gaiztoena. Hirurogeita hamabost urte igaroak dituk, eta oraindik amorru ematen zidatek urte haiek, eta tristura bihotzean. Umea umearentzat gaiztoa duk, horratik!<sup>72</sup> Niri behinik behin ez zidatean nolanhiko kaltea egin. Leitzen eta idazten ederki ikasi behar nuena, lagunek ez zidatean utzi. Eskolako urte ale haiek tristeak zituan, motel, niretzat. Orain ere izugarria ez nauk; orduan, berriz, nahiz urteetan sartua izan, ez bainintzen lurrean ageri. Hazi nintzen pixarra, hamasei urtez gora hazi bainintzen. Sailean bazituan armiarma hanka-luze horien antzekoak; hanka, beso eta burua besterik ez zutenak; mehe eta luxeak. Haiek, gizona, arrunt mendean hartu ninditean; jo eta iseka besterik ez zidatean egiten:

—Gehiago ez haztez geroz, zertarako jaio?

Eta *zapla*, burutik behera! Handik urte batzuetara izan balitz, behin joko ninditean, bai; bigarrena eman baino lehen igarriko ziotean zeinekin zebiltzan. Ni, oraindik ezeren berri ez nekiena, zeharo izutu ninditean, eta ez nian ezer ikasi. Eskolara joan baino, lanik gogorrenari heldu nahiago izaten nian orduan. Berrogeita hamar urtetarako, erdi mozkor, erdi tisiko, erreumaz josiak, beren etxeko lanetan hamaika bider lagundu nian; mozkortu eta ezin etorri zirenak, beren etxeetara, ahal nuen bezala, bildu ere bai; baina pasarazi zizkidaten urte haiek ez zaizkidak egundo ahaztu. Oroitze hutsak gaur oraindik min ematen zidak; izugarrizko kaltea egin baitzidaten. Eskolara hurbiltzeko beldurrak airean egoten ninduan. Sartu arte, berriz, txokoren batean, beti kankailu haien

---

<sup>72</sup> Horratik!: Benetan!

ihesi. Behin kristau-ikasbidea buruz ikasi nuenean eta jaunartze nagusia egin, ez nian hankarik ere sartu gehiago eskoletan.

Geroztik, inongo itun edo dokumenturen bat izenpetu behar dudanean, jakina zegok: behatz handi hau zikindu behar lehenengo; harekin gero paper garbi eta txukun bat. Borroi zikin horri ez ziotek gure maisu izanek hainbeste begiratzen gaur; hori zela-eta, hamaika kaskarreko hartuak baikara. Egia esateko, leitzen bai; leitzen ikasi nian. Gaur oraindik ere, poliki-poliki bertsoak irakurtzeko adina bazekiat; baina idazten ez. Hamaika bertso, nire eta besterenak, edukiko nitian honezkerero.

Nire aita zenak ere, norbaitek esanda-edo, gertatzen zenaren berri bazekiela uste diat; eta, behin jaunartze nagusia egin nuenean, jarraitu nahi al nuen galdetu zidaan.

Ez nuela gehiago eskolan hankarik sartu nahi ere, erantzun nioan. Etxean probetxu hobea aterako nuela, bai, eta etxean geratu ninduan. Beste urte-pare batean jarraitu zitean nire arrebek oraindik; baina ni bezain barau geratu zituan. Ordurako beren erdara zikin horrekin zebiltzaan. Ez uste, ez, maisuak beti euskaraz hitz egingo zigunik; beste batzuk eta ni masaileko epelak hartuak gaituk. Baina, guk erdaraz ikasi orduan? Etxe eta kanpo, euskara besterik ez genian entzuten, eta ez zian lan txarra hartu; baina, ordurako ere, erdaraz gehiena zekitenak zitian maiteenak. Lehenbiziko aulkietan haiek eseriko zituan. Egundo saririk bazen, haientzat izango zuan. Nire arrebek min zitean, ni bezalako euskaldun soilak geratu baitziren, *sí* eta *no* besterik ez zekitenak; baina behin baino gehiagotan esan zidatean:

—Zeinek jakin lezakeen, horiek bezain ederki, erdaraz!

—Hoa Castillara eta han ikas ezan! Niretzat euskara aski dun!

Lurrean ez banintzen ageri ere, ordurako bertsoan hasia bainintzen, eta, gure etxeko sagardotegian bertsolariak entzunez, txoratzen nintzena. Erdararengatik bost axola zidaan niri orduan. Egia aitortzez geroz, haiek arrazoi zitean; jakitea beti ona duk.

Baina orduan ez zuan gaur bezalako aurrerapenik, eta gaur bezalako jendearen joan-etorririk ere ez. Dena oinez egin behar izaten baitzen, gure mundua oso txikia zuan. Noizik behin bes-tetan ez genian guk erdararik entzuten; ez genian haren beharrik ere orduan; azkeneko elkar hiltze odoltsu honetara arte, ez nauk erdara jakitez behartu ere. Idazten eta leitzen ikasi banu, hobe nian. Horretaz bai; behartu izan nauk. Hamaikatxotan lotsa ederrak pasa ere bai.

Ofizina horietan, hamaika bider «Kaixo, Anakleto!» esan zidatek isekaz, *analfabeto* nintzela alegia adierazi nahirik. Gaur ere nahiago nitek, erdara guztia baino, idazten ongi baneki. Ez erdararik behar ez dudalako, auzoko amonak ere erdaraz hasi zaizkiguk oraintxe eta. Hau duk euskaldun jendearen itsumena! Gazteak ez badira esnatzen, urte gutxiko gaudek!

Egundo urterik alferrik galdu badut, nire eskola-urteak galdu nitian, eta bizitza bizitz, barruan min bizia bezala, koskaka ari zaidan nahigabe isil bat utzita, gainera.

(Ondoren, honako bertso hau kantatu zidan. Hizketan baino errazago egiten zuen bertsoan, noski)<sup>73</sup>:

Nere biotza naigabez zegok  
ezin burutuz iñola,  
egiyagatik iltzea ere  
etzidak neri ajola.  
Bai al dakik gaur zertako duan  
jende berriyak eskola?  
Sartu orduko izutzen ditek  
euskaldun aurra, ta nola!  
Bi urterako kastillanotu  
lengo euskaldun arbola.

---

<sup>73</sup> Atañoen hitzak dira, baina oraingoan irakurleari zuzenduak.



Aita zenak nahi baino lehen utzi nitian eskolako lanak. Agindu bazidan, ni joango ninduan. Bazekian, ordea, ez nuela ezeren aurrerapenik egiten eta kalbariorik gaiztoena zela niretzat.

Geratu banintzen, geratu ninduan. Ez zidatean jolaserako beta handirik eman. Erbinudea adinakoa ez ninduan izango, baina enkargu gehienak nik egin behar izaten nitian. Belar edo gari-ebakitzea zela, metaren bat egin behar bazuten, beroak jotzen bazuen:

—Non da Joxe? To pitxer<sup>74</sup> hau, eta korrika batean iturritxotik ekar ezak ur freskoa! Ez gero bidean txoriei harrika geratu!

Txoritarako itsua bainintzen.

Irute, arto-zuriketa edo garo-sartzea zela, beti banian deia. Hamaika atzera-aurrera egina nauk gure iturritxotik. *Gure iturritxotik* zioat, hura baitzen bi baserri horien bizitza erdia.

Itaurrekoa<sup>75</sup> behar zenean ere, jakina zuan: denetarako Joxe. Hamaika sokil<sup>76</sup> koskor tirea zuan nire aita zena, ez beti oso poli-ki, gainera. Sokilazoa ematean, orduan hasiko zuan hizketan eta oihuka:

—Behiei hobeto begiratu iezaiek, motel, eskuan daukadan akuilu hau astintzea ez baduk nahi!

Aurreko anaiak haziagoak bainituen; ondorengoak, berriz, oraindik eskolan zebiltzaan.

Halere, harkaitz inguru hauetako txokoak aztertzeko, non-baitik ateratzen nian beta; ez zuan nik ezagutuko ez nuen hartzutorik ere. Ni hemen harrapatuko ninduenak, erne ibili beharko zian; sasipe, bidezidor eta azeri-zulo guztiak ezagutzen bainituen. Bai inguruko gerezi, udare, ardo-muxika<sup>77</sup> eta marrubi-sailen berri ere banekian ongi.

---

<sup>74</sup> Pitxer: Txarroa.

<sup>75</sup> Itaurreko: Idiak gidatzen dituen pertsona.

<sup>76</sup> Sokil: Lur-zati trinkoa; mokorra, zokorra.

<sup>77</sup> Ardo-muxika: Melokotoi mota bat.

Alferrik hondatzeraino eduki etxean; halere, besterenari heldu behar. Auzoko gauzak hobek izaten omen dituk, etxeok baino. Hamaika lapurreta txiki egina nauk, baina erori ninduan behin.

Marrubi-sail bikaina, gorri-gorri, arrautza adinako aleak ikusi nitian auzoan. Haiexen atzetik joan zitzaizkidan bi begiak, eta bihotza ere bai. Ondoren, berriz, asmo txarra: hantxe marrubijate asekada bat egiteko poza. Lapurreta koskor horietarako bazkalondoa baita gararik seguruenena, lo-susta goxoan daudela alegia, hurrengo bazkalondan han ninduan marrubi-sailaren inguruan. Sasipetik zuloa eginda, sartu ninduan, bai; baina ongi nire zoritxarrerako. Zakur beltz handi bat zegoan marrubi-sail ondoan etzanda. Ahaztu zitzaizkidan marrubiak ederki! Hark nabaritzeko beldurrez, sartu nintzen zulotik atzerantz hasi ninduan kanpora, lo zegoela baitzirudien. Begira iezaio! Bere kikatzar<sup>78</sup> handi haiek erakutsiz, zaunka eta jauzika itsumustuan eraso zidaan atzetik. Baratze-gainaldean, garatxo<sup>79</sup> betetako haritz zahar handi bat bazuan, aihenez josia. Txakurrak harrapatu baino lehen, zintzilik zegoen aihen lodi haietako batetik, muxarra bezain zalu igo ninduan haritzaren buru-adarrera. Txakurra jolasean zebilela zirudian, eta ez zidala txarrik egin nahi. Ni aihenean gora ezin igorik nenbilela, maleziaz aihenari hortzekin tiraka eta astintzen jardun zian, baina batere haserterik gabe. Ez nitian nahi ordurako eskuak haritz-burura iritsi. Orduan zituan nire komeriak. Katuari bezala, zaunkaka asperraldi bat egin zian. Baina joan? Ezta pentsatu ere. Itzal gozoan etzan zuan, bai, eta kito. Jaisteko asmoan isil-isilik hasten ninduan; ez alferrik. Bere belarri motz haiek tente-tente jarriko zitian, bere kikatzar handi haiek erakutsiz; burrunban beste zaunkaldi-aspertu bat eginda, patxada ederrean etzango zuan lehengo lekuan berriz

---

<sup>78</sup> Kika: Hortza.

<sup>79</sup> Garatxo: Pikorta gogorra.

ere. Marrubi-saila gorri-gorri ikusten nian aurrean. Hara joateko gogoak kendu zizkidan ederki. Ihesi egin nahi eta txakurrik ez joaten.

Ilunabar aldera, hala esan zioan andreak gizonari:

—Aizu, Santiyo! Gure txakur lauso<sup>80</sup> horrek badu katuren bat haritz horren buru-adarrean!

—Katua? Ez ote da gero gure marrubitara zetorren auzoko mutil kataburtxintxa<sup>81</sup> hori?

—Gaixoa! Bidal ezazu hortik txakur zahar hori, eta utz iezaiozu ume gaixoari etxera joaten!

Handik berehala, han azaldu zuan Santiyo, mendia adinako gizontzarra:

—Aspertu al haiz, Joxe? Marrubiak onak al zeuden?

Zartakoren batzuk emango zizkidalakoan, beldurrak airean, ez nioan erantzun ere.

Txakurrari ostiko bat emanda, «Pasa etxera hemendik!» bidali zian txakurra. Gero, bere atzapar handi haiekin hartuta, lurrera jaitsi nindian; eta eskutik hartu, baratzera eramanez eta eskuak bete marrubi ez zidan bada eman? Eskerrak emanez, hala eskatu nioan:

—Ez gero nire aitari ezer esan!

—Ez, motel, ez! Baina gehiago ez lapurtu, lapurreta gauza txarra da eta!

Arratsalde gaiztoa igaro nian, baina ez ninduan haserre joan etxera. Handik aurrera ere, hamaika lekutan halako lapurreta koskorrak egin nitian; etxe hartatik ezta sagar bat ere ez nian

---

<sup>80</sup> Lauso: Ikusmen gutxikoa; begi-okerra.

<sup>81</sup> Kataburtxintxa: Katagorria, urtxintxa. *Katagorri* eta *urtxintxa* hitzez osatutako hitza.

[Tarteka gertatzen da horrelakoa euskaraz: alde banatako euskalkietako hitzek bat egiten dute, hitz berri bat sortzeko; beste adibide bat, *arkakuso*, *ardi* (Bizkaian) eta *kukuso* (batik bat, Iparraldean) hitzez osatua.]



ostu. Horra on egitea zer den. Aspaldi joan zuan mundu hone-tatik; baina, hartaz oroitzen naizen bakoitzean, esker ona zeukak nire bihotzak.

Ez ninduan bakarrik. Auzoan ere kidetsuko lagun mordoxka bat banian, mutil eta neska, lehen esan dudan Santiyoren seme-alabak. Oso ongi etortzen gintuan elkarrekin. Noiznahi haiek gure etxean zituan; zer esanik ez, gu ere bai haienean. Haiek urte zoragarriak! Zoriontsu izateko, ez dik batek ezer askoren beharrik. Ni zeruan bizi ninduan, ez lanik ez genuelako. Gurean, lan falta baino, ontzako urreen eskasia gehiago izan duk. Zertarako genuen urrea? Geneukanarekin lasai asko bizi gintuan. Txoko hau bezalako zerurik ez zuan orduan niretzat. Hemendik ateraz gero galdua nengoan. Joan zenaren eta etorriko zenaren kezkarik gabe, gure bizitzako urterik atseginenak; niretzat hala zituan behinik behin.

Bihotza urruneko kezketan eta maiteminetan hasten denean, kito; gureak egin dik. Orduan ez zegok. Guraso, etxe eta bertako lagunek ez ditek gure bihotzik betetzen.

## JUAN KRUZ

Lehen ere esan diat eta ez neukaan lagun faltarik; baina nire lagunik maiteen-maiteena nire anaia Juan Kruz izan zuan, ni baino urte batzuk zaharragoa. Zeinen ederki konpontzen ginen biok! Gure zaletasun, afizio eta joeraz, batera gentozenak gintuan biak. Ehiza eta bertsoak zituan gure jolasik maiteenak. Ehizarako afizio hori, denek izan genian guk, eta gurekin zebiltzan lagunek berdin; eta nire semeak gu baino ere zoratuagoak dituk oraindik. Beren adintsuko lagun batzuk baditiztek; eta, elkarrengana biltzean, ehiza beste konturik ez diek entzungo. Aldapatzar hauetan hamaika gatazka gaizto egiten ditiztek.

Gaur bezalako eskopeta-aukerarik ez zuan orduan. Gure tiragoma eta traste, hor ibiltzen gintuan. Negua noiz etorriko zain beti. Goizean aitak «Elurra egin dik!» esaten zigunean, laster airatzen genitian maindire eta estalkiak. Goizeko kafesnea hartzeko betarik gabe ia, mendira ateratzen gintuan, erbi-arrastorik inon bilatzen ote genuen. Handik leher eginda etxera etortzean, behiek larrera ateratzerik ez baitzeukaten, laster esango ziguan aitak:

—Ote puska bat nonbaitik ekarri beharko duzue, bada, mutilak! Behiak jan gabe ezin edukiko ditiagu!

Hartu zaku zahar bana burutik behera, igitia bere kirtenean, zahato bat barrukoz kanpora ongi lotua, otez eskuak ez zula-tzearren, matxarda<sup>82</sup> eta soka; han aritzen gintuan elurretan ote-eginean, *ekarri-trabesa* deitzen genion aizkora antzeko erreminta batekin. Sagar-jotzerakoan bezala, ohol batzuen gainean txikitu eta laster joango gintuan, lurmenak<sup>83</sup> egin eta tranpak jarriz, txori harrapatzera. Hurrengo goizerako behatz-muturrak gorri-

---

<sup>82</sup> Matxarda: Pintza, bi besoz osaturiko tresna.

<sup>83</sup> Lurmen: Elurra urtu den lur-zatia.

gorri egin eta handitu, azkuraka hasiko ninduan eta kito: negu guztirako ospelez beteko zitzaizkidan eskuak. Askotan, azkuraka eta minez ezin burutuz, negarrari ematen nioan, lehertu eta haragi bizitan edukitzen baintuen. Baina axola zidaan niri! Sagar-azpi eta sasi-bazter guztiak txolartez<sup>84</sup> betetzen genitian. Egunero hirutan haiek ikusi gabe onik ez genian izaten, berriz: goizean, bazkalondoan eta ilunabarrean. Jainkoak zekik gure txolarteetan zenbat xoxo eta birigarrok utzi duten bizia, gaur baino ugarixeago al zuan eta. Tarteka oilagor ederrik ere bai. Eta zergatik egia ez esan? Inoizka auzoko kapoiren batzuk ere bai; baina hau askatu eta etxera bidaltzen genian.

Halere, txantxangorri gizajoek pagatzen zitean larrutik. Gu txolarteak jartzen ari ginen arte, hara-hona txorrotxioka han ibiliko zuan. Guk alde egiten genuen orduko, jaitsiko zuan zer egin genuen ikusteko. Okertuta lokarriari tiran eusten zion zumalakarraren gainera saltatuko zian lehenbizi; gero handik lurrera; eta, han zebilela, tranpazko zipotzaren gainera igotzen zenean, horra gure txantxangorria bi hanketatik zintzilik. Hamaikak utzi zitean bizia. Gizona dabilen lekuan, han baitabil txantxangorria ere.

Erbi ederrik ere erortzen zuan inoiz, bai, gure txolarteetan; baina bakanago. Erbia gautarra duk, arrasto gutxi uzten duena, gainera; baina, hesi, ataka, sasi edo langaren batetik bere iga-roeran, zipotz edo arantzaren batek ile banakak kentzen baitizkio, tarte hartan ongi lotuta alanbre bigun, bihurkor, mehe bat txibistan jartzen genioan, eta saltaeran lotua han geratzen zuan gure erbi gaixoa zintzilik eta, zenbat eta gehiago ibili, orduan eta gehiago estutzen zela. Indarka ari zela, ito baino lehen alanbrea eten eta ihes egiten ere bazekitean; baina ez beti, ordea: zintzilik ere itoa aurkitzen genian inoiz.

---

<sup>84</sup> Txolarte: Txoriak harrapatzeko tranpa.

Hamaika katu eta arratoi-txakurrek ere uzten zitean bizia. Orduan, isilka gordean hartuta, beheko leizera.

—Norbaitek hil du gure katua! Aspaldi honetan ez da azaldu! —esango zian amak.

Aitak ere aldamenetik, zorrotz asko, bere betiko erantzuna:

—Ume mukizu hauen txolartean eroriko zen eta.

Bihurrikeria guztiak guk eginak izaten zituan aitarentzat. Txikitán, ziotenez, holakoak egina baitzen bera. Baina gehienetan asmatzen zian.

—Gaixoa! Hain fina zena...

—Utz iezaiezu! Ontzako urreak baino errazago bilatuko dituzu, bai, katuak!

Aita gehienean alde izaten genian, eta horri eskerrak. Oso erbizalea baitzen, eta nonahitik eskeak izaten baitzituén. Goizen batean, geure hura zintzilik genekarrela ikusten bagintuen, eguzkiaren azpian ez zuan gu bezalako mutilik. Munduko katu eta arratoi-txakurrengatik axola zioan orduan hari. Gaur baino erbi-aukera hobea izaten al zuan, izan ere eta.

Erbi baten arrastoak hartu orduko gaur, hiru edo lau herritako ehiztariak, sei edo zazpina txakurrekin, zaunka eta iskanbila, mendiak bete gizon, inguruak airatuz eta bazter guztiak hondatuz, hor zetozak, bidegurutze bakoitzeko ehiztariren bat puntuan jarriz. Erbirik aizkatzen<sup>85</sup> badute, hango zaunka, txistu, tiro-hots eta oihuak! Akelarre bat, Ataño! Ederki kostatzen zaiek azkenerako erbia. Ez ditik oso puska merkeak izango. Ezta urrezkoa balitz ere. Agintariek ez badute neurririk hartzen, txantxangorriek ez zaiguk geldituko aurki. Goizean xoxo-birigarroen kantu atseginera esnatzea, gauza zoragarria duk, bada, motel. Goizean leioa zabaldu orduko, etxe inguru de-

---

<sup>85</sup> Aizkatu: Uxatu, haizatu.



nean kantari. Gaurko gazteek bai al dakite horren berri? Lehengo ohitura zaharrik ez ditek maite, eta berri onik ez zekarkigutek.

Gure aita zenarekin, erbi atzetik hamaika arrats igaroak gaituk. Beti bazian erbiren baten eskea; eta, jakina, gauerdia inguru horretan, goizaldera gehienez, ateratzen gintuan.

Horretarako geneukan erbi-txakur alfer bat hartuta. Honek erbi-arrastoren bat hartzen bazuen edo zaunkaka hasten bazen, haizeari ere zaunka egiten baitzion hark, aita zenak laster aginduko ziguan; gu baino gehiago ikusia baitzen, eta bai baitzekien han aizkatzen genuen erbiak gehienetan norako joera hartzen zuen.

—Holako bidegurutzetan sarea jar ezazue lehenbailehen.

Eta:

—Juan Kruz, sare ondoan jar hadi!

Hark sarea jarri zuela-eta txistu egiten zuenean, utziko zioan lepotik hartuta zeukan txakurrari. Beste gainerakook ahaleginak egingo genituan, istilutan erbi hura bide hartara ezin sarraraziz. Izutua nola etortzen baitzen, gaixoak ez zian sarerik ikusten; eta, hanka eta buruz korapilatua, sarean geratzen zuan. Zeruaren azpian ez zuan orduan gu bezalakorik.

Zoritxarreko arrats batean, Juan Kruzi ihes egin ez zion, bada? Hark entzun zituenak! Hurrengoan aita bera jarriko zela; ez ziola hari ihes egingo, ez.

Harrokeriak behin ere gauza onik ez eta lehenbiziko erbiak ihes egin zioan. Badaezpada ere, isilik geratu gintuan; aita zena ere bai. Baina, handik aurrera, Juan Kruz jartzen zuan sare ondoan beti.

Gehienez erbia bilatzen genian; harrapatu, ordea, gutxitan. Erbia puska txikia eta zalua baita, nahi den lekura eramateko. Ilunpean, gainera. Haiek ibiliak!

Lehen esan dudan erbi-kontu horri jarri zizkioan Juan Kruzek bere lehenengo bertsoak, oraindik hamabost urte ez zituelarik.

Nahi nitek haiexek banekizki! Eta behin, kantari ari zela, aitak berak nabaritu. Bazkaltzera bildu ginenean hala esan zioan aita zenak:

—Aizak, Juan Kruz! Hor kantatzen ari hintzen bertso horiek norenak dira?

Juan Kruz gorri-gorri jarri zuan lotsaz eta beldurrez, eta ez zioan erantzun.

—Orduan hik jarri al dizkiok aitari horren bertso minak? Kanta itzak! Kanta itzak!

Amak pixka bat haizatu zuenean, aitaren zakarraldiak hark baitzekien baretzen, kantatu zitian. Aita zenak, zutitu eta serio esku emanez, esan zioan:

—Bejondeiala, seme! Aita bera ere bertso-lanean zerbait baduk —ez baitzuen bera baino hoberik izan zitekeenik uste—; baina ez zekiat semea ez ote zaion gailendu behar. Epelak sartu dizkiok aitari; baina bapo zegok, motel!

Handik aurrera, zebilen lekuan, aitak berak egiten zian semearen aldarria, pregoia. Buruz ikasi eta kantatu ere bai.

—Oraindik bizarrik nabarmendu ez zaion ume mukizu batek aitari jartzeko bertsoak al dira horiek? —esan omen zioan behin, bertso horiek entzun zituenean, herriko bikarioak—. Errespetu gehiago behar dio semeak aitari! Laineza ematea ez dago ongi!

—Bikario jauna: ezagun duzu semerik ez duzula. Semeak benetan maite dituen aitak bera baino gehiagoak nahi lituzke semeak; eta hau ez dakit ez ote datorren gehiagoa. Niretzat harro-bidea besterik ez dakar honek. “Nolako enborra, halako ezpala”, esan ohi da. Holako ezpalak ateratzen dituen enborra, nolakoa ote da? Bejondeiola! Ondorengoak baditut!

—Ba, ba! Jainkoak ematen dituen dohainak dituk horiek, Bixente!

—Hala izan behar dute; ez diot<sup>86</sup> ukatuko. Baina dohainak berberak dituzte semeek, eta aita batentzat ez al da harrotzekoa hori?

Inguru hauetan ez baikenuen erdaldunik ikusten ere, gure arnasa horixe zuan: bertsoa. Gu bi anaiok bakarrik geunden lekuan, batez ere behi-kontu genbiltzanean, bertsoak zituan gure jolasa. Zer entzun eta ikusi, umeak hura ikasi. Guk ez genian beste gauzarik ikusi eta entzuten. Inongo herri-jaietara joaten baginen, bertsolariak bazter guztietan. Taberna-zulo guztietan bertsolariak. Elizatik ateran, bi edo hiru han ariko zituan, zeinek baino zeinek hobeto abestu, bertsopaperak saldu nahirik. Gure etxe-barru honetan, sagardotegira zetozenetan, bertsoak zituan betiko leloa. Bertsolari sonatu xamarrak hasten zirenean, elizan baino isil eta erneago egoten zuan jendea entzuten. Aita zena ere bertsolaria baitzen, bere kideko lagunekin biltzen zenean, bertsoa beste konturik ez zerabiltean haiek. Halakok holako, holakok halako, hain buruz argiak zituan, berehala botako zitiztean lerroan noizbait entzundako bertsoak. Ilunabarretan gain honetara ateratzea aski zuan, inguru hauetako baserritarrak, beren lanari utzi gabe, doinu ederrean bertsoak kantatzen entzuteko.

Orain, berriz, harriak ere negar egin lezakek. Baseri horietako neska-mutilak «¡Yo te quiero! ¡No te quiero, maja!» orroka entzungo dituk. Beren oihartzun nazkagarria, mendi horiei eraginda, urrun hor galtzen duk nonbait.

Nire lagun xahar batek hala esan zidaan behin:

—Gure auzo Alanoko soro handi horretan, atzo andaluz bat behi-kontu, alajainkia!<sup>87</sup> Arratsalde santu guztia tomate gordinari

---

<sup>86</sup> Diot: Dizut.

Joxe, apaizarekin hizketan ari dela, zuka hitz egin dio orain arte («ezagun duzu semerik ez duzula»). Baina orain berorika ari zaio («ez diot ukatuko»; zuka: «ez dizut ukatuko»).

<sup>87</sup> Alajainkia: Alajainkoa.

hozka eta kantari igaro zian, eta entzun nizkion bertso guztiak buruz ikasi nizkioan.

Gezurretan ari zelakoan, halakoa al duk izan ere bera eta, hala erantzun nioan:

—Erdarazko bertsoak hik buruz ikasi? Ez didak niri horrelako ziririk sartuko! Horretarako berriz jaio behar duk, berriz, Gaztelu!

Ni bezalako *anakleto* bat baitzen hura ere, baina nire lagunik maiteenetako bat. Joan zuan hura ere.

—Denak, bat bakarrik huts egin gabe, kantatzea nahi al duk?

Eta niri erantzuteko betarik eman gabe, gora begira, aho-zabalka, zahatetik ardoa edaten ari balitz bezala, *a-a-a-a* luze bat kantatu zian, ahotsa mehetu eta lodituz, halako bihurri eta dardarak eginez; kio<sup>88</sup> ederrik ere bai tartean. Ardatza lehor daukan gurdi baten mirrina zirudian. Noizbait *a* bukatu zuenean, *e*-rekin hasi zuan. Ondoren, *i*, *o*, *u*; eta gero, niri begira eta kei-nuka, hala esan zidaan:

—Arratsalde guztian bost letra hauek besterik ez zian kantatu gure andaluzak. Hango tomateak eskas zituan harentzat. Sasi-bazterren batean hazi pila ederra bota beharko zian. Holako bertsolaria izaten ez zegok zaila. Egia esateko, nazka ematen zidatek. Okilak kantatzen dik horien gisa. Itotzen ari direla zirudik. Hori ere denentzat txarra ez duk izango. Bakoitzari berea eta bere lekuan eman diezaiotela, eta hor konpon!

Lehentxeago nioenez, jendea aho-zabalka ikusten genian, bertsolarien ondoan jarrita, txoraturik, orduak eta orduak, jateak ere ahaztuta, handik alde egin ezinik. Jainko txiki bat zuan guret zat bertsolaria. Urteak zituan gure Xenpelar zenak alde egin zigula, baina oraindik ongi bizi zegoan gure artean bere oroitza. Itzal handiko izena zuan guret zat Xenpelar. Haren azken juizioko

---

<sup>88</sup> Kio: Kantatzen ari dela, norbaiti ihes egiten dion nota altua.  
Gazt.: gallo. Frants.: chanter faux.

bertsoak aita zenari lehenbizikoz entzun genizkionean, gure bihotzetan egin zigun zirrara ez zitzaiguan berehalakoan kendu.

Behi-kontu genbiltzanean, bada, orduan egunik gehiena larrean pasatzen baitzuten aziendek, bertso-saio ederrik eginak gintuan biok. Hark sutuko zian sasia, eta nire erruz ez zuan itzaliko. Egunak etorri eta egunak joan, gure afizioak horiek zituan. Aitak, berriz, zer esanik ez, ez zian besterik nahi; bera ere bertsolaria zuan-eta, eta bertso on batek txorutzen zuen gizona.

Barka nazak, Ataño! «Anaia batek bere anaia goraipatzea ez dago ondo» esango ditek askok. Baina nire bihotzak zor txiki bat bazeukak Juan Kruzekin; eta, zor hori ordaindu gabe, ez nindukek lasai hilko.

—Esan nahi duzun guztia, Joxe, esan lasai! Nik ez nuen ezagutu; baina bere entzuteak badituz, eta beti ongi<sup>89</sup>.

—Nire anaia Juan Kruz zena, hamabost urtetarako, mutil gozo ederra ez ezik, bertsolari bikaina ere bazuan. Nire iritzia hau duk, eta ezagutu zuten askorena ere bai. Xenpelar kenduz gero, Erreteriarri eman dituen bertsolarietan, ezagutzen ditugunetan behintzat, onena Juan Kruz izan duk. Jartzen, berriz, ez zekiat Xenpelar bera ere ez ote zaion azpitik geratzen. Txirrita, izena Erreteriarriko baserri batetik hartu bazuen ere, ez zuan erreteriarra. Herri honetan ezagutu ditugun bertsolarietan, bigarren lekua merezi dik Juan Kruzek. Hamaika bertso paper, neronek garbi dakizkidanak, bazebiltzak hor besteren izenean, eta Juan Kruzek jarriak. Inori ez zioan bertsoarik ukatu; baina ez zian bere izenik jartzea nahi izaten, hain apala zuan izan ere hura.

Azkeneko hirurogeita hamar urte hauetan, Erreteriarri azaldu diren bertsolari guztiekin neurtua nauk ni. Batzuk gehixeagotzat jotzen banituen ere, gehienak eskasagoak zituan. Juan Kruz besterik zuan horien ondoan. Anaia naizen aldetik, ez duela nire iri-

---

<sup>89</sup> Berrito ere, Atañoen hitza tartekatzen da, Joxeren bakarrizketa luzean.

tziak balio; baina nire iritzia egiazkoa duk. Denekin neurtu bainaiz ni. Gainetik begira dagoen batek baino hobeto igartzen ziok bertsotan ari denak nor daukan aurrean.

Plaza handietatik ihes egiten zian Juan Kruzek. Oso etxeko gizona zuan; bihotz garbikoa, berriz; eta zenbait bertsolariren hizkuntza lizuna ezin zian burutu. Orduko plazetarako, gainera, oso ahots hil eta apalekoa zuan; eta garai haietan, batez ere, eztarri on batek asko janzten zian bertsolaria. Juan Kruz gaur bizi balitz sasoiari, kantatzeko diren aurrerapen hauekin, bertsolari aparta izango lukek. Ai, baina, taberna-zulo eta erromerietan harekin jardun zirenek bazekitean haren aurrean ez zela beti giro. Orain berriro Erreterian hil den Argarate batek esan behar balu, harentzat ez zuan inon bertsolari hoberik azaldu.

Txirritaren koinatu zen Gazteluk esanda zekiat Oiartzunen gertatua. Txirrita, gazte-sail baten erdian, bera ere mutil gaztea, jakina, sagardotegi batean bertsotan ari omen zuan. Beste sail bateko bertsolari, iritsi zuan Juan Kruz sagardotegi hartara. Gaztelu, Juan Kruzen ondoan zegoan; hau dardaraka sumatu omen zian bertsotan hasi baino lehen, Txirrita baino urte batzuk gazteagoa baitzen. Behin hasi zirenean, han omen zituan komeriak. Ez zekiat aldarte ona zuen edo ez; baina Juan Kruz gehiena gustatu zitzaioan jendeari, eta Txirritarekin zegoen saila Juan Kruzen ondoren joan omen zuan. Oso elkarren lagunak zituan; baina halere zaputz pixarren batekin hala esan omen zian Txirritak:

—Ni baino mutil ederragoa duk hori, eta neskatxak txoro-txoro atzetik joan zaizkiok; eta neskatxen atzetik, jakina, mutilak ere bai!

Txirritak beti bazitian holako ateraldiak. Juan Kruzek aparteko bizitasun eta grazia ematen zioan bertsoari. Kate-maila bati tirata bestea datorren bezala, bere jarioan zetorkioan hari bertsoa. Ez

batzuk bezala, Txirrita ere sail honetakoa zuan, Paris, Londres eta Madrildik pasa eta Donostian bukatu.

Juan Kruz, apala zelako edo ez zekiat zergatik, ilunpean zegok, eta haren itzala ere bai. Izan ez zirenen izenak gainez gain zebiltzak; baina bat duk izena eta bestea izana.

Oroitza txiki hau zor nioan nire anaia maiteari. Nahi baduk idatzi edo ez, hor konpon; ez zidak bost axola.

## SENDI-BIZITZA

Erleen eultzea<sup>90</sup> bezalaxe zuan orduan sendiko bizitza. Nik beti itxura hori hartu izan zioat baserriari: eultzea. Goizean bat hara, bestea hona sakabanatuko gintuan. Baina, iluntzerako, denok goizean utzitako eultze zaharrera bilduko gintuan. Gu ere, jakina, ez gintuan baserri-lanean aritzen denak. Inguruko harrobi zahar hauetan aritzen zirenak bazituan; etxetik atera, ordea, eta etxera bildu. Bakoitzak egiten zuena denontzat izaten zuan, harik eta banaka-banaka kanpora ezkontzen hasten ziren arte.

Ez genian ganbara gainezka edukitzen; beharrik ere ez. Gutxirekin pasatzen baikinen. Orduko gure gizartea ere oso txikia zuan: Errenteria, Altza, Astigarraga, Lezo, Donostia, Oiartzun, bi Pasaia —hirugarrena geroztik sortua duk—; inoizka Irun eta Hondarribi; Hernani alderaino ere aitarekin batera azokara iritsi izan gintuan. Herri koskor hauen barruan bizi gintuan, inorako ametsik gabe. Ez gaur bezala; gaur, jaio orduko, zenbaitek munduari bira ematen baitio. Jendeak gaur, nekerik gabe, lanik egin gabe, asko irabazi nahi dik. Ez nauk horren kontra. Nagusiak, langilearen bizkar, zergatik milioiak eta milioiak egin behar ditu? Eta, bitartean, milioi horiek sortu dituen langile gaixoa, behar gorrian utzi. Jainkoak mundua denentzat egin zian, eta horko aberastasunetan denek zeukatek eskubide berdina. Behin sendagile aberats batek hala esan zidaan:

—Ez dakit, Joxe, zer ikusteko gauden. Nagusia eta langilea nor diren ezagutzen zaila da gaur. Soinekorik finenak jantzi, gorbata lepoan, purua erreaz kafetik kafera. Eta oraindik sari gehiagoren eskea. Gure neurriraino igo nahi dute, alajainetan!

---

<sup>90</sup> Eultze: Erlauntza.



—Nagusia eta langilea ezagutzeko, eskuetara begiratzea aski dut nik. Aberatsa aberasten ari den langileak ez al du ongi jantzi eta lasai bizitzea merezi? Aurrerapenek ere denentzat behar dute. Langilea ongi bizitzea denontzat poztekoa da. Zapalduak eta zapaltzaileak diren arte ez baitago bakerik.

Honi jarritako bertsoak banitian, baina aztarrenik gabe galduak dituk nonbait.

Orduan ez zuan hala. Orduan, baserrietan behintzat, sendiko bizitza besterik ez zuan. Bi baserri hauek zituan nire bizileku, eta mendi zakar hauek nire jolastoki. Oso banaketan aterako ninduan ni hemendik. Lana eta lana, gaur bezalako erraztasunik ez genian orduan. Jantziko baginen ere, gure eskuz egin behar. Hemengo harri-tarteka hauek, denetan laiatu eta garia ereiten genian, eta gariak zer lan duen badakik. Ogia ere etxean erretzen baikenuen. Lanpetik ezin atera, inorako betarik ez baitzitzaigun geratzen. Eta kontrabandotik ateratzen genuen pixarra, huraxe genian patrikarako. Denak pila batera diru biltzen aritzen ginetik ez diat esango; jan eta jantzi eta etxe-errenta ordainduz urtea bukatzen bagenian, urte bikaina zuan guretzat.

Guraso-seme-alaben arteko bizitza nola baitzen, haien jenio berberak ikasi genitian seme-alabok ere. Haien lan-pozak ez zian neurririk. Beti lanpean eta gehiago egin nahi. Inora joaten baziren ere, ez alfer-bidaian. Seme-alabok horretaraxe makurtu gintuan. Hamaika lan egin dutenak izango dituk mundu honetan, baina ez nauk ni azkenekoa izango. Erbinudea adina lurretik agertzen ez nintzenez, hor ibiltzen ninduan itaurrean, zohi<sup>91</sup> batetik bestera ezin pasarik. Geroztik hamaika izerdi isuri eta neke sufritua duk nire gorputz ximur hau.

Ez dik gizona lanak bakarrak hondatzen; osasunerako oke-ragoak badituk.

---

<sup>91</sup> Zohi: Laiaz edo aitzurraz ateratzen den lur-zatia.

Sendi-bizitzak ere baditik bere atseginak. Neguko gau luze haiek ez zaizkidak egundo ahaztuko. Gure afari-legea garaiz egiten genian. Ondoren denok, aitona-amonak, gurasoak eta seme-alabok, su ondoan eseriko gintuan; eta beti lanean, hori bai: arto edo babarrun-aleketan<sup>92</sup> hasiko gintuan denok.

Aitak bertsoaren bat kantatuko zian. Aitona ez zuan atzetik geratuko. Amona eta amak ere erruzko bertso pilak baitzekizkiten, han ariko zituan laurak zeinek baino zeinek bertso zaharrago eta hobeak kantatu: Kataluniako gizon-hiltzailearenak; haurra bizirik erre eta jan zutenenak; azken juiziokoak... Nik bai al dakit zenbat halako? Gaur jendeak pozik jasoko lituzkeen hamaika bertso eraman zitiztean berekin. Kontu-kontari hasiko zituan gero: Itzain ona gaiztoa, Kandido Aundia, Eltzaorra... Sorgin-kontuetan, berriz, mundua sortu zenetik honanzkoak bazekizkitean, noski. Hamaika liburu osatzeko adina bertso eta kontu zahar entzunak gaituk. Nire semeek ez ditiztek ikasi. Gazterik, denekin bakar geratu ninduan; horretarako betarik ez diat eduki; umorerik hain gutxi. Orain, berriz, irрати eta telebista sartu zaizkiguk sukaldera, eta gure bertso eta kontu zaharrak joan zituan betiko. Gazteek ere ez ditek lehen bezala sukalde-txokorik maite.

Haien sinesmenak, berriz, ez zian neurrik. Haien elizako joerak eta apaizekiko maitasunak txundituta uzten ninditean ni. Igande eta jairik huts egin gabe, eguraldi txar eta on, udara eta negu, gaitzak edo beste holako behar-ezen batek lotzen ez bazituen behinik behin, txintxo asko jaitsiko zituan elizara. Erretereriako eliza lekutan zegok hemendik. Gaur ere bide kaskarrak zeudek; ez zituan orduan hobeak egongo. Haiena zuan sinesmena; ez gurea! Haien aldamenen askotan joaten gintuan gu ere. Begi-belarri ibili beharra zegoan, gainera. Elizara sartzean, kuzkur asko egoten gintuan, zeharrera, gora edo atzera begiratu

---

<sup>92</sup> Babarrun-aleketa: Babarrun aletzen.

eta inorekin jolasik egin gabe. Bertan ezikusia egingo zitean, baina etxean hartuko hituen ordainak.

Apaizaren hitzaldiak arretaz entzun eta ikasi ere; hor baitzeukaten beren jakinduria. Nire antzeko eskolagabeak zituan haiek ere, gaixoak, eta liburu eta egunerokoetan ezin ikasi. Leitzen jakin balute ere, ez baitzeukaten horretarako astirik. Haien gehiago jakin-nahia, ezerk ez zian ase. Beren bertsoen gaiak ere hortik ateratzen zitiztean askotan. Nik ere, oraindik ume izan arren, arretaz entzuten nian; entzun beharko, gainera, etxerakoan galdera asko egingo baitzizkidan aitak. Etxean, berriz, bazkalondoan, apaizak pulpitutik bezain serio, dena jalkiko<sup>93</sup> ziguan, apaizaren hitz, keinu eta guzti.

Apaiz-maitaleak zituan benetan. Gaur bezala, txapelik erantzi gabe pasa? Haien aurrean holakoren bat egin behar! Belarrondokoren batzuk epelak hartuko hituen. Bererika hitz egin eta hitz eginarazi ere. Gaur jendeak txorakeriatzat jotzen ditik gauza hauek denak; orduan ez zuan hala. Haien ondoan ikasiari jarraitzen zioat nik, baita jarraituko ere.

Aita hilez gero ere, hamaika joan-etorri egina nauk Errenteria xaharrera. Guda ezker, berriz, oso bakan, nik bezala, nire semeek ere. Joan den gudateko ordu larri haietan oso txatxu portatu baitziren gurekin hainbeste maite genituen herriko apaizen batzuk. Judasena egin zigutean. Aspaldian mundu honetatik joanak dituk. Gizonen aurrean eskuak garbitzeak han ez ziek balioko. Nire sinesmenik halere ez zuan urritu. Lehen hainbestex maite ditiat apaizak. Batzuk halakoak atereak, besteek ez zeukatek errurik. Altza alderako joera zeukaagu geroztik. Askoz hurrerago baitaukagu, gainera.

Orduantxe piztu zidatean geroztik bide-erakusle daramadan argia: nire sinesmena. Orduan ikasi nian apaizaren hitzaldiak

---

<sup>93</sup> Jalki: Jaulki, bota.

arretaz entzuten. Nik dakidan pixarra hortik edana diat. Begira izeaiok! Haien aurrean birao itsusi edo lizun-usaineko konturen bat esan! Ez zuan hotzik izango. Elizara aitarekin egindako joan-etorriek eta hizketa garbia entzunak ez zidatean on gutxi egin. Umeak ikusi eta entzuna ikasten baitu. Gaur, zenbaitekin hitz egiteak nazka ematen dik, motel. Etengabeko biraoketa zerabiltek, eta bihotz garbiko bat lotsaraziko duen hizketa lizun eta nazkagarria hitzetik hortzera. Gizonak al dira horiek?

Baina horien denen gainetik dagoen beste bertute bikain bat ezagutu nian gure sukaldean; biziko bagara, behar-beharrenetakoa, gainera: elkar maitasuna. Gure sukaldean, gehienetan bezala, izango zituan eztabaidak eta zaputzaldiak; baina, behartzen ginenean, bagenekian elkar hartzen. Ez zuan etxe-hondatzailerik. Bagenekian guretik besterentzat zerbait uzten. Gure behartasunean arrangura<sup>94</sup> handi gabe, konforme bizi gintuan. Elkar maitasunak lotzen zian gure batasuna.

Askok kanpoan isurtzen ditek bihotza; han dituk otxan, alai eta baketsuak; etxean, berriz, behazuna. Kanpotik dakartzaten umore txar guztiak etxerako ditiztek, habia goxo bero bat behar lukeena infernu bihurtuz.

Asko ezagutu eta ezagutzen ditiat bere gizon edo seme-alabak sukaldean sartzeko beldurrak bizi diren amak. "Kanpoan uso, etxean otso", esan ohi den bezala.

Nire ama zenak bihotz bakarra zuenik ez diat sinisten oraindik. Bestela, nondik atera zezakeen hainbeste pazientzia? Aita zena, sasoiari, gizon atsegin, alai eta otxana zuan. Zahartu zenean, burua erdi galdu zitzaioan eta egoskortu egin zuan. Baina amak laster samurrazten zian.

—Sukalondoan zakarkeria eta purrustik ez egin mesedez, Bixente! Bestela, seme-alabek alde egin eta bakarrik geratuko gara!

---

<sup>94</sup> Arrangura: Kexa.

Eserita zegoen lekutik aurpegira begiratuko zioan; eta, bien begiek elkar topatzen zutenean, umil-umil burua makurtuko zian; eta errezatzen ari balitz bezala:

—Amen, hala bedi! Zuri ezetzik esaten ez dut oraindik ika-si! —esan eta isilik geratuko zuan.

Baina elkar maitasun hori erakusten zizkiguten beste ohi-tura bikain batzuk bazituan, eta oraindik ere bazeudek gure sukaldean.

Afalaurretik, eguneroko arrosarioa bukatzen zenean, ama etengabeko aitagureka hasiko zuan; eta aitagure horiek denak besterentzat izango zituan:

Purgatorioko arimak, hiltzori zeudenak, bekatariak, sinesgabeak, etsaiak, itsasoan zebiltzanak, bidaiariak, espetxeratuak, bakea. Nik bai al zekiat zenbat holako. Munduko gizonen behar bakoitzeko, aitagure bat, arratsero, han igoko zuan gure sukaldetik zeru aldera. Non bilatu liteke hori baino elkar maitasun hoberik? Mundu honetarako zer aurrerapen ekarri behar zigan horien alde otoitz egiteak? Zeinek eskertuko zuen gure otoitz hori? Zeinek jakin behar zuen otoitz egiten genuenik ere? Jainkoak bestek ez. Halere, ehunka urte hauetan, gure sutondoko isilean, Jainkoa bakarrik lekuko dela, egiten diren eskariak dituk horiek. Ia hamar bat minutuan, sendi guztia bilduta, burumakur, bihozbera, neke guztien ondoren, otoi eta otoi ariko gintuan besteen alde, eta inork ez zian esango:

—Aski da, ama!

Behartsurik bazen, behartsuak gintuan gu. Zorrik gabe bukatzen genuen urtea urte ontzat jotzen genian. Eskaleek, halere, lekua bazeukatean beti gure etxean.

Etxe askotan, bertako morroirik ez ditek sukaldean berekin bazkaltzera hartu nahi izaten. Gure etxean, eskaleek ere sukaldean, gure mahaian eta gurekin, jango zitean.

Etzetik hogeita hamar metrora zegok dolare xahar bat. Hamaika ijito-familiak lo egin dik hor. Baita urtero hilabeteak igaro ere, udazken aldean batez ere. Sahatsen<sup>95</sup> urteko pujekin<sup>96</sup> saskiak egiten zitiztean. Zelai eta belazeen itxitura bezala, bide-bazter hauetan, denean sahats berriak zeudean. Horien puja berria zume bat bezain biguna zuan. Saski-tailer bat bezala edukitzen zitean dolare xahar hori. Hortik jaitsiko zituan herri aldera, saski pilak hartuta, saltzera.

Haiek bezain behartsu gintuan gu, besteren etxean aritzen baikinen gu ere lanean. Gure ezerezetik, halere, geneukana eskaintzen geniean: aterpea.

Ni alargundu nintzenean hor zeudean; eta bazekiat, gurekin zerikusirik ez bazeukaten ere, egun gaiztoak pasa zituztela. Bi kandela erre zitiztean, gainera, beren erara, horiek ere haren alde otoitz eginez. Egun triste haien ondoren lehenengo ikusi nindutenean, bi ijito, senar-emazteak, familiako buru egiten zutenak, negarrez hurbildu zitzaizkidaan:

—Samintasunean laguntzen dizugu, nagusi! Guri ere etxe-koandre on bat galdu zaigu; eta barkatu lehen ez etorria. Jende asko zebilen eta ez ginen ausartu.

Negar egin genian hirurok, baina nire bihotza poztu zitean. Niretzat eta hil zenarentzat, behartsu haien esker ona bezalakorik ez zegoan. Jainkoaren aurrerako txartel hoberik ezin zitzaioan eman. Ordain-itxaropenik gabe on egitea, hori duk kristautasuna. Dirurik ez genian emateko, haiek bezain behartsu baikinen; baina genuena eskaintzen geniean: maitasuna. Zenbait aberatsekin baino hobeto konpontzen ninduan ni haiekin. Hori falta duk mundu honetan. Nik sendi-bizitzan ezagutu nian ongi elkar maita-

---

<sup>95</sup> Sahats: *Salix* generoko zenbait zuhaitz edo zuhaixkaren izen arrunta. Gazt.: sauce. Frants.: saule.

<sup>96</sup> Puja: Kimua.

sunak saltatuko ez duen koskrarik ez dela munduan. Azken hiltze negargarri horretan, horretatik pixka bat eduki bagenu, ez zituan gertatu zirenak gertatuko.

Gaur jendea urduri zebilek: elkar maitasuna eta bakea nahi litzizketek munduan zehar zabaldu. Baina, beren etxeetan ez badute bake eta maitasunik aurkitzen, alferrik jardungo dituk kanpora zabaltzen, ez dagoenetik ezin bailiteke eman.

Mendiko basapiztia bat bezain zalu, azeri artean, erruzkoa baitzen orduan hemen, horien gisa egin nitian nire lehenengo urteak. Altza aldeko jendeek *harkaitz-zulokoak* esaten zigutean lehen; orain *los cavernícolas* esango zigutek noski, hil baitute gure zaharren hizkuntza.

Txoko honek ez zeukak gaur orduko itxurarik. Igali-fruta gauza, gaur ere, orduan hainbestexe edo beharbada gehiago zegok. Harkaitzarteka hauetan nonahi aurkituko dituk gerezi-zuhaitzak, klase guztietakoak: zuri, gorri, beltz, handi, txiki. Udare eta arana ere bai. Pikua, orduko laurdenik ez zegok. Muxikak, berriz, ez dik ematen; berehala, gaitzak jota, zuhaitza bera ere ihartu egiten baita. Sagarra, oraindik poliki bazegok. Orduko alderatzekorik ere ez, ordea. Gaur belazea dauden leku aldapatsu hauek denak, lehen sagasti izanak dituk. Sagardoa baitzen orduan hemengo edaria. Ardoa behar bazen, Nafar aldetik eta kontrabandoan ekartzen genian, ederki kostata eta arrisku txarrean, gainera. Hamaika erori zituan karabinero eta mikeleteen atzaparretan. Beste gainerakoan, sagardoa zuan hemengo edaria. Nekearen dina<sup>97</sup> ez bazigun emango ere, ia urte guztian salgai edukitzen genian. Sos batzuk hartuko zituenaren pozez, hamaika arrastaka egina zuan nire ama gaixoa. Herriko *impuesto* edo zergak jaten baitzituen bere irabazi pixarrak. Alargundu nintzen arte, upelen batzuk saltzen genitian guk ere.

---

<sup>97</sup> Nekearen dina: Nekeak merezi adina, nekearen neurrira.

Geroztik, etxeko pasadizoa eginez<sup>98</sup> gero, beste gainerakoak, erostunik bada, dolarerako saldu; bestela, sagastipean usteltzen dituk. Orain plazarako jan-sagar-aukera hobea zeukaagu, bai; askoz irabazi hobea ematen baitu.

Baina orduan inguruko larre zabal eta aldapatsu hauek denak estaltzen zituzten bi zuhaitz-mota ia zeharo galdu dituk: ametza eta gaztaina. Berebiziko ameztiak zituan aurreko zabalgunee eta aldapa horietan. Hamaika onddo, gibeldurdi eta ziza hori emanak. Honako gibeldurdi gain pintarra horietakoa batez ere. Gizen, pottottak, lur-estaltzaile zenbait garaitan. Ametza bezain perretxiko-emailerik ez duk izango, noski. Gaur oraindik ere, *Perretxiku-lekueta* zeukak izena zuhaitz bat bakarrik ageri ez den zabalgunee batek. Honenbeste urtean izenak iraun duenean, ez zuan nolana hikoia izango. Etxetik ateratzea aski genian, garaia zenean, saskiak bete perretxiko biltzeko. Hamaika jaten genian, batez ere gibeldurdi sendo, gizen, sakon horietakoa, baratxuri koskor bat xehatu eta gatz eta olio pitin bat isuri sakon hartara, eta burrunzi-puntan erreaz. Gaur ere balego!

Ikazkinak etorri zituan, bada, eta erabat garbitu zitiztean hegal hauek denak. Berririk aldatzea inori ez zitzaioan gogoratu, berriz. Besterentzat lan egin behar hori atzerapena omen zuan garai haietan; gaur ere halakotzat zeukatek. Ametzarekin batera, horko perretxiko-lekuak ere bukatu zituan betiko. Ametza zeharo galdu duk; zartakaren<sup>99</sup> batzuk tarteka ageri dituk oraindik. Ametzak ez ziguk nahigaberik ematen; gaztainak bai, ordea. Gaztaina ere ia arruntean galdu zaiguk. Begiratuan hartzen ditugun mendi-gain eta hegal horiek gaztandegi zituan garai haietan. Hemengo soro-bazter eta bide-ertzetan bazituan galant askoak. Beren eskeletoen antzera, enbor ederrik bazegok

---

<sup>98</sup> Pasadizoa egin: Kunplitu, minimoak bete.

<sup>99</sup> Zartaka: Sastraka.



oraindik. Gaur egunean ere bakarren batzuk bizi dituk, herdoildu eta erdi ihartuak gehienak. Berririk aldatzeak ez dik balio. Berehala herdoil edo gaitz gaiztoren batek jotzen ditik; hostoz bakantzen hasten dituk, ihartzen diren arte. Aurki gure gazteek, ametzaren izena ahaztu duten bezala, gaztainerik ez ditek ezagutuko eta izena ere ahaztu egingo zaiek. Semea sumatzen nian, bai, Japoniako gaztaina makatza<sup>100</sup> hemengoarekin txertatzen. Hiru edo lau itsatsiak bazeuzkak. Ale ona emango duen edo ez, gero ikusi beharko. Hari ere min ematen zioz bihotz oneko gure inude izan diren gaztaina zahar hauek galtzen ikusi beharrak.

Bai, *gure inudea* esan diat; ongi egia, halere. Ia lau hilabeteke, gure mantenuaren erdia, orain arte, gaztaina izan duk. Hamaika danbolinkada erreak gaituk. Hamaika txarrokada sagardo edanak, gaztaina erreak janez. Inongo ipuin gozo eta izukor entzunak gaituk gaztaina erreen taupako<sup>101</sup> artean. Hamaika bertso zahar eta berri kantatuak gaituk gaztaina erreen aurrean. Hura zuan benetako sendi-bizitza! Leiho-ertzetan haize eta kazkabarra zalapartaka ari ziren bitarte, gu, sutondoko bero eta maitasunean, guraso eta seme-alabok batuak, jan, edan eta kontu-kontari, ezeren kezka txarrik gabe. Diru gutxi, askotan zorrak, baina bakea eta maitasuna etxean; eta guraso eta seme-alabak bat eginak. Hemengo garo-ekartze eta arto-zuriketan, kazolakada on baten ondoren, nahiko gaztaina erre eta sagardo-aukera bazen, ez zeukaan jendeak gehiagoren gutziarik.

Gaur, elkarrekin otordurik egiten al dute? Gaur denak banaka. Biltzen badira ere, bat irratira, bestea telebistara, batera eta banaka bizi dituk; bakoitza bere aldetik, geurekoi bihurtu gaituk oso, hitzik egin gabe, elkarren arrotz bagina bezala. Ama gaixoa, berriz, sufritzen eta kezketan.

---

<sup>100</sup> Makatz: Txertatu gabea.

<sup>101</sup> Taupako: Eztanda.

Gaur arte, on zen arteko gaztaina bagenian; azkeneko urte hauetan banaka-banaka ihartu dituk etxea adinako gaztainak, oraindik gazte eta sasoikoak zirenak, gainera.

Orain, horren lekurako, gurea ez den pinu beltz hori zekarrek. Ez uzta, ez perretxiko, ez itzal. Pusketako ere ezer askorik ez dik balio. Hori ditek hemengo kutuna, artzainek ere begitan daukaten<sup>102</sup> pinua. Lurra zeharo ahultzen dik; eta garorik ere ez duk sortzen bere azpian.

Gaztaina zahar gizagaixoak, gure gaztetako inude oparokak, betiko galdu zarete, eta gure gaztaroko mantenuaren erdia zuei zor dizuegu. Agur, gaztaina zahar bihotzekoak! Euskaldun zaharrok ere banaka-banaka bagozak zuekin batean!

Ondoren bultzaka datozen gazte horiek nor dira? Hago isilik, mingaina; ez zaik esatea komeni. Jainkoak eman dizkigun dohainik aberatsenak maitatzen ere ez zigutek uzten eta. Hago isilik, bai! Lehen hire semeek bizia eman zuten bezala, ostatu handirako bideak laster egingo dituk, egia badiok. Oroitze hutsak ere iluntzen zidak bihotza, eta negarrezko erbeste honetatik lehenbailehen alde egiteko poza nabari diat bihotzean. Hizkuntzarekin batera, lur honen apaingarria ere bazeramatek, gorputz eta arima beste herri bat egin nahirik. Bazirudik eguzkia itsas gainean urruntzen doakigula eta Euskal Herri maite honetara betiko arratsa datorrela.

—Zu doanarekin itsutua zaude, Joxe; ez da horrenbesterik izango. Gaurko gazteok ere Euskal Herria, bere berdingabeko hizkuntza eta guzti, maite dugu. Gu ere euskaldunak ez ote gara, bada?<sup>103</sup>

—Ez zekiat benetan edo txantxetan ari haizen. Nik, nire begi eta bihotz zahar hauekin lehengoa ikusten dudala eta, hura

---

<sup>102</sup> Begitan eduki: Gorrotatu.

<sup>103</sup> Berrio ere, Atañoeren hitza tartekatzen da, Joxeren bakarrizketa luzean.

galtzera doalako, nire bihotz doanari lotu honek min duela ez diat ukatuko. Ai, motel! Aurrera begiratuta ere, iluna zegok etorkizuna! Hiltzen ari baita, hiltzen, euskara!

—Asko galdu dela, egia biribila da. Leku askotan euskarari eusten hasi direla ere ez dago ukatzerik, ordea.

—Guraso euskaldunek semeak euskaldun ezin badituzte egin, guraso erdaldunek nola sortuko dituzte? Itxaropena duk azken galtzen dena; eutsi horri! Benetan maite baduzue, zuena duk auzia. Maitatzean, hor zegok guztia. Ai, Ataño! Nahi nikek hik arrazoi bahu eta nik huts egingo banu!

Pixka batean isil-isilik egon zen pentsakizunez; hasperen luze bat egin ondoren, jarraitu zion berriz ere lehengo hariari:

—Oraindik ezagutu dudan gaztaina-gerririk lodiena, haranzko bidegurutze hartan zuan, erdi-erdian, hiru bideak bereizten zituena. Ordurako, barru-huts zegoan, eta agure zahar baten ile banaken antzera, abar ale batzuk bazitian oraindik. Hura zuan gaztaina-enborra, hura! Bost gizonek besorik beso ezin hartu zuten gerria. Gaztea zenean, ez zian nolanahiko itzala egingo; bai gaztaina ale mordoxka ederra eman ere. Aita zenak guk bezalatsu ezagutu omen zian. Buru-abar ustel hartatik, gaztaina, haritz, hurriz, lizar eta belar-landare berriak jαιο eta, bere barruko hezetasunari eskerrak, gaztainaren buru-adarrean bizi zituan.

Oraindik ume ninduan, baina oroitzen nauk oraindik nola eman zioten bere azkena. Umetan gu ere, besteen gisa, jostailu xamarrak izaki, eta, gudaren bukaeran, gure etxe inguru honetan bilatutako kartutxo pilak bazitian nire anaia Juan Kruzek.

Bazkalondo batean, gure guraso maiteak lo-sustan zeudela, ote-muiloz<sup>104</sup> bete genian gaztaina zaharraren barrua, genituen kartutxo pilak ere barrura sartuz; su eman eta leku babes batetik

---

<sup>104</sup> Muilo: Pila txikia.

begira jarri gintuan, zer tarrapatakoak ateratzen zituen entzun nahirik. Sutan zegoela, han azaldu zitzaiguan Altza gainetik kanoinazoz erraustu zuten Ataño baserri zeneko gizon xaharra. Aitzurra bizkarrean, patxadan-patxadan, haranzko hegalean zeukaten belar-soro batera zihooan. Etxez aldatu baziren ere, lehengo barrutiak beren esku baitzeuzkaten oraindik.

Juan Kruz ni baino zortzi bat urtez zaharragoa baitzen, ordurako ondo juizioan sartua, bera genian gure saileko buru; bera antolatzaile eta su-emaila. Gu, haren esanetara lan egin genuen morroi batzuk besterik ez gintuan. Gertatzen zena gertatu, guri ez ziguan bost axola. Baina Juan Kruzek, bidean honantz zetorrela ikusi zueneko, izutu xamarra, hala esan ziguan:

—Ea balaren batek harrapatuta, gizon hori bertan geratzen zaigun!

Sutan zegoen gaztainara hurbildu baino lehen, aurreratuz, hala esan zioan anaiak:

—Aizu, Ataño! Hobe zenuke pixka batean hemen gurekin itxoingo bazenu!

—Ume mukizua alaena! Utzi nazak bakean! Jolaserako nagoela uste al duk?

Anaiari zehar-begiratu zorrotz bat eginik, purrustaka bere bidean jarraitu zian.

Ordurako, gure guraso maiteak-eta, gaztainatik gora zihooan keari begiratzuz eta Ataño xaharraren purrustak ikusiz, harriturik zeudean atarian.

Gure Ataño xaharra gaztain ondora hurbildu zenean, hasten dira tiroak! Gizajoa! Hura Ataño xaharraren larria! Airean bota zian bizkarrean zeraman aitzurra; txapela ere haizeak kendu zioan; eta, bere buruko ile zuri banakak airean zerabilzkiela, ihesari eman zioan gure etxe aldera.

—Gerra bukatu zela! Gerra bukatu zela! Nondik datoz, bada, tiro horiek?

Atañoren larria ez zuan harritzekoa: gortu xamarra eta lausotua baitzegoen ordurako, beti bere buruarekin hizketan eta erreminta gehienek izenak ezin gogoratuz ibiltzen zena, tiroak nondik zetozen ez zioan antzik ematen.

—Gaztaina zaharretik, Ataño! —erantzun zioan anaiak la-sai asko, halako gibela al zian izan ere—. Pixka batean itxoitea komeni zaizula esan dizut, bada! Gaztaina zaharrean sartu ditugun kartutxoak ari dira tiroka!

Hari oihuka ez zuan alferrik ari anaia; ordurako gure atarian zuan eta.

Guk hesteak bota genituan barrez; baina gurasoak, Ataño xaharraren imintzio eta larriak ikusirik, ez zekiat nola ez ziren lehertu.

Halere, aitak, lagun maitea baitzuen, bere ahots ederrean honako bertso honekin agurtu zian gure Ataño xaharra:

Onuzkero gutxinez  
eun urte baditu,  
bere eginkizuna  
daneiri serbitu.  
Orren pazientziyak  
zenbaitek balitu...  
Sua emanagatik  
ez dute mugitu.

Nere aitaren bertso hau besterik ez zekiat. Jakina, bertso hau sutan zegoen gaztainari kantatu zioan, baina Ataño xaharra zirikatuz, pazientzia gehiago hartzeko, alegia.

—Hator, hator, Ataño! Hori ere egin al diate, bada!

Sukaldera eramanda, Nafarroatik ekarritako baso bat ardo zahar eman zioan, oso ardozalea baitzen, eta lasaitu zuan gure Ataño.

Hark bidean galdu zituen aitzur, txapel, toxa, dunda eta igeltsuzko pipa, hau bi erdi egina, han anaiak eskura eman zizkioan.

—Utikan, ume txatxuak alaenak! Ez didazue susto txarra eman! Zuek adarra jotzeko nagoela uste al duzue?

Pipa bi puska egina ikusi zuenean, errukitu egin zuan Atañoz aita. Beti hiru edo lau berriak edukitzen zitian, eta haietako bat luzatu zioan. Ez zuan galduan atera.

—Eskerrik asko, Bixente! Zure seme horiek bihurriak datoz!

—Denok bezalakoak, Ataño! Gaztetan hamaika holako eginak ez al gara gu? Badakik hik ere ongi hori.

Bake-bakean joan zuan lanera. Atarramentu onik ez genuela egingo, ez, eta hurrengo eguartertan bertan bota genian ikusgarritzko gaztaina hura.



## ALDAKETAK

Goiz batean zaldizkoak igo zituan bide zakar hauetan gora. Beste hamabost bat egunean, goizik huts egin gabe ikusten genitian, betiko bidetik igo eta jaisten. Bidean topatzen bagintuzten ere, ez zigutean egundo agurrik egiten. «Mil reales, dos mil reales», beti diru-kontari. Berehala bataiatu genitian. Ordura arte *No entiendokoak* zirenak, handik aurrera *Diru-kontariak* izenarekin ezagutuko ditiagu.

Nire aita gazte zela, azaldu omen zuan hemen gizon txiki bat, erdaldun hutsa. Hilabeteak joan eta alde egiten ez zuela ikusi zutenean, norbait hila edo ihesi etorria izango zela-eta, harrapatu egin zitean. Egiten zioten galdera bakoitzeko, «No entiendo» erantzuten omen zian. Ordutik, euskaraz ez zekien guztia *No entiendokoa* zuan guretzat.

Karobia gal-gal beroena zegoen garaian ekarrita, batek be-soetatik, besteak hanketatik hartuta, «Bat, bi, hiru, lau!» esanda, airean karobira botatzeko keinu egiten zuten bakoitzean, «¡Perdón! ¡Perdón!» esaten omen zian. Izuarazi eta handik alde egitea nahi baitzuten. Utzi ziotenean, hark eramanez omen zitian larriak. Ez omen zuan gehiago azaldu, ez.

Oraingo diru-kontariak harro zetozean. Azkeneko guda ondoren gure nagusi bakarrak berak baitziren, beren etxean zebiltzaan.

Guda bukatu zela urteak zituan. Ukuilua osatu genian; etxea antolatu eta barruti denak ongarriz, azkeneko gizon-hiltzearen kutsuak garbitu eta bizipozean buruak jasotzen ari gintuan. San Markos eta Txoritokieta aurreko bi mendixka horien oinetan babestua, ederki zegoan gure baserri xahar hau. Ez zigutean hemen ere, ordea, bakean utzi. Orduan hasi zituan hemengo aldaketak. Madrilgo agintariek, behin lur maite honen jabe



bakarrak egin zirenean eta berriz halakorik gertatu ez zedin, gu esku eta oinak lotuta uzteko, asmakizun berriak sortu zitiztean: Euskal Herriko mendirik erosoenetan guda-gaztelu batzuk jaso, haiek leporaino soldaduz eta armaz bete eta kito: beti garondoa ezpata. Euskaldunok ez elkartzeak zekartzan aurrerapenak! Gaur oraindik ere akerraren adarrak bezala gabiltzak. Esnatu gabe galduko gaituk.

Gurasoek bazitean beldurra. Diru-kontarien eguneroko gorabehera horrek ez zigula on handirik ekarriko ziotean gehienek. Berehala zabaldu zituan susmurrak, San Markos eta Txoritokietako gailurrak hesolez<sup>105</sup> beteak zeudela; diru-kontariak beren neurketak egiten ari zirela. Igande batean guk gure begiz ikusi genian. Zer asmotan zebiltzan asmatzen ez zegoan zaila. Berehala hasi zituan Antxotik gora bide-eginean. Susmurrak egiak atera zituan: bi guda-gaztelu jaso behar zituztela-eta langile-eskeak hasi zituan.

Aurrean dauzkagun bi horietan, orduan hasi zitiztean, bada, lanak. Lehen mendi zoragarriak zirenak moztu zitiztean, sator-zulo horiek egiteko. Gizonaren harrokeriak itsustu besterik ez zitian egin. Lehen bake-leku zena, gizon hiltzeko txismez leporaino bete eta guda-zulo egin. Geroztik, lehen bezalako bakerik ez zegok txoko honetan. Gure baratzetan arakatzailerik ez zaiguk falta. Arrano-habia horiek aurrerapen handirik ez ziotek ekarri gure etxeari. Denok anaiak omen gaituk, eta bakoitzari berea ezin eman. Jainkoak aske egin zuen anaia bat, bere menpeko jarri behar besteak. Zapaltzaileek zabaltzen diguten ate-zulotik nahi eta nahi ez igaro beharra. Horra zertaratu duten gure Euskal Herri xaharra.

San Markos gainean, mendiari izena ematen zion ermita txiki bat bazuan. Bota zitean, baina berririk jaso ez.

---

<sup>105</sup> Hesola: Oholezko edo zurezko atal lodi eta sendoa, lurrean sartu eta finkatzeko mutur puntadun bat duena.

Gazt.: estaca. Frants.: palis, petit pieu de haies.

San Markos eta Txoritokietan guda-gazteluak jaso behar zituztela-eta langile eske bandoa jo zutenean, ikustekoa zuan hemen. Udaran eltxoa bezala, hura jendearen emana! Jakina: lehenbiziko, bidea zeukatean egin beharra. Ez zekiat nondik azaldu zen hainbeste jende, baina laster lardaskatu zitean beren bide-legea, San Markos eta Txoritokietaraino. Inguru hauetako itzain eta mandazainek lan-aukera bazeukatean; hor bilatu zitean beren Amerika. Inguru hauetako baserritar gazte jendea ere, berek ziotenez etxeko seme sobranteak, hona hurbildu zituan.

Inguruko herri koskorrak urruti xamar zeudean; eta, bakoitzak ahal zuen bezala, bertako baserri ale hauetan bilatu zitiztean beren apopilo-lekuak. Jainkoak zekien lekukoak ere bazituan. Bidasoaz haranzkoak ere bai tartean. Eltzekondo eta Txirrita ere hor zituan beste askoren artean.

Gazte jende kaskarin xamarra; irabaziak aurreratzeko gogo handirik gabea. Urte guztian sagardoa salgai edukitzen baikenuen guk, igande eta jaietan ez zuan atsegin izaten. Horko zurruta, jokoa, bertsoa, borroka eta sesioak; tarteka-tarteka nik egundo entzun ez nituen birao itsusi eta gaiztoenak ere bai. Lana eta istilua galanki eta irabazi gutxikoa duk, motel, sagardo saltzea. Hamaika arrastaka egin zian nire ama gaixoak. Astegunak aski ez baziren bezala, jaiak-eta okerrenak. Halere, beti bezain behartsu.

Hemengo borroka, joko eta jolasek ez ninditean ni pozten; bertsolariek bai. Haiek txoratzen zidatean bihotza. Garai hartan inon ziren onenek hemen egiten baitzituzten bilerak. Txirrita, Artzai Txikia, Gaztelueneko Xaturnino, Juan Kruz eta horien zorrik gabeko beste asko, denak gazteak; haiek bertsotan hasten zirenean, eta behin elkarrengana bilduz gero jakina zuan hori, txoko batean begi-belarri hantxe egoten ninduan entzuten. Haiek ordu zoragarriak! Haiek hainbeste ez ote nintzen izango? Aukeran aukerako bertsolariak baitziren. Halakoan, batere berezkoa duenak nahi eta nahi ez bertsolaria atera behar.

Bertsoa hasi orduko, nola bukatu behar zuen antzematen hasia ninduan. Baina bertsolari-etorria ere ongi Jainkoaren dohaina duk. Hemendik atera gabe zeudenak, beti bertsolari tartean bizita, halere tankerarik ematen ez ziotenak bazituan.

Edan xamarrek zeudenean, eta zoritxarrez askotan gertatzen zena zuan hori, bertso-joko txiki bat egiten zitean. Emandako denboren neurritan bertsorik bukatzen ez zuenak, denen erronda ordaintzekoa. Denak sartzen zituan; baita lanean ari ziren emakumeak ere. Hauek, gehienek, buruz bertso asko zekizkitean, hainbeste entzuten al zitean izan ere; halako bat kantatuz gero, bakean uzten zitean. Baina ikusi bahitu batzuen istiluak... Ez baitziren diruzko aukeran bizi orduan; erronda handiak zituan, berriz, eta min ematen. Eta zer nola kantatu ezin asmatu. Hamatika algara gozo eginak gaituk. Zaharrenak hasiera emango; ondoren, banan-banan, azkenekoa arte. Neurtutako denboretan kantatzen ez zuenak bazekian zer zigor zeukan: denen erronda ordaindu behar. Bertso bikainak bazituan tartean; itxura handi gabeak ere bai.

Gure auzoko mutil gazte batek, edan xamarra zegoan noski, sagardoz betetako txarroa eskuan zuela, honako bertso hau kantatu zian:

Diferentiak izaten dituk  
duru eta pezeta,  
ukulluetan alferrik zeudek  
esne gabeko beiak;  
ik e, Listorretako gañian  
izerditan uanian,  
txarro ezpañ motz ontatik pozik  
egingo uke txurru-pat.

Bertso bikain horri zer doinu emango zion, pentsatu besterik ez duk: itxurarik gabea eta ez barre eginaraztearren, hoberik

ezin asmatu zuelako. Larrialdia pasa zenean, hasperen luze bat egin ondoren, txarrokadaren erdia arnasa batean hustu eta eseri zuan esanez:

—Aiaiaia! Hamar arroako harria jasotzea baino gehiago kosta zaidak, alajainkia, bertso hori! Erronda honek honenbeste neke merezi dik!

Beste bat ere bazuan, honen anaia gainera, gero Ameriketara joan eta han hil zena. Egundoko bertsolaritzat zeukaan bere burua. Honek ere, ez hanka eta ez buru, kantatu zian bat. Haren poza! Bertsozik bikainenak baino barre gehiago eginarazten ziguan holako itxuragabeko batek.

Nire aita zenak, adarjotzaile xorrotx horietakoa baitzen, hala esan zioan:

—Bejondeiala, motel! Ederki kosta zaik, baina azkenean bertso polita moldatu diguk!

—Nahita ere, bertso txarrik ezin kantatu nezakek nik —erantzun zioan.

—Arrazoi duk, motel! Idiak ere ez dik egundo ume txarrik egiten!

—Hamahiru eta hamalau puntuko bertsoak botatzen ohitua nago gero ni!

—Hasi bai hamalau; bukatu alerik ez! —erantzun zioan aitak.

Ongi egia duk, bai, berezkoa ez denik, saiatzeak ezin leza-keela bertsolari egin.

Orduan bai euskara zela hemengo nagusi. Azken alde hau-etan egin den aldaketa, jaunak! Aurrerapenaren etsaiak ez gaituk. Hartzuloetako garaiak bukatu zituan betiko. Betor lana; betor dirua; betor aurrerapena; betor kirola ere. Herririk aurreratuenaren mailaraino jaso dezagun. Bizimodu guri bategatik ez dezagun nortasunik galdu. Ez dezagun euskararik saldu. Aurrerapen horiek denak euskaldunen eta Euskal Herriaren onerako enplega ditzagun. Herri baten gorputza indartu eta

dotoretzeko, beharrezkoa al da hizkuntzaz, arimaz aldatzea? Horrek besteengandik bereizten gaitik. Horrek egiten gaitik euskaldun. Hori galtzen bazaigu, ez duk lehengo bera izango Euskal Herria, ez; beste edozer. Herriarekin batera, dotoretu, edertu, indartu dezagun euskara, bere arima, horrenbeste maitasun merezi dik eta. Horretara, gu galduko gaituen indarrrik ez zegok lurbira osoan.

Lehenbiziko diru-kontariak ere orduan hasi zituan, beren zaldi gainetan zapaldu zuten lurrean barrena, patxada ederrean gora eta behera. Hasi baziren, hasi zituan; ia ito gaitiztek oraintxe. Orduan diru-kontariak bezain bakan zetoza gaurko egunean euskaldunak gora. Eguneko bat edo bi entzuten baditugu, kontent. Auzoko aitona-amonak ere, euskarari muzin eginda, erdarari erantsi zaizkiok. Moda berri bat, eta denak horren bila. Ai, nire odola balebil beren zainetan! Gu bagoazak; hor konpon zuek! Euskarari eutsi nahi badiozue, non joaren faltarik ez daukazue, eta gaur arte baino lan gehiagoren beharrean zarete, gainera. Altza gain hori ere baserrietaraino erdarak irentsi baitu.

Ai, Euskal Herri maitea! Hire hizkuntza zoragarri horrekin hain ederra hintzena! Horrengatik hago, hagoen bezala! Soriara ez dituk hire lurrera hainbeste arrotz sartu, ez! Hemengo txalet, jauregi eta fabrika-txistuen artean bizitzeko adina ez ote haugu, euskara maitea? Jakinduriaz janzteko ez ote duk balio? Jakintsuen mingainak lotu egiten ote dituk, bada, hik? Baserriko gorotz eta artzainen gazta-usain arterako bakarrik ote haugu ona? Guda madarikatua! Zuek dituzue erru guztiak! Zuek honetaratu gaituzue!

Barka iezadak, Ataño! Euskara eta Euskal Herriko egoera triste honetaz oroitzen naizen bakoitzean, nire onetik ateratzen bainaiz. Izan ere, guk, bihotzez maite dugunok, hainbeste sufritu al diagu!

Baina hau ez duk gaurko bekatua. Denok euskaraz hitz egiten genian; zoritxarrez, ez genian maite. Ordurako eraztun eta makila hasiak zituan ikastetxeetan. Ez genian idazten eta leitzen euskaraz; zerbait zekienak erdarara jotzen zian. Herriko jaietara joaten ginenean, han ikusten genitian: beren kapelu handi, erloju eta kate, bibote bihurrituak ezpainetan, dotore jantziak, euskaldun garbiak, herriko semeak. Haiek euskaraz hitz egin? Begira iezaio! Denak erdaraz elkarrekin! Gu, mutil koskorrak, aho-zabalka haiei begira, hala esaten genioan elkarri:

—Horiek medikuak badituk gutxieneko, kastillanoz ari dituk eta!

Horra pixkana-pixkana heriotzara garamatzen gaitzaren hasiera. Orain euskarak maitale gehiago zeuzkak. Beste eragozpen batzuek itotzen gaitiztek, ordea, gaur.



## TXIRRITA

Bertsotarako ez ezik, jokorako ere itsuak bazituan. Horietako bat zuan gure etxean apopilo zegoena. Izengoitiz, Jaio deitzen ziotean. Euskaldun garbia, Bidasoaz haranzkoa, sasoi xamarreko gizona eta mutilzaharra, noski. Harginik onenetakoa, asko irabazten zuena, jan-edanean neurrikoa, itsua zuan jokorako.

Txirrita, haren hargin-peoi aritzen zena, bertsolari zoragarria, beste edozertarako ere prest zegoen mutil gaztea, axolagabea, gainera, oso. Handia, luzea ez bazen ere, indartsua eta lanerako aparta, nahi zuenean; baina ez zuan lana gehiegi maite zuen horietakoa.

—Dirua ez duk egoteko egina! Diruak korritu egin behar dik, korritu! Horretan zeukak bere irabazia! —esaten zian maiz aski Txirrita gazteak.

Orain esatera noan gertakizun hau inork ba ote daki? Gure etxean bestetan inon ez diat entzun. Ez zekiat Txirrita gaztea Jaioaren hargin-peoi zelako-edo, arratsaldero, lanak utzi ondoren, San Markos hegal honetan jokoan aritzen omen zituan biak.

Beti bezala arratsalderoko saioa egin zutenean, betiko orduak baino lehentxeago, estu eta larri etorri zuan Jaio gure etxera. Zor zituenak azkeneko zentimoraino ordainduz, amari eskupeko on bat emanda, zituen traste pixarrak harturik, hemengo lanak bukatu zituela, bai, eta, agur ginez, presaka alde egin zian.

Nire amak esan ere bai:

—Horixe gizonaren presa! Dardaraka zegoan! Beldur gaiztoa sartu ziozkerbaitek horri!

Jaiok alde egin eta ordubete baino lehen, istiluak zituan gure etxean. Zaldizko bi guardia zibil beren bibote handiarekin; eta, jakina, erdaldun hutsak. Jaioaren bila zetozean, bizkarretik labana sartu eta mutil gazte bat hil zuela eta.



Nolabait adierazi zietean, zituen traste pixarrak hartu eta azkeneko zentimoraino dena ordainduz, alde egin zuela. Haren aztarrenik ere ez zitean gehiago atera.

Bitarte horretan, Jaiok labankada emanda hil zela esan ziguten gazte gizajoa oraindik bizirik baina nahiko lanarekin, hiltzori, odolusten, angariletan<sup>106</sup> beheko kantina txikira zekartean, gero handik Donostiara eramateko asmoan. Lekutan zegok handik Donostia, eta orduko aurrerapenekin bidean odolak itoko ziela esan beharrik ez zegok.

Hiltzori zekarten gazte gizagaixo hura, guk beldur genuena, Txirrita izaki. Zergatik labankada eman zion, ez genian egundo ikasi; hala komeni zitzaiolako-edo, isilik gorde baitzuen.

Kantina txikira hurbildu zireneko, oihuka azaldu omen zuan bertako nagusia; bere seme bat adina maite baitzuen Txirrita. Egun hartan edan xamarra baitzegoen, gainera.

—Gazte gizajo honi zer egin diozue?

—Guk baino hobeto, berak jakingo dik hori! —umore txarrean baitzeuden.

—Nora daramazue orain?

—Donostiara eraman beharko! Alferrik nekatuko gaituk noski, bidean odolak itoko baitigu! Bizi den arte behintzat, ahalegiak egin ditzagun!

—Utz ezazue gaurkoz hemen! Utz ezazue nire etxean! Gela txiki bat bazeukaat hutsik, eta hara eraman ezazue! Aizak, gazte: ongi ordainduko diat eta sendagileari abisa iezaiole lehenbailehen etortzeko! Ni egiten nauk gazte honen kargu!

Donostiara zeramatenak ez zituan haserre. Halaxe, kantina txiki hartan utzi zitean Txirrita hiltzori. Gaztea izaki, osasun oneko eta indartsua, oraindik ezeren aje txarrik gabea, egun batzuk

---

<sup>106</sup> Angarila: Anda.

Gazt.: camilla. Frants.: civière.

larri-larri pasa ondoren, onera eman zian. Edale amorratua eta aseezina izaki, ordea, Txirrita. Oraindik sukarrez gori kiskaltzen zegoela, aldameneko ohepean, hala behar-eta, tabernariak berak, izan ere ia beti gehiegian zebilena zuan hura ere-eta, bi pitxer ardoz beteak ezkutatu ez zituen, bada! Bai bere lozorrotik Txirritak ikusi ere. Ahal zuen bezala jaiki, bi pitxer botilak tantorik utzi gabe hustu, eta mozkor-mozkorra, oheratu ezinik, luze-luze, hoztua eta korde gabe aurkitu zitean.

Tabernariak, izututa, kezkatu xamar ere bai, berea baitzen errua, behin Txirrita kontura etorri zenean, haserre bizian eraso omen zioan:

—Ai, Txirrita, Txirrita! Epela sartu diguk! Oraintxe bai heure burua galdu duala! Azkeneko ardoak edan dituk! Astoa alaena! Hori egingo higun, bada? Hiri on egiteak ez dik askorik balio!

Ikusi zuten sendagile guztiek etsipena eman ziotean. Hilzori zegoenaren bizkar erruki handi gabe, esan omen zioan aurpegira<sup>107</sup>:

—Bihar goizerako sendatuko haiz, Txirrita!

Zergatik esaten zion igarririk, hitzetik hortzera, erantzun omen zioan Txirritak:

—Ezta hil ere, jauna!

—Bi orduko bizirik ez dauka eta hori da gizonaren korajea! —esanda, joan omen zuan sendagilea.

Arratsa ez zuela harrapatuko, goizerako hilko zela, egun batzuk estutasun larrian pasa ondoren, berriz ere onera eman zian Txirritak. Handik bi hilabeterako, gure upelategian bertsoan aritzeko moduan zuan. Bi orduko bizirik ez zeukala esan zuenak ez zian asmatu. Azkeneko ardoak edan zituela esan zuenak, hain gutxi. Hogeiren bat urte inguru zitian artean Txirritak; hirurogeita hamalaura bitarte, Txirritaren adina hil zenean, eztarri zahar

---

<sup>107</sup> Esan omen zioan aurpegira [mediku batek].

hartan pasa ziren ardo-sagardoak pila batean baleude, merkatuko lituzkek. Gure upelategiko txotx berri bat galdu ez zuen gizona, hura zuan gero!

Hainbeste ez edateko, maitasunez norbaitek esaten bazion, laster zian erantzuna:

—Txirrita esker oneko gizona izan duk beti. Bi bider nire bizia ardoari zor zioat; maitasuna ere bai.

## GAZTARO

Mendi hauetakoa lanak ere, behin behar-eta, bukatu zituan. Ordua zuan. Udazken-sarreran enarak bezala alde egin zian jendeak; txoko maite honetan hazi txar asko erein eta gero, ordea. Geroztik kalte besterik egin ez diguten gaztelu zahar satorzulo horiek hor geratu zituan betiko zutik. Zer gerta ere, lepoan beti ezpata.

Bakea etorri zuan txoko honetara; niretzat ez, ordea. Urte estuak zituan haiek niretzat. Lanpetik ezin atera; lanaren morroi geratu ninduan; eta bihotza ere, lehen bakean lasai lo neukana, esnatu. Nolakoak egiten gaituen Jainkoak! Urtebetez lehenago lagun nituenak, neskatxak alegia, axolagabe jolasean ibiltzen ginenak, urtebetez geroago, begira iezaio: ez haiek nirekin eta ez ni haiekin; halako errespetu bat hartu genioan elkarri. Hori ez zidaan niri inork erakutsi: haiek eta ni ez ginela berdinak. Baina, inork esan gabe, laster antzeman nioan; haiek ere berdin. Esnatu ninduan. Bakeak alde egin zian nire bihotzetik; nire urterik onenak joan zituan. Orain lehertu behar lanean, eta itsaso bat bihotzean: gaur baketsu, bihar haserre; gaur pozez, bihar negarrez. Holakoxeak egin gaitik Jainkoak, eta borondate ona behar bere neurrietan edukitzeko.

Gure aita zena, zahartu xamarra, alargundu eta berriz ezkondu baitzen, etxeko bakeak alde egin zian. Semerik zaharrena, hogen urtez gorakoa ordurako, etxeko maiorazkoa galdu zue-nean, aitarekin haserretu eta Ameriketara joan zuan. Geroztik ez zian sorterririk ikusi; ez baitzuten inon haren aztarrenik atera. Ez zekiagu ez non bizi eta non hil zen. Ez nian ezagutu; ni jaiotzerako alde egin baitzen. Nonbait hor, honen antzeko zenbat euskaldun galdu ote da?

Horregatik, lehenbiziko amaren seme-alabetatik gurera, alde handia zegoan. Haiek ezkondu eta alde egin zutenean, aita xaharraren ondoan, gaztetxo oraindik, bakarrik geratu ninduan, baserri zakar honetako lanak egiteko.

Hainbeste maite nuen nire anaia Juan Kruz ere ezkondu eta joan zuan etxetik, Loiolako kuartelak dauden txokoan, Telleria izena zuen baserri zoragarri batera, ibaiaren ertz-ertzean. Kuartelak egiteko baserria kendu ziotenean, Errenteriako Arramendira etorri zuan; baina ordurako alargundua, eta hor utzi zian betiko mundu hau.

Hamazazpi bat urtetarako, bada, nire bizkar geratu zituan etxeko lanik gehienak. Aita ordurako zaharra baitzen, eta ez zuan ezer askotarako gauza. Bi arreba banitian; baserri-lanerako, haiek eta atarian haizea, berdintsuak zituan. Hanka azpian *ziika* ari den sugedorriak baino gehiago izutzen zitian eguzkiak, gizona! Urte guztian eguzki-izpi batek ez zian haien aurpegirik ukitzen. Gaurko modarik ez zuan oraindik sartu. Gaur, sugandilen gisa, erdi larrubizirik, hor zeudek, izerdi-koipetsu, eguzki berotan kiskaltzen, beren azal zuria egosi eta belzten. Haiek eguzkitara aterako zituen kristaurik ez zuan, bada, gure etxean. Ezta markesaren alabak izan balira ere.

Lan nekosorik gehienetarako, bakar-bakarrik geratu ninduan. Lan egitea zer den, inork ez zidak erakutsiko. Metroarekin hasten bazarete, neurri handirik ez didazue hartuko. Geroenean horixe bera esan zidaan jostunak ere. Halere, ni bezalako bi irentsiko zituztelakoan zeuden kankailu galantak behin baino gehiagotan ezinean geratu zituan nire ondoan. Hamaika izerdi-*isuri* eta gatazka egina zegok gorputz xahar hau geroztik. Janedanean eta erretiroan neurritz badabil, lanak nekez galduko dik gizona. Izugarria ez nauk; makinatxo bat leher eta lan egina bai, ordea. Belzteko gupidarik gabe aritzen ninduan. Basarana bezalakoxea ninduan; alferrikako gantz eta koipe-kutsurik

gabea; osasuna, berriz, saltzeko ere bai. Zumea bezain ximel eta bigun, hemengo mendi-muturrei eragiteko ez nian itxoin behar handirik izaten.

Ordurako, kontrabandoan hasia ninduan. Patrikarako diru pixar bat nahi izaten nian; eta etxeko lanetik, berriz, dirurik ezin jaso. Eguneroko baserri-lanari berea eman orduko, ukuiluko lanak eginda, gainerakoak lasai lotara zihoazen bitarte, zaku txiki bat bizkarrean hartu eta isil-isilik kontrabandora; hango irabazia niretzako bainuen. Kaxatzarren bat bizkarrean nuela, leher egin; gauaren erdia mendirik mendi galdu, eta goizean, eguna orduko, jaiki behar berriz. Karabinerorik ez nian egundo bide horietan topatu. Behin Hernaniko zubian zer gertatu zitzaidan, ondo gogoan zeukaat. Ezkondua ninduan ordurako.

Koinatua eta ni, barril koxkor bana espiritu<sup>108</sup> bizkarrean, Hernaniko zubiraino iritsi gintuan. Nire laguna, kontrabandoa harena, karabinero, mikelete edo beste guardiarik inguru hartan bai ote zebilen ikustera joan zen bitarte, bi barrilak bizkarrean nituela, bakarrik geratu ninduan, hura etorri zain, zubian. Ez zekiat espiritu hark zorabiatu ote ninduen; arrats ilunean eta Hernaniko zubian bi barrilak lurrera erori ez zitzaizkidan, bada? Haiek atera zuten hotsa! Zer gertatzen ote zen izutua, laster azaldu zuan laguna, eta harantz-honantz zubian firrilaka<sup>109</sup> zebiltzan nire bi barrilak ezin harrapaturik nenbilela ikusi nindian. Haiek algarak, harenak! Handik etxerakoan ere, mila bider igaro nuen bidezidor bateko langan galduta, orduak bota nitian etxerako bidea ezin bilaturik. Gero lagunak esan zidanez, hark ere gau gaiztoa pasa omen zian.

Nire kontrabandorako bideak orduan bukatu zituan. Etxera ekartzen zidatean handik aurrera. Gure mendiko harkaitz-zuloren

---

<sup>108</sup> Espiritu: Edari alkoholoduna.

<sup>109</sup> Firrilaka: Biraka.

batean gorde eta sagardotegirako aitzakiatan zetozenak hartuta, dendarik denda zabaltzen zitiztean nonbait.

Kubako gudate hura ere garaitsu horretan zuan. Nire bi kontrabando-lagun han galdu nitian betiko. Haien izenik inork ez zian jaso; beren etxekeok ere negar egiteko eskubidea besterik ez zitean eduki; gudazale ziren handiek, bai. Itxuragabe hainbeste gazte hilarazi, lur-mutur guztiak galdu, eta halere haiek omen zituan gizonak. Jainko maitea, itsumen hori noiz arte?

*Kitolo* deitzen genion morroi erdi txoro batekin, zenbat lan egin ote nuen urte haietan? Ez ninditean halere igande eta jaietan etxean harrapatuko; inguru hauetako herri koskorrak airatzen genitian guk. Baserri hauetako neskatxarik gehienak ezagutzen nitian; denak zituan politak eta gustagarriak; urte horietan hala ziruditek, behintzat. Inguru xamar honetan, begiz joak ere banitian; haiekin hitz egin, ibili edo dantzatzerik... hori ez oraindik.

Nire aita zenak hamaika bider esan zidaan.

—Aurreratutako oilasko koskor ttonttor-gorri horietako bat dirudik, oilo xaharraren baranoan<sup>110</sup> bueltak emanaz eta hegoak zabalduz kukurrukuka. Begira iezaio, motel: suarekiko jolasak txarrak dituk gero!

Begien ondoren, bihotzak ere ihes egiten, berriz, niri. Jainkoak bata besteentzat egin gaitik, eta ez duk harritzekoa. Hain umetzat ere ez neukaan nire burua. Astero bizarra ebakitzen bainuen.

Aurrean daukagun baserri xahar hori nire gain geratu zuan, bada. Bazegoan non joa. Hainbeste azienda ukuiluan; zelaiak ez ezik, mendiarte hauek denak laiatu behar, garia ereiten baikenuen horietan. Artoa, babarruna eta garia; horixe zuan orduko uzta. Hemendik begiratuta ikusten ditugun baratze horiek geroztikako aurrerapenak dituk. Herri handi hauen inguruan, baratzea duk seguruena.

---

<sup>110</sup> Barano: Inguruua.

## KINTO-URTEAK

Eguarte batean, halako abisu txiki bat ekarri zitean Errenteriatik niretzako: hurrengo igandean, hamabiak inguru horretarako, udaletxera azaldu behar nuen deia. Nire kinto-urteak<sup>111</sup> zituan. Ez zituan nahi ordurako etorri. Hogeira baino, hogeitik berrogeira aisago saltatu nian. Hainbeste bider lagunartean aitatu genuen eguna ere, etorri horratik noizbait. Ez ninduan haserre. Lanpetik atera eta urte batzuk lasai pasatzeko zoratzen bainengoen. Mundu biribil hau ikusteko aukera bikaina. Gure aurretik izan zirenek beste konturik ez zerabiltean. Beren Madril, Bartzelona, Amerika, Afrika, gu gazteok aho-zabalka entzuten genuela oharturik, gozoak jartzen zituan. Zanputza<sup>112</sup> bezala haizatzen zituan, motel. Gazte askoren buruak txoratzuz, egia-itxuran gezur galantak ere sartzten zizkigutean.

Galtza zaharrekin joan eta zaharragoekin Amerikatik etorritako indiano bat bazuan, gure upeltegirako joera handia zeukana. Amerikako kontuak esaten hasten zenean, haren hitz-jarioak ez zian etenik, armiarmaren sarea bezalaxe.

Egun osoak zaldiz ibili eta mendirik ikusi gabeko zabaltokiak; itsasoa bera adinako ibaiak; ehun metrotik gorako zuhaitzak; hogeit metroko sugeak; egun-argirik ezagutzen ez zuten basope itzaltsuak; gailurrik ere ageri ez zuten mendiak. Han ez zuan ezer ere txikirik, eta denetik aukeran. Ezin sinistu litezkeen kontu hauek esaten ari zela:

—Motel, motel! Hire zorioneko Amerika hori non dago, gu ere ikustera joan gaitezen? —bera baino lehen Ameriketan izan zen batek galdetu zioan.

---

<sup>111</sup> Kinto-urteak: Soldadutza egiteko urteak.

<sup>112</sup> Zanputz: Globoak.



Behatz bat txistuz bustita, upeleko hautsetan zirriborro batzuk egin zitian, eta ondoren esan ziguan:

—Hau duk mundua.

Handik hamar bat zentimetrora behatza jarriz, denok harrituko ginelakoan, esan ziguan:

—Amerika, berriz, hemen zegok.

—Alajainkia! Munduz kanpo ibilia haugu orduan hi. Nola diote bada aho batez denek behin mundu honetatik ateratzen denik ez dela gehiago etortzen? Bejondeiala hiri!

Berak inozotzat jo zituen inguruan zeuzkan baserritarrek indianoaren bizkar ez zitean barre gaizki egin.

Gazte eta osasuntsu, amets arinez gainezka eta zulo honetatik atera gabea oraindik, Amerika, Afrika, Madril, Bartzelona, ahoa beteko izen horiek zer ote zeukaten ikasi nahirik, irrikatzen bainenbilen. Gaurko egunean holako konturik ez zegok; jaio orduko, edozein mukizuk lurbira osoari buelta ematen baitio.

Mendi-hegal hauetan, segan edo egur botatzen aritzen nintzenez, askotan ikusten nian arnaska eta txistuka, ke pila beltzak airatuz, *txaupaxaupax* indarka, aldapak ezin igorik, trena, bere betiko burdinbideari lotua. Aurrean daukagun itsaso zabal urdin horretan ere bai, geldi-geldi, urrun, batzuk zapiak harrotuz, besteak berriz ile-mototsak ziruditen ke-zirrindak<sup>113</sup> haizeari emanez, itsasontzi beltzak, gau ilun eta ekaitz gaiztoetan oihu tristek mendi alde hauetara zabalduz, garai bateko herensugearen antzera. Sasijakintsuei entzundakoaz gainera, haiek urruntzen eta ahitzen ikusirik, nondik nora ez nerabilen irudimena? Zenbat amets gozo ez nuen egiten nik! Gurasoak zeinek mantendurik eduki banu, zegoen bezala dena utzita, Ameriketara alde egingo nian. Lagun asko baintuen han aurretik joanak. Laster etortzekotan agurtu ninditean, baina betiko

---

<sup>113</sup> Ke-zirrindak: Ke-zerrendak.



nonbait han geratu zituan. Han gelditzeko gogorik ez neukaan; asko maite bainuen txoko hau. Inori saltzeko ez neukaan. Gauza berriak ikusi nahi; beti aurrera begira; gaztea izaki. Gaur, berriz, oroitza zaharretatik bizi nauk. Zahartu naizen itxura. Ekaitz gaiztoetan oihu triste haiek entzunez, samurtzen zuan nire amaren bihotza, eta askotan esan ohi zidaan:

—Horiek, gaixoak, larri zebiltzak, eta inork maite gabeak ez dituk! Sukalondoren batzuetan, hauek noiz joango zain edukiko ditiztek beren emazte, guraso eta haurrak, besarkatzeko zoratzen eta ogi-koskor bana ahora eramateko pozez.

Haien aldeko aitagurereen batekin bukatuko zian beti bere hitzaldia. Ohitura bera zeukaat nik ere oraindik.

Ontzi horietakoren batean Ameriketara edo Afrikara joateko zoratzen bizi ninduan. Aberastu nahirik ez, ez bainaiz diruzale horietakoa. Beti aurrera, gehiago ikusi, berrizale, esna ere ametsetan; hemengo lan neke honi ere, urte batzuetarako bederen, agur egin. Diru-kontarien hizkuntza ere, lardaskatzen bederenik, ikasiko nuela. Gaztea ez duk geldirik egoteko egina.

Ai! Orduan ere nire amets goxoak haizeak eraman zitian. Nire aita zena legeen berri ongi zekien gizona baitzen, eta bitarteko onak bilatzen zekiena, aurrez eramandako kapoi-pare eder batek atek zabaltzen baitzizkion.

Hirurogei urtetatik ondotoz pasea zuan ordurako; baserri-lanetarako ni beste gizezkerik ez zeukaan, berriz. Nire kinto-lagunak harantz eta honantz sakabanatu zirenean, txantxan-gorriarena egin behar nik: betiko zuloan geratu, beti bezala lanpean, mundurik ikusi gabe, besteren kontuak sinistu nahi ezik. Atzekoz aurrera jaioa izaki ni, nonbait.

Dena ez zuan, halere, niretzako zaputz. Kintan sartu nintzeneko, gizontxo egin ninduan. Soldadu aurretik, jai eder bat antolatatu zitean nire kinto-lagunek, eta jai hartarako sarrera nik ere banian. Ordura arte erdi ezkutuka bertsoan aritzen

nintzena bainintzen, lagunarte maitagarri hark, eta ohitura baino gehixeago edan nuelako ere bazitekean, lotsak erabat botata txoratu nitian lagunak. Ostatutik bizkarrean atera ninditean. Hor zabaldu zidatean bazterrik bazter egundoko bertsolari-sona<sup>114</sup>. Ez ninduan haserre. Gizarterako atea zabalik neuzkaan. Ez ninduan ume. Min zitean lagunek ni gabe joan beharra. Niretzat gurasoak zituan lehenengo bada eta.

---

<sup>114</sup> Sona: Ospea.



## KANPOAN USO, ETXEAN OTSO

Kinta ondoren datozen urte horiek gaiztoenetakoak izan zituan niretzat. Anaiak alde egin; bi arrebek ere, gorputzez etxean bizi baziren, bihotzak kanpoan zerabiltzatean; koartzak<sup>115</sup> bezala, hegatu nahirik, lepa-luzeka hasiak zituan. Gurasoak, berriz, zahartu; eta, esan ohi denez, ume bihurtu. Lanak eta nekeak ez ninditean izutzen; hori, bekatuaren zigor bat besterik ez duk. Sutondoan maitasunik eza, hori zuan purgatoriorik gaiztoena niretzat.

Aita maitea, urtez, nekez eta nahigabez zahartu egin zuan, eta burua ahuldu. Ardi zaharra baino goxo eta atseginagoa zena, ezin burutzeraino gizatxartu zuan gaixoa.

Berak zioenez, etxean ez genian inork maite; denok bere aurka ari gintuan; ez genian haren agindurik egin nahi. Hark egindako ondasunak jaten ari gintuan; bera ez zuan familiako buru. Goizetik arratseraino lanik zail eta nekosoenetan jardunda, sutondoko atseginera maite nituenen artera bildu eta begiratu txarra; arrazoirik txarrenak entzun behar:

—Hi kanpoan omen haiz uso! Etxean otso, ongi halere otso!

Hamaika bider entzundako arrazoia zuan horixe. Zenbat ilunabarretan, zelaitik etorrita, etxera sartzeko beldurrak ez nintzen egon, sukaldera sartu nahi ezik, bihotza trinko korapilatua, munduan gehiena maite nuenaren beldurrak! Bere zahartzaroan eze-ren premiarik eduki ez zezan, gau eta egun lanean ariki, eta aurrean ikusi baino ez ikusi nahiago. Aita oheratzean, ama, nire urte haietako aingerua, maitasun hutsa, aitaren zakarraldiak baretzen zekiena, irribarretsu, han azalduko zuan ate-ondora:

—Hator, hator sukaldera, Joxe, aita lotara joana duk eta!

---

<sup>115</sup> Koartza: Hegazti zangaluzea eta buru-txikia, moko luze grisa duena.  
Gazt.: garza. Frants.: héron.

Hark etxean zituen gauzarik onenak niretzako zituan orduan. Neraman purgatorio hartan burutuko banuen, halako ama baten beharra banian. Bestela, dena zegoen bezala utzita, alde egingo nian nonbaitera. Gauza guztietatik aukera eduki arren, huskeria bat aski dik haurrak negar eta iskanbila hasteko; zaharrok ere halatsukoak gaituk.

Borondaterik onena neukaan, halere. Inondik inora ezin nitzakean aitaren gutizia denak bete, zerekin ez baineukan. Izanda ere, ez bainuen hartarako betarik. Jainkoak bidaltzen dizkigun gaitzak dituk eta.

Orduan azaldu zuan beste bitarteko bat: urte batzuk lehenagotik ezkontuta, kalean bizi zen nire arreba, etxean lan fundamenturik egin gabea. Zelaian neketan lan eta lan ari nintzen bitarte, zuri-zuri, hiztun eta alai, irribarre goxo jario, saskitxo bat eskuan zuela, ia arratsaldero azalduko zuan Bordaxarren, txoria bezain arin, aitaren eder egitera. Maite-itxuran gutziaren batzuk beteko zizkioan, aita maitea liluratuz; eta etxeko arrautza, babarrun eta beste nahi zuen edozer, nire izerdiaren saria, saskitxoan eramanez, aitari laztan zuri bat eman eta agur, mutilak! Kargarekin oker-okeregina beherakoan, gorakoan tente-tente, arin-arin, etorri zena. Hau ez duk nik asmatua; jendearen esamesak dituk. Hi hor konpon hadi; hik lan egin eta jan ezak harria! Eguna joan eta eguna etorri, urteetan, aita hil zen arte, martxa hori bera. Aitak, berriz, benetan hark maite zuela uste, eta guk ez genuela ikusi nahi. Ongi jakinki, berriz, aitaren maitasun-aitzakiatan gauzen garraio zebilela, amak ere, nik ez ezik, bereak eta bost sufritu zitian urte haietan.

Sendirik gehienetako leloa duk hori. Denon buruak ahultzen baititu zahartzeak. Batzuk, halere, besteak baino gizatxarragoak bihurtzen direla ez zegok ukatzerik. Seme-alabak aurrera ezin aterarik, baserriko neke latzetan beren osasun eta bizia ahitu duten aitona-amona gehiegi hiltzen duk miserikordian,

leku arrotzean. Gauza negargarria horixe, baina ez maite eta mantendu nahi ez dituztelako. Hain barren gaiztoko seme-alaba gutxi zeudek Euskal Herrian; etxean harekin ezin burutu dutelako. Zahartzean batzuk hainbeste pipertzen baitira.

Nire ondoan neuzkan arrebek beren lagunak bilatu zitiztean; eta, nire eskopeta bizkarrean, ehizarako aitzakiatan, hasi ninduan begiz joak neuzkanei bisitak eginez. Neroni txiki xamarra banaiz ere, neskata handiak nitian gogozkoenak. Zenbat ibili gaizto ez nuen egin nik! Aste guztiko egunen orduak baserri-lanik nekosoetan igaro eta jaiak etorri zain zoratzen; ez atsedeteko pozez, ordea. Goizeko meza entzun; horretarako ere, hamar kilometroren joan-etorria baneukan. Eguartean etxeko lanak egin; eta bazkalondoan, aupa, mutilak! Nor ote ginen gu? Haiek ibilerak! Gogozko lekuan, aldaparik ez. Niretzat ez zuan behintzat. Arratsaldea erromeriaz erromeria pasa, eta arratsean, neska txar baten ondoan, mendikaskoren batean zegoen urrutieneko baserriraino. Atarira lagundu eta, aurrera pasatzeko lotsaz, «Agur, hurrena arte!» esanda, Jainkoak zekien garaietan etxera. Ongi pentsatuz gero, hori baino ibili txoroagorik bai al da? Baina, neskata bati etxeraino lagunduta, badakik nik graduak jasotzen nituela. Hurrengo goizean, oilarrak kukurruku jo orduko jaiki behar. Denetan okerrena, berriz, aitaren betiko eraso. Nire amets goxoak laster uxatzen zituan. Gosari txikia hartzeko ere pozik ez nian izaten. Ukuiluko lanak egin, trasteak hartu eta zelaira. Ama gaixoa atzetik oihuka:

—Baraurik joan behar al duk, motel?

—Utz iezaiozu bakean! Ona da hori! Atzoko asekadak on egin dio! Ez du bere bururik galduko, ez, horrek! Bart egindako gaupasak mantenduko du. Arratseko poza, goizeko negarra. Horixe gertatu zaio horri. Kanpoan jalki<sup>116</sup> zaio bihotza, eta etxerako behazuna. Kanpoan uso, etxean otso!

---

<sup>116</sup> Jalki: Isuri, irten.



Arrazoirik txarrenak banan-banan, letaniak erreztatzen ari balitz bezala, aitaren etengabeko jarduna sukalde txokotik.

—Gizona, zaude isilik! Bazaitugu zu ere batxo!<sup>117</sup> Etxeko lan guztiak ia bakarrik egiten ditu, eta beti purrustaka! —amaren erantzuna.

—Amen, hala bedi! —aitak, eta isilunea.

Handik berehala, aitaren gordean, *xarra-xarraka*, nire gosaria hartuta, han azalduko zuan ama gaixoa. Etxean harexek goxatzen zian bihotz mindu hau. Urteetan bizimodu horixe eraman nian. Kontatzeko hobeak dituk, pasatzeko baino.

Hurrengo jaien ere, betiko martxa, neskaten bati laguntzeagatik, aldapak gora. Ez neukaan erreuma-haize handirik. Halere, bat bilatu nian moduzkoa; ederrik bazen, ederra; inguru xamarrekoa, gainera. Ukuiluko lanak egin, afari-lege bat hartu eta aldapak gora. Neska mutilzaleak hankak arinak dituela, esaera duk; mutil neskazaleak ere ez ditik bada motelak, motel! Ilunabarrero han ninduan; halere, edozer aitzakia aski izaten nian, noiznahi bertara azaltzeko.

Beti garaitsu batean joaten bainintzen, eta iluntzearekin batera, hurbiltzen nintzeneko zain edukitzen nian gehienetan, ukuilu atzeko ate txiki baten ondoan eta amaren isilean. Haren ondoan harekin hizketan, minutu bat ziruditean orduak. Txantxangorriak maitearen hurbil bezala, zenbat bertso ez nion kantatu! Gazteak izaki eta sua bihotzetan.

—Iñaxi!!! —sukaldetik oihuka ama—. Non sartu ote zait ume hori? Dagoen lekuan dagoela, ez dun bakarrik egongo, ez! Edukiko din beste horietakoren bat aldamenen! Inoren aurrera azaltzeko gauza ez den kaskarren bat, noski! —berekiko sukaldean amak.

—Iñaxi!!! —luze bat berriz ere.

---

<sup>117</sup> Batxo: Bat.

—Ama oihuka ari zait eta agur, bihar arte, Jainkoak nahi ba-  
du! —esan eta lasterka joaten zuan sukaldera.

—Atso ximur hori! —amarengatik gaizki esaka eta amets  
gozotan etxera berriz ni. Hurrengo ilunabarra noiz etorriko zo-  
ratzen.

Azkenetako, bidezidor garbi-garbia egin nian, bidetik  
ukuiluraino, muntoan<sup>118</sup>. Horretan pentsa zenbat atzera-aurrera  
ez nituen egingo. Baina niretzat ederregi zuan, eta beste batek  
eraman zidaan. Nik pasa nituen egunak! Ez nian jaten ere, noski.  
Bergia zorrotza ditek horretan amek; nireak behintzat laster an-  
tzeman zidaan:

—Berrazpin gain hartara ez dituk orain lehen hainbeste joan-  
etorri egiten. Txoria zapuztu? Ai, txoroa! Jo ezak beste baten  
atea, eta laster egingo zaik hori bezain maitagarri!

Aspalditik antzeman nioan, bai, nik bera hainbeste ez nindu-  
ela ni berak maite. Neskari ukuilu atzean kantatu nizekion ber-  
tsoak, beste mutil bati entzun nizekioan; eta, kezka gaizto hauetan  
nabilela, beste kaletar gazte baten besotik topatu nian. Nire joan-  
etorriak bukatu zituan betiko. Baseri honetarako finegia zuan.

Urte hartan bertan joan zuan nire aita zena ere mundu  
honetatik. Aspaldian ahultzen-ahultzen, ahitzetarako etorri zuan  
gizajoa, berak bere burua estutzen zuelako gehiena, noski.  
Kandela ahitu eta batere purrustik gabe itzaltzen den bezala itzali  
zuan aita zena ere. Aitona bezala eraman zitean aldapa horietan  
behera, gure bekatuak ekarri zigun zigorra horixe duk eta. Ez duk  
inor hazitarako geratzen.

Nire aita zena jenio biziko gizona zuan. Luzaroan zer esan  
pentsatzen aritu gabe, burura zetorkion bezala, edozer, edozeini,  
itsumustuan jalkiko zioan aurpegira. Zakar eta purrustatsu  
itxuraz, baina goxo bihozbera berez. Baratxuria bezain fina.

---

<sup>118</sup> Munto: Mendi-muinoa.

Bilaukeriarik<sup>119</sup> ezagutzen ez zuena. Behin emandako hitza jan baino lehen, bizirik erreko zitean. Hura hila ikusi zuten auzoko gizon askok hala ziotean:

—Hauxe zuan diruagatik egundo saldu ez zen gizona!

Denon antzera, bere irristadak bazitian hark ere; baina sinesmen beroko gizona zuan. Hura zebilen lekuan, ez zuan biraorik esaten, eta lizunkeriazko berriketa gutxi.

«Egun on» esaten ziotenei, erantzun zorrotz eta motza ematen zian beti:

—Zeinek? Mutur zikinak?

«Jainkoak egun on!» esatea nahi izaten zian.

Beti erantzun zorrotz hori ematen ziola-eta, bere bizkar barre pixka bat egin nahirik:

—¡Buenas noches! —esan zioan auzoko lagun batek.

Ez zian ulertu aita zenak, eta halako zehar-begiratu bat egin zioan eta:

—Amen! —erantzun zioan zorrotz asko.

Bai, nire aita zena sinesmen berokoa zuan eta hizketan garbia. Jainkoak bataioan piztu zion argiaren atzetik jarraitu zian, harik eta erori zen arte. Gudaren etsairik amorratuenetako bat, gainera:

—Harri-konkor bat lepotik lotuta, itsaspera botako nitizkeek gudazale guztiak! —guda-kontuak aitatuz zetorkionari esaten zioan hitzetik hortzera. Ederki asko ikasi baitzuen gizajoak gudaren berri. Benetako euskalduna, gainera.

Diruzko aberastasunik ez zidatean niri ere eman; sinesmen bero bat bai, ordea. Gero igaroko nituen une larrietan, neure buruz ez etsitez geroz, zerbaiten beharra banian. Nik ere ez zieat diruzko aberastasunik utziko; sinesmena bai; eta birao gaizto eta hizkuntza zikinik gure sukaldean utziko ez duen

---

<sup>119</sup> Bilaukeria: Zitalkeria.

seme-sail eder bat ere bai; eta, gure baserria sortu zenez gero, bere sutondoan hitz egin den euskara, gure hizkuntza goxo eta maitagarri hau ere bai. Nire semeak, denak dituk euskaltzale sutsuak. Denek eskaini zitean beren odola; batzuek isuri ere bai.

Zertarako da diru gehiegia? Kezka txarretan bizitzeko, beren buruak galtzeko, bazter guztiak nahasteko. Diruzaletasunak behazun bihurtzen dik bihotza. Gure Euskal Herri maite honetan ere horixe gertatu zaiguk. Diruak itsutu dik euskalduna. Lehengo gure bihotz xamur hura diruak hil ziguk. Aberri, hizkuntza, ohitura on, lagun, guraso, seme-alaba, emazte, azkenean baita Jainkoa bera ere, diru-truk saltzen dik diruzaleak; bestela, Judasi galdetu. Irabazirik ez dagoen lekuan, ez dituk ikusiko. Diruz neurtzen ditek horiek dena. Diru-kontari berriak. Jainko txikiaren berri bazekitek; handiarenik, ordea... Ez izatea nahiago.

Aita maitea hil zenean, bada, ni geratu ninduan baserriko buru. Goi-beheak jotako baserri arlote bat besterik ez. Senide asko baikinen; eta aitak, bereak zituen gauzak, senide artean zabaldu zitian. Baserri txar bat, lantoki nekoso hori, soil-soilik geratu zuan niretzat. Etxeak zituen barrutirik onenak, besteren esku geratu zituan; eta, pixkana-pixkana ordainduz, egin ninduan beren jabe. Baserri horretan ez zegoan bestela bizitzerik ere. Baserrian bizimodua ateratzez geroz, oso-osorik berea behar dik dena; bestela, askoz hobe dik bere hartan utzi eta kalera jaitsi. Jaunari eskerrak, gaur dena nirea duk.

Osasuna banian; eta, biziko baginen, lan egin behar; ez nolanihi, gainera. Ama xaharra eta bi arreba, hauek kalera hegatu nahirik; sekula bazen-eta, baneukaan lagun baten beharra. Lehenbizikoak utzi ninduenez gero, beste bat banian begiz joa. Hitz egiteko asmoan nenbilela, beste ederragoko baten aldamenean ikusi nian hura ere. Nire moduzko lagunarte bat bilatu nian, bai, eta izugarriak egin genitian. Hainbestetatik bihoa bat.

Lagunarte guztietan bezala, bagenian bat tartean, mutil handiuste, erdi txoro, egoskor, harro horietakoa; bere antzeko, haizea besterik ez zen neskaxa harro ezin-etsi baten atzetik zebilena. Hizketan hasten zenean, ez zuan bera bezalakorik. Lehengo ipuin zahar guztiak, berari gertatuak bezala kontatzen zitian. Hark ere, guk ez ezik, arratseroko erretiro txintxo hori egiteko ohitura aspalditik galdua zeukaan. Jan-edanez bapo jarri ginen arrats batean, hori lepotik gora ardoz eta sagardoz betea zegoan. Gure arteko adarjotzaile bati gogoratu zitzaioan:

—Aizue: holakoren etxera joango al gara?

Mendi-hegal zakar batean zegoen baserri lehor bat zuan neskaxa argi-oilar<sup>120</sup> horren etxea. Mutilak entzun zueneko, urruti eta neke-beldur handi gabe, denon aurretik berak hartu zian harako bidea. Bere ondoren joan gintuan gu ere. Hura bakarrik aurretik zihoan bitarte, pegaizo bat egin behar geniola-eta, elkar hartu genian gainerakoek.

Etxe hartako berri ongi zekiena bagenian tartean; urte batzuetan bertako morroi izana, gainera. Leihotik hasi eta metroren bat inguru, solairu gabeko hutsunea bazian, udara aldean beti zabalik zeukaten leiho txiki baten ondoan. Handik sartzen zena xuxenean behi artera zihoaan. Noizbait iritsi gintuan. Morroiak esan zioan:

—Etxe atzean zabalik dagoen leiho txiki hori ikusten al duk? Hor zegok nonbait hik behar duan biga<sup>121</sup> gazte hori. Hotz-beroez ez ditek izutzen. Beti zabalik edukitzen baitu. Sartu nahi baduk behinik behin, nire bizkar gainetik igo haiteke leihora.

—Igo nahi al dudan? Bai, motel, horixe! Pozik, halere! Ai zer sustoa eman behar diodan!

---

<sup>120</sup> Argi-oilar: Zomorroz-eta elikatzen den txori moko-luzea, buru gainean lumazko mototsa duena.

Gazt.: abubilla. Frants.: huppe.

<sup>121</sup> Biga: Berez, 'biren bat urteko txahal emea'; hemen, 'neskaxa'.

Esan bezala egin zitean. Behin eskuarekin leiho-ertza harapatu zuenean, katua bezain arin igo zuan leihora, gazte indartsu eta zalua baitzen, eta aldapako nekeak mozkorra arindu baitzion. Leihotik barrura begiratuz, esan ziguan:

—Hau duk simaur-usaina, hau, datorrena hortik!

—Biga gazte batek arrosa-usaina edukitzea uste al huen, bada?

Erdi mozkorra baitzegoen eta sartzeko zoramen hartan, behean ukuilua zeukanik ez zioan igarri. Barrura saltatu orduko:

—Ooo!!! Ai, ai, ai!!! Behi arraio hori, ostikoka ari bahaiz! Non sartu naiz ni? Simaur-usaina zegoela? Ez duk harritzekoa, ukuiluan nagok eta! Ooo! Behi urde hori! Lupu beltzak<sup>122</sup> hilko ahal hau, ba!

Hango behi-marru eta zarata! Hango ooo eta ai! Makurtuta barrez, ez zekiat nola ez ginen lehertu. Hango garrasi eta iskanbilen hotsera, etxeko nagusia esnatu eta kriseilua eskuan ukuilura jaitsi zenean, nor zen ezagutu zuenean, errukiz hala esan zioan:

—A, gizajoa! Hi al hintzen? Biga gazteren baten bila etorrita, behi zaharren artera erori? Hi aurretik bidali hauenak, hark merezi likek, hark! Hator, hator sukaldera, kristauaren itxurarik ere ez daukak eta!

Ukuiluko iskanbilen hotsera esnatuta, neskaxa harro hura ere sukaldean omen zegoan, bere ametsen mutila zelakoan, noski; baina, eroxka hura simaurrez zikindua sartzen ikusi zueneko, desairez<sup>123</sup> hala esan omen zioan aitari:

—Mutil astaputz hori al zen horrelako zalapartekin? Ukuiluan bertan behien ondoan lotuta edukitzeko ez da aldrebesa!

---

<sup>122</sup> Lupu beltz: Gaitz kutsakorra. "Lupu beltzak hilko ahal hau!": maldiziotan erabilitako esaera, norbaiti gauzarik gaiztoena opa izanez.

<sup>123</sup> Desaire: Mespretxua.

Aita umoreko nonbait, eta hala esan zioan, zirikatzaile, alabari:

—Gustukoa bazain eta zerekin mantendurik badun, bertan utziko dinagu! Mutilak maite hauela ikusia zegon! Idisko polita den, gainera!

—Mutil txoro egoskor kankailu horrentzat nagoela uste al duzu ni, aita?

—Ai, zer markesaren alaba! Begira iezaion errege etorri! —haserre ekin zioan ordura arte isilik zegoen mutilak.

Aitak ez zian aspaldian halako ordu-erdirik igaro. Alaba harroxkoa zela bai baitzekien, eta ea bere onera etortzen zen:

—Nolakoari halakoa etorri, alajainkia! Aukeran aukerakoa! Ur pixka batekin ipurdi gaineko lirdinga<sup>124</sup> hori garbitu iezaion, besterik ezean!

—Ukuiluko astoa garbitu nahiago nuke! —esanda, zaputzean ohera joan omen zuan.

—Atso zikin argi-oilarra alaena! *Astaputza* hik esan behar beste inori! Hemendik aurrera, mutil gazteak engainatzeko baino, asto garbitzeko hobea haugu hi ere, bai!

—Utzi iezaioke bakean, emakume asko horrelakoak dituk eta! Maite dutenen ihesi eta ez dutenen atzetik. Ezkondu nahi duenarentzat martxa kaskarra. San Balentinek konpreni ditzala.

Atea zabaldua, onez onean bidali zian mutila. Atera zenean, haren muturjea ikusita, zekarren simaur-usainera, hala esan genioan:

—Hauxe duk simaur-usaina dakarrena, motel! Ukuiluan zaldaleak irabazten ibili al haiz?

—Bai, tximista horiek ez didazue txarra pegatu! Leihotik, zuzenean, behipera, motel! Neska bilaua alaena! *Astaputza* esan

---

<sup>124</sup> Lirdinga: Gai likatsua, lerdea bezalakoa.

ez zidak, bada? Ukuiluan lotuta edukitzeko ez naizela aldrebesa!  
Ai, zer markesaren alaba!

Aski genian; gehiegi mindu gabe isildu egin gintuan.  
Egindako pegaizoak eta simaur-usainak baino, min gehiago eman  
ziotean neskatxa harroaren atze emateek.

Haren etxea erdibidean nola baikeneukan, han utzi genian.  
Ama gaixoak lanik asko bazeukan haren soinekoak garbitzen.  
Hamaika holako eginak gaituk.





## HARRAPAZKA

Erreterria, fabrikaz betetako herri estu zikin bat besterik ez dela uste ditek askok. Baina Erreterriak baserri-sail polita zeukak, eta bere-bereak dituen beste mendi mordoxka eder bat ere bai. Arano zeukak mugan. Urdaburu inguru horietako mendiak bereak dituk. Baso bikainak bazeudek oraindik. Baina guda aurretik pagadiz estalitako mendi-sail zoragarri hura, negargarritzko elkar hiltze haren ondoren, arruntean ebakiz soildu zitean, eta geroztik kaskasoil zegok gehiena.

Garro-sail bikainak badituk mendi-sakon eta hegal horietan. Udaletxearenak nola baitiren eta alferrik honda ez zitezen, urtero, iratze-garaian<sup>125</sup>, eguna aukeratuta, herriko baserriar guztiek, nahi bagenuen behintzat, hango garoa ebakita etxeratzeko aukera izaten genian. *Harrapazka* izenarekin ezagutzen genian egun hau.

Egunguentia baino lehen han egoten gintuan zain, garro-sailaren ondoan. Udaletxeak ordezeko bat bidaliko zian. Hark txupinazo handi bat sutzen zuenean, goizeko seietan beti, aupa mutilak! Lasterka eta muturka, besteren batek aurea hartzeko beldur, bakoitzak ebaki nahi zuen saila neurtzen hasiko gintuan. Neurtzen zituenarenak zituan neurritz barrukoak; han ez zeukaan beste inork sartzerik. Igitaiz ebakitzen genian; segaz ez zigutean uzten. Ebaki eta behin lehortzen zenean, eskuzka norkada<sup>126</sup> txikitari hartu eta gurdibide zakar batera jaisten genian. Handik, berriz, mendi-gurdi txikietan, behiekin hartuta alegia, bide zabalago batera eraman. Han gurdi handietan ongi zamatuta,

---

<sup>125</sup> Iratze: Garoa.

<sup>126</sup> Eskuzka norkada: Bakoitzak eskuz jasotako sorta.

etxeraino. Aldapa askotan bi parerekin istilutan, ezin aterarik, hamabiren bat kilometro bidean.

Saldu edo erosi behar izanez gero, ez zuan azpi-gai<sup>127</sup> merkea aterako. Zorioneko harrapazkak! Asperraldi ederrak hartua nagok! Zortzi orduko langile horiei agindu iezaiek! Ez zian gure lanak asko balio; halere gauzak merke saldu behar omen ditiagu.

Ez zituan horratik harrapazka guztiak aspergarriak izaten. Bizi naizen arte ahaztuko ez zaidan eguna, harrapazka-eguna zuan. Ezagutu dudan eguraldirik bihurri eta gaiztoenetako bat, gainera.

Gauerdi aldera, haize, euri eta kazkabarrari eraso zioan; egun guztian gero ez zian atertu ere. Bi metroko garopearan han aritu gintuan egun guztian, euria goitik sartu eta behetik atera, hezurretaraino bustiak. Bazkaltzeko ere aterperik gabe. Baina geroztik ahaztu ez zaidan egunik alaienetakoa izan zuan niretzat. Gero nire emazte izango zen neskatxa maitagarri bat han ezagutu bainuen.

Nirearen aldamenean zeukatean haiek ere harrapazka-lekua. Indar handiko sendi bat baitzen, alde zurretik moldatzen zitiztean gauzak. Hiru bat metroko harkaitz handi baten ondoan pago zahar lodi bat bazuan, zain-toki ondotik usteldu eta zulo handi bat zuena. Pago-ipurdi barru-huts hartan jarri zitean sukalde. Pago-gerritik kanpo aldera, lau hesolari lotu eta isurian jarri zitean, berriz, kalerakoan asto-saskiak estaltzeko izaten genituen zira<sup>128</sup> lodi zabal haietako bat. Haize aldetik harkaitza nola baitzeukan, ez zuan haize eta euri-tantarik sartzen hara.

Aita sasoikoa oraindik, mendia adinako bere hiru semerekin, eraso ziotean lanari. Baina etengabeko kazkabar eta euri-jasa hartan, ez ziotean neskatxari lanean utzi. Hura sukaldezin jarri

---

<sup>127</sup> Azpi: Abereek bertan lo egin dezaten egiten den iratze, belar edo orbelezko etzalekua.

<sup>128</sup> Zira: Arropen gainean jartzen den jantzi irazgaitza.  
Gazt.: impermeable. Frants.: imperméable.

zitean. Aterrunetan<sup>129</sup>, berriz, salda beroa ardo-xurrupa<sup>130</sup> batekin edo beste zerbait bixigarri eramaten ziean lanean ari ziren bere aita eta anaiei.

Euri eta kazkabar, halako alibiorik gabe ari ninduan ni, inork lagunduko zidan itxaropenik gabe, gainera. Nik ez nitian haiek ikusi; han zirenik ere ez nian uste. Baina ni ikusi nindian hark, eta bere bihotz goxoa samurtu zitzaioan. Bere aita eta anaiei bixigarria eman zienean, etorri zen lekutik joan beharrean, beren sailari buelta osoa emanez, aitzaki-maitzaki ni ari nintzen lekura etorri zuan:

—Egun on, Joxe!

—Baita zuri ere!

—Zu bakar-bakarrik ari zara —esan zidaan.

—Bai, nahiko bakarrik. Ez daukat hizketan denbora galtzeko arriskurik. Infernuko eguraldi honekin, berriz, egoterik ez dago.

—Nire aita eta anaiei oraintxe eramanez, ardo-xurrupa batekin, bixigarria. Zuretzako adina ere badago, nahi baduzu behinik behin.

—Ez da arrazoi txarra horixe, Maria! Ongi beharrean nago! Ez dizut ezetzik esango. Zure eskutik, gainera, gustu hobea izango du.

Algaraz barre egin zian, neskatxa alai baitzen; eta, bixigarria eskainirik, hala esan zidaan:

—Ez da hainbesterik izango!

Ardo-xurrupa ondoren emanda, han joan zuan arin-arin beren estalpera. Handik ordubetera gutxi gorabehera, etorri zuan berriz eta hala esan zidaan:

—Joxe: aitaren partetik, joateko hara bazkaltzera!

---

<sup>129</sup> Aterruna: Ateri dagoen denbora.

<sup>130</sup> Xurrupa: Tragoxka.

—Eskerrik asko! Estimatusa dago, baina nik badut nire bazkaria.

—Bai, baina hotza. Han su ederra dago eta berotuko duzu.

—Egia; zure ondoan zein ez da berotuko?

Algaraz barre egin zian berriz ere.

—Etorri gero! Bestela aitak min hartuko luke.

—Nik ez nuen uste aingeru guardakoa neskata denik, baina ikusten dudanez hala da.

—Laster arte! —esan eta alde egin.

Elkarrekin denok bazkaldu genian. Arratsaldean ere ez zuan ahaztu nire aingeru guardakoa. Beti zerbait eskainiz, bi ikustaldi egin zizkidaan.

Orduan ezagutu nuela lehen esan diat, baina ez duk egia. Aspalditik ezagunak gintuan, eta hiru bat hilabete bazituan igande-arratsetan laguntzen niola; baina kontuz eta beldurra. Etxe oneko alaba baitzen, eta badakik zer istiluak ekartzen dituen askotan horrek. Neskak berak saltatu zitian kroska<sup>131</sup> guztiak. Orduantxe igarri nioan benetan zebilela eta maite ninduela. Orduetik hasi ninduan benetan, harik eta ezkondu ginen arte. Baserririk onekoa zuan oso. Gazte-sail bikaina zegoan etxe hartan. Sei anai-arreba bazituan: hiru mutil eta hiru neska. Sagardotegia nola baitzuten, igande eta jaietan han izaten gintuan. Sendi langile, garbi, elizkoi; benetako maitasuna hantxe aurkitu nian. Neure etxera bezalaxe sartzen ninduan ni hara, niretzat beti zabalik zegoela bainekien.

Neskata haietako bati Ameriketara joatea bururatu zitzaioan. Sendi maitagarri hura ez zian gutxi nahigabetu. Berririk xamar entzun ditiat nonbait haren azken afaritan kantatu nituen bertsoak. Bere gurasoak negarrez utzita joan zuan gaixoa. Han ezkondu eta seme-alabaren batzuk izan zitian; baina sortu zen

---

<sup>131</sup> Kroska: Koska. (Iparraldeko hitza; Atañok ere badarabilena.)

lur maitera ez zuan gehiago azaldu. Hamaika holako euskaldunek utzi ditiztek beren hezurak han.

Ez gintuan lehenbizian biok bakarrik ibiltzen. Hark bere lagunak bazitian; nik ere bai nireak.

Bat mozkor xamarra genian; baina bere seme bat bezala zaintzen zian bere andregaiak.

Beste ilun bat ere bagenian tartean, ehun kilotik gorako gizona, baina oso lotsatia. Egunez hagin<sup>132</sup> baten gainean lo sumatu duten hontz handi lauso horietako bat zirudian. Lagunak jolasean eta dantzan ikusten bazituen ere, hura bazterren batetik ilun-ilun begira egongo zuan. Ez zitean neskek gutxi zirikatzen. Iluntzen zuenean, berriz, zer zen hura! Ongi ernetzen zuan. Egunez bezala, hura zirikatzero ez zituan neskatzak harengana hurbiltzen. Hartzak adina indar baitzuen, airean ibiltzen zitian denak. Garrasi ederrak izaten zituan haren inguruan. Zakar xamarra nola baitzen, neskarekin haserretu eta alde egin zian gure sailetik.

Nire koinatu izango zen mutil gazte handi eder bat hasi zuan gero honen lekuko. Arto puska bat baino atseginagoko gizona; hil zuan hura ere, gizajoa. Banan-banan holaxe joan dituk nire gaztetako lagunik gehienak. Bestean aurkituko banitu berriz, hemengo ibilerak oroituz, ai zer jolasak eta bertso-saioak ez genituzkeen egingo!

Mundu honetan aurkitu litekeen maitasunik finena eta garbiena bilatu nian etxe hartan. Gurasoetatik hasi eta azkeneko anaiarik gazteeneraino, denak zituan maitagarriak.

Etxean neuzkan bi arrebetatik, zaharrenak ezkondu eta alde egin zian Loiolako Paskualdegira. Ama eta arrebarik gazteena — hau ere bero-bero zebilean laster ezkontzeko asmotan— eta ni, morroi erdi txoro batekin, etxean gelditzen ginena. Ama gaixoa,

---

<sup>132</sup> Hagin: Hosto iraunkorreko zuhaitza, azala gorrixka, zura oso gogorra, eta hosto eta hazi pozoitsuak dituena.

Gazt.: tejo. Frants.: if.

berriz, zahar xamarra; ahituxea ordurako. Harekin bakarrarekin ez geratzez geroz, nahi eta nahi ez laguna behar nian. Ama zaharrak, eta bere arrazoiak bazitian, egokiera zuen guztietan gauza bera jalkiko zidaan:

—Azkar habil, Joxe! Alaba bazoak aurki; ni ezer askotarako ez nauk gauza, berriz; egundo bada-eta, oraintxe lagun baten beharra bazegok hemen. Hara eta hona, horrela ibili behar al duk beti?

Jirabiraka ibiltzeko gogorik ez zeukan nire lagunak; nik ere hain gutxi. Gure gauzak antolatu genitian, bai, eta biok errenteriarak nola baikinen, alferrikako zarata handi gabe, Errenteria-ko elizan elkartu gintuan. Gure lagunarte bat bildu, bazkari-lege bat egin, Iruñea alde horretan atzera-aurrera batzuk egin eta hil arte gure atsegin-atsekabeen habia izango zen txokora bildu gintuan. Ez baikinen gehiagotarako iristen, etxeko txokoak txukundu, trasteak beren lekuetan jarri eta ekin genioan eguneroko lan aspergarri eta nekosoari.

Neke, lan eta oinazea izan duk nire geroztikako bizitza. Maitasunak gozaten zuenari eskerrak. Txantxangorri kantariak, bere laguna ekarri zueneko, galdu zian bere askatasuna. Jainkoaren dei bat duk ezkondu beharra ere. Hobeto bizitzeko asmoan ez hadila ezkondu, Ataña. Nere jolasik gehienak bukatu zituan betiko. Bertsoak eta kantak ez, ordea. Maitea habian daukan txantxangorria, nekearen aurrean nola mututu? Nahiz behiak jezten, artajorran, indarreko lan zakarren batean ez bestetan, bakarrik ari banintzen behinik behin, bertsoan kantari edo txistuka sumatuko ninditean. Nire bila zihoazenek unetxo bat isil eta erne egotea aski zitean, ni kantura bilatzeko.

Olloki xaharra bertsolaria hil zenean, beste lagun askoren artean, Txirrita ere joan omen zuan ikustera. Hil-kaxan, luze, lau kandelaren erdian ikusi zuenean, bertso bat kantatu omen zioan Txirritak.

Oloki xaharrak erantzun ez zionean, hala esan omen zian:

—Oraintxe benetan sinisten diat hil haizela; bestela erantzungo hiokeen nire bertsoari!

Holakoxeak gaituk bertsolariak. Neke-lanak arintzeko, maitasuna bitarteko; eta bidean gal ez nadin, sinesmenaren argia. Gureak laster egingo zian bestela. Besteren etxe zahar honetan ez baitzegoen ezer. Urte guztian lan eta lan; erdi goseak bizi, eta gure urteko irabazi pixarrak, errenta ordaintzeko; askotan garaia baino lehen txekorren bat saldu beharra. Ez baikenuen izaten.

Lehen, bi bizitzako etxea zuan hori. Aldamenean bizi zirenak bat bestearen ondoren ezkondu zituan. Bat, auzoko base-  
rri horretara. Azkenekoa, gizon txiki bat, bakarrik geratu zuan. Etsi zian, gizagaixoak, hark ere. Dena utzi eta alde egin zian hemendik. Urteen buruan, andre erdaldun batekin etorri zuan; bera ere ia erdaldundua. Bihotz kaskarreko gizona zuan, eta azkenean berea eginda joan zuan. Berrogeiren bat sagar-landare gazte, aldatu berri xamarrek, baina ordurako indarrean zeudenak, beretzat ez zirenez gero besterentzat ez zitezen izan, denak ipurdiz gora jarri eta alde egin zian.

Gure aita zenak bere gain hartu zitian orduan bi bizitzak. Ia teilatua jotzerainoko horma lodi bat zeukan erdian, bi bizitzen bereizgarri. Oraintxe arte zutik egona duk beste bizitzako sukalde xaharra ere. Etxea berri-  
tu genuenean, bota genian dena. Gu ezkondu ginenean, ez zegoan gaur bezain txukun eta apain etxe zahar hori. Ez argirik, ez urik, ukuilua bi puskatan. Hainbesteko barrunbeak zitian eta ez zitzaiguan ezertarako lekurik geratzen: upel xaharrak batean, salarako eskailera zahar bi bestean, pats-  
zulo<sup>133</sup> handi bat sukalondon, pozadera edo ur-zulo zikin bat

---

<sup>133</sup> Pats: Sagar, mahats eta antzeko fruituetatik, sakatu ondoren gelditzen den hondarra edo hondakina.



bazian barruan, teilatuko urez betetzen zena. Hamaika oilo, arratoi eta katuk beren bizia utzi zuten putzu-zuloa.

Otsail batean, ez zekiat guri loa galarazteko infernutik atere-  
ak edo zer ziren demoniozko bi katar haiek, zeinek marraskarik  
gaiztoenak egin txandaka eta apustuan aritzen zirela zirudian.  
Itsasontziak adinako marraska luze batzuk egin ondoren,  
garrasika eta iskanbiletan zilipurdika eta aztarrিকা batzuk egin  
ondoren, pozadera gaineko leihotik saltoan sarturik, behiak ere  
izutzeraino sekulako iraulka eta zalapartak ateratzen zitiztean  
barruan. Kanpoko katua izaki nonbait nagusi. Arrats batean za-  
balik utzi nieran putzua, gaueroko joera bazuten baten batek han  
geratu beharko zuela eta.

Egundoko iskanbila, marraska eta zaratak atera zitiztean.  
Esnatu ninduan; ez baitzen harritzekoa. Halako batean, *plast!*  
*plast!*, bi katuen putzu-sarrerako hotsa. Ezeren kinkiorik ere ez.  
Erori dituk! Hura nire poza! Badaezpada ere ez ninduan jaiki,  
urrikaldu eta atera ez nitzan. Hurrengo goizean, urez hazi eta  
zahato betea bezala hanpatuak<sup>134</sup>, beren borroka eta haserreak  
ahaztuta, han zeudean biak itoak. Beheko leizera bota nitian, bai,  
eta ai zer bakea utzi ziguten!

Teilatua hor nonbait zeukaan; itogin gutxi izaten zian. Maiz-  
terrak gintuan; halere, gure kontura ekarritako hamaika gurdi tei-  
la berri baduk nonbait gain horretan. Errenta eta etxean genuen  
kapoi-parerik ederrena hartuz gero, maizterren gorabeheragatik  
nagusiar axola gutxi.

Solairu zaharra, zuloak ixteko puska berriz betea. Sei gela  
zeuzkaan; itsuak hiru, kanpoko aldera leihorik gabeak eta hesiz  
egindako tabikeak, berritzeko modurik ez baikenuen, gurea ez  
zuan gainera eta.

Kristaurik ezin ibili zitekeen bideak bere inguruan.

---

<sup>134</sup> Hanpatu: Puztu.

Etxe xahar horretara ekarri nian halako uxoa. Tankera moduzko baserria zeukanak beren bizipoza bazeukan han, eta ezkonberriak bila ibiltzen zituan. Gaur, berriz, utzi eta denak kalera zoazak ihesi; eta, kalean ere biziko badira, norbaitek egin behar. Fabriketako burdina janda ez gaituk biziko. Zer janik inork ez badu sortzen, diruak alferrik dituk.

Ezer ez genian aurreraturik; Jaunari eskerrak, zorrik ere ez. Baserri-zelaiak onak, baratzetarako batez ere, kare-haitz-lurrak baitira. Hauetako barazkia xamurragoa dela ziotek. Hemengo aza eta letxuga-buruak harrapazka saltzen omen dituk. Baina hori dena lantoki bat besterik ez duk; ez berez ematen duen iturria. Ongi kopetako izerdiz kentzen zaiok berea. Joka kentzen baitzaio enborrari ezpala. Biziko bada, berea behar dik baserritarrak etxea. Larrugorrian hasita, habia kaskar horretan atera genian gure bizimodua. Egon behar handirik ez genian izaten; urtearen buruan sobratu askorik ere ez. Bizi ginela.



## DONOSTIARA

Emakumeengatik gaizki esaka leku askotan entzun izan ditiat. Horietan ere, jakina, onak eta gaiztoak, denetik izango dituk. Baina gaizki-esaka zikin horiek ez zidatek behin ere onik egin. Ezkonduz gero, gizona baino askoz lotuago geratzen baita emakumea. Haur egin aurretik eta gero, emakumeak gizonak ez dauzkan lotura asko zeuzkak, eta larriak. Umeen hazketa, jan eman eta haien garbitasuna ez duk txikienetakoa. Gizonak, ondoan bizi bada ere, urrutitik ikusten ditik gauza horiek; bera aske nola baitagoen, ezin ulertu besterenik. Etxe-zuloan lotuta bizi diren ama gaixoen aurka hamaika ipuin nazkagarri entzuna nagok. Ez zegok eskubiderik horretarako. Berak taberna-zuloan erdi mozkorrak axolarik gabe gaizki esaka ari diren bitarte, etxe barruan bere umeen erdian lana galanki egiten dik hark. Lurrean den lanik aspergarriena, isil-isileko lana. Gaizki esaka ari den gizona zikinak ez badu jango, hamaika atsedean galdu beharrak zeuzkak isilean ari den hark. Maitasun eta errespetu gehiago merezi ditek emakumeek.

Ezkontzera lotzen den neska gazteak bihotza behar dik, ez nolannahikoa, pauso hori emateko. Bakoitza zertarako egin duen, hartarako dohain bereziak ematen omen zizkiok Jainkoak, eta hala izango duk. Nik ez nian nire emaztearen bizitarik burutuko. Sei haur, zazpi urtez beherakoak. Batek min hartu zuela, garrasika amarengana; bestea zikindu egin zela; bestea goseak zegoela; horiekin ari zen bitarte, sehaskatik negarrez txikiena. Denak maitasunez hartzen zitian. Denei behar zutena eman ondoren, musu banarekin bidaltzen zitian; gero, lasterka, sehaskan negarrez ari zenarengana. Hori, egunaren ordu guztietan; arratsean berdin. Askotan, begirik itxi gabe jaiki eta eguneroko lanari lotu behar; eta purrustik txikienik ere ez, gaua hondatu zion haurrari. Semeak

ez dik egundo ikasiko amari zer zor dion. Ordaindu ezin lezakeen zorra zeukak semeak amarekin. Alderatzekorik ere ez nekian nik ama baten kalbarioa zenbaterainokoa zen; emazteak erakutsi zidak. Munduko urre guztiengatik ezin litekek amak seme-ala-bengatik egiten duenik egin. Maitasunean aurkitu litezkek holako indarrak.

Mando batek bezala lan egiten nian, askotan gauetz ere bai; jan eta jantziko baginen, nahitanahiezkua. Baina nire atsedenduak lasaiak zituan. Igande arratsaldeetan, nahi banuen kantina txikira joan edo lagunartean sagardotegian pasa, inork ez zidaan galaraziko. Andreak berak nahiago izaten zian nik halako lasaialdi batzuk hartzea. Bera, berriz, nora joango zen? Bat sehaskan utziko zian, garrasika hasten zen arte; bestea besoan; beste hiru edo lau, oilalokaren ondoan txita txikiak bezala, amaren gonapetik ezin aterarik. Nor lotuagorik? Haurrak zaintzea bakarrik izan balu, hor nonbait; eta beste gainerako lanak? Nik ez nitian egingo. Nik ez diat taxurik eduki etxe-lanetarako. Arropa garbitu eta konpondu, etxe barruko garbitasuna, eguneroko jana; ez hori bakarrik: etxeako akuri<sup>135</sup>, oilo eta txerriak mantentzea berak egiten zian. Gero, sagardotegia. Eguneroko Donostiarako joan-etorria. Gaurko egunean lan hauek erraztu dituk; baina garai haietan dena eskuz eta oinez egin beharra zegoan. Donostiako joan-etorriak ez zitian gutxiena nahigabetzen gure andre gaixoak.

Etxeko esne pixarrak eta tratu aleak saltzeko, haiek ibiltzen zituzten istiluak! Errenteria, Antxo, Altza etxe banaka batzuk besterik ez zituan, eta kaleko sendi bakoitzak hortxe-hortxe berea sortzen zian garai hartan. Orain, berriz, Donostia adinakoak egin zaizkiguk kanpoko eta etxez inguru honetako herriak, eta baserri ale hauetako esne eta tratu pixarrak harrapazka non saldurik ez duk falta.

---

<sup>135</sup> Akuri: Untxia.

Erreterria goi honetako baserriko etxeoandreak Donostiara joaten zituan garai hartan. Eguraldi on eta txar, udara eta negu, beren astoak, hemen belarrari hozka, han ote-puja bati punta kendu, aurretik zituztela; berak, berriz, atzetik berriketan; batzuk buruan, besteak eskuan saskitxoak hartu; arrautza aleren batzuk edo oilasko-pareren batzuk beren haietan; sasoi eta osasuntsuak baziren, oinuts gorrian, beren oinetakoak saskian hartuz; gaineko gona gerrira bilduz, harri zorrotz eta bide zakar horietan behera Donostiaraino, zortzi-hamar kilometro bidean ia. Putzuren batean oinak garbitu, oinetakoak jantzi, oraindik jendea lotan zegoela sartzen zituan kalera. Bazter batean astoa lotu; txantxila<sup>136</sup> eta marmita eskuan, bizitzaz bizitza, hartzailerik hartzaile, esne saltzen. Hemendik haraino joanda, askotan ate ondoan, haiek jaiki zain. Espartinak txinalka<sup>137</sup>, erdi jantzian, orraztu ere gabeak, muturje haserrean, bateon bat azalduko zuan noizbait, goizegi zebilela-eta arranguraka. Horiek guztiak eginda, urteko esneak ezin kobraturik askotan. Arrangura gutxi egingo zidatean niri; bestela, bateon bati marmita esnea burutik behera joango zitzaioan. Gero, Aldakoneko dendan, behar zituzten trasteak hartu; hamaiketako-legeren bat egin, erditan baraurik joaten baitziren. Zer hartuko zuten han? Ezer askorik ez. Batean jaitzi zirenak banaka-banaka aldapa gora etxera etorriko zituan gero. Egunero hoge kilometroren joan-etorria egiten zutenak bazituan. Gure etxetik zihonak ere gutxienez hamabiren joan-etorria bazeukan. Dena oinez, erditan lokatzez zikinduak, busti-bustiak noiznahi, udara eta negu, urteetan, ia egunik huts egin gabe.

Andre gaixoak! Urrutienero baserriko andreak hartuko zian hurrengo, eta banaka-banaka, gure etxera orduko, mordoxka

---

<sup>136</sup> Txantxil: Ontzi zilindrikoa, esnea neurtu eta banatzeko erabiltzen dena.

<sup>137</sup> Txinalka: Orpoa agerian.

Txinal: Etxe barruan erabiltzeko oinetako arina, orpoa agerian uzten duena.  
Gazt.:chancleta. Frants.: chausson, pantoufle, chaussure sans talon.

polita osatzen zitean. Goizean, bostak baino lehen, farol-argira Berrazpinen behera jaisten ikusten genituan. Gure etxe parera iristean, goiko bidetik irrintzi mehe luze bat egingo zian haietakoren batek. Hemengoa sailean hartu eta aurrera. Harrera alai askoa egingo ziotean.

Nire anaia Juan Kruz, jaio berria, umezurtz geratu zuan. Emakume-sail hau iristen zenean, zazpi bat urteko arreba txikiak aterako zian goiko bidera. Haur egin berri xamarrek izango zituan sailean; haietako batek lasai enbor gainean eseri eta bularra ematen zioan egunero. Bere semeari bezala, musu bero bat eman eta bidaliko zian etxera. Holakoxeak zituan orduko andreak.

Horko joan-etorriaren ondoren, arratsaldean jai izan balute, hor nonbait. Begira iezaio! Hamabiak alde horretan etorriko zituan. Etxera inguratu orduko, zain zeuzkan haurrek nabaritzen zitean, eta lasterka han aterako zitzaizkioan denak, ahal zuenak ahal zuen bezala. Denentzat ekartzen zian zerbait, bakoitzari bere gustukoena. Denei musu bana emanez, bati mukiak zintzatu, besteari aurpegia garbitu edo espartinak lotu. Txikiena besoan hartuko zian; eta, loka bere txita-sailarekin bezala, sartuko zituan etxera. Atsedeen puska bat hartzeko alibio ederra. Nik holaxe ezagutu nian nire ama, eta nire semeek holaxe ezagutu ditek berena.

Arratsalde guztian hementxe ariko zituan arrastaka; eta aritu beharko, etxea bete haur baitzeukaten askok eta lanak egiteko gaur bezalako aurrerapenik ez. Hainbeste neke zertarako? Doi-doi bizitzeko besterik ez. Aurreratzen zuten pixarra, nagusiarentzat; berak, atzo bezain behartsu gaur eta bihar. Ezeren arrangurarik gabe, zetorrenari heldu eta aurrera. Mendiko hitzaldi hartan ongi gogoan zeuzkaan, bai, hauek Jesukristok: Zorionekoak behartsuak... Behartsuagorik bai al zen? Haiek ez ziotean ezeren atseginiak beren buruari opa. Eman, hori bai; eskuak betean

zutenetik. Gaurkoak baino oparagoak zituan. Haiek zituan emakumeak! Gaurko gazteak, beren takoi xorrotxen gainean jaitsiko al lirateke? Txurnioak<sup>138</sup> estrokatuta<sup>139</sup> hor geratuko lituzkek bidean. Haien behatz-muturrik ez lukek sartuko gaurko zenbaiten oinetakoan.

Oraingo nekeak izutzen gaitik. Haren ondoan, jolas bat besterik ez duk gaurkoa. Erostenak berak zeto zak askotan etxera. Aldapa hauetan gora igo diren sardinzar eta bakailaoak pila batean baleude... Inorentzat zerurik izatez geroz, andre gaixo haiek merezi ditek.

Gure etxean ere emakume berria bazela bazekitean Donostia aldera zihoazenek, eta lehendik gehienek ezaguna, gainera. Andre mordoxka hitzun hura goiko bidera zeneko, «Mariaaaa...!» dultzainaren antzeko irrintzi mehe luze bat entzun genian, eta bere astotxoarekin atera zuan etxetik haien sailera. Haien ongietorria! Nahastutako oilo-saila zirudian, denek batera hitz egiten baitzuten. Joan zituan. Lehenbizitik haserre xamar bazebilen ere, berehala jarri zuan; eta, bakarrik ez ibiltzez geroz, jarri beharko.

Beren gona gorriak erakutsiz, onak zituan haiek! Eguneroko ibili hartan, bazekiat, bai, inguru hartako gizon-emakumeak larrutzen zituztela. Beren arteko gorabeherak lotsa handi gabe kontatu ere bai elkarri. Denak ur horretan paseak baitziren; tartean ezkongabekorik bazeramaten, errukarri gaixoa! Garai haiek joateko hobeak zituan eta bukatu zituan betiko. Gaur aisago bizi duk nekazaria, batez ere emakumea.

---

<sup>138</sup> Txurnio: Orkatila.

<sup>139</sup> Estrokatu: Bere lekutik atera; dislokatu.





## ATSOLORRA

Lehenbiziko hanka-gorria etorri zuan mundura, mutila bera, ondoren etorriko ziren beste zortziak bezala. Nire aitajaun eta amandrea zitian berak ere, eta Juan Jose jarri ziotean izena. Handik berrogei egunera, *elizako sarrera* esaten zaion ohitura izaten baita, arratsaldean, berriz, auzoko andreek amaren sukaldean bilera egiten zitean. Gure aieka hauetan ez ziotean oso izen goxoa jarri: Atsolorra. *Akelarre* emango niokek nik.

Eguartean hala esan zidaan amak:

—Aizak, Joxe: badakik noski zer egun dugun gaur? Arratsalde honetan, inguru hauetako andreek sukalde honetan egingo ditek beren bilera; hire emazteak ere bai. Haurraren aitak zerbitzatzeko ohitura duk, berriz. Ez duk lan izugarria: txokolatea eta patar goxoa; hori duk usadioa.

Sukaldea txukundu genian, ahal genuen moduan, zer ikusi ere asko etortzen baitziren, besteren etxeko zatar zaharrak aireratzeko asmoan. Apaletan paper berri zintzilikarioz apainduak eta etxean genituen aulkirik dotoreenak; mahai gainerako zapi berriak eta bai al dakit nik beste zenbat traste? Geron pixarretik ahal genuen guztia behinik behin, ikusi-makusi zetozen mingain xorrotzek zer ebakirik eduki ez zezaten. Arreoan ekarri zituzten katilutxorik politenak eta beste gainerako behar ziren puskak jarri genituenean, txokolate eta patar goxoa erosten ez ibiltzeko<sup>140</sup>, horretatik zetozenek nahikoa ekarriko zutela eta.

Iritsi zuan zoritxarreko arratsalde hura. Banaka-banaka hasi zituan etortzen. Batek txokolatea, besteak patarra, haurraren pixoihalak, bakoitzak ahal zuena, ez zuan inor ere esku-hustik etorri. Zaharrak, bitartekoak, gazte xamarrek ere bai. Leporaino

---

<sup>140</sup> Txokolate eta patar goxoa erosten ez ibiltzeko [esan zidaan amak].

bete zuan gure sukaldea. Haietan ere batzuk mazalak zituan; ona eta ongi zegoan haientzat dena. Azeri xamarrek ere bazituan tartean, elkarri keinu bihurriak eginez sumatu nitian hizketan:

—Hauxe dun sukalde txukun eta apaina! Ederki antolatua zego!

Besteak, maleziazko irribarrez, laster erantzun zioan:

—Bai, arreko gauza pixarrak! Bizi bagaitun, hemendik urte batzuetara hitz egingo dinagu!

Txokolatea egin nieran; eta, hartu zutenean, laster hasi zituan adarra jotzen. Ezkondutako andreak baino adarjotzaile hoberik ez duk aurkituko lurraren gainean. Batek keinu, besteak atximur:

—Aizan, Maria: herorri<sup>141</sup> polita haizenik ez dinagu ukatuko! Baina bai al dakin senarra polita aukeratu dunala?

—Bere begi beltz horiekin idisko bizkorra zirudin! —besteak.

—Txokolatea egiten erakutsi behar dion! Meheegi egin din, aukeran!

—Ja, jai, jai! Lodixeago eginda patarrarekin bultza nahi al dion? Txokolate honek ez zeukan ezeren aitzakiarik! Egunero holakoxea balego!

—Aizan, Mainontzi: mingain horri galga pixka bat eman iezaion! Ez baitzain patarrik gustatzen hiri! Guk edango dugun beldurrak al hago? Gaurko denontzat nahikoa badinagu!


Patar-botila bat hustu zitean; bigarrena ere beheraka ziean. Atera nieran bigarren txokolatea ere mahaira. Batek *iji-iji!* atijadoministikua<sup>142</sup> egin zian; beste batek ere bai ondoren. Katu<sup>143</sup> erdian zeudean gehienak, bero-bero jarriak, elkarri txanda utzi nahi ezik. Patar-botilak behera ahalean, iskanbila gora. Hango zalaparta!

---

<sup>141</sup> Herorri: Heu.

<sup>142</sup> Atija: Doministikua.

<sup>143</sup> Katu: Mozkorraldia.



—Hauxe ere bada, Joxe! Sukalde hau luza eta luza ari da, noski. Indar gehiegikoa duzu patar hau!

—Bejondeinala! Hamar kopaxkatik gora pasea haugu honezkero eta!

—Aizan, Maria: mutua hartu al huen senarra? Algara goxoa lasai egiten din; baina ez zionat oraindik hitzik entzun!

Esan bazuen, esan zian! Denek batera eraso zidatean. Ha-  
maika bertso kantatu behar izan nian, baina haiek ez zeudean  
bertsoak entzuteko gaian, ezta alderatzekorik ere.

Inguruko ezkondu eta ezkongai, mutil eta neskazahar, denak  
larrutu zitiztean arratsalde hartan. Denak hitz egin eta inork en-  
tzun ez ari zirela, oraindik ongi zeudenak bazituan tartean; haien  
esanera, denek hitz egin eta entzun zezaten, txandaka kontu-  
kontari hasi zituan.

Ni arrunt betiko nazkatu ninditean. Barka iezadak, Ataño: hai-  
ek orduan esan zituztenak berritzerik, barruak ez zidak agintzen.  
Zaharrak eta okerrenak.

Gizonen aldekorik ez zitean bat bakarrik ere kontatu, noski.  
Ederrak aditu nitian. Halako arratsalderik... Ez zuan berehala  
bukatzekoa. Odolak irakiten, gorri-gorri eginak, beren zeresanak  
ahitu zituztenean, niri eraso zidatean:

—Zuk ez al daukazu ezer kontatzekorik, Joxe?

—Zuek denak gizon larrutzen jardun zaretenez gero, nik alde  
atera beharko! —esanda, hau kontatu nieran<sup>144</sup>:

—Gizona oso goiz lanera ateratzen zen, eta egun guztiko  
mantenua, sardinzar-pare bat besterik ez zion jartzen andreak.  
Olio eta ardorik, ezta usain egiteko ere. Ezkondu zirenean gi-  
zon bikaina zen; orduan hezur eta larru besterik ez zen. Galtza-  
ipurdiak belaun-txokoraino erori zitzaizkion gizagaixoari. Sar-

---

<sup>144</sup> Hemendik aurrerakoa, kapitulua ia amaitu arte, Joxek atsolorrean izandako emakumei kontatua da. Horregatik dago zuka (kontalariari dagokiona).

dinzarrak zapaltzeko, lantegi ondoan zegoen iturritxo batetik edaten zuen. Hartatik bai, aukera zeukan.

Ilunabarrean, zutik doi-doi etxera zeneko, egundoko ongi-etorria eta maitasun-itxurak egiten zizkion andreak; afari kaskarra, ordea: beste sardinzar bat lehor-lehorra eta ur freskoa edari. Barau hauek denak eginagatik, kalera jaitsi orduko, denda eta tabernetako atso guztiak han zituen atzetik oihuka:

—Aizu! Aizu! Zorrrak noiz ordaindu behar dituzu?

—Zorrrak? Zereko zorrrak? Alajainkia! Hau ere baduk horratik! Hiru sardinzar egun guztirako mantenua, eta bazter guztietan zorrrak? Ezta urrezkoak balira ere!

Bere andrea, hori bai, bikaina zegoen; baina hark ez zuen jaten ere, ordea, inoren aurrean behinik behin. Zerbait jateko agintzen zionean:

—Zereko jan? Buruko minak nago, ordea!

Erdi negarrez, hori zen bere betiko erantzuna.

«Nire emaztea ez zebilek fin! Beti buruko minak; ezer jan ez, eta halako andre bikaina?»

Ehun kilotik gora izango zen, noski. Gizonak galdu ahalean, andreak irabazten zuen.

«Gure etxean horixe duk lanik egin ez eta dena zurrupatzen duen behatz lodia! Bilaukeriaren bat bazegok hemen!»

Eta goiz batean, lanera zihoan aitzakiatan, ukuilu-zulotik zelata egin zion. Handik hamar minutu baino lehen, Jainko maittea! Zer zen hura? Sukalde-mahai gain hartan zer ikusten zuten bere begiek? Egia ote zen edo ametsetan ote zebilen? Txerri goseak ezkurra amets, alegia.

Pitxer bat ardo atera zuen mahai gainera, eta arra<sup>145</sup> bete luzeko lukainka-muturrak tartean zituen arrautza-tortilla; kilo eta

---

<sup>145</sup> Arra: Luzera-neurria: eskua zabaldua, hatz lodienaren eta txikienaren arteko bitartea.

gehiagoko arto beroa, berriz, su gainean. Lanerako estutasun handirik gabe, patxada ederrean, sartu zituen gilbor handi hartara denak, katuarentzat papurrik ere utzi gabe mahai gainean. Bapogosaldu zuenean, ontziak garbitzea gerorako utzi eta lotara.

«Arranoan atsoa, ez zegon gaizki! Gosari horri laguntzeko, zer bazkari-modu ez ote dun egiten? Bikaina edukiko haugu horrela! Nire hilabeteko sardinzarrek ez diten gosari horrenik balio! Hago, hago! Arratsean ikusiko dinagu!», esanda joan zen lanera.

Arratsean, ahulduta sukaldera zeneko, betiko harrera maitetsua egin zion; sardingar bat besterik ez, ordea, afari. Bere hura jan eta ur fresko xurrua bat egin zuenean:

—Aizu, Joxepa: afari eder onen ondorean umoreko nago, eta kantatu egin behar dugu!

—Bai, zereko kantatu! Horixe behar nuke orain! Ez daukazu nire buruko minik!

—Nik kantatzen dudana kantatu zuk ere! Berehala bukatuko dugu! Ikusiko duzu buruko minak ere nola joango zaizkizun!

—Bueno, bueno! Kanta dezagun, ba!

—Surtan arto beroa! —gizonak.

—Surtan arto beroa! —andreak.

—Botila ardoa galanta! —gizonak.

—Botila ardoa galanta! —andreak.

—Arrautza-tortilla handia! —gizonak.

—Arrautza-tortilla handia! —andreak.

—Ni ukuilu-zulotik begira! —gizonak.

Hau kantatzeko barrenik ez zuen izan andreak. Lotsaz eta beldurrez, gorri-gorri egina, isilik geratu zen. Ondoren gertatu zena ez dago zertan kontaturik. Buruko minak ere oso gutxitan izaten omen zituen handik aurrera.

---

Gazt.: palmo: Frants.: empan.

Bukatu nueneko, gazteak algara bizian hasi zituan<sup>146</sup>; zaharrek, berriz, oso kopeta iluna jarri zidatean.

—Bai, sardinzar batekin pasatzeko ona zegon nire gizona! Idia bere adar eta guzti irentsiko liken eta!

—Nire gizonak eguneko bi pitxer ardo eskas ditin; gordean edaten duenez gainera hori!

Nire emazteak nire bizkar egin zituen barreak arratsalde hartan! Beste txokolate bana ere hartu zitean; kopaxka batzuk patar, hari bultzatzeko, eta noizbait bukatu zuan gure atsolorra. Musugorri, begiak ñir-ñir, halako irri maleziatzko eta maltzur bana eginez:

—Agur, Joxe! Gizon polita zaude! Ederki portatu zara! Ea berriz beste holako bat laster izaten dugun!

«Bai, no!<sup>147</sup> Asko harrapatuko naun!», nioan nirekiko.

Asperraldi ederra hartu nian! Nik pasa nituen tripa-jateak! Emakumeak berez goxoak direla? Ez nauk batere harritzen! Ai zer goxatua hartu zuten gurean! Gozozale amorratuak dituk! Hurrengo atsolorrerako beste bat jarri nian, bai, eta kito!

—Lehengo kontuak izango dira horiek, Joxe! Ez dut uste gaur inon holako atsolorrik egiten denik!

—Ez! Zorionez, ohitura beldurgarri horiek denon onerako galtzen ari dituk!

---

<sup>146</sup> Joxek, atsolorrean kontatutakoa amaituta, orain berriro Ataño du solaskide (berriro ere hika). Ondoren, atsolorrean emakumeek esandakoak berritzen ditu. Azkenik, Joxe eta Atañoaren arteko hizketaz amaitzen da kapitulua.

<sup>147</sup> No: Emakumezkoekin hika hitz egitean erabili ohi da, gizonezkoekin *to* bezala.





## NEKEPEAN

Nire azkeneko arreba ere ezkondu zuan. Halere, ama xaharrari eskerrak, hor nonbait antolatzen gintuan. Amak ederki egiten baitzituen etxeko lanak; haurrak zaindu ere bai. Izan ere hain goxo eta umezalea al zuan hura! Emazteak, Donostiarako joan-etorria egiten zuenean, arratsaldean edozer lanetarako beta izaten zian; eta nik ere morroi erdi txoro bat banian. Nirekin batera, berebiziko lanak egingo zitian; bakarrik utziz gero, berriz, xoxo bat kantari nabaritzea aski zian, orduan bere harixe begira egoteko. Aziendak zaintzeko, berriz, besterik ikusi ez dudan bezalakoa zuan, asko maite baitzituen.

Lanpean, ukatzerik ez zegok, baina inon zorrik utzi gabe, poliki antolatzen gintuan. Gure habia betetzen ari zuan, berriz. Hurrengo hiru urteetan, beste hiru hanka-gorri jaio zituan gure etxean. Hori zer den badakik? Lau urteren buruko, lau seme. Okerrena, berriz, laugarrena jaio ondoren, beren amona hil zitzailea. Orduan geratu gintuan gorri, orduan! Amak Donostiara joan behar, haurrak bakarrik ezin utzi; eta etxeko eta kanpoko lanak, biziko baginen, egin beharrak zeudean. Ia urte guztian sagardoa salgai, berriz. Amonak, emaztearen amak, oraindik sasoiko, aldi luzeak botatzen zitian gure etxean. Orduan bai ederki. Hura falta zenean, ordea, eguarte gehiena haur-kontu galdu behar nik. Etxe ondolik urrutiratzerik ez.

Hamabi kilometroko atzera-aurrera eginda leher eginda etxera biltzean, sukaldea bete ume, denak bere zain, erdi larrubixirik, batzuk zikinduak, eta bazkaria jarri beharra. Eltzekari puska bat nola edo hala egosten nian nik; besterik ez. Haurrak garbitu, jantzi, bularra eman, bazkaria jarri; atsedena merezi zuen amak nahiko lana bazeukan. Arratsaldean etxea txukundu, haurren

gorabeherak egin, eta zelaira gero, niri laguntzera. Bereak eta bost pasea zuan, bai, andre gaixoa.

Gizonezkoei ez galdetu; horiek lan hori zer den ez zekitek. Alargundu nintzen arte, nik ere ez nian ikasi. Maitasunak egiten dituen lanak. Ezkontzea ez duk txorakeria. Mundu honetan batek hartu lezakeen gurutzerik astunena bai. Holako haur-saila aurrera ateratzea lan nekosoak duk, motelak. Hori, aparteko osasuna genuelarik. Bestela, gureak egin zian. Ama, xaharra eta baldarra zegoan; baina haren faltak hutsune ederra utzi zian gure etxean.

Guk lan egin behar izaten genian, eta behin ez zekiat izugarria nola ez zitzaigun gertatu. Etxe aurrean, behiei edanarazteko putzu-zulo bat bagenian; handiegia, hainbeste ume txiki zeuden lekurako. Haurrak zer diren badakik. Haserretuta edo jolasean, han erori zituan bi urera. Handik alde xamar, zelaian, lanean ari gintuan gu. Orduan ere amaren begiek ez zitiztean haurrak bistatik galtzen; urera erortzen hark ikusi zitian. Sasoi bikaina neukaan oraindik; arin asko igaro nitian metro haiexek. Gaur karreretan dabiltzanek ez zekiat harrapatuko ninduten. Halere, emaztea bertan nian. Lapa harriari bezala, biak elkarri korapilatuak urpean aurkitu nitian. Hura gure larria! Egundo bada-eta, laster zituan gainean. Itotzeko denborarik ez zitean eta, Jaunari eskerrak, biak bizirik atera genitian. Hura gure la-saitasuna!

Baratzeko lanak zeuden bezala utzi; behiak lotu, eta harriz eta lurrez zuloa bete genian arratsalde hartan bertan; eta bizirik atera genituen pozez, gure ezerezetik, bazkari hobea jarri ziguan hurrengo egunean emazteak.

Zaharrenak zortzi urte zitueneko, beste bost mailako katea bazekarrean atzetik. Zortzi urtean sei haur, eta seiak gizonezkoak.

Nekepean geure buruak ez galtzez geroz, nahi eta nahi ez, neskame gazte bat ekarri beharrean aurkitu gintuan. Eta hark ere, etxetik jan eta jantzi eta bere sari pixarra, hozka polita egiten

ziguan. Zer egingo genuen? Bizia duk lehenengo. Igualeko lasaitasuna geratu zitzaiguan.

Zazpigarren semea jaio aurretik, hasi zuan hainbeste odol isuriko zuen *Europako guda* zeritzona. Ordura arte erdi sinisten genuen esaera, ipuin edo aztikeria bat bazuan: denak gizonezkoak baziren behintzat, zazpigarren semea *salutarioa*<sup>148</sup> izaten zela. Edozer gaitz, batez ere txakur amorratuen hozkak, sendatzen zituen, alegia. Olio irakinak ere ahorik erretzen ez ziona. Olio irakina ahoan hartu eta hura txakurren hortz-zuloetara isuriz, garaiz etortzen baziren behintzat, denak sendatzen omen zitian. Nire zazpigarrena ere semea zuan, baina besteak bezalakoxea hura ere; ez zian ezeren apartekorik.

Oraindik ongi gogoan zeukaat, Altzako sendagilea etorri zen batean —hura, etorritz gero, ez zuan gure etxetik sagardorik edan gabe joango— nola esan zigun, gure aurrean jolasean zebilen sailari begiratzuz:

—Ai, Joxe! Gu oraindik lasai bizi gara. Europa erdialde horretan ez dute hori esango. Aspaldi honetan zipoka<sup>149</sup> eta desafioka zebiltzanak lotu dira. Hasi dute anaiak elkar hiltze negargarri hori. Hamaikatzok hankaz aurrera joan behar du. Hauxe gizonek bakean ezin konpondua!

Hura ere gudaren etsai amorratua baitzen.

—Honaino ez ahal dira etorriko, noski! —erantzun nioan.

—Hori ez da asmatzen erraza, Joxe. Zure semeen kintarteetarako bukatuko ahal da! Aurrerapen handiak dituzte gaur. Dabiltzan lekutik urrutira ere, kalte handiak egitea baliteke — esanda, joan zuan hemendik.

---

<sup>148</sup> Salutario: Hainbat gaitz sendatzeko, osatzeko, gaitasuna duena. *Salutadore* ere deitu izan zaio.

Gazt.: saludador. Frants.: on donne ce nom au septième garçon d'une famille, parce qu'on lui attribue la vertu de guérir.

<sup>149</sup> Zipoka: Zirikatzen.

Gezur handirik ez zian esan. Bazter guztiak hondatuz, gudaren irabaztunak ere goi-beheak jota geratu zituan. Nik gudate horri jarritako bertsoak nonbaiten badituk. Hamabi bertso direla uste diat. Beti aurrera, Frantzia aisa bilduko zuela uste bainuen eta alemanaren alde egin nitian. Ez nian asmatu; denontzat hobe, gainera. Lur guztiari buelta eman arte ez baitzen geratuko. Orduan alde ninduan; gaur ezin nezakek beste hainbesterik esan. Epela sartu ziguk.

Ez nian askorik pentsatzen garai hartan, guda gaizto haren ondorenean, bihotz ahuldu honetara betiko negarrik sartuko zenik. Sufritzea zer den ederki ikasita joango nauk mundu honetatik.

Bitartean, gure aldamenean, haurrak koskortzen ari zituan. Basakatua bezain zalu, erdi larrubixirik, aurrean harrapatzen zutena janez, osasuna gainezka, hotz-beroen kezka handirik gabe. Inguru hauetako perretxikorik gehienak horientzat izaten zituan. Beren tiragoma, abaila, tikili-takulo<sup>150</sup>; sasi-bazter guztietan txolarteak jarri; harkaitz hauetan ez zuan pagauso<sup>151</sup>, usa-

---

<sup>150</sup> «Tikili-takuloa guk ere txikitan Bordaxarren erabiltzen genuen jolas bat da. Orain oso modan dauden ura jaurtitzeko xiringa handi horien antzekoa. Intxusaren egurrez egiten da, intxusak bihotzean esponja dirudien materiala baitu. Berau hustuz gero, hodi baten gisan geratzen da. Intxusa-makil zati honen alde banatan, egunkaria eta urez nahastutako paper-bolatxoak sartzen dira, "bala" gisara irtengo direnak. Gero, intxusari geratu zaion zuloaren diametroko barila bat hartu eta enbolo gisa erabiltzen da, bolatxoa punta batetik bestera bidaliz. Barruan dagoen airea konprimitzen doan heinean, beste aldeko bolatxoa jaurtitzen du apuntatu duzun lekura (diana bat, lata bat, pertsona bat...), aire konprimituzko eskopeta moduko bat balitz bezala. Paper-bolatxoa irteten denean, xanpainaren kortxoak ateratzen duen soinua bertsoa ateratzen du: "pop!". Hortik datorkiola esango nuke *tikili-takulo* izena; haurrek bi bandoren arteko gerra moduko bat egitean, sekulako *tikili-takulo* hotsak ateratzen baitira.» [Mikel Zapirain Aizpurua, Zarautz, 1984]

<sup>151</sup> Pagauso: Uso handi basatia, burua, bizkarra eta isatsa gris urdinxkak, sabelaldea zurixka eta hankak moreak dituena, eta habia zuhaitz altuetan eta landetan egiten duena.

Gazt.: paloma torcaz. Frants.: pigeon ramier.

pal, zapelatz, oilagorrik ere haiek ikusi gabe geratuko. Hemengo zuhaitz handi, harri-tontor, tarteka<sup>152</sup>, bidezidor, hartzulo denak, beren izenez zekizkitean, gainera. Lanean ari ginen tokira bi edo hiru etorriko zituan eta:

—Aita, patatetako zuloan pagausoa geratu da!

Ez dudarik txikienik eduki pagausoa izango zela. Beren hegoaldean xuxen asko ezagutzen zitiztean. Eskopetarekin ikusten baninduten, tokirik erosoetan jarriko zituan. Ehizak mendiari eragiten bazion, galdutzat jotzen genian. Beste gainerakoan, haiek ikusi gabe, ez zuan inon erori edo geratuko. Baita nongo harkaitzen ondoan edo zuhaitzetan geratu zen xuxen asko igarri ere, bere izen eta guzti, gainera. Txakurrik onena bezala, pausorik huts egin gabe joango zituan erori zen lekura.

Erdi jantzirik hotz edo bero, pozez gainezka, osasunez beteak nire inguruan ikusirik, atseginez betetzen zuan nire bihotza; gure neke, lan eta ezinak ahazten zitzaizkidan orduan.

Aintzak, handitasunak, diruak eta lurreko atsegin ustelak, zertarako dituk heure buruarentzat bakarrik izatez geroz, horiek nire inguruan bizi direnak ez badituk zoriontzen? Heure barruko gehiegi hori nora zabalduz ez badaukak? Semeak pozez, gurasoak alai ikusita; gurasoak ere pozez, semeak alai ikusita. Gure miseria gorri eta neke guztien artean, hamaika aberats eta zaldun baino zoriontsuagoak bizi gintuan. Bihotza gorrotz, ezinikusiz eta beldurrez betea daukanari, diru eta aginteak ez ziotek poz handirik emango.

Semeak, ikastera joateko urteetara iritsi zirenean, Tolareberriko ondoan Errenteriako Udaletxeak badik baserritarrentzat jasotako ikastetxe bat, eta haraxe hasarazi genitian. Neska euskaldun bat zitean irakasle, maistra; eta buru argi xamarreko mutilak nola baitziren, berehala ikasi zitean irakurtzen, idazten eta

---

<sup>152</sup> Tarteka: Tarte, arraila.

kontuetan ere bai poliki, beren hizkuntzan hitz egiten baitzien. Gu baino aurreratuxeagoak nahi nitian semeak. Lotsagarri bi-zitzeko, aski gaituk gu; ez bainuen nire izena jartzen ere ikasi. Hamaika paper garbi borroi zikinez belztuta utzi ditiat. Behatz handi honek hizketan baleki... Inondik eskutitzen bat bazetorren edo egin behar bagenuen, auzoko ateak jo behar edo herriko bikarioarengana joan behar. Sendi baterako lotsagarriagorik bai al da?

Itaurrean edo beste edozer lanetan hasteko moduan koskor-tu zirenean, ez gintuan haserre. Zaharrenak jaunartze nagusia egin zuenean eta nola baitzen gazterik hazia, berehala jarri zuan nik hainbestexela egiten zuela. Hamahiru urtetarako, laian eta segan ikustekoa zuan hura.

Ez genian ezer askorik alferrik hondatzen. Sei semek soineko berarekin egin zitean jaunartze nagusia. Horretantxe bezala, beste gauzetan ere; garbi esatea ez nauk lotsatuko. Eguneroko zorrak ordaintzeko dirurik ez genian izaten; askotan gauzak zorretan etortzen zituan. Behi edo txekorren bat saltzean, ordura artekoak ordaindu eta berriro zorrak egiten hasten gintuan. Aldakoneko Benita dendari zenak hamaika pazientzia behar zian.

Lau urte luze haietan elkar hiltzen jardun zirenak noizbait aspertu zituan. Irabazlea ere urtetarako lur jota geratu zuan. Elkar hiltze negargarri hura bukatu ondoren, jaiou zuan bederatzi-garren eta azkeneko semea; honen aurrekoak hiru urte bazitian ordurako.

Ume-sail hura jolas eta iskanbiletan entzunik, hamaika aldiz esan nioan:

—Horra hor gure aberastasuna, gure kapitala! Oraindik ematen ez bada hasi ere, laster hasiko da! Egun erosoagoak badatozkigu, Maria! Nekezik gaiztoenak joan zaizkigula uste dut! Gazte-sail honek, aurki, baserri honetako lanak hasteko ere ez ditu!

Semerik zaharrena hasia zuan Donostiako joan-etorriak egi-  
ten. Amak, nahi zuenean etxean geratu eta atsedean, ez zeukaan  
aukera txarra.

Sendi behartsu baterako, hainbeste ume aurrera ateratzeak  
bere istiluak baditik. Baina haiek osasuntsu gorabeheraka ikus-  
teak zekarkigun atseginak ez zeukaan neurririk. Ume gabeko  
etxea tristea duk benetan! Erruki ditiat!





## IZURRITEA

Etorkizunaren berri ez zekiagu eta ez jakitea hobe. Hamaikak beren burua galduko litekek bestela. Bizipozik ez likek izango, gainera, lur honetan gizonak. Etorkizun zoriotsu baten ametsetan ari ginen garaian, etorri zuan zoritxarrerako gure esnaera. Oraindik bitzta honetan geratzen zaizkidan urte guztietarako bihotz iluna. Urtebete lehenago, gertatuko zenaren berri jakin izan banu, ordu bat ere onik ez nian igaroko. Ongi zekik gure Jainkoak zer egiten duen. Elkarren hurbil zebiltzak poza eta negarra. Berekin zeramak maitasunak ere arantza.

Mila bederatzi ehun eta hemeretzigarrenean sartu gintuan. Ilbeltzaren zortzian etorri zuan mundura gure bederatzigarren eta azkeneko semea. Etxe behartsu baterako ez duk nolanhiko zama. Halere, okerrenak egina. Zaharrenak hamalau urte beteak; hemengo sega eta laia-lanetan, edozein gizonek adina lan egiteko gupidarik ez zeukana. Urte banaren aldearekin, beste hiru honen ondoren. Urtetik urtera gora zihoan saila. Haiek ongi zaintzen jakin behar. Gure baserriko larritasunak bukatu zituan. Gazteena, jaio berria; haren aurrekoak, ordea, hiru urte beteak zitian; amaren magaletik aterea, zutik ikasia. Amarentzat batez ere lan gaitza zeukatela ez zegok ukatzerik. Okerrenetik pasea, halere. Amak nahi zuenean behinik behin, ederki egiten zizkioan semerik zaharrenak Donostiako lanak. Gurasook, berriz, osasuntsu eta sasoiakoak. Etorkizun on baten itxaropenetan bizitzeko arrazoirik ez ote genuen ba? Ez ziguan, ordea, Jainkoak bitzta honetako atsedetik eman nahi.

Guda bera baino ere, ondorena txarragoa dela ziotek. Ez nitek ezetzik esango. Bere zipriztin gaiztoak harrapatu gintian gu ere. Verdungo elkar hiltze ikaragarri hartan, ehun milakak egon

zirela lurpetu edo erre gabe, gorputz hilak usteltzen; eta eguzkia estaltzerainoko euli eta eltxo zikinak, pilakak, gorputz ustel haiekatatik sortu eta hegatu zirela; gaitz kutsakor hura haiek sortu zutela askotan entzun izan diat. Dena dela, negar ugari zabaldu zian lurbira zabalean. Balak baino urrutiago eta zorrotzagoak sartu zituan; inor ohartu gabe egiten zitean lana.

Gosez eta miseriaz zapaldua zegoan Europa. Oraindik bere malkoak xukatu gabeak. Baina ez zuan hori okerrena: egundoko izurritea, *gripe* deritzon gaitz hori zebilean bazterrik bazter, Europa guztiko nagusi. Kolerako urte haietan baino gehiago hiltzen zela-eta, larri zebilean jendea. Zaharrak, ahulak eta lehendik beste gaitzen batek ukituak, arruntean zeramatzan hotsarekin sartu zuan Euskal Herrira. Lau urteko gudate zakar hark baino askoz gehiago garbitu omen zian gaitz horrexek bakarrik; tiro eta kanoinazorik gabe, gainera.

Bete-bete harrapatu zian Donostia. Gaurko laurdena ez zelarik, hamalautaraino hildako egunak bai omen zituan. Inguru hauetako herri koskorak ere laster menderatu zitian. Gure baserri kaxkar hau ere urruti zegok, mendi zakar hauen erdian babestua. Gaitz hari ataka jarriko zionik ez izaki, ordea. Mendi zakar hauei eraginda, sartu zuan gure etxean ere.

Hitz gutxitan kontatu nahi nikek; oroitze hutsak gaur oraindik iluntzen baitit bihotza eta negar-malko isilak banaka-banaka hasten baitzaizkit. Laurogeita lau urte honetan jarioan daukadan iturri hau oraindik ez duk agortu. Heriotzak agortuko ahal dik!

Otsaila aurrera samartua zuan. Semeetako bat, ez zekiat zein, buruko minak zegoela eta goitika<sup>153</sup> eta negarrez sumatu nian. Amak eraman zian ohera. Emazteari hala esan nioan:

—Etorri zaigu beldur genuen eraso. Gaitz hau behin sartu denez gero, denok igurtzi arte ez da aterako.

---

<sup>153</sup> Goitika: Botaka, gonbitoka.

Nik, garbi esan, ez neukaan gaitz haren beldurrik. Asteren bat gaiztoa pasa beharko genuela, hori bai; baina nik zer pentsatu behar nuen egin zuena eginda alde egingo zuenik?

Hurrengo goizean, ez gintuan erdiak ere jaikitzeo gauza. Ama eta ni ere joak geundean. Ondoren, banaka-banaka, seme bat ez besteak, denak oheratu zituan; hau gerora ere ez zian harapatu. Gurasook zortzi semerekin gaixo geundean.

Egoera negargarria zuan huraxe! Zortzi seme gazte, haurrak batzuk oraindik, sukarrez gori, binaka eta hirunaka, ahal zuten moduan, gela kaskar haietan antolatuak; batzuk negarrez, denak goibel eta triste. Laguntza behar, eta ezin eraman, borondate faltarik ez geneukan baina. Okerrena ama zegoela jakiteko, ez nian sendagileak esan beharrik; oraindik ahul xamarra baitzegoen, eta hilabeteko haurra, berekin hura ere, gripeak harapatuta. Gero erreta hil zen seme Saturninok hamaika lan egin zian; baina ez zegoan hartara irauterik.

Orduan azaldu zituan hainbeste mesede egin ziguten andrearen anaiak eta beren ama. Handik laster etorri zuan sendagilea ere. Lehenbizian niri ez zidatean ezer esan; gaizki xamar bainengoen ni ere. Halere, laster antzeman nioan denek ez zutela onera eman. Isilkako elkarrizketa gehiegi sumatzen nian han. Emaztearen beldurra neukaan; hura bakarrik zegoan ahul xamar gure etxean. Ustekaberen batean norbait hozten ez bazen behinik behin, banekian besteek gaitza burutuko zutela.

Goizean etorri zuan sendagilea, arratsaldean ere bai, beti amarengana. Amona eta koinatuak triste sumatzen nitian. Egun eta gau guztian ez zitean emaztea bakarrik utzi. Ni ezin ninduan zalantza gaizto hartan bizi. Hurrengo goizean, etorri zuan berriz ere sendagilea. Banaka-banaka denak ikusiz, niregana etorri zenean, hala esan zidaan:

—Seme guztiek eta zuk onera eman duzue. Kontu pixka bat edukitzen baduzue, egun batzuen gorabehera da.

—Eta Maria nola dago? —urduri asko galdetu nioan.

—Atzo oraindik ez nuen ongi ezagutu; baina gaur bai. Maria gaizki dago. Pulmoniak harrapatu eta gogotik ari du estutzen, eta gaixoa ahula; ez dut oraindik itxaropenik galdu —esanda, malkoak zerizkiola alde egin zian; ikusten baitzuen zetorren eraso, eta nik ere bai.

Oraindik ez zuela itxaropenik galdu esan zueneko, ederki asko bazekian hark, Jainkoak ez bazuen mirariren bat egiten, han ez zegoela zer ikusirik. Nik hala sinistu nian behinik behin. Ai! Albiste negargarria zuan huraxe! Garai haietan gaitz bel-durgarria baitzen hori. Bederatziurrena igaro arte, atzera-aurrera noiz egingo jendearen larria! Gaur, garaiz harrapatuz gero, laster mozten ditek. Orduan ez zegoan ezertxo ere honi bidea galaraziko zionik. Neure buruari igartzen nioan gaitza beheraka hasi zela; arindu zela nire ondoeza. Semeengatik ere horixe entzuten nian: denak arintzen ari zirela. Baina zorrotz agindu ziguan sendagileak, hark esan arte ez jaikitzeke. Denak ez zituan berri txarrak; baina bestea?

Berriz ere etorri zuan sendagilea. Ez zeukaan hark ere lanaren faltarik. Bat ez besteak onera eman genuela esanez:

—Ez zaitut iruzurtu nahi, Joxe! Ongi ezagutzen zaitudala uste dut! Beti bihotz zabaleko kristaua izan zarenez gero, okerrenea pentsatuz hobe duzu Jainkoaren borondatera makurtu!

—Horren gaizki al dago? —esan nioan.

—Gure jakinduriak eta gaurko aurrerapenek ez daukate zer eginik. Bizirik ateratzea Jainkoaren mirari handi bat izango litzateke.

Eta isilik alde egin zian.

Sendagileak, asko ikusi eta bihotz-gogortzen direla ziotek; baina don Leandro Aizpuruaren barrenak samurtu zituan, Bordaxarrera zetorren eraso beltzaren aurrean. Zetorrena, garbi eta gordin kontatu zidaan, don Leandro holakoa zuan eta: kristau

jatorra; eta kristau batek besteari zor dion egia garbi azaldu zidaan, eta benetan ontzat hartu nian. Gezurretan egia estaliz eduki eta ustekabeko erasora baino, lasaiago joango ninduan, jakinaren gainean, haren azken ordura.

Orduan hasi zituan egundo bukatzen ez ziren orduak, egunak eta gauak. Bere anaiak txandaka zaintzen zitean; ez zitean behin ere bakarrik utzi. Katilutxo bat olio z betete eta han jarri zitean pospolo-itxurako *mariposa* deitzen genion argi bat. Gaez, haren diz-diz motelera, ederki ikusten nian emazte maitea estu, oinazetan, arnasa ezin harturik. Gero eta okerrago, oinazearen oinazez ahultzen ari zuan, ordurako etsipena emana. Bere anaiak, berriz, ilun, malkotsu, bere ondoan, eskatzen zuena emateko beti zain. Hainbeste maite eta ezer egiterik ez; utzi egin behar, pixkana-pixkana gaitzak ito zezan. Huraxe inondik hiltzerik nahi ez; eta, hortxe-hortxe<sup>154</sup>, lehenbailehen hiltzea nahiago.

Haiek orduak! Haiek egunak! Denak bere inguruan, zer egin ez genekiela. Hura, ordutik ordura estutzen, larritzen. Hitz egiteko beldur. Egun batzuk lehenago habia alai zorionsu bat zena, orain triste; arnas larri eta negar-zotina besterik ez genian entzuten. Amona, haren ama, beti negarrez sumatzen nian. Orduantxe ezagutu nian zenbaterainokoa den Jainkoaren aurrean gure ezereza. Harrokeriak utzi eta bihotzak umiltzeko orduak dituk horiek.

Aurki alargun, bakarrik, lagunarekin ohituta. Biren arte ezin genuena, denen kargua nik hartu behar. Ai, geroa! Zeinen beltza zegoen niretzat geroa! Ai, etorkizun on baten amets gozoak! Hitzak alferrik dituk hemen; ur horretan pasea ez denak urrutitik begiratzen baitio eta ez zekik zer den ere hori. Proba egin dutenek hitzik gabe ere ikasia zeukatek. Ongi aski bazekitek zer den hori.

---

<sup>154</sup> Hortxe-hortxe: la-ia; hor nonbait.

Hurrengo goizean, etorri zuan sendagilea. Gauzak estu zituan han. Haiek esan gabe ere banekian. Arrats gaiztoa pasa zuela igarri nioan emazteari; ordu gutxiko bizia zeukala ere bai. Sendagilea joan bezain azkar, hurbildu zitzaidaan koinaturik gazteena negarrez eta hala esan zidaan:

—Maria oso gaizki dago, Joxe, eta lehenbailehen elizakoak emateko agindu digu sendagileak; eta, apaiza etorri baino lehen, zuri hitz bi egin nahi lizkizuke.

Ahal nuen bezala jaiki; amesgaizto batean bezala, zer egi-ten nuen ez nekiela, hurbildu ninduan bere ondora. Gaixoa! Ordurako arnasa estua zeukaan. Huraxe zuan miseria! Bizia ere emango beragatik, eta bere oinaze haiek pixka bat arintzeko ere gauza ez.

Hitzak banaka-banaka moztuz, hala esan zidaan:

—Heriotza badatorkit, Joxe! Nahi eta nahi ez utzi beharko zaituztet! Hainbeste gauza esan nahi nizkizuke, baina estuak ez dit uzten. Jainkoaren aurrera laster naizenez gero, ezertan huts egin badizut, barkatu, Joxe!

Denetan bat datorrenik ez duk lurrean, eta gu ere ez gintuan hala; baina gauza hutsa duk hori. Elkar maite ginen itxura besterik ez. Zer barkaturik ez neukanez gero, nire erantzuna zer izango zen? Negarra!

—Betiko utzi baino lehen, seme maite horiek ere besarkatu nahi nituzke! —esan ziguan gero.

Han azaldu zituan zortzi seme batera. Hamalau urtetik beherakoak denak. Bederatzigarrena, bularrekoa, koinata maite batek hartua zeukaan ordurako. Zaharrenak negarrez; haiek bazekitean zertara zetozen. Txikienak, berriz, urduri, gaixorik oraindik, hiltzen ari zen ama gaztearen aurrera. Banaka-banaka, azken musua emanez eta bakoitzari bere kontseilutxoa onak izateko esanez eta bere alde otoi egiteko eskatuz, beste mundura arte agurtu zitian. Eta han joan zituan, gehiago ikusiko ez zuten

amaren aurretik. Inguruan geunden guztiak negar-zotinka ari gintuan. Nik ez neukala han zer eginik eta hoztu ez nendin, elizakoak etorri bitarte ohera bidali ninditean koinatuek.

Elizakoekin don Santiago etorri zuan. Hamabost urtez lehenago gure ezkontza bedeinkatu zuena bera. Mendiko gure etxe zahar hartan ikusgarri ederra aurkitu zian.

Oso bihozbera eta gupidagarri hartu zitian elizakoak. Gero ere hitz egin nahian hasten zuan, baina gaixoak ezin zian ahotsik garbitu; erruz nekatzen zuan, gainera. Estuak ez baitzion uzten. Sortu nintzenez gerozko ordurik tristeenak noizbait bukatu zitu-tuan. Bere ondoan arrosarioa esaten ari ginela utzi zian betiko negargarrizko bizitza hau. Hain ezagun eta maitea nuen ahots hura ez nian gehiago entzungo. Lurrean atsegin eta atsedean han-dirik ez zioan eman; bestean bederenik Jainkoak sarituko ahal zitian bere nekeak! Negar-zotinka bi musu eman nizkioan; baita:

—Agur, Maria, egun handira arte! Mundu honetan ez daukagu gehiago elkarrekin hitz egiten lanik!

Zer egingo diogu, bada? Eman zidanak berak kendu zidaan eta. Minbera duk maitasuna!

Besotik hartu eta ia indarrean atera ninditean egoera hartatik nire koinatuek eta ohera eraman, gaixo bainengoen eta nik han ez baineukan zer eginik. Makur asko han joan ninduan, harrokeria handi gabe, nire egoera triste hura oroituz, bakardadean negar egitera. Bizi zen arte emaztea zaindu zuten bezala, gero ni zain-tzera etorri zuan bat, jaiki ez nendin edo beste zerbait okerrago egin ez nezan, nire onetik ia aterea bainengoen.

Behin hila jantzi eta gelatik atera zutenean, atea itxiarazi, bai, eta hantxe geratu ninduan, hamabost urtez lehenago hain alai eta eder etorri zen bide beretik eraman zuten arte. Epailaren lehenengoa zuan, aingeru guardako eguna. Etxekorik inor ez zian eraman laguntzaile, etorrerarik izango ez zuen agurrean. Ez maite ez genuelako; ez baikinen gauza.



Hogeita hamazazpi urte dituk hau gertatu zela, eta gaur oraindik ere ordu haiez oroitze hutsak bihotza korapilatu eta negar-malko garratzak zekartzak nire begietara. Sinista nazak, Ataño, nahigabez ari naizela kontu hauek berritzen. Bukatu zituan betiko, bai, eta ez zioat beste inori holako erasorik opa. Horixe zuan nire geroztikako egunak ilundu zituen ekaitza.

## ALARGUN

Ezertarako gauza ez diren eta lan besterik ematen ez dutenak bizi-rik gorde eta bederatzi seme gazteren ama, behar-beharrenean denak umezurtz utzita, eraman. Ez duk ulerterraza! Jainkoak bazekik nondik nora garamatzan. Ni ez nauk inor Jainkoa epaitzeko. Sinesmena dudanez gero, gerokoaren itxaropenetan nabilek. Harrokeria handi gabe, apal-apal, bizkarra makurtu eta eutsi nioan neure gurutzeari; bai bainekien, handik edo hemendik, Kalbariora igo arte, laguntzaren faltarik ez nuela izango. Ez ninduan nire onetatik atera.

Berriz ezkontzeko zirika aritu zirenak bazituan. Bederatzi semeren kargu eginez nirekin uztartu nahi zutenak ere bai. Denei uko egin nieran. Hil zenaren oroitzarik ez nian bihotzetik kendu nahi. Familia nahastu besterik ez duk egiten holakoetan. Hartu nuen erabakiaz ez nauk behin ere damutu. Hogeita hemezortzi urte zeramatzaat alargun. Oraindik emazte maitearen oroitzarik ez zaidak ahaztu, ezta hoztu ere. Nire semeak aurrera ateratzeko, hauen laguntzarekin bakarrik baliatu nahi nian.

Emazte maitearen neke-lanak bukatu zituan betiko. Etxea ospitale bat egina utzita joan zuan hemendik. Niri, lehengo zama ezin eramanik nenbilen honi, beste handiagoa bota zidatean gainera. Ordurik larrienean bakarrik geratu ninduan, bederatzi seme txikirekin, alargun. Horra urruneko gudaren zipriztinek nola hondatu ninduten betiko.

Bereak zituen trasteak bildu, batzuk erre, besteak garbitu eta jaso. Horra hainbeste maite nuenaren aztarrenak, lehenbailehen ahaztearren, etxetik kendu nahirik. Baina kendu? Ez nire bihotzetik! Oraindik ondotoxo gorde eta jasoa zeukaat hor bere oroitza. Hamaika agurmaria errezatu zizkioat geroztik. Nire biziarekin batera galduko duk hori ere.

Lantegi berri bat bezala hartu nian alargun-bizimodua. Jaunari eskerrak, ez nian neure bururik galdu. Sinesmena gidari, banekian nondik nora jo eta zer egin behar nuen; lehen bik ezin genuenari, orain bakarrik eraso behar.

Gaitzak utzi ninduenean, lehenengo gure sukalderako sarreraz oroitzen nauk oraindik. Han ari zuan bakarrik amona —bere alaba galdutako penaz, begiak gorri oraindik— minez zeuzkan bilobentzat kafesne berotzen. Betiko ohitura nuenez, hanka-hutsik jaitsi ninduan sukaldera. Amonak errietan eraso zidaan:

—Hauxe gizonaren planta! Oraindik gaixo zaudela ez ote dakizu? Espartin horiek jantzi itzazu lehenbailehen, Joxe, eta gehixeago zaindu zeure burua! Ume hauen aitatza eta amatza, gaurtik aurrera, zuk egin beharko baituzu! Ez gehiegi larritu halere, Jainkoak denen kontua badauka eta!

Bizimodu larria, etorkizun iluna, sinesgabeko batentzat. Jainkoak, kendu zidanez gero, haren falta nolabait ordainduko zidan itxaropenik ez nian galdu, ordea, nik. Nire hondogabeko hutsune hartatik, arrats beltzean laino artetik azaltzen den ilargi-distira bezala, garbi ikusten nian nondik zihoan nire bidea. Orain arte, hari jarraitu besterik ez diat egin.

Lehen bezalaxe zegoan etxean dena; baina gauzak bete eta maitagarri egiten zituena ez bainuen inon ere bilatzen, eta hura gabe malkoak begietan eta bihotzean hutsunea. Ez haren ahotsik inon ere entzuten. Ez zekiat berari oihuka ere nola ez nintzen hasi; ez bainuen bizipozik ezertan ere aurkitzen.

Handik laster hasi zituan semeak ere jaikitzen. Hil zela bazekitean denek; halere, alde guztietara begiratu eta ikusten ez zutenean, ama non zen niri galdetu nahirik bezala, triste begiraturaz, negarrari ematen ziotean. Niri ere orduan korapilatu egiten bihotza; semeen aurrean negar ez egitearren, alde egiten nian handik.

Hura nire bihotzeko hutsunea; ezin burutik bota! Etxeko gauza guztiek bere kutsua zeukatean; semeak ikusten nituen bakoitze-ko, amaz oroitzen ninduan. Esna, ametsetan; lotan, ametsetan.

Behin, honako amets hau egin nian, eta oraindik ere ez na-  
gok egia ez zenik:

Errenteriako geltokian, estazioan, nengoan, bakar-bakarrik, trenaren zain. Irun aldetik trena etorri zenean, «Joxeee!!!» treneko leihotik deitzen ninduen emakume baten ahotsa entzun nian. Gaur oraindik munduko ahots guztien artean ezagutuko nukeen ahotsa. Nire emaztea zuan deitzen ninduen. Lasterka hurbildu nintzenez, zoragarri, zuriz jantzia, bi aingeru eskutik zituela, jaitsi zuan trenetik.

—Oraintxe noa, Joxe, zerura! —esan zidaan irribarrez.

—Ea niretzako ere egiten duzun han lekua! —eskatu nioan.

—Bai; zuretzako ere lekuren faltarik ez dago han! —erantzun zidaan.

Harekintxe hitz-aspertu bat egiteko zoratzen nengoela, hitz horiek esanda, trenera sartu zuan berriro; eta txistuka eta ketan zihoan treneko leihotik bere eskuekin agur eginez, urrunean galdu zuan betiko. Zoraturik hara begira nengoela esnatu ninduan, izerditan, bakar-bakarrik, triste eta saminez.

Amets horri jarritako bertsoak ere banitian; aspaldiko gauzak nola baitiren, ahaztu egin zaizkidak. Hona bat:

Trenetik entzun nuan  
Joxeren izena,  
emazte maitea zan  
deitzen niñuena;  
itz bi egin orduko  
juan zan berriz trena,  
alkarren alde ziran  
poza eta pena.

Apaiz bati kontatu nioan amets hau. Ametsean ez sinisteko esan zidaan. Hila zenez gero, otoi egiteko, bai, baina ez gehiegi pentsatzeko, osasuna galduko nuela bestela eta. Arrazoi eman nioan. Etorrerarik ez duen gauza, ahaztea hobe.

Nonahitik laguntza-eskainia banian; besteren bizkar bizitza erraz duk; ez, ordea, ni jenio horretakoa izaki. Nire eginkizuna zuan eta neronek egin nahi nian neure semeen aita eta amatza. Geronetik<sup>155</sup> ezin genuenean, orduantxe hartuko nian laguntza.

Zutik ibiltzeko gauza nintzeneko eraso nioan nire lan zailari; lehen bik ongi ezin genuena bakarrik egin behar bainuen orain.

Gure sagardo-saltzeak orduantxe bukatu zituan betiko. Ez nian batere penarik hartu. Horixe duk nekearen dina ematen ez duen lana.

---

<sup>155</sup> Geronetik: Geuretik.

## SEMEAK

Orduan dena triste eta iluna zegoan gure etxean; baina, emaztearen heriotzaren ondoren, minik gehien semeen sakabana-tzeak eman zidaan. Nahitanahiezko gauza; niretzat minbera, ordea. Bederatzi seme, harenak eta nireak; ispilu batean bezala, haietan ikusten nian beren ama; haren odolekoak baitziren, eta haren nahia ere bai, hura maite banuen, ez uzteko seme haiek besteren esku. Horixe zuan nire bihotzeraino sartua zegoen arantza. Beste zortzi semeez gainera, bi hilabeteko haurra nik ezin nezakeela hazi ez zegok esan beharrik. Nire koinata maite batek, emaztearen ahizpak, eraman zian. Beste hamaika urteko seme bat ere joan zuan etxe hartara. Beste bat, berriz, bere besoetakoa nola baitzuen, nire anaia Juan Kruzek eraman zian. Bihotz-bihotzez eskerrak denei. Nahitanahiezkoa bazen ere, nireak zituan eta etxeakoak hainbestexema maite nitian. Haiek gure sukaldera bildu bitarteko onik ez nian eduki.

Etxean geratu zirenekin moldatu ninduan, eta jarri nian lanerako martxa.

Lehen ere amonak, nire amaginarrebak, onik bazen ona, behar zenetan aldi luzeak gure etxean egiten zitian; orduan ere gurean geratu zuan. Sasoikoa nola baitzen, tarteka semeren baten laguntzarekin, etxeako lanak ezin eginik ez zeukaan. Ez zuan hasiera txarra.

Zaharrena, goizean Donostiarako atzera-aurrera eginda, arratsaldean zelai-lanetan ia ni hainbestexean aritzen zuan. Hamar urtez beherakoak, ikastera. Ezinean bagenbiltzan ere, ez nioan hori egundo neure buruari barkatu. Udara aldean, berriz, nirekin edo auzoko baserrietan, itaurrean berena egiten zitean. Nire umorerik ez nian galdu; etsitzea zer den ez baitakit. Orduan jarri nitian alargunaren bertsoak. Hamaikak ikasi eta kantatu ditiztek geroztik.

Amona falta zenean, etxeko lan, jana-jartze, garbitasun, arropa-garbitze, dena, seme baten kargu geratu zuan. Mairidreak ez; hauek Loiolako izeba batek garbitzen zizkiguan; eta josi eta konpondu, berriz, beste batek, baina ederki ordainduta.

Semeak gazteak izaki, eta, behin begien aurretik galdu zuteanean, etsi zitean eta ahaztu zituan amaz; haiek zerekin poztua eta non jolastua bazeukatean. Nirea besterik zuan. Semeak gora eta gora alai eta osasuntsu ikusteak asetzen zian nire bihotza; baina nire bakardadean ezin nian haren oroitzarik burutik uxatu.

Osasun aparta neukaan nik ere, eta lanean aspertzen zaila; gaizki ibiliko gintuan bestela. Gauean ilargitan hamaika meta-belar ebakia nagok. Ordu biak inguru horretan hasita, eguna argitzerako *ziplo* meta-belarra; gero semeak jaikiarazi; ukuiluko lanak egin; esne eta tratu-saltzailea bidali; eta, gainerako gauzak martxan jartzen genituenean, zelaira berriz ere. Ordu laurden bateko lo-susta aski izaten nian bazkalondokoan.

Astegunak lanerako eginak dituk. Ongi asko betetzen genian Jainkoaren agindu hori. Gure txoko honetan behinik behin, itxoiteko beta handirik ez genian izaten. Aukeratzen zitzairen lane-tan, semeek ere zintzo asko jotzen zitean. Ongi gure kopetako izerdiz irabazitako ogia jaten genian.

Askotan nire faltaz gehiegi behartzen ninduan; ez bainaiz langile taxutsu horietakoa. Gure etxean ni gabe ezer egiterik ez zegoelakoan, semeez ahaztuta, bakarrik erasotzen nioan edozer lan gaiztori. Semeak lanean burutsu zaindu izan banitu, neke eta atzaparkaren<sup>156</sup> erdirik gabe egingo genitian etxe honetako lanak; ni adinean baitziren haiek, eta egunetik egunera goraka. Ez duenak ezin eman. Buruaren faltan hankek pagatu behar.

---

<sup>156</sup> Atzaparka: Eginahala.

## SEMEEN JOLAS ETA BIHURRIKERIAK

Astegunak lanari ematen bazizkiotean ere, jaiak ongi jolaserako zitiztean. Goizeko meza entzun; askotan Erreterian bostetako meza; ukuiluko lan eta behien bazkak eginez gero, ikustekoak zituane nire semeen atzaparkak. Zaharrena buru zutela, han joango zituane besteak ere; ederki asko bazekitean inguru hauetako zozkoen berri. Inongo txolarte, tiragoma, harrika saio ederrik ere bai, ez zeukatean besoetako nagitasun handirik. Auzokoren batzuk ere hurbiltzen zitzaizkiean, eta batzuk oinutsik, erdi larrugorririk besteak, batean barrez, bestean negarrez, jolasean edo borroka, ez zitean egon behar handirik izaten.

Pilota eta toka zaharra zituane haien eguraldi txarretako jolasak.

Etxe aurrean baduk trasteak edukitzeko aterpe txiki bat. Ongi garbituko ziteane hura lehenengo, eta haien istilu eta atzaparkak, hamar metro ez zen aterpe txar hartan! Bateko kroska jo zuela, txapa jo zuela, arraiatik kanpora atera zela, ez zuela boterik egin; besteko ona zela, txarra zela, galtzen zuena ez zuan konforme:

—Bai, beti hemen habil eta hemengo maneju guztiak hartuak baitauzkak! Ez didak Txoritokietan irabaziko, ez! Pausorik emateko lekurik ez zegok hemen eta!

Sail osoa han joango zuan Txoritokietako aterpe txar batean jokatzerara. Baina gehienetan haserretzen zituane. Orduan izaten zituane komeriak. Batek:

—Harri bihur ona zela!<sup>157</sup>

---

<sup>157</sup> Esaera hau galduxea dago gaur. Baina gure gazte-denboran erruz esaten zen. Juramendua bezala zen. Adibidez, ehizara joan, oilagorra-edo ikusi, tiroa tira eta:

—Arri biyur bota detala!

Edo tokan ari eta:

—Arri biyur burdina jo detala! [Egilearen oharra]



—Harri bihur txarra zela! —besteak.

Indarra gailentzen zuan azkenerako. Ahulena, gizajoa, horma-bazterren batera joango zuan, eta negarrari emango zioan eta zotinka-zotinka:

—Bai, animalia hutsa haiz hi, besterik ez! Bestela ezin duanean, joka hasi behar!

Arratsalde hartako pilota-jokoak holaxe bukatuko zituan. Jolasa ez, ordea. Toka zaharrear egingo zitean hurrengo saioa. Burdina mehe moztaka bat sartuko zitean, inguruan arraia batzuk egin, bina hamar zentimoko lehengo kobrezko haiek bakoitzak hartu eta ilunbistara<sup>158</sup> arte.

—Nire laukoa zegok lehenbizi!

—Arraiara bai, ez burdinara!

Belar-mutur bat hartuko zian batek, eta zeinena zegoen alde-  
en neurtzen hasiko zuan.

—Ikusten al duk? Neurtu gabe ere, begira ezagun zian horrek!

—Arrazoi duk, motel!

Egia ikusitakoan, denak konformatzen zituan.

Elektrikaren indarrak ez baikenuen artean, eta, behin iluntzen zenean, sukaldera sartu eta txandan-txandan kontu-kontari hasiko zituan orduan. Udazken aldera, berriz, nahiko gaztaina izaten baikenuen, ilunabartzen zuenean, batzuek ukuiluko lanak egin bitarte, besteek afari-lege bat jarriko zitean. Danbolinkadaren bat edo bi gaztaina erre ere bai. Arrosarioa esan ondoren, eseriko zituan mahaiaren inguruan denak, etxeoak, eta auzokoak ere bai, nahi baldin bazuten behintzat. Ez zitean zeresanaren faltarik izaten. Beren txarrokada sagardoa aurrean zutela, patxada ederrean hasiko zituan afaltzen. Txarrotik azken xurrupe egiten zuenak kantatuko zian lehenengo bertsoa; banaka-banaka azkenekorainokoa arte jarraituz, potu egin edo bukatu gabe uzten

---

<sup>158</sup> Ilunbista: Ilunabarra.

zuenak bazekian zer lan zeukan: upeletik sagardoa ekarri. Denek uxen bukatzen bazuten, berriz, azkeneko xurrupe egin zuenaren gain geratzen zuan. Ezeren arrangurarik gabe, gainera. Hori lan jakina baitzuten. Gaztaina erre eta sagardoz bapo geratuko ziztuan. Kontu-kontari jardunaldi bat egin ondoren, katilukada bana esne hartu eta:

—Jainkoak gabon dizuela! —esanda, bake ederrean banakabanaka oheratuko zituan.

Ni etxean izan edo ez izan, berdin-berdin egingo zitean lan hori. Ni etxean nintzenean, berriz, azkena joaten ninduan; eta sukaldeko bakardadean, haiek sumatzen ez zuten hutsunea bazegoan niretzako. Hamaikatxotan malko garratzak isuri nitian, beren amaz oroitzen bainintzen. Poz hura ikusi gabe alde egin zian mundutik...

Halere, ehizarako gintuan itsuenak. Jakina, pixka bat hazi arte, ez nieran ehizan utzi. Inon pagausoren bat-edo geratzen bazen, laster abisatuko zidatean.

Neguan, goizetan behinik behin, ateratzen ninduan gehienetan ehizara. Askotan bakarrik. Tiro gutxi bazen edo ehiza gutxi ikusten banuen, etxean ninduan berehala; bestetan, berriz, auzoko gizona izaten nian lagun. Arto puska bat baino gozoagoko gizona. Aspaldi joan zuan mundu honetatik hura ere. Inguru hauetako aldapa nekosoetan, makina bat istilu pasa eta eztanda gaizto eginak gaituk.

Begira zeuzkan semeei oihu egingo zieran. Non geratu zen esaten bazioten, eskopeta ezkerrean hartuta, ezkerra baitzen, han joango zuan erakutsitako lekura.

—Gainari eragin dio! —esaten bazioten, berriz, mendiz beste aldera pasa zela alegia, eskopeta bizkarrean uhaletik zintzilik harturik:

—Bateon batek bazeukak mokadu erraz askoa!

Eta pazientzia osoan lanera etorriko zuan.

Inuzente egun goiz batean, nik hil nuen hontz handi bat jarri ziotean nire semeek, dotore asko, etxetik bistan zeukaten haritz batean.

—Aita! Zapelatz handi bat dago haritz iharrean! —semeek oihu egin ziotenean, eskua betazal gainean eguzkitik begien babesgarri jarriz, begiratu zian:

—Aiaia! Eta halaxe duk! Galanta, gainera! Azpi zuri ttaket-klase horietakoa! Ekar itzak eskopeta eta kartutxoak! Ez duk gaizki etorriko, herrira joan beharra ere bazeukaat eta!

Zapelatzeko lau pezeta ematen baitzituzten herrian. Han joan zuan. Istilutan ibili zuan, ezin sarturik. Behetik hasi, ezin; goitik hasi, ezin; azkenean, zeharreko sasi mordoxka baten paretik, arrastaka-arrastaka sartu zuan tirabidera. Noiz edo noiz tiroa entzungo zutelakoan, erne asko zeudean nire semeak. Ez alferrik! Handik laster han azaldu zuan, eskopeta galtzarpean, lasai-lasai etxe aldera.

—Oraindik lehengo lekuan dago hura, aita! —oihu egin ziotean semeek.

—Inork ez badu kentzen, bihar ere han egongo duk, bai, hura! Auzoko hanka-jo horien lana duk!

Nire semeek *hanka-zabalak* deitzen zitean auzokoei; haiek, berriz, *hanka-joak* gureei.

Umeen kontua zela zekienez gero, ez zuan haserretu. Bere andreak, bai, lasai asko barre egin zian gizonaren bizkar:

—Inuxente! Hori ere egin al dizute azkenean, Joxe Mari? Hau, berriz, tira ez zuenean kontent.

Ehizan ibili gabe ezin zitean etsi; eta ez zekiat nola moldatu ziren, baina azkenean berek egin zitean eskopetaren legeko bat. Tubo mehe bat atera zitean nonbaitik. Ahal zuten bezala, ez gozo-gozo egina, kulataren itxurako egur batean sartu zitean tubo hori. Gainetik zulo txiki bat egin ziotean, eta horra antzina haietako zizpuna. Inguru hauetako guardasola zaharren

burdinazko kirten guztiak bildu zitiztean, haiekin ere beren zizpunak egiteko.

Azkeneko karlista gudan tiratako berunezko bala handi batzuk nonahi bilatzen genitian gure mendi-larre hauetan; haiek joka-joka luzatuz, mehetu; guraize batzuekin puskaka ebaki; gero, harri zabal baten gainean beste harri batekin ibilian-ibilian, biribilduko zitiztean; eta horra, ederki kostata baina, nola egiten zuten perdigoia. Beste *ttarra-ttarra* izeneko traste bat ere bagenian. Arratsalde batean urte gutziko nahiko perdigoia egiten genian harekin. Zakar xamarra, baina xoxotarako aproposa; beruna behar.

Nondik edo handik, gauzaren batzuen truke-edo, egiten zituan bolboraren jabe. Mutilak zituan orduan haiek! Muturretik beteko zitean; zaharrenak zizpuna hartuko zian; su emateko ilekia<sup>159</sup> beste batek, berriz; bolbora, perdigoia, baketa eta papera, denentzat bazitean lana.

Birigarro edo xoxoren bat tirabidean hartzen bazuten, batek apuntatu eta besteak su eman arte, denak isil-isilik, bat bezala, erne asko egongo zituan beren hari begira. Egundoko ke pila artetik erortzen ikusten bazuten, lurrera baino lehen han zitian denak gainean. Joaten bazitzaian, berriz, aho-zabalka, begietatik galtzen zitzaian arte begiratuko ziotean; eta gero, jo zuen edo ez jakitearren, lumarik kendu zion bilatzera.

Altza aldetik etortzen ziren lehengusu eta lagun batzuk bazitiztean; hamaikatxo jolas eta algara gozo egin zitean haien bizkar. Kale aldean ohitu eta hezitako gazteak baitziren, baserriko mutil ezjakin haiek halako hamar bazirelakoan etortzen zituan. Asto-kargan erakustera leku ederrera zetozean.

Kanoinazoa adinako tiroa kargatu; perdigoia ordez babarrun aleren batzuk sartu, eta bere zanpatekoaren ostikoak lur jotzeraino botako zitian, eta ke pilan itsutuak.

---

<sup>159</sup> Ilekia: Abereen ilea, eta, bereziki, artilea.

—Erori al da? —galdetuko zitean.

—Begiraiezaiok, motel, etxea ere ez huke joko hik eta! —betiko erantzun minkorra.

—Xuxen asko apuntatu zioat bada nik horrixek! —malezia handi gabe eta nahigabez esaten zigutean gero.

Perdigoirik gabeko tiroa zela seme denek jakinki; baina, lasai barre eginda, maltzur asko isilduko zituan denak.

Bakarka lotsatiak baziren ere, elkar hartzen zutenean ez zuan atsegin izaten haien artean. Inguru hauetara zetozen ijito gizajok pagatzen zitean larrutik; ez ziean bake handirik ematen behinik behin, beren tiragoma traste haiekin. Hamaika bazituan sutara botetak. Halere, nik erre ahalean baino gehiago sortzen zitiztean nonbaitik. Edozer aitzakia edo inongo tarterik txikiena aski zitean handik erasotzeko, masailak odoltzeraino, motel.

Gogoan zeukaat oraindik. Behin etxe atzean bi zaharrenekin laian ari nintzen batean zuan. Eskuan zume bigun bat zekarrela, ijito gizon gazte bat etorri zitzaiguan haserre:

—Non duzu bertze motiko bihurri hura?

—Zein beste? Zazpi ere badira nonbait hor!

—Nagusi jauna —gure barrutian baitzeuden eta—, ez hasertu: harpatzen badut, iztar-zainak bero-bero eginen dizkiot! Masailatik bala sartuta, nire ama gaixoa odoletan utzi ez du, bada?

Nirekin ari ziren semeek berehala bataiatu zitean, eta handik aurrera *Iztar-zain* izenarekin ezagutzen genian denok.

Deabru guztiak berekin zituen eta sukalde-zain hirugarren semea zuan hark harrapatu nahi zuena. Bide ondoko sakon batean zegoen aspaldiko lizar handi itzaltsu baten azpian kokatzen zituan ijitoak. Udarako bero zakarretan oso leku babes eta atsegina baitzen. Mendi aldetik sasi eta txara besterik ez zian, eta hango ezkututik tirabide errazean hartzen baitzituen ijitoak. Berun koskor asko tira zizkioan nonbait, eta azkenean ijito amona gaixoak ikusi, eta oihuka hasi omen zuan:

—Enemesio! Enemesio! Hemen da motila!

Gizona, Enemesio, gure *lztar-zain*, atzetik ikusi zuenean, basakatua bezala atera zuan sasitik, *lztar-zain* gizajoa nora jo ez zekiela utzita. Hau niri kargu hartzera etorri zeneko, etxe atzeko leihotik lasai asko guri begira zegoan hark harrapatu nahi zuen semea.

Altza alde horretako baserri askok gain honetan ditiztek beren iratze-lekuak; gure atari alde horretan istilu gaiztoak ibiltzen zitiztean bazkari-ekartzaileek. Atzetik eta aurretik erdian hartzen zitiztean; aurrera edo atzera abiatzen zirenean, inguru xamarrean eroriko zituan harri banakaren batzuk, baina jotzera ez egundo. Etsitzen zutenean, saskitxoaren ondoan eserita, negarrari emango ziotean gaixoek. Bukatu zitean beren funtzioa<sup>160</sup>: zegoen bezala utzita, joan egingo zituan. Hamaika belarrondoko hartuak zituan, baino haiekin alferrik.

Eskolara zebiltzanek ere ez zitean atarramentu onik. Marubiak ostu zituztela, holako jo zutela, eskolako kristalak hautsi zituztela, posteetako kikara<sup>161</sup> bat bakarrik ez zuan geratuko osorik haiek zebiltzan bidean.

Etzerik etxe ibiltzen zen saskigile xahar bat bazuan. Ia urtero bueltaxka bat egiten zian gure etxera. Lehenbiziko egunetan zer ez zizkioten egin gizagaixoari!

Egun batean, gaztaina-morkotsak jarri zizkiotean ohean, maindirepean. Etzan baino lehen konturatu zenari eskerrak; goxoa geratuko zuan bestela. Beste batean, berriz, txindurri gorritz bete ziotean ohea. Goizean, haserre xamar, esan zidaan:

—Ez dakit zer ziren, Joxe; baina zimiko gaiztoa egiten zuten xomorroren batzuk banituen nik bart ohean!

Berehala bururatu zitzaidan nire seme bihurri horien lana izango zela. Ikustera joan gintuan biak, eta horiek umeak! Txin-

---

<sup>160</sup> Funtzio: Saioa.

<sup>161</sup> Kikara: Ontzi txikia. (Kasu honetan) elektrika-harietako posteetakoa.

durriz betea ohea. Batzuk oraindik bizirik; besteak bihurritu eta txikituak.

— Hebainduko ditut, bada, gaur!

—Utzi iezaezu bakean, Joxe! Ikusi ditudan ume guztiak hokoak dira! Ez lirateke bestela umeak izango!

—Bakarka egokitzean ume xaloak dira, agintzen diedan edo zer egiten baitidate! Ama falta baitute, ama!

Asko maite zitian eta azken aldera zorutzen egoten zituan su-tondoan haren ipuinak entzuten. Izan ere, saskigile zahar hark ez zekienik ez al zuan Euskal Herrian. Handik aurrera betiko bakeak egin zitiztean.

Egunero-egunero bere astotxoarekin Donostiara joaten zen amona xahar bat bazuan gure auzoan. Berekiko marmarrean joaten zuan goiko bide horretan barrena.

Nire semeak beti harrika aritu behar zuten horietakoak ziztuan; eta, amona bere itzalarekin errietan zihoan batean, harri koskorren batzuk erori omen zituan bere inguru xamarrean. Etxerakoan, hala esan zidaan:

—Gaur zure semeek harrika eman didate!

Ez nioan sinistu. Harrika ariko zirela, hori bai. Noiz ez ziren aritzen? Halere, goizean auzoko amona ia jo zutela eta goiko bidera harrika ez aritzeko agindu nieran.

—Atso zimurra alaena! —esanda joan zituan.

Nola elkar hartzen zuten haiek! Ongi ikasita zeuzkatean amona xaharraren jenioak. Goiko bide ondoan karobi xahar bat bazuan; orain betea zegok. Haren ondotik zihoan gurdibidea lokatzez betea egoten zuan; eta, oinak han ez zikintzearren, astoa handik bidalita, bera kroskatik gainez gain pasa eta aurreraxeago bidera jaitsiko zuan berriz ere.

Ilunabar batean, nabaritu nitian laia, aitzur eta pala, zerbait ari zirela karobi ondoan. Bake-bakean ari zituan eta han jardun zitean.

Hurrengo goizean, «Joxeee! Joxeee!» garrasika niri oihuka nabaritu nian amona gaixoa. Ataritik begiratu nian; eta, goiko kroska gainean, gerri-gerritik moztua zegoela zirudian; ez baitzuen zilborrez gorakoa besterik ageri kroska gainean. Bertara joan ninduan eta nire barruak lehertu nahi zian barrez; amonaren errukiz ez ninduan hasi. Zilborreraino zuloan sartua zegoan, merinakeak<sup>162</sup> zeramatzan itxuran, gonak zabal-zabal munto gainean. Ezin atera zela etsita, pazientzia ederrean nire zain zegoan.

—Hau ere badugu, Joxe! Hau ere badugu!

—Baina, Agustiña! Moztu egin al zaituzte?

—Bai zera! Zuloan behera sartu!

—Zulorik ez zen, ordea, lehen hemen!

—Orain badago, ba! Hau ere zure semeen lana da, noski!

—Baliteke!

Gonarekin tapatzen baitzuen guztia eta ez bainuen ezer ikusten. Atera nuenean, orduan igarri nioan nire semeen lana zela. Tranpazko zuloa egin baitzioten; ia metroko zulo biribil bat. Kontuz-kontuz gaineko zotalak<sup>163</sup> kendu eta lurra karobira. Zuloa bukatzean, makila edo zipotz mehe batzuk zulo gainean harahona. Zipotz horien gainean, kendutako zotalak. Erne ibili behar zian batek, azpian zuloa zegoela igartzeko. Eskerrak, halere, ez zutela zikinkeriaz bete.

—Horiek umeak! Larri nintzen! Hau ere bururatu horiei!

Eta berak ere barre egiten zian.

Salbajeak al ziren bada nire semeak pentsatuko duk agian. Halatsu! Gazte gehienak bezala. Erdietan, ni falta ninduan etxetik. Nork begiraturik ez zeukan gazte-sail hark zer egin behar zuen?

---

<sup>162</sup> Merinake: Emakumezkoek eramaten zuten azpiko gona zabal eta gogorra, batzuetan buelta osoan aro bat ere izaten zuena; gona harrotzeko erabili ohi zuten.

Gazt.: miriñaque. Frants.: crinoline, vaste jupon dont l'ampleur est maintenue par des cercles d'acier ou de baleine.

<sup>163</sup> Zotal: Laiaz edo aitzurraz ateratzen den lur-zati belarduna.



Jolas! Ama bizi izan balute, ez zituan hartara ibiliko, ez. Halere, sinesmentsu eta mingain eta bihotz garbikoak atera zaizkidak.

Urte zailak zituan haiek niretzat. Irabazi gutxi eta jale asko. Erruzkoa behar zutenak, gainera; goraka baitzihoazen denak. Bederatzi kiloren ogi-kontua ibiltzen genian eguneko, batez beste. Halere, eskerrak ez zeudela guri ohituak. Gosea kenduz gero, ez zeukatean jaki goxoen gutiziarik. Hamaika sardinzar sartu zuan gure sukaldean. Jantzian berdin, jaietarako izan ezik, behin larrugorria estaliz gero; astegunetan ez baitzen inor azaltzen hartzulo honetara. Aurrekoak uzten zuena, hurrengoak soinean ibiltzeko, gauza ziren arte, behintzat. Hartzekorik ez, ematekorik ere ez, ordea.

Betiko bizimodua neramaan nik. Betiko lanpean; baina ez nian horrengatik gizarterik galtzen. Igandeetan libre geratzen bainintzen. Etxea bete seme hor geratzen zuan, eta nolabait ni gabe konpontzen zituan. Ez nian egundo umorerik galdu; hamaika bertso kantatua nauk. Garaitsu horretan jarri nizkioan Altzako gertakizun bati bertsoak. Norbaitek izango ditik; nire burutik joan zituan aspaldi.

Baserri batean, gaitzak behi bat garbitu zian; eta, albaite-roaren aginduz, larrutu ere gabe lurpean sartu zitean. Behi baten gorabeherari begira zeuden baserritarrak ez baitziren. Inguru hartan bazuan, ordea, beste baserri gose xamar bat ere. Behi hark ez zuela ezer ere; kalte egiteko beldurreratik jan zitekeela hura lasai. Gau hartan bertan atera, larrutu eta bere puskarik onenak jateko eraman zitiztean. Albaite-roak jakin zuenean, mikeleteak bidali eta multa koskor bat eman ziean. Lan hau egin zuenak berak eskatuta, bertsolari-legekoa baitzen bera ere, kantatu nizkioan. Xorrotxak zirela esan zidaan, baina barkatzen zidala. Ez baitzen edozergatik zapuzten zen horietakoa.

Inguru xamarreko baserri batean lagun xahar bat banian, bertsolari zoratua, baina etorri motzekoa. Beste Alzta gaineko

gazte batekin lotu zuan behin; onean eta txarrean, gazteak xahutu zian. Xaharra, pipertu xamarra —gutxi aski izaten zian, erretxina<sup>164</sup> baitzen—, niregana etorri zuan laguntza eske. Umore ona zegoelakoan joan ninduan ni. Haiek haserretuak izaki. Ikusi nindueneko, esan zidaan gazteak:

—Ez nuen holakorik uste! Zu gaur honekin honantz etorriak min ematen dit, tokaio!

—Zergatik hori?

—Ezer ez al dakizu?

—Inongo umorerik onena delakoan nakarte ni hona! Asko harrapatuko ninduten bestela!

Umore ederrean arratsaldea bota genian, bai, eta beti bezain lagun eta adiskide geratu gintuan. Nire lagun xaharra-eta, berriz, erdi zapuztuak bereizi zituan. Joxe Arrux esaten genioan honi. Etorri handiko bertsolari ez zuan, baina bertso politak baditik jarriak. Lantegian zerbait izan zutela-eta, odol gaiztoko gizon batek bi labankada emanda, hartatik hil zuan. Holaxe galdu nian oraindik sasoikoa zen lagun maite hura ere.

Geldi-geldi, holaxe joan zituan urteak; semeak hazi zituan. Gure lehenengo larrialdietan hamaikatxoren laguntza hartuak gintuan; orain haien aldean ongi bizi gintuan gu, eta zorretan bizitze horrek begi gorriak ditik niretzat, Ataña. Txerrimuniak ordainetan, esan ohi den bezala; lehen berek borondate hutsez egin zigutena ordaintzea erabaki genian guk ere. Gure etxeko atea jo zuenen bati laguntza ukatu ote genion gero? Ez nauk oroitzen. Hamaika sagastipe eta aldapa gaizto eta nekoso laiatuak gaituk. Bost zohitan<sup>165</sup>, hautsi edo eten, hasten ginenean gu, bazterrak laster gorritzen genian. Segan ere berdin;

---

<sup>164</sup> Erretxin: Edozein huskeriagatik haserretzeko edo marmarka hasteko joera duena.

<sup>165</sup> Bost zohitan: Bost laiak hartzen duten lur-zabalera.

inguru hauetan, guk gure sarrera egin gabeko belardirik ez duk izango, noski. Hamahiru urtetarako lan hauetan ongi heziak baitzeuden.

Semerik zaharrenaren kinto-urteak ere etorri zituan; sei urte alargundu nintzela. Gure etxeko ezinek ere azkena eman zitean. Ordurako, hurrengo hiru semeak lanera hasiak zituan, baina denak etxera biltzen zirela. Etxetik jan eta jantzi; irabazia berentzat. Udara aldeko ilunabarretan lau orduko lana bederenik egiten baitzuten etxean.

Nire lagun batzuen aholkuz, kuotako joan zuan<sup>166</sup>. Lehen-bizikoarena igurtzi polita egin zidatean; hurrengoak, ordea, ia hutsean libratu zituan. Gehienaz jota ere, zazpi bat hilabete igaro zitiztean soldaduskan, Loiolako kuarletean, ia egunero bazkari, afari eta lotara etxera biltzen zirelarik.

Gure txoko honetako bakeak ere orduantxe egin zituan. Mendi alde honetara zetorren jendeak harrera ona izaten zian beti. Gazteak bihurri xamarrek; norbaiti pegaizo txarren bat egin nahirik hasten baziren ere, galarazteko han zeudean zaharragoak. Ijitoek ere atsegin ederra hartu zitean; beti bateon bat izaten baikenuen aurreko dolare xahar horretan. Behartsuak behartsuari lagun egin behar zioke.

Nire larrialdiak ere bukatu zituan. Zaharrenak hogeita bat urtetik gora; gazteenak ia zortzi. Udara betean bizi gintuan. Ikusgarria zuan giza sail hura.

Zaharrenak soldaduska bukatu zueneko, sartu zuan bigarrena; lau lehenengoek urte baten aldea besterik ez baitzuten. Diru-kontarien hizkuntza hori ere lardaskatzen bederenik ikasi zitean. Ehiztariak zituan eta tiralari onak. Soldaduskarako ez zitzaiean gaizki etorri: teniente bat buru zutela, Espainiako bazterrik gehienak ikusi zitiztean.

---

<sup>166</sup> Kuotako joan: Soldaduskara kuota ordainduz joan, mesede batzuen truke.

Alargundu nintzenean amonak esandako hitzak xuxen asko bete zituan:

—Ez gehiegi larritu, Joxe, Jainkoak haren falta nolabait ordainduko du eta!

Emakumezkorik ez genian gure etxean; hamar gizonezko, eta halere, elkarri lagunduz, denon artean etxeko eta kanpoko lanak eginez, urte ilunak igaro eta argira atera gintuan. Etxeak gorako gaitza egin zian. Osasun txarrekoak izan bagina, gaizki ibiliko gintuan. Seme galduren batzuk izan banitu, berriz, gurreak egin zian. Ez zitean alferrikako gasturik egin nahi izaten. Zigarrorik erretzen ez zitean ikasi. Tabernarako ere oso joera gutxi. Elizarako, berriz, etzanak<sup>167</sup>. Birao gaizto eta lizunkeriazko argudiorik ez duk entzungo gure sutondoan. Argi eta garbi aitortuko diat nirea, Ataño: haiek hezi eta haiei ezer erakusteko betarik ez dudala izan. Ahal nuen ejenplorik onena ematen ahaleginak egin nitian. Nirea ikusiz, berez etorri dituk holakoak.

Nire sinesmenak garbi ikusten dik hori: haiek hezteko, niri laguna kendu zidanak erein zuela hazi hori horien bihotzetan. Arrazoi zian amonak. Estutzen gaitik Jainkoak; ukatzerik ez zegok; baina itotzeraino ez. Ezin eraman duan zamarik ez dik bizkarrera botako.

Etxean giza sail hura, halako gazteria bikaina, osasuna eta bakea, zer jan eta jantzitik aukera, bost duroko baten faltarik ez patrikan. Ez gizona ogi hutsetik bizi behar duena izaki, ordea. Hemengo poz eta zaraten artean, nire semeek nabaritzen ez zuten itzal, hutsune bat, aurkitzen nian nik. Haurrik gabeko etxearen izaera tristea bada, amarik gabeko sendi baten izaera ere tristea duk ba, motel. Familia osatzeko huraxe falta zuan: ama. Edertasun hura ikusi gabe, ongi bakarrik alde egin zian gure artetik gaixoak. Jainkoaren esku baitago dena.

---

<sup>167</sup> Etzana: Joera duena.



## ERKALA EDO ERREPUBLIKA

Haize berriek jo zitean orduan gure mendi, baso eta hirietan. Denok nabaritu genian euskal irrintzia. Itsuaurreko batek itsua nahi duen lekura daraman bezala beti eramana zen euskaldun gizajoa esnarazteko garaiak etorri zituan. Zen eta zuen guztia ordura arte besteri eman ziona, beretzako ere leku pixar bat gorde nahirik hasi zuan lanean.

Erregeren ateera eta Errepublikaren sarrera. Orduantxe eman zigutean hitz egiteko askatasuna eta orduantxe esnatu zuan gure herri maite hau ere. Bere berdingabeko hizkuntza eta ohitura xaharrekin, txikia izan arren, herri bat zela behinik behin, munduko zaharrenetako bat, gainera; eta, onean eta zuzenbidez, beste askoren artean, beretzako ere lekutxo bat eskatzen zian.

Euskaltzaletasunak sutu zitian hiri eta mendiak. Berotu zuan gure gazteria; eta holakoetan, jakina, handizki eta zerbait zirela uste zutenak hasi zituan, bakoitza bere eskuarearekin<sup>168</sup>, nora jo ez zekien gazteria ausarditsu hura beren bordetara biltzen.

Gure baserri txoko honetan ere bazuan, bada, zalaparta. Ezin egonik ikusten nitian gazteak; orduan ere gaur bezalako zapaldi bat izan baikenuen. Zer opinio zuten ere ez nieran galdetu. Zer bide hartuko zuten hain gutxi. Egia esatez geroz, beldurrak bizi ninduan. Ordura arte hain bat zetozen semeak politika zikin horrek banatuko zituen beldur. Itsutzen baititu. Bederatzi seme horretan batera etortzen hain zaila duk, berriz. Zenbat guraso ez nituen ezagutu, eta nire lagunik maiteenetakoak batzuk, ama seme-alaba batzuekin batetik, aita besteekin bestetik, elkar lagundu beharrean elkarrekin borroka. Hori bai tristea dela familia baterako.

---

<sup>168</sup> Eskuare: Nekazariaren lanabes bat.  
Gazt.: rastrillo. Frants.: râteau.

Sutondo xahar honen zorionerako, Jaunari eskerrak, gurean ez zuan holakorik gertatu. Bide beretik jo genian denok, eta ez genian etxeko batasunik galdu. Aurki gainera zetorkigun eraso gaizto hura elkar maitasunez eramateko, ez zian gutxi esan nahi batasun horrek. Berehala sumatu nizkiean ikurrinak, hiru koloreko gerrikoak, makila dotore askoak ere bai. Bateko Bilbora, besteko Gasteizera, Iruñea, Izarra, hamaika atzera-aurrera eginak zituan, oinez gehienetan. Zer opinioetakoak ziren galdetu nieran behin. Mendigoizaleak zirela erantzun zidatean. Inongo euskal jai eta iskanbila guztietan sartzen zituan, inor astintzeko asmorik gabe, bakean-bakean nahi zuenarekin. Denak iritzi berekoak zituan. Ez ninduan haserre. Eska nezakeen baino hobeto atera zitzaizkidan gauzak. Etxeko batasuna salbatu genian. Hamaika hizketa bero eta eztabaida izaten zuan gure sukaldean; azkenerako, ordea, gauza hauetan behinik behin, batera biltzen zituan.

Beren ehizarako joera ez zeukatean halere ahaztuta. Dene-tarako beta harrapatzen zitean. Zoratuak horretan zituan: ehizan. Udaran mendigoizale baziren, neguan mendi-goian eta behe zale. Behin ehizarako adinera iritsi zirenean, diru-aukera hobean bizi baikinen, beren eskopeta eta paseen jabe egin zituan. Haiek zebiltzan bezala ibiltzeko, hanka-jokoa bakarrik ez zuan aski.

Gure auzoko bi anaiak ere zoratuak zituan. Gaur kalean bizi den nire iloba maite bat, ordurako ezkondua, besteak baino zaharxeagoa, tartekoa zitean beti; beren anaiarik zaharrentzat bezala zeukatean, ehiztari eta zirikatzaile. Haiek elkarrengana biltzean, ehiza beste konturik ez hien entzungo. Zenbat atzera-aurrera eta leher gaizto ez ote zuten egin haiek! «Maite den lekuan aldaparik ez» esan zuenak ez zian gezurrik esan.

Neguan, oilagor-zelatara atera gabeko goiz-ilunabarrik ez zitean izango. Semeen kontuak esaten ari banaiz ere, ehizan haiek bezain zoratuak nauk neroni; haiek bezala ateratzen ninduan. Hamaika oilagorri bizia kendua nagok, gaur oraindik

nire laurogeita lau urterekin ateratzen nauk eta. Gure lurretan oilagorra bezalako ehizarik ez zegok: neke handikoa, erruz ibili behar dena, ehiztari langileen ehiza. Zenbat gorabehera ez ote ditut egin? Berehala etortzekotan, erdi baraurik goizean atera; Jainkoak zekien garaietan etorri gero, ahuleriak jota, zutik ezinik. Oilagorren batzuk banekartzan, hutsa zuan. Askotan egun-erdia galdu, leher egin eta esku-hutsik. Gain hauetara maiz azaltzen zen ehiztari batek bezala:

—Pausua franko inta, hankak busti ta ezer ez harrapau!

Nekea neke duk, egia; oilagorra ere oilagor dela, alegia. Txakurrak hortzetan hartu eta bere moko luzearekin eskura daskarkidala ikustean, neke eta tripa-jate guztiak ahazten zaizkidak.

Lehenbiziko oilagorrek gehienez gure txoko honetan sartzen zituan.

—Aurten oilagorrek goiz hasi zaizkiguk! Atzo Bordaxarrekoek bi hil omen zitiztean!

Hori zuan, gaur oraindik ere hori duk, ia urteroko donostiar ehiztari sonatuen esaera. Oilagorrek hasi zirela bandoa joa zegoan. Handik aurrera, iganderik huts egin gabe, Donostiako ehiztari langile asko hemen zituan, Txoritokietako aldapa zakar hauetan gora. Etxerakoan, gure baserri honetan beren betiko sarreratxoak egin gabe ez zituan joango. Hemen hizketa aspertu bat egin; sagardo txurrut bat edo bi edan; hutsik bazetozen eta gurean baldin baziren, erosiko zitiztean; beren haiek gero ipurdi gainean dilindan zituztela, gozoak joaten zituan Donostiako kaleak barrena.

Ehiza bikaina duk pagausoa ere eta oilagorrek baino adiskide gehiago zeuzkak, batez ere lasai xamar bizi diren horietakoak. Ehiztari alferren ehiza duk pagausoa. Jan-edanez aseta, purua erreaz, ordutan txosna barruan egoteko ez diat balio nik; semeak ere nire odolekoak dituk. Nekerik gabe eskura datorren gauzari ez zioat graziarik hartzen. Bere garaian mordoxka batek uzten



dik bizia, baina oilagorretan adina ez gaituk saiatzen. Pagauso-pasaeran nekazaria lanpean bizi baita, gainera.

Halere, gure jolasetarako ehiza xoxoa eta birigarroa izan dituk. Igande-bazkalondoetan haien hemengo ateerak ikusi izan bahitu! Haien iskanbilak entzun bahitu! Haien aurrean jartzen ziren xoxo-birigarroek larrutik pagatzen zitean. Beren txakur txarra inguruan zutela, aterako zituan zortzi-hamarren bat mutil. Erreka-xidor, eskera, lubaki, karobi-zulo, sasi mordoxka, arbi edo aza-sail eta txarak, erdian hartuko zitiztean lehenbizi; bat edo bi aurrean jarriko zituan, beste hiru edo lau bi zeharretan, denetarako baitziren. Horretarako hezita zeukaten atari-txakur bat bazitean; ehiza-txakur ona hondatu egiten baita xoxotan. Bere hura jauzi, zaunka eta garrasika sasipetan barrera zihoala, sartuko zuan atzetik beste anaiaren bat. Handik ateratzen zen txoriz gorako ehizak zeuzkaan istiluak. Bizirik joaten bazen ere, bereak adituta joan beharko zian.

—Hor dituk! Hor dituk! —oihu egingo zian atzekoak.

Atzeko, zeharreko eta aurrekoak hasiko zituan sutan; une hartantxe ez zuan atsegin izaten han. Hamalau tiroatik gora sututako lekuak bazitiztean.

—Hor duk atzetik! —oihu egingo zian batek.

—Begira iezaioek non erortzen den, elbarri-elbarri egina zihoak eta! —beste batek bazterren batetik.

Elkarrengana biltzen zirenean, hil zutenak harro xamar; eskuineko behatz handiarekin xoxoaren petxu-hezurra zapalduz itoko zitean; eta, gerriko sortan sartuz, berriketan ariko zituan.

—Sutu diok, bada, hik hari? Hegoak bilduta lurrera zihoan eta —batek.

—Munizioa aisa daukak hik! Hagoen lekutik hara ehun metro gutxienera baietz jokatu nitek! —besteak.

—Atzealdea ederki jorratuta, baldar-baldar egina joan duk, bistatik galdu zaidak behinik behin eta!

Hurrengo erreka ere erdian nola hartu hitz egin eta sartuko zituan. Ehizaren itxurarik bazen, bereak entzun beharko zitian. Udazken eta neguko igande eta jai-arratsalde on guztietan holaxe ibiliko zituan. Inguru haietako aitona-amonak, gazteak ere bai askotan —hamaika oroitzen dituk oraindik—, jai-arratsaldeak etorri zain egoten zituan, kaskoetara atera eta gazte-sail haren atzaparka, tiro eta zilipurdikak ikusteko zoratzen. Hamaika xoxo-birigarrok haien eskuetan utzi zitean beren bizia. Elkar hiltze beldurgarri hark moztu zian dena.

Urteetan hala ibilita, perdigoi batekin ere elkar jo gabe geratu zituan.

Arratsalde guztian ibilian leher eginda, beren ehizak gerritik dilindan zituztela, inguruko baserri-kantina haietakoren batera sartuko zituan; han, norbaitek airean botatako poto zaharren bati tiraka, litroren bat ardo jokatu zitean; eta, hura denen artean edanez, bake ederrean iluntzerako etxera. Kazuelakada on baten kontuak emateko, ez zitean besteren beharrik. Aste guztiko zeresanaren faltarik ez zeukatean. Askotan esan zidatek:

—Semeek ez dizute, Joxe, ehizatik errenta handirik ekarriko!

Egia, hori halaxe duk. Ehizara ez gaituk, ordea, errenta bila joaten. Ehiza guretzat kirol bat, jolas bat besterik ez duk. Egun guztia taberna-zuloan zurrutean pasa, denekin haserretu eta gauerdia aldera bideak neurtuz biraoka datorrenak hainbeste errenta ekarriko dik, bai, jai-arratsaldeak ehizan botatzen dituen mutilak. Honek saltzeko ere bazeukak osasuna. Igualeko heldu-aldia egingo ziotek eguneroko lanari.

Udara aldean, berriz, herri kokkor bat zirudian txoko honek. Hogeita hamar urtetik hamaseira bitarteko hamaika mutil bazituan bi baserri hauetan. Hemengo zalapartak nabaritu izan bahitu! Inguruko herri koskor hauetan hasi zituan euskaldun ohitura eta gure jolas zahar guztiak berritzen. Lasterkari, tokari, bolari... Herririk txikienetan ere jartzen zitiztean *tiro-platillo*ko sariketak.

Lanetik etortzen zirenean, hor joango zituan, bat neurtzaille zutela, bide zakar horietan barrena lasterka, beren probak egitera. Herriko jaietan batzokitarren alde joaten baitziren beti. Toka-lekua jarri zitean. Hartarako ere onezkoenak bereizi eta beren eguneroko saioxka egiten zitean. Bidez gain egin zitean bolatokia. Han ere gehienean izaten zuan norbait; igande eta jaietan, berriz, txandarik ezin hartu ahala.

*Tiro-platilloan* ere ez zituan, bada, atzean gelditzeko asmoan. Azpilak<sup>169</sup> airean botatzeko makina berri bat ekarri zitean. Astegunetan jai egiten bazuen ere, ez zian lanaren faltarik izaten jaietan. Etxekoek eta kanpokoek hor zitean beren bilera. Tiro-oihartzun dardara ona ibiltzen zuan jaietan zoko honetan.

Hiru edo lautan herriko txapeldun geratu zituan. Hamabiren bat kopa baditiztek nonbait *tiro-platoan* irabaziak. Bosnako txapelketa batean bost anaiak tira zitean, eta ez zituan lotsagarri geratu.

la ilunabarrero hasiko zuan auzoko mutila, bere dultzainahots arinean, euskal airearen bat jotzen. Gure leihotik laster zian erantzuna. Hiru aritzen zituan, ia beti txandan-txandan, bertsotan bezala, elkarri erantzunez, aspertzen ziren arte. Belarriak gortzerainoko dultzaina-oihartzuna ibiltzen zuan mendi-hegal hauetan barrena. Hamaikatxo harriturik entzuten ere egoten zituan. Haiek urteak!

Etxeko bake eta pozak lasaitzen bagintuen ere, etxetik kanpo zebilen iskanbila beldurgarria zuan. Lehenbiziko hautitz edo botoak emateko garaia iritsi zuan. Herriko gizonak aukeratzeko zituan. Traste batzuk erostera joan nintzen batean, herrian oso maiteak nituen gizon batzuek esan zidatean:

—Aizu, Joxe: laster botoak ditugula jakingo duzu, noski?

---

<sup>169</sup> Azpil: Platera.

—Bai, jaunak, bai! Noiz diren ez dakit, baina garaiz adieraziko diguzuelakoan nago. Esateko beldurrak ez zabiltzate. Ez nekien baserriar gizajook horrenbeste balio genuenik. Orain arte aldamenetik pasatzerakoan nirekin kutsatu beldur, beste aldera begiraka eta muzinka<sup>170</sup> joaten ziren herriko kaballero horietako bat, jaunak, irribarrez, apal-apal, boto eske hurbildu ez zaigu, bada? Gaur kalera naizenez gero, hirugarren eskea badut zuena. Ez diot inori agindu. Norbaiti ematez gero, zuei ezin ukatu.

Haiek agurtu nituen orduko, hor zetorrek laugarren eskalea, denetan beldurgarriena. *Txorrotxa* deitzen genion nire iloba apaiz jaunna. Aspalditik azpijaneari ari zela banekian. Kanean ikusi nindueneko, hark ere eskari bera egin zidaan:

—Erotuko zenukete zuek bat! Hau laugarren eskaria badut gaur! —erantzun nioan—. Ni, berriz, bat besterik izaki ez; txiki xamarra, gainera. Lau puska egiten banauzue, asko gabe geratuko zarete bakoitza. Denek agintari jarri nahi baduzue, zeinek lana eginik ez da geratuko. Berandu xamar zabiltza, iloba; eskainia baitaukat. Herriko gizon jatorrenetako bati eskaini diot: holakori.

—Bizkaitar gorri horien alde al dago berori<sup>171</sup> ere? Horiek holako eta halako dira! Horiek holako eta halako asmotan dabilta!

Ordu-erdi batean gutxienez jardun zian bere hitz-jarioan. Luziferren mailaraino jaitsi zitian bizkaitarrak. Ezertxo ere ez nioan sinistu. Halere, lehenbizi agindu nienei gertatzen zena adieraziz, bakearengatik nire bihotzari indar eginez, ezagutzen ez nituen erdi arrotz batzuei eman nieran botoa. Etxea kendu nahi zigutenak, etxe-zaintzaile jarri nahi. Ez alferrik! Euren bototik gora ez zitiztean atera, noski.

---

<sup>170</sup> Muzin: Norbaitik zerbitat atsegin edo gogoko ez duela erakusteko egiten duen keinua.

<sup>171</sup> Osabaren eta ilobaren hizketa honetan, gaur deigarria egiten da elkarren arteko trataera: zuka egiten dio osabak iloba apaizari, eta berorika honek osabari.

Ezkertiar sozialistak eta hark hainbestearino astindu zituen bizkaitarrak, berdintsu zihoazaan. Gezur eta abar hainbeste boto kendu zizkienak berak, azken orduan, ezkertiar gorriek irabazi ez zezaten, gaiztotzat jo zituen bizkaitarrei eman zieran bere botoa. Niri galarazi zidan ilobak berak egin zian lan hori.

Jokaera itsusi horrek min eman zidaan. Handik aurrera, bihotzak eskatzen zigunaren alde joan gintuan beti.

Gure hartu-emanek lehen bezala jarraitu bazuten ere, geroztik erdi zapuztu gintuan osaba-ilobak. Izan ere, txapel-luze horiek horrenbeste nahastu beharrik bai al daukate?

Garai haietan, euskarak eta euskaltzaleek hartu zuten indarra! Mutil eta neskatxa gazteak sailka euskara garbian nabaritutako zintuan, eta lotsarik gabe oihu egingo zitean:

—Euskaldunak gara!

Euskal jai guztiak euskara garbian egiten zitiztean orduan. Atseginez egoten ninduan jai eder haiei begira. Jende xeheak benetan maite zian euskara. Goikoek, ordea, muzin. Bost urteko esnaera hari eskerrak; honezkero, bestela, gureak egin zian. Orduan ikasi genian euskaldunok ere norbait baginela munduan. Esnatzeko betarik gabe hilko gintuan, bestela. Gorriak erakutsi zizkigutek; zapaldu ederra eman zigutek. Ai, zutitzen hasiko bagina berriz!

Gaur egiten diren hauek ez dituk euskal jaiak. Itxura besterik ez duk hori. Euskaldun jantzi eta erdaraz mintzo. Inauteritan bizi gaituk, gure buruak iruzurtu nahirik. Aho betean erdara darabiltenek euskal jai onik ezin lezaketek egin. Joan duk, Ataño, joan duk gurea!

Dantza eta txistuen etsaia ez nauk. Txistulari on bati entzunez, halako zirrara goxo bat nabaritzen dik nire bihotzak. Horiek ere gureak dituk; betoz, baina euskararekin nahastuta. Gure izaera hor zegok.

Nik baino begi zorrotzagoak edukiko dituk. Aldapa hartan, gerri-gerritik klikatu eta buruz behera dagoen gartzaina zahar

hura ikusten al duk? Gaur bi hilabete ikusi bahu... Haren hostaje bikaina! Saltzeko ere osasuna bazeukala zirudian. Udaberri erdi aldera, ustekabeko enbata batek jo zian, eta horra gure gaztairaren hondamena. Hirotua<sup>172</sup> baitzegoen. Bihotz-muina ustela.

Gaztaina zahar horren antza ditek gaurko euskal jai gehienek ere. Itxura ederra, hostaje bikaina; baina hirotua, barrua hutsa, bihotza ustel, euskara falta eta ezeren euskarririk ez. Zuhaitz zaharrari txerto berria sartu baitzaio. Lehenbiziko enbatak airatuko zizkiok, arrosa-atalak bezala, bere soineko, dantza, txistu eta folkloreak, eta bai al dakik azpian zer azalduko den? Txerto berriaren uzta: erdal herria.

Euskara hiltzen bazaigu, agur Euskal Herriari! Sua itzaliz gero, beroak ez baitu luzaro irauten.

Lehenago zapaldu horren ondoren, zergatik uste duk oraindik ere zutik irauten dugula? Euskarari eusten diogulako. Beste gainerako arrazoiak alfer-alferrik dituk, Ataño. Hor daukazue jo beharra.

Bai, Ataño, bai. Euskararik ez badugu gehiago maite, gureak egin dik. Hainbeste ekaitzi aurpegi eman dion Euskal Herri gaixoak azkenak gainean ditik. Birao gaiztoren bat egin digutela zirudik: ez gora, ez behera, azkenetan, beti hiltzen eta ezin hil eta ezin indartu. Nik hainbeste maite duen batentzat, ai, tristea duk hori!

Halere, bazirudik lehenago bost urtetako suaren hauspeko ezkutuan geratu ziren txinparta aleak pixkana-pixkana indartzen hasi ote zaizkigun. Ez diezaiegun itzaltzen utzi.

Urte haietan ere, txantxangorri kantaria ez zuan isilik egon. Nire urterik tristeenetan jartzen banituen, holako alaietan nola ez jarri? *Bertsolariya* deitzen genion asteroko bat ateratzen zitean Erreterian. Gure sukaldean ere sartzan zuan asteroko hori. Nire bertsoaren batzuk badituk han.

---

<sup>172</sup> Hirotu: Usteldu.

Hamasei urte joan zituan gure etxean emakumezkorik ez zela ezagutzen. Hamar gizonezko, aita bederatziz semerekin. Bakantzen ere laster hasiko zirela banekian; denak etxerako ezin geratu. Beren bizimodua aukeratuta joango zituan, zihoazenak, beren adinean baitzeuden. Batzuk, behintzat, aldamenekoekin hasiak zituan ordurako. Aita batentzat pozgarria ez bada ere hori...

Hirurogeita hiru urte neuzkaan, osasun aparta, gazte baten sasoi oraindik. Udazken zoriontsu baten ametsetan bizi ninduan. Semeak, banaka-banaka, habiatik hegatuko zituan, ondo lumatu eta gero ordea, beste habiaren bat sortzera. Izan ere, bihotza zerekin poztua baneukan; hainbeste sukalde berritako aita eta aitona izango bainintzen aurki. Inori txartelik eskatu gabe, aita nintzen aldetik, denetan sartzeko eskubidea baineukan. Baina, ai, nire amets gozoak haizeak eramane zitian!

## AZKENEKO GUDATEA

Azkeneko hauteskundeak otsailaren hamaseian zituan. Larriak! Alde batekoek errearen truke nahi zitean garaipena. Halere, beste aldekoek, ezkerrek, irabazi zitean. Baina galtzaileen bihotzetan halako nahigabe isil bat geratu zuan. Zerua sargori; laino beltzak pilatzen hasi zituan. Harri-eraso gaiztoren bat laster gainean genuen itxurak hartzen hasi zuan herria. Izugarria bazetorrela laster, aho betean zioan jendeak. Lehen ere gaizki atera zitzaiean; baina hiru edo lau erasoaldi eginak zituan. Edozein lekutan hots handiko gizonak hilda agertzen zituan. Hau dena gudazaleen lana zuan. Gorrotoa ereiten ari zituan. Ez zegoela bizitzerik, alegia, eta nahitanahiezko saltatu<sup>173</sup> beharra zeukatela jendeari adierazteko.

Halako goiz batean, lanera joan ziren nire semeak etxera itzuli zituan berehala. Joan deneko elkar hiltze negargarri horren hasierak zituan.

Egundo ezin ulertu izan dudan gauza hori duk: guda. Gudate batetik ez zekiat zer aurrerapen atera litekeen. Bi aldeak lur jota geratzen dituk. Besteren odola isurtzeak gaur arteraino ez dik ezer zuzendu. Gizonen odola baino, erruki eta elkar maitasuna nahiago ditik Jainkoak. Bere izenean inoren odola isurtzeak atsegin handirik ez zioke emango maitasuna denari. Hark berea isuri zian etsaiak salbatzeko. Hemen, berriz, behartsuarena isuri, nork bere aberastasunak zaintzeko. Bukaera on bat iritsi nahi izateko, gaiztakeriazko bitarterik ez duk zilegi. Nire iritzia garbi esango diat, Ataño: guda on eta zuzenik ez dela munduan. Grina gaizto eta ezinikusiarri haize eman besterik ez dik egiten gudak.

---

<sup>173</sup> Saltatu: Altxatu, matxinatu.

Gazt.: sublevar. Frants: révolter.



Oker dagoena, okerrago jarri. Handi eta agindu-nahiak dakartzan bekatuak. Jesukristo hil zutenek herria, Moisesen legea, Jainkoaren aintza eta abar hartu zitiztean ahotan; eta, bitartean, Jainkoaren izenean, Jainkoa bera hil zitean. Otsoak ardiz janzten baitira.

Hasi bazen, bereak eta besterenak egin gabe ez zuan geratu. Gudaren hasiera, berri gaiztoa, gaiztorik bazen, gure etxerako behintzat. Bederatzi mutil gazte zeudean gurean: zaharrenak hogeita hamar urte; hamasei, berriz, gazteenak. Gudateak, zerbait luzatzen bazuen, denak harrapatuko zitian.

Istilutan ibili ondoren, Gipuzkoa gorrien mende geratu zuan. Gehitxo harrotu zituan eta ia arratsero bazituan heriotzak Donostiako kanposantu inguru horietan. Gizonak horretara, odol hotzean, etsaiak direla-eta, hiltzeko eskubiderik ez zegok. Jakina, besteek mila bider gure neurriak pasa zitiztean; guk ez genekian, ordea, haien berri. Nahiz gure etxean denoi bihotzak alde horretara bultza, inork ez genian ontzat hartu hori. Ezeren beharrik gabe, gorroto gaiztoak eragindako odol-isurtzeak baitziren horiek. Lan horiek ez zitean on handirik egin gure etxean. Kezka txarretan geratu gintuan denok, bi alderdiak gaiztoak zirela-eta, inora makurtu nahi ezik. Gure iritzikoak ez zirelako, hamaika gizajok larrutik pagatu zian. Arto puska baino otzanagoko baserritarrak ere bazituan, harrapazka horretan bereizi eta hilak. Datorren eskutik datorrela, gaizki egina beti txartzat jo behar dik bihotz zuzenak. Izututa, berehala hasi zuan jendea ihesi. Mendi-baserrietan ezkutatuta zeuden hamaika ezagutu nitian. Bi seme aurrera joan baziren ere armetan zetorren etsaiari gogor egiteko, ez odol hotzean inor hiltzeko asmoan. Jende horrekin topo ez egitearren, Errenteria utzi eta Altzara joaten gintuan mezetara ere.

Gipuzkoa gorrien mende geratu zela esan diat; ez luzarorako. Etsaiak egiten zuen pixarra beti aurrera egiten zian. Gure

menditik ederki entzuten genitian dunbotsak, gero eta alderago. Lanean ari ginela, askotan esaten genioan batak besteari:

—Ai, mutilak! Horiek beti aurrera zetozak! Ez zekiat zer ikusteko gauden!

Agorraren lehenbiziko egunak izan behar zitean. Bibelarra<sup>174</sup>, ebaki eta ondu xamarra, piletan utzi genian, hego-haize arin-arina baitzebilen. Oheratu gabe, gauerdia, belar pila hai-etan etzan gintuan. Gaugiro atsegin haren isilean, guk entzun genituenak! Bi etsaiek, aurrez aurre, menditik mendira, zer ez zizkiotean esan ekarri! Oroitze hutsak ere nazka ematen zidak.

—Ai, elkar maitasuna! Gurutzean josi haute! Hire ordez gorrotoa zebilek nagusi! —nire bihotza otoika ari zuan—. Barkaiezaguzu, Jauna! Barkaiezaguzu!

Haiek sartzen baziren, zer ez zuten egingo? Eta beti aurrera zetozean.

Nafar aldetik ihes zetozenen ahotik izugarriak entzuten genitian, berriz; ezin sinistu halakoak. Oker zegoena zuzendu nahirik zetozenek halakorik egin zezaketenik ere... Ez geniean sinistu. Gipuzkoako jenderik gehiena horrexek galdu zian. Zoritxarrez, esana izanaren itzala izaki. Gure artean ikusten genuena ere nazkatzerainokoa zuan, bada; aurrera beti etsaia eta etxean ezin konpondurik. Bi hilabeteren buruko galdu genian Donostia. Goxoak sartu zituan. Bertako jendea sakabanatu zuan berehala Frantzia eta Bizkai aldera. Milakek alde egin zitean; halere, gehientsuena bertan geratu zuan. Larrutik pagatu genian gero.

Euzkotarrekin, aurrera jarraitu zitean bi semek; nire ondoan etxean geratu zituan beste gainerakoak. Ez luzarorako. Hobe zitean alde egin izan balute.

---

<sup>174</sup> Bibelar: Behin ebakiz gero urte berean ateratzen den belarra.

Hauek<sup>175</sup> sartu zain irrikatzen zegoen Donostiako bikario agurgarri batek hala esan omen zian, behin ezagutu zituenean:

—Joan direnak zakarrak zirela bagenioen, sartu zaizkigunak ez dira gozoagoak.

Hori bera hamaikatxori entzuna gero; baina beranduegi. Ordurako armiarmak bere sarean baitzeuzkan.

Soldaduak oso bakean sartu zituan. San Markos gain horretan geratu zuan mordoxka bat. Santa Kruz bezpera zuan<sup>176</sup>. Lehorte pixar bat nola baitzen, berehala hasi zituan urketan. Hurrengo eguna ez zaidak berehalakoan ahaztuko. Eguarte hartan, uretarako aitzakiatan, hiru edo lau sarrera egin zitian gure sukaldera guardia zibil batek. Etxera sartu gabe ere, kanila han zeukaan atarian, nahi zuenean ura hartu. Zerbaiten berri bazekian hark, eta gerorako bideak ikasten zebilean.

Ordu biak inguru horretan, eguarte guztia lanean pasa eta gero, zazpi semerekin lasai bazkaltzen ari nintzela —beste bi aurrera joanak zituan—, purrustan atea zabalduz, pistola eskuan zuela, jauzi batean sartuta, hiltzea baino gehiago pentsatzen ez genuen garaian, «¡Manos arriba!» oihu egin ziguan erdara latzean, bere beste bost lagun gelditzen zirelarik atez kanpo, fusilak preparatuta.

Bazkaria jaten hasi berriak gintuan. Mahai gainean utzi; besoak jasoz, fusilen aurrean, atarira aterarazi gintiztean. Laster egin zituan besteren etxearen jabe. Gu lerroan atarian zain geunden arte, etxeko traste guztiak azpikoz gainera irauli zitiztean. Bilatu zituzten trasteak, gure kalterako zirenak, zaldian hartu; eta, lapurretan harrapatutako ijito-sail baten antzera, fusil aurrean, San Markosera denok, geunden bezala jantziak. Hori ez al da indarrean egindako lapurreta?

---

<sup>175</sup> Hauek: Francoren aldekoak. Bai hemen eta bai beste zenbait pasartetan, Joxe ez da ausartzen garbi hitz egitera, beldurragatik edo.

<sup>176</sup> Santa Kruz bezpera: Irailaren 13a.

Behiak, txakurrak eta oiloak —azkeneko hauek laster hasi zutuan bakantzen—, ez zuan besterik geratu etxean. Gure kalbariorako igoera negargarri hura ikusirik, auzo askok, batez ere emakumeek, negar zegitean; bai baitzekiten denak errugabeak ginela eta on besterik ez baikenuen egin auzoetan.

Han galdera batzuk egin; hil edo ez hil batzar txiki bat egin zitean; eta, ondorean, ilun urratze horretan, zazpi semeak San Markosen bahituta utzirik, bakar-bakarrik bidali ninditean etxera. Hamasei urtez lehenago bederatzi semerekin alargun geratu nintzen bezala, seme gabe utzi ninditean orain. Kantina-txikin eman zidaten baso-erdia edanda jaitsi ninduan Bordaxarre-ra. Hura gure etxeko hutsunea! Hura isiltasuna! Egun batzuk lehenago egiten nituen amets goxoak ahaztu zitzaizkidaan ederki. Besterik ezean, txakurren ongietorriak bihotza poztu egin zidaan. Gizon asko baino maitagarriagoak zutuan. Ez zekitean gizonak bezala gorrotatzen. Etxe atarian oilo-lapurretan harrapatu nitian beste horiek. Denaren jabe zirenez gero, nahi zutena egin, ez nieran hitzik trukatu. Ez al zen bi tiro hartzea baino hobea? Ez zuan azkenekoa izango. Genituen oilorik ederrenak gure eskutik hartuta, ordainsari guztia pistolak erakustea izan zuan. Gorriek ez zitean egundo holakorik egin.

Ez neukaan lanerako gogo handirik, baina zerbait egin beharra zegoan. Bakarrik egin nitian behien bazkak, bakarrik ukuiluko lanak. Gau hartako nire egoera negargarria ez zegok zertan kontaturik. Bi egun aurretik, bederatzi seme, sasoirik onenekoak, nire aldamenean neuzkaan. Denak indarrean kenduta, bakar-bakarrik utzi ninditean. Txarrena, berriz, beti gogoan eta burutik ezin kendua; nire begien aurrean ez nituela gehiago ikusiko etsitzeraino, motel. Izugarriak eginez sartu ziren hotsa baitzebilen. Batean nolakoa, bestean holakoa baita. Odolak ere mozkortu egiten baitu. Gudaren lanak dituk horiek. Horra seme asko hazitako saria!

Ez berehalakoan, baina noizbait eguna zabaldu zian. Oso goiz etorri zuan auzoko neska; hark ere bi anaia San Markosen baitzeuzkan. Gosari-lege bat jarri eta eraman ziean San Markoseraino. Etxeko lanak bakar-bakarrik egin nitian. Non joa bazegoan. Ez nian halere neure bururik galdu. Urteetan halaxe bizi behar banu bezala ekin nioan lanari, Jainkoak eman zidan sinesmenari jarraituz, geroko itxaropenetan. Jainkoak nahi zuen arte, lanpean bizi; lehen emaztea bezala, orain semeak kentzen baitzizkidan. Ez zela luzarorako izango noski-eta, hirurogeita hiru urte beteak bainezukan. Haiek orduak! Hori ere niri egin behar! Gudaren lanak! Itsua baita.

Auzoko neskak, etorri zenean, oraindik bizi zirela behinik behin esan zidaan; eta bizi dena, lehentxeago edo geroxeago, non edo handik, azaltzen duk.

Bateon batzuk azaldu zituan ni poztu nahirik. Ez alferrik! Pozarentzat lekurik ez zeukaan nire bihotzak.

Bazkalondoan, sega pikatzen ari nintzala etorri zituan hiru seme gazteenak, oso triste, gainera. San Markostik Erreteriarara eraman eta eguartera han igaro ondoren, lau Donostiara eta beste hirurak etxera bidali zituztela. Garbi esateko, nora eraman zituzten ez zekitean; aieka hartara bidea hartu zutela.

Erreteriarako komandante jaunak oso aukera xelebrea egin zian. Lau zaharrenak eskatu omen zitian; baina izenez deitu eta laugarrenaren lekuan bosgarrena aurrera bidali. Hori zeinen lana zen jakiteko, buruhauste handirik ez nian ibili. Oso oker ez banago, nire iloba apaiz maitearen lana zuan hori. Bosgarrena oso begitan baitzuen. Aldaketa horiek egin beharrean denak etxera bidaltzeko moduak egin balitu, hobe genian. Bere esku zegoan, herriko nagusi bera zuan behinik behin eta. Alkate ere bere lagunik maiteena aukeratu zitean.

Urte batzuk zirela, hamaika atzera-aurrera eginak zituan gure etxera; bazkari ederrik ere egin zitean gure txokoan.



Ez sartu zirenak, ez; okerrenak etxeakoak zituan. Zetozenek zer zekiten gure berri?

San Markostik Errenteriara, oiartzuar erreketek euskaldun batzuen mende joanak omen zituan. Bihotz oneko mutilak izaki haiek; eta, zerbaitetan lagundu nahirik, hala esan omen zieten:

—Zuek baduzue ba herrian zuen artekoa, hauetan sonatu xamarra!

—Bai; holako! —herri eta bere inguruetan oso ezaguna baitzen.

Zuzenean harengana joan zirela ez zegok esan beharrik. Han ez omen zuan gero erreketek eta apaizik azaldu. Bitarte horretan, haien isilean egindako lanak zituan guztiak. Etsairik maltzurrenak gure artekoak genituan. Jainkoak barka diezaiela, guk barkatzen diegun bezala. Holakoxeak dituk gudazaleak.

Haien alde zerbait egin nahi zutenek hala ziotean:

—Haiek, Joxe, oso esku txarretan erori dira! Ahaleginak egin gabe ez ditzagun utzi bakarrik!

Nire koinatu maiteak ere azaldu zituan, gertakizunen berri ikasi zutenean.

—Iloba apaizarengana zoaz, Joxe! Gizona baldin bada, estutasun honetan lagunduko ahal dizu!

—Lehen ere, nahi izan balu, lagunduko zien. Begitan zeukana aurrera bidali besterik ez du egin!

Seta gaiztoak hartua zegoela bai bainekien. Semeen bizia jokoan zebilelako, joan egin ninduan halere; ni ere, ahaleginak ez banituen egiten, ez bainintzen lasai geratuko. Atea jo edo ez jo, luzaroan urduri egon ninduan bere ateetan. Gurutzeak deabru guztiak menderatu zituela, bai, eta zirikaldi gaizto batean bezala aitaren eginda atea jo nian.

Nire arreba apaiz jaunaren amak zabaldu zidaan atea. Harrituta geratu zuan, ikusi nindueneko. Hotz hartu nindian. Izan ere, berak huts-ezinak zituan; gu bekatari. Haiek bide zuzenetik

zebiltzanak; gu okerrekotik. Haien ustez, zigorrik gaiztoena ari-  
na zuan gure bekatuentzat. Harro eta garaile bezala hartu nin-  
dian.

—Zatoz, zatoz aurrera, Joxe! —esanda, zabaldu zidaan atea.

Nire iloba maite hori han azaldu zuan berehala, hego-haizea  
baino harroago. Besteren kezka eta negarren axola handi gabe  
eta burua tente, hala esan zidaan:

—Kaixo, osaba! Aspaldiko partez, noizbait azaldu al da?  
Erregalia onen bat bai al dakarkit?

Txikitatik oso errespetuz berorika hitz egiten baitzidan, nik  
baino urte batzuk gutxiago edukita ere. Holako zuri maltzurrik  
dituk horiek. Dena alferrik izango zela banekian; eta, bere  
galderak merezi zuen gisako erantzun min bat eman gabe, lasaitu  
ninduan; eta, behin sartu nintzenez gero, ahal nuen modurik  
goxoenean mintzatu nahi nian:

—Bai, eginbeharrak izaten ditugu guk ere, eta askotan ez  
oso erosoak. Makilarik jaso ez duten lau seme dauzkat arriskurik  
gorrienean, Ondarretako espetxean. Lehen ere zuk holakoetan  
lagundu izan didazu, eta badakit ez gaituzula utziko.

Isildu nintzen orduko, hura harri-erasoa burutik behera:

—Orain, orain, bere burua galduta ikusi duenean, al dator  
erremedio bila? Berorren lagun maiteek holaxe ibili naute ni!  
Orduan non zebilen? Orduan ez al nintzen berorren iloba maitea?  
Eman eta hartu ezean, laster aspertzen da gizona! Txerrimuniak  
ordainetan, osaba!

Isil eta burumakur entzun nioan dena. Bukaera on bat  
emango ziolakoan bainengoan.

—Alfer-alferrik dator aiezka nire aurrera! Ez diet ezertan huts  
egin eta zertan lagundurik ez daukat! Ai! Han dagoen batek  
ondo-ondotik lepoa moztea merezi luke, ibili den lekuan ibili eta  
iritzi horretakoa izateko! —truke egin zuen semearengatik zioan  
hau—. Baita berorrek ere oraindik kartzelara joan beharko du!



Bihoa maite zituen lagunetara, ea estutasun honetatik ateratzen duten orain!

Egia biribilak dituk hauek: horixe esan eta egin zidaan nire iloba apaizak. Lehen erdi zaputzik geundenok adiskidetzeko, arrazoi politak zituan horiek. Bere iritzikoak ez ginelako, zigorra merezi genian. Jainkoak izaki.

Ez nioan begiratu eta hitzik trukatu ere. Inori agurrik egin gabe, purrustan ateak itxiz, oinetako hautsak ere atetan astinduz, lau saltotan jaitsi nitian eskailerak. Nire iloba eta arre-barekiko lanak bukatu zituan betiko. Etxe hartan ez diat gehiago hankarik sartu, lehendik ere ez nian oso gogozkoa etxe hura eta. Urte batzuk badituk ama-semeak hil zirela. Errukituko ahal zitzaiean Jainkoa!

Xuxen, handik bikario jaunaren etxera jo nian. Nire semeen alde zerbait egingo al zuen eskatu nionean:

—Zer? Soldadu al daukazu? —galdetu zidaan.

—Ez, jauna; arriskurik txarrean Ondarretako espetxean daukat!

Burutik oinetaraino begiratzuz bere modura neurtu ninduenen:

—Ez, ez! Ez dut egingo! Preso badaude, ongi daude, gizon-txo! Ez duzu biaje galdurik! Ez horixe! Baso-erdi batzuk edateko ez zaizu gaizki etorri!

Iseka eginda bidali nindian agure kaskailu hark. Hark ez zian bareak baino sentimendu gehiago. Bera eta bere dirua zituan haren Jainkoa.

Nik apaizak maite ditudan hainbeste maite eta hori al da ordaina? Holako erantzun gaizto batek betiko galdu zian Judas. Haiek ere apaizak izaki. Apaizik gehienak zuzenak dituk. Horietan ere, seta gaiztokoak ateratzen.

Beste apaiz baten ateak jo nitian, ez bainuen etsi oraindik. Zertan nenbilen esan nioneko, paper bat egin zidaan maitasunez, ba-

tere arrangurarik gabe. Handik xuxenean udaletxera jo nian. Asko eskaini eta ez zitean ezer egin. Handik aurrera eman nituen pausoak ere, bada, alferrik izan zituan. Lau egun lehenago izan balitz, mila behar-eta ere, bilduko nitian. Zer egingo diogu, bada? Igandean erregetzat aukeratu nahi zutena, ostiral arratsalderako gurutzean zintzilik zeukatean eta. Jainkoa baino gehiagokoak ez gaituk.

Handik urtebeteren batera izango zuan; udaletxera joan nintzen batean, nire zoritxarrerako, han ikusi nian berriz iloba apaiza.

—Kaixo, osaba! Hemen al dabil berori ere? —esan zidaan.

—Bai, jauna! Ez nabil oso gogo onetik, baina bizi behar honek lotzen gaitu gu ere! —erantzun nioan.

Hura han ikusiak ez zidaan onik egin. Ez zekiat nola, erdi lo etorriko ninduan noski, ez bainaiz ezer oroitzen; baserri aldera nentorrela, *topo* esaten dioten tranbia-bidea batetik bestera igarotzerakoan, tranbiak atzetik jo eta lubaki-bazterrera bota nindian korderik gabe. Handik jaitsitako komandante kaskazuri batek, nire eskumuturra hartuz, hila nengoela, bai, eta kanposantura eramateko agindu omen zian.

Baina denak ez zituan iritzi horretakoak. Han bertan bizi zen *Prantxesa* edo *Segari-luze* esaten genion zurgin handi bat, oso nire laguna, etorri omen zuan lasterka.

—Hau Bordaxarreko Joxe duk, eta oraindik bizirik zego!

Hark bazekian nire kalbarioaren berri. Aita-semeen artean *Cuarto-socorrora* eraman ninditean xuxenean. Han ziztako bat eman eta etorri ninduan onera. Egun batzuetan bizkarreko min pixka bat eduki nian, baina besterik gabe pasa zuan. Hura han ez bazen azaldu, ni hantxe geratuko ninduan.

Handik urte batzuetara, tranbia zikin hark berak hil zian ni salbatu ninduen *Segari-luze* gizagaixoa.

Ni han hil banintz, dudarik gabe, neure burua hil nuela esango zian jendeak. Neure buruan ez duk sartu ere egundo holako tentaziorik.

*Segari-luze* deitzen diyogun  
ua inguruan izan,  
maiteki arek lagundu eta  
kontura etorri nintzan.  
«Bere burua tranbe azpira  
botata Joxe emen il zan»  
an pasatzian esango zuten  
bertan gelditu banintzan;  
alako asmo gaiztorik gabe  
gure birian genbiltzan.

Gorrotoak menderatu zian maitasuna, eta bera zebilean Euskal Herriko nagusi eta jabe.

Gizarte berrirako ez gintuan onak. Gure biziak bost xentimo ez zitian balio. Nire ezina ikusirik, bihotza trinko, korapilo bat eginna, dena Jainkoaren borondatera utzi, bai, eta nire baserri-zulora bildu ninduan. Hainbestearinoxe txokoratu ninditean niretarrek. Ongi zekena duk, motel, politika!

Donostiara zebilen anaiak ere ahaleginak egin zitian. Borondate oneko asko aurkitu zituela zioan hark; baina izu laborriak hartuak zeuzkala.

Hartzaileetako lanak bukatu ondoren, igande eta jaietan batez ere, Donostiako Santa Marian meza entzuteko ohitura zian. Behin hala behar-eta, marmita lurrian utzi eta meza entzuten zegoela, semeak San Markostik Erreterriara bidali zituen tenientea aurreraxeago omen zegoan meza entzuten. Gizon zuzen xamarra zirudian, eta egin zuenez barrenak kezkatu xamar edukitzea ere bazitekean. Anaia ikusi zueneko behinik behin, bere ondoko erreketek bati galdetu omen zioan:

—Atzean marmitarekin dagoen mutil gazte hori ezagutzen al duk?

Zehar-begiratu bat egin omen zioan anaiari, eta berehala ezagutu omen zitean biek elkar. Halere, lotsa gutxirekin, tenienteari hala erantzun omen zioan:

—Ez, jauna! Ez dut uste gaur arte nire begien aurrean jarri denik ere hori!

Beste leku batean egon balira, marmitarekin burutik behera joko omen zian; halakoxeko nazka eman omen zioan eta. Aspaldiko urteetan Errenteriako *Adoración Nocturnan* izaten zirenak, eta, berak zioenez, han zuen lagunik maiteena.

Donostiatik oso berri txarrak zetozean. Ondarretan lan egiten zuen auzoko erreketek bat bazuan. Hark esan zidaan behin:

—Egunero zure semeekin hitz egiten dut. Oso berri txarrak dituzte eta etsi xamarrak daude; *consejo de guerra* egin baitie gainera, eta laurek heriotza-pena ote duten. Mundu honetan bizirik ikusi nahi badituzu, joateko lehenbailehen; egun gutxiko gorabehera dela eta zuri abisatzeko esan didate.

Gure mendi-txoko honetako tristura! Errugabeak zirela jakinki, eta hiltzera zeramatzatela beren sasoirik onenean, euskaldun jaiotzea beste bekaturik gabe, hil aurreko kaperan, orduaren zain. Etsaiak indarrean eta gu goi-beheak jota. Laguntzailerik, berriz, inon ageri ez. Askotan errukitu izan naitek umeak galdu eta zuhaitzetik zuhaitzera dabiltzan txori amek. Haiek bezala nenbilean ni ere. Haien garrasiak basoan galtzen dituk; nireek ere ez zitean inoren bihotzik bigundu. Hori duk guda: errukirik eza. Horretaraino itsutu zituan gure gudazaleak.

Eguarte batean joan ninduan. Sartu baino askoz tristeago atera ninduan handik. Hura ez duk gizonarentzat egiten den lekua. Basapiztiak hartara ikusita, gupidatu egiten naitek. Infernua, horixe duk hura. Burdina-xare batek ixten ziek begiekin ikusten duten askatasun eta zorionerako bidea. Hori baino infernu gaiztoagorik asmatu al liteke? Kanpoko eta barruko pilaka alambre-sareari eraitsiak, mendi batetik bestera oihuka ari ba-

lira bezala, elkarri ezin adierazirik. Bi sareen erdian beste zelatari hura.

Senar-emazteak elkarrekin, seme-alabak aitarekin, edo bihoztez maite diren neska-mutilak, eta laztan goxo bana ematerik ez. Metro baten tartea, eta huraxe ezin igaro. Eskuekin keinu; bat infernura eta bestea kanpora. Negarra izaten duk azken agurraren ondorena. Gizonak gizonari ematen dion zigorra. Ai, gorrotoa! Ongi Luziferren semea haiz, bai! Hamaika negar egin zitean beren andregai gaixoek.

Bost minutuko hitzaldirik ez genian egin; baina ni sekulako nazkatu ninduan. Ateeran zerbait esan behar-eta, neronek ere ez nian sinisten, ez, baina hala esan nieran:

—Agur, semeak! Ez ahal da luzarorako izango! Laster aterako ahal zaituztete!

—Bai, aita; nora ezik<sup>177</sup>, laster aterako ahal gaituzte! Orduaren zain gaude!

Hitz horiek entzun nituenean, halako ezinaren gorroto samin bat sortu zitzaidan bihotzean. Ez nian gero berehalakoan kendu. Zergatik esan zidan ulertzen bainuen. Neure esku eduki banu, ez nioan orduan etsaiaren izena zeraman bakar bati ere barkatuko; hantxe bertan bizirik kiskaliko nitian denak. Beren iritzikoak ez direnak hiltzeko, zer eskubide daukate gudazale madarikatu horiek? Ordurako arrunt etsita zeudean haiek; horregatik esan zian «nora ezik, laster aterako gaituzte».

Hori esan zidan semea ez diat geroztik, ez bizi ez hila, mundu honetan ikusi.

Hau gertatu eta bi egunera, esnearekin Donostiara joaten zen anaia, ordu luzeak igaro eta ageri ez. Ai, mutilak! Etxean geundenon larria! Hura oraindik ageri ez denean, ez duk gauza onik. Zoritxarrez, erdiz erdi asmatu genian.

---

<sup>177</sup> Nora ezik: Ezinbestez, halabeharrez.

Noizbait etorri zuan; eta, gure aurpegian zer galdetu nahi genuen igarririk, malko garratzak zerizkiola, hala esan ziguan:

—Hangoa bukatu da! Holako eta holako, goizean seietan fusilatu dituzte. Beste biak bizi dira oraindik, baina betiko itzala eman die.

Ez genian beste hitzik egin. Bakoitzak bere nahigabea isilik bihotz barruan gordez, gure lanari jarraitu genioan. Ez ziguan bihotz-zartako gehiegirik eman, aspaldian etsiak baikeunden. Hildakoek beren eginkizuna bukatu zitean. Bizi ginenok, hil arte saiatu egin behar. Zer egingo diogu, bada? Gorrotoan gintiztean; tribunal hartan, gure egiak baino, besteren gezurrak aisago sinistu baitzituzten.

Kristau legeak horren erraz gizonak hilarazten baditu, ez nauk harrizten jendeak sinesmena uztea.

Otoitzak, harexek bakarrik lasaitzen zian nire bihotza.

Hurrengo egunean, bazkalondoan, etorri zuan azken orduan lagundu zien jesuita, hil aurretik haiek egin zituzten eskutitz banarekin eta haietako baten andregaiia negar eta negar berekin zekarrela. Ez zidaan gauza berririk esan; nire semeak ezagutzen bainituen. Gorputz eta arimaz hiltzaileen alde zegoan; arrazoi osoa ematen zian horiei. Berriketarako, berriz, oso gogo gutxi neukaan nik.

Entzun nuenez, nire iloba apaiz jaunaren etxean izan omen zuan, hil zirenek esanda, noski; haiek egindako eskutitzak irakurri ere bai. Minzuri eginda eseri omen zuan. Zergatik? Berak jakingo zian; Pilatosen antzera eskuak garbitzea ez baita aski.

Nire semeen eskutitzak, oraindik hemen geratzen ginenontzat, agur bat besterik ez zituan. Bietan zaharrena, bertsolari polita zuan, baina bertsoak jartzen ohitu gabea. Orain kantatuko dizkiadan hauek harenak dituk. Hil baino ordubeteren bat lehenago eginak:

Errurik gabe iltzera guaz,  
aita ta anai maiteak,  
gazte gerala utzi bearra  
dana naigabez beteak;  
gure odolak garbi ditzala  
egin ditugun kalteak,  
agur, ez digu kalte egingo  
garbi gerala joateak.

Agur, Juan Joxe ta Saturdino,  
Joakin eta Salvador,  
Juan Kruz, Manuel ta Jose Mari,  
geratzen zeratenak or;  
ate ondoan dira etsaiak,  
gure ordua badator;  
gutuz oroitzen zeratenian  
otoi biotzez maitakor.

Agur betiko, osaba, izeba  
eta lengusu kutunak,  
agur biotzez adiskide ta  
maite nitun ezagunak!  
Uste gabeen bukatu dira  
nere munduko egunak,  
emengo partez orain zeruan  
egingo ditut lagunak.

Ez gorrotorik izan iñori,  
izan alkarrekin lagun;  
iraun zazute beti euzkotar  
eta benetan euskaldun;  
Eliza maite, kristau bezela  
bide zuzenetik jardun,  
orain berexten geranok berriz  
alkar ikusi dezagun.

Antonio anaiaren izenik ez dik jartzen; hura aldamenean bai-  
tzeukan, hogeita zortzi urteko gazte bikain askoa, bizia emateko  
berezia.

Gorrotoa kentzen zaila duk, baina kenduz gero, hobe. Nahi-  
tanahiezkua Jainkoaren aurrerako, denok zorretan baikaude. Je-  
susek bere hiltzaileei bezala, nik ere barkatu nieran noizbait.

Egun garratzak zituan niretzat eta gure etxerako. Elizkizunik  
egiten ere ez zigutean utzi. Isilka eta beldurrak, han eta hemen  
atera genitian meza batzuk, bai, eta kito.

Oraindik ez diat egundo orduan bezain korapilatua bihotzik  
eduki. Umetatik lagun nituenak etsai bihurtu zitzaizkidan eta.  
Horra semeak bakantzen hasi. Beren bizitarako aukeratu zituzten  
lagunak negarrez utzita, alde egin zitean betiko hemendik. Haien  
alde, otoitza baizik ez zuan onik.

Bizi zirenei lagundu egin behar, ordea; Ondarretan han geratu  
zituan beste bi. Eguberriak zirela-eta, han ematen ziena baino  
bazkari hobe eramateko asmoan joan zuan goizean anaia. Ez  
alferrik! Gabon goizean San Kristobalera eramanak zirela esan  
ziotean. Joan baino tristeago etorri zuan etxera. Egia badiot,  
ez genian sinistu haiek San Kristobalera eraman zituztenik.  
Ordurako, gizon jator askoak, nondik nora inork ez zekiela,  
galduak baitziren; bat baino gehiago bai gure aieka hauetan ere.  
Haiekin hori egin ote zuten beldur gintuan.

San Markosen kapitain zegoen batek bitarteko eginda, Do-  
nostian bizi zen iloba maite bat itsuaurreko nuela, Urteberri  
egunean joan gintuan San Kristobalera. Horma<sup>178</sup> ari zuela igo  
gintuan bere gailurrera. Haizeak eraman behar zian bat gain  
hartan. Harkaitz lehor, basamortu bat besterik ez duk gain  
hura. Ahuntzik ere biziko ez litzatekeen lekua. Guda-gaztelu  
horietakoa duk, San Markosen itxurakoa. Oraindik jende gutxi

---

<sup>178</sup> Horma: Izotza, jela.



omen zegoan; betetzen ari zutena. Babesera sartu ginenean, ez gintuan haserre.

Ai, mutilak! Ongi mendean bizi izateko etorri gintuan euskaldunok mundu honetara! Hartzulo ilun batera sartu eta ilunpetik argitara azaldu ziren semeekin hizketan hasi ginenean, han sare erdian entzuten zegoen guardia kankailu hark jarri zigun muturra!

—¡Hablen en cristiano! —esan ziguan.

Gu euskaraz hasi baikin. Bestela joka, aurrean hartuta, atearako gintuela; bere gomazko porratzar handi hura dantzatzuz, gozoa zebilean huraxe. Gurekin halako purrustan hasi zenak zer ez zuen egingo mendean zeuzkanekin?

Iloba, erdaraz bai baitzekien, han jardun zuan bakarrik nire bi semeekin hizketan. Ni, berriz, isil eta makur, haiek noiz bukatzen zuten zain. Hori ere niri gertatu behar!

Kapitain hari egindako eskupekoaz gainera, joan-etorri hartan hamaika duro eder utzi nian, eta semeekin hitz egiten utzi ez aitari. Eta zergatik? Euskaldun ginelako. Horixe duk oinpean zapaltzea!

Euskaraz hitz egiten genuenoi denean begiratu txarra egiten zigutela ikusirik, bilaukeria-beldurrik ez neukan etxe-zulora bildu ninduan. Geroztik lana eta lana izan zuan nire bizimodua.

Nire aldamenean neuzkan hiru semeetatik ere bat eraman zidatean soldadu. Hamarretatik, hiru bakarrik geratu gintuan etxean. Hainbeste maite ziren anaiak indarrean elkar hiltzen jarraziti zitiztean. Gudaren lanak dituk horiek ere. Hiru bat urtean, etxe nekoso honetan ezinean gu.

Bilbo hartu zutenean, han zebilen semerik gazteena soldadu atera zitean; zaharrenak, berriz, Zaragoza aldera eramanda, *batallón de trabajadores*etan urteak bota zitian.

Espainiako lau aldeetatik bagenian diru-eskea. Semeak ez ezik, ilobak ere eske hasi baitziren. Nire hirurogeita lau, bost,

sei eta zazpi, lau urte horietan, hamaika gaupasa egin nitian; ez jolasean eta zurrutean, ordea; ilargi-argitan belar ebakitzen bai. Makina bat belar-meta azpikoz gainera jarri genitian. Etxekoak ez ezik, auzokoak ere gure kontu gelditzen baitziren. Gizonezkoak eramanda, emakume hutsak utzi zitiztean han ere.

Bertako andre xaharrak, alargunak, hala esan zidaan behin:

—Ai, Joxe, Joxe! Nire onetatik ia atera naiz oraintxe! Nire bihotzak ezin du gehiago! Jaiegunak negarrez pasatzen ditut!

—Negarrez? Zergatik, ordea?

—Hemengo bakardade honek ez al dizu bihotzik zapal-tzen? Pentsatzeko betarik ez duzu, ez, zuk, beti lanpean itoa baitzabiltza. Orain egun batzuk hemengo jolas eta iskanbilen berri zekienak, gaurko isiltasun honetan, nola ez negar egin? Hemen ez da ezeren kinkiorik! Hau kanposantua da, Joxe! Ez nuen askorik pentsatzen horren bakar geldituko ginenik!

Eta negarrez hasten zuan gaixoa. Izan ere, harritzekoa al zen? Mendi-zoko honetan dauden bi baserri arlote hauetatik, bederatzi mutil gazte urrundu zituan eta: auzotik bi eta guretik zazpi. Hark ere, nik ez ezik, ez zitian urte goxoak pasa. Hainbeste kostata umeak hazi eta gero, hiltzera eramateko?

Ama zenak hemengo hondamendia ikusi izan balu, beren amona maitea bezala, penaz hilko zuan. Jainkoak bazekik zer egiten duen. Nik, berriz, lehengoak eta oraingoak bakarrik eraman behar neure bizkarrean.

Isilik, inorekin hitz egiteko beldur; atzoko lagun maite asko etsai amorratuak baintuen gaur. Gure etxe-txoko honetan jarraitu genian lanean, espetxeetan miseriaz bizi zirenei lagun-duz. Haiek bezala, gu ere espetxean geundean; haiek txikian eta gu handixeagoan bizi ginela. Gure sukalde xaharrean ez zuan nolanahiko hutsunea: hiru besterik ez gintuan biltzen, lehen hamar gizonezkorekin betetzen genuen mahai xaharraren inguruan. Han ageri zituan zazpi aulki huts.

Baserritarrak lezoietak<sup>179</sup> laharrarekin egiten duena bera egiten dik gudak ere gurekin. Laharrak zainetik ateratzerik ez dik nahi, itxitura galdu ez dadin. Indar gehiegi hartzen uztea ere ez zaiok komeni. Laharrak beti aurrera egiten baitu. Pixka bateko zapuztu dadin, muturrak mozten zizkiek. Gudak horixe egiten dik gurekin.

Txoritokietako muturretik amil ezak errotarri bat Astigarra- ga aldera. Indarrak ahitzen zaizkion arte, beti aurrera egingo dik. Harkaitz, zuhaitz, zulo, etxe, erreka, abere, gizon, bere burrunba itsuan denak berdinak dituk harentzat. Ahal badu, denak zapalduz, gogorragoa harrapatu arte, aurrera joango duk hura. Ez arrazoi onekin joan haren aurrera; bestela azpian laster lerdekatuko<sup>180</sup> hau eta. Guda ere holakoxea duk. Gudak, elkar maitasuna hiltzen duenez gero, errukia gurutzean josten dik eta gorrotoari leku eman. Gudak gudazaleen grinari komeni zaiona beste legerik ez dik onartzen. Jainkoarenak alferrik dituk harentzat. Bera jartzen baita Jainkoaren gainetik. Deabrua berbera duk guda-asmatzaile; eta gizonen gorrotoa, berriz, haizemaile. Gizon-hiltzailerik gaiztoena baino askoz okerragoa duk gudazalea gizarterako. Izurriterik gaiztoena eta kutsakorrena, guda duk. Gudazaleak berehala eransten zioak lagunari bere barruan ezin ito duen gaitz gaizto hori.

Oraingo gazteak gudaren etsai amorratuak omen dituk. Bejondeiela horiei!

Behin, nire txikitako bi lagunekin, San Markos ondoko kantina txiki horretara igo ninduan. Nire antzeko baserritar ezjakinak ez zituan haiek; beren karrerak ikasitakoak eta ongi xamar bizi zirenak, gainera. Elkarren lagun maiteak baziren ere, politika-gauzetan hasten zirenean, sutzen zituan biak. Talkako ahariak

---

<sup>179</sup> Lezoi: Pezoia, lurrezko hesia.

<sup>180</sup> Lerdekatu: Zapal-zapal egin.

bezala, aurrez aurre jartzen zituan berehala. Gizon baten bi besoak bezala zituan biak: bat ezkerre eta beste eskuina. Ordubetean iskanbiletan jardun ondoren, hasi bezala geratzen zituan beti: bat ezkerre eta beste eskuin. Niri galdetu zidatean orduan:

—Nork dugula arrazoi iruditzen zaizu, Joxe?

—Nik ezer gutxi dakit; baina nire iritzian ez bata eta ez besteak. Zertan igotzen zarete eskuineko eta ezkerreko krosketara, txoroak alaenak? Salta zaitezte bide erdira; eta, gure beso eskuin eta ezkerre lanerako bat egiten duten bezala, elkartu zaitezte zuek ere eta goazen denok bake ederrean bide erdian barrena.

Horiek dituk gudazaleak: indarrean beren usteak herriari jarri nahi dizkieten horiek.

Nik agindu behar banu, gudaren alde hizketan ari dela bat sumatu orduko, beste gabe espetxera bidaliko nikek, lagunik kutsatu ez dezan. Horiek basapiztiak baino okerragoak dituk eta.

Gutxiena uste genuenean, beste larrialdi bat ere eman zigutean: San Kristobalگو presoekin ihesa. San Kristobal non dagon jakingo duk, noski. Ni behin joan ninduan hara, eta ez zeukaat berriz joateko gogorik. Jainkoak euskaldun egin zituelako, han neuzkaan bi seme, bizirik infernua sartuta.

Mila bederatziehun eta hogeita hemezortziko maiatzaren hogeita bati, presoekin ihes egin zutelako, etxe inguru hau guztia ehiztariek bete zigutean, motel. Auzoetako agure zahar, hanka-okar, begibakar, taillarik gabeko, soldaduskarako gauza ez ziren denek etxe inguru hauetan zitean bilera.

Hemengo ataka, langa, bidegurutze, bidezidor, nindoan lekura nindoala, beti ehiztariekin batekin topo egin behar. Beren zelai-lanetan ari zirela, sagar-abarren batetik zintziliek han edukiko zitean eskopeta. Hontz handia bezala gure inguruko harri-konkor hauen gainean eserita, eskopeta belaun gainean zutela, lau edo bost zigarro erre arte, ke-jario hemen egongo zituan, ez tulka-eztulka, gu nondik nora genbiltzan ikusi nahirik.

Istilu horiek denak zergatik ziren bai al dakik? San Kristobaldik ihes egin bazuten, semeek etxe aldera joko zutela eta haiek harapatu nahirik jarritako sarea zuan guzti hori. Ongi zeudela ikasi genuenean, hamaika barre eta jolas egin nian gure agure eta jende elbarri haien bizkar.

—Maiatzean bizi garela eta ez al dakizue ehizan ez dela zilegi? Etxe inguru honetan horrela baldin bazabiltzate, ni parte ematera noak! —esaten nieran.

—Guri agindu egin zigutek, eta datorrenak hemen geratu beharko dik! —batzuek euskaraz, besteek erdaraz erantzuten zidatean, eta gure auzo hauetako aitonak izaki.

Noizbait behar-eta, bukatu zitean hainbeste errugabeko odol-isurtze hurra; hainbeste gorroto gaizto bihotzetan erein zuen elkar hiltze negargarri hurra.

Joan diren urte hauetan, gure baserri koskor horretara hainbeste eraso gaizto egin badu Euskal Herriko sendi bakoitzera, burua makurtu eta azpiratuak bizitzeak ez harritu. Gerok<sup>181</sup> izan gaituk okerrenak, gainera. Ez zeukaagu urrungo etsaiei aitzakia ematerik. Gerok gaituk errudun. Gerok gure herri xahar honen etsaiak.

Beste batzuek burua jasotzeko, hamaika heriotza umil izan dituk Euskal Herrian; gure sukaldeetan hamaika negar isil ere bai. Horiek ez dituk inork aintzakotzat hartzen; horien izenik ez dik inork paperetan jarri; horientzat ez duk eguneroko saririk; horientzat ez dik inork herriko enparantzetan estatuarik jaso; horien guraso, umezurtz edo alargunei inork ez ziek egunerokorik eskaini; unibertsitetean ikasteko, inoren laguntzarik ez ditek izan. Horiek, beren bakardadean, negar egin zitean; eta, biziko baziren, berri-berritik eraso lanari, gudazaleek beste holako nahaspilaren bat sortzen diguten arte. Hamaika holakoren odolarekin bustiak zeudek, honezkerok, Euskal Herriko hiri, mendi eta itsasoak.

---

<sup>181</sup> Gerok: Geu.

Horiek ere inork maite gabeak ez dituk. Behartsuak izan arren, pertsonak dituk, hezur eta mamizkoak, beste edozeinen gisa. Handizki eta aberats horiek bezain minkor eta minberak dituk horiek ere, eta Jainkoaren aurrerako maitagarriagoak agian.

Horien negarren eta odolen truke graduak jasotzen dituztenak, horiek dituk gudazaleak eta lurraren gainean daukagun gaitzik gaiztoena. Hiltzen badira, kaleren bati jarriko ziotek beren izena, eta beretarrek ez ditek ezeren faltarik edukiko.

Nire aita zenak zioena esango diat nik ere beti: lepotik harri konkor bana lotuta, itsaspera bota behar lituzketela gudazale guztiak!

Nor dira horiek Jainkoaren legeen gainetik berenak jartzeko? Noizbait esnatuko al gara?



## GUDA ONDOREAN

Soldadu zebiltzanak noizbaiteren buruan<sup>182</sup> bidali zitiztean.

Lehen, gudatean bi anaia zeuzkalako, gazteena, hamaika leher gaizto nirekin batera etxean egina, kinto-urteak beteak baitzituen, halere ordea oraindik ez zuan soldadu joana. Gudatik zetozenak etxean oinak sartu orduko eraman zitean. Ez zeukatean ahaztuta, ez. Egin zizkigutenak eginda, ez zituan asko urrikaldu. Hura ere eraman behar-eta, ezin inguruan utzi: Afrikaraino eraman zitean gizona. Beti bezain hutsa geratu zuan gure etxea: seiren hutsunea. Halere, semeak arrisku txarretatik aterea ez zuan nolana hiko atsegina niretzat.

Zaragozan langileen batailoian zegoena etorri zuan lehenengo. Hamaika arrisku eta istilu gudatean ikusi zituen. Gerora ere ez zian ondoren onik izan, ez, gizajoak.

Hainbesteko zigorra bizkar gainean zeramaten San Kristo balgoak, urteetan etorriko ziren ametsik ere ez genian egiten. Etorri zirenekin geron martxa-modua jarri genian, falta zirenei lagunduz, baina haiek gure artean ikusteko itxaropen handirik gabe. Halere, lehen baino gehiago gintuan laguntzeko, eta gutxiago laguntza behar zutenak.

Berehala hasi zituan berri onak zabaltzen. Ez zeudela luzarorako, askotan entzuten genian; *errebisioa* egin behar zietela eta laster etorriko zirela, noski. Hori egia zela-eta, gauzak moldatzen hasteko esan zigutean.

Nire iloba txiki egiten zuen bat bazuan militarra, borondate onekoa; haren esku utzi genian guztia. Nire beste bi seme lagun zituela, hura hasi zuan, agintea zuten horien etxerik etxe, San Kristobalگوen aldeko paper batzuk eginarazten. Oso borondate

---

<sup>182</sup> Noizbaiteren buruan: Halakoren batean.



onean egiten omen ziotean. Ez duk batere harritzakoa. Kristau bihotza zutenak, pixarren bat damuturik ere bai; baina gehienak, behin nahi zutena egin zutenean, zer axola zitzaiean, espetxeetan usteltzen zeuden errugabeko haiek atera edo ez? Berdin<sup>183</sup>, hemen espetxean bezalatsu bizi beharko zitean.

Nire iloba apaizarengana ere joan zuan. Ilobak hala galdetu omen zioan:

—Bakarrik al zabilta?

—Ez; haien bi anaiarekin etorri naiz. Haiek lagundu didate ateraino, baina ez dute sartu nahi izan; atean geratu dira —erantzun omen zioan.

—Zer txarrik egin diet nik horiei, nire etxera sartu nahi ezik geratzeko? —erantzun omen zioan haserre.

—Ez dakit. Mutilik jatorrenetakoak dira; eta, zure etxera sartu nahi ezik geratu direnean, tarte horretan zerbait izango da. Zu nor izan bazina, ez zutela horietakorik hilko; hori ere entzun dut. Horien aldeko agiria eman didan batek esan dit —erantzun omen zioan hitzetik hortzera komandanteak.

Gogo onetik edo txarretik, aurreregi sartua damutuz-edo, hark ere behinik behin egin zioan semeen aldeko papera.

Halere, bagenitian gure zalantza gaiztoak. Gudan txikitutako bazterrak presoek jaso beharko zituztela, onez edo txarrez esanda ez zekiat, baina maizegi entzuten genitian holako arrazoiak.

Lehen gu erretzera ateratako jendea orain gure alde lanean hastea ez zuan oso itxura txarra. Itxaropen pixar bat piztu zitean behinik behin gure bihotzetan.

San Martzial arratsaldean —igandea zuan, Altza gaineko jaiak, gainera—, etengabe ttunttuna ari zian. Donostiatik erre-kaz erreka igota, bi gizon estrainu ikusi genitian, etxe atzeko pikupean barrena gure etxe aldera zetozela, mendi-bota iltzedun

---

<sup>183</sup> Berdin: Izan ere.

handi horiekin, galtza urdin eta kazadora beltz lodi banarekin jantziak. Harritzen gintuan: udaren bihotzean hartara jantzita zebiltzan gizon haiek, nongoak ote ziren? Laster ezagutu gemitian: San Kristobalگو nire semeak zituan. Lasterka joan gintuan, elkar besarkatuz. Gurekin zuan Telleriko Joxe ere, etxe honetako bat bezala baita, gure nahigabe guztietan lagundu digun gizona.

—Noizbait etorri al zarete? Ez zuan erraza! Aske etorriko zineten, noski? —esan nienean, beren eskumuturretara begiraturaz, gertatzen zena ezin sinisturik:

—Ametsetan ez bagabiltza, egia izan behar du! Hamaika bider lotu dizkiguten eskumuturrak aske dauzkagu behinik behin, eta guardia zibilik ere ez daukagu aldamenean!

Baina inork aitatzeari nahi ez zuen nahigabe bat bazegoan gure bihotzetan; lau joan eta bi etorri baitziren. Zer egingo diogu bada, Jainkoaren bideen berri ez dakigu eta!

Ez zituan oraindik ere, ez, ahaztu gutaz. Bilbon harrapatu eta gero, gudatean, bukatu zen arte, hauekin batera ibilia, guda aurretik soldadu zerbitzatu ez zuelako, kuartelera deitu zitean. Ez ziotean hori ere barkatu; lehen hiru urtez gora ibilia baitzen.

Semearentzat ez zuan nolanhiko aldrebeskeria; lantegi eroso batean baitzebilen. Hauentzat, ordea, beren buruak besterik ez duk munduan.

Noizbait, horratik, traba guztiak kenduta, bizi ginenok bildu gintuan batera gure sukalde xaharrean. Biren hutsunea, ordea. Holako guda odoltsu baterako harritzekoa al da? Nire garai bateko ametsak lekutara joan zituan! Bederatzi semeetatik zortzi, arriskurik txarrenetan ibiliak zituan. Bederatzigarrena, urguna<sup>184</sup> zelako, ez zitean eraman; bestela, ez ziotean hari ere barkatuko, ez.

---

<sup>184</sup> Urgun: Herrena.

Nire seme hauen bizinahiak ez zian orduan neurririk; beren urterik onenak galdu baitzituzten, izenik ere merezi ez duen elkar hiltze lotsagarri hartan.

Etxean bi geratu eta beste gainerakoek han eta hemen bilatu zitiztean beren lantegiak. Arratserako, denak batera biltzen gintuan gure sukaldean. Ez zitean zeresanaren faltarik izaten.

Nahigabe txiki bat bazegoan oraindik nire bihotzean. Lehen ezkontzeko asmotan zebilen mutila Ondarretan hil zitean. Orain, berriz, bere aldamenekoarekin ez nian inor ikusten. Ez zituan zaharrak oraindik, baina denak mutilzahar geratuko ziren kezketan nembilean. Benetan hotzak edo lotsatiak izan dituk nire semeak.

Halako batean ikasi nian, eta lasaitu ninduan, batek aldamenekoa bilatu zuela. Emakume baten premia izugarria baitzegoen gure etxean. Hogeita lau urte haietan ez baitzen han gizonezkoak besterik bizi. Saturnino izenekoa zuan hori.

## SATURNINO

Saturnino, nire laugarren semea zuan. Ume bizia, bizirik bazen. Oraindik nire aurrean ikusten dudala iruditzen zaidak. Oinekin lurrik ukituko ez balu bezala, ia airean pasatzen zitian bide zakar hauek. Baina aspaldi hauetan ez ditik malkor<sup>185</sup> hauek igo eta jaitsi. Gure sukaldean hutsune bat utzita, alde egin zian hark ere. Ez zuan geldirik egoteko ona, baina aspaldi honetan geldirik zegok gizajoa. Hark ere bazian eguzki goxo bat ikusteko gogoia; azkenean, ikusi gabe agur egin ziguan. Berak ahal zuen guztia egin ondoren, egundo baino lotu eta zapalduago hainbeste maite zuen aberri xaharra utzita, nahigabe honekin betiko alde egin zian mundu honetatik. Harentzat ere ez zegoan azken lasai eta atsegin bat aukeratuta. Bizitzak irribarre goxoa egiten zion orduan, alde egin ziguan.

Seme maitea nuenez gero, utzi iezadak, erdi negarrez bederenik, hari omen txiki bat egiten. Beteko ez den hutsune bat bihotz xahar honetan utzita, oinaze gorrien artean urrundu baitzen. Bere lekua eman diezaiogun liburutxo honetan, hainbeste aitormen merezi dik eta.

Guda bukatu eta urtebete inguru azaldu zuan etxera, joan zen bezala, isil-isilik, bere sasoirik ederreneko lau urte alfer-alferrik galdu eta gero. Saltzeko ere bazeukaan hark osasuna.

Lehen ia maiteena zuen laguna ikustera etorri zitzaion batean, asko pentsatu gabe noski, falangearen koloreko gerrikoa zekarrean jantzia. Ikusi eta egin, harekikoak bukatu zitian nire semeak. Hitz egin eta hartu-emanek lehen bezala jardun bazuten ere, garai bateko elkartasunik ez zuan haien artean.

---

<sup>185</sup> Malkor: Malkarra; toki aldapatsua.

Noiznahi izaten zitian bere bisitatxoak; askotan erdi isilka. lheska zebiltzan gudan elkarrekin ibilitako lagunak zituan gehienak.

Etorri eta hurrengo egunean hasi zuan lan bila. Lehengo lan-tegi xaharreko atea jo zitian lehenengo. Ez alferrik. Enkargatu zegoenak, baita nagusiak ere, pozik hartuko zuten langilea zuan hura; lehendik ondo ezagutzen baitzuten. Ez zian, ordea, nagusiak ere nahi zuen langilea hartzeko eskubiderik.

Goragotik zeudean beste agintariak. Gudan irabazitako me-rituak behar zitian. Hauekin gizon hiltzen jardunak, haiek zituan denetan lehenengo. Ezertarako gauza ez zen langilea bazetorren ere, *excombatiente* bazen, beste edozeinen ondoan hura zuan lehenengo.

Lantegi hartan ez zegoan hutsunerik; izaten bazen ere, ba-zeudean aurretik izen emanak listan. Kanpotarrak lehenago zi-tuan, etxeakoak baino; hauen alde gudan merituak egin zituz-tenak, alegia.

Nire semeak ez zeukan holakorik. Nagusiak pozik hartuko zuena, beste aterean batzuk jotzera alde egin zian handik. Dene-tan galdera berdina: ea *excombatiente* al zen. Hamaika tripa-jate eta egun gaizto igaro zitian hiru bat hilabetean.

Diru pixar baten truke falangean sartu nahi bazuen, gezu-rrerzko *excombatiente*-papera egingo ziotela ere eskaini ziotean batzuek. Askorori zituan sare horretan. Biziko baziren, zerbait egin behar. Bihotzez lehenagoak baziren ere, itxuraz bederenik saldu zirenak.

Euskal Herriko diru guztiengatik, hark ez zian horrelako itxura aizunik<sup>186</sup> egingo. Holakorik egin baino lehenago, bizirik erreko zitean nire semea. Hark ez zeukan lotsarik, beldurrik ere ez, denen aurrean zen bezalakoa azaltzeko.

---

<sup>186</sup> Aizun: Faltsua.

Lanera zihoan batean, tabernariari baso-erdi bat eskatu zioan euskaraz. Han omen zeudean bi erdaldun, galegoak noski eta edan xamarak.

—¡Habla en cristiano! —esan omen ziotean.

Ez zian eztabaidaka denbora askorik galdu. Hitzik trukatu gabe, ondoan zeukana eskuan zeraman zakotetxoarekin<sup>187</sup> jo zian burutik behera, zakotetxoa zapaltzeraino. Honen laguna zutitzen hasi zenean, egundoko ostikoa eman omen zioan saihets barrenetan. Baso-erdia hustu, ordaindu eta, biak nahiko lanekin utzirik, jarraitu zian bere bidean.

Berak bere kontuak aterako zitian inorekin nahastu baino lehen; denak errespetatuko zitian. Kontuz berarekin ere; erne ibili. Bestela... bi galego haiek testigu.

Ez joan eskaintza horiekin harengana. Hura ez zuan diruarekin saltzen zen horietakoa. Eskaintza goxo guztiei muzin egin zian. Oraindik hamaika atetan jo zian, baina alferrik; ez ziotean inon ere zabaldu, ezin baitzezaketen. Bizi beharraren begiak gorriak omen dituk; lehenbizi zetorkion eskainiari lotu zitzaioan.

Igande eta jaietan hemen bazkalduz, egun-pasa etortzen zen Makazaga izeneko mutilzahar handi bat bazuan, Urumean hondar ateratzeko lanetan sozio bezala zegoena; hark hartu zian bere lantegian. Lan gogor eta nekosoa. Nonbait behar-eta, han hasi zuan lanean semea.

Askotan, oraindik gaua zela hasi beharra zeukatean; beste-etan, arratsaldean. Urte batzuk bazeramatzaan, baina ez asko.

Eguberri biharamunean, goizeko bostetarako, Urumean, beren motor xaharraren barrenean zegoan nire semea. Handik ordu gutxira, berri gaizto bat ekarri zigutean, ekaitz ondoren bake-bakean zegoen gure baserri-txokora: Saturnino kiskali zela eta San Antonio klinikara eraman zutela.

---

<sup>187</sup> Zakote: Poltsa, zorroa.

Behin etxe batera sartzen bada zoritxarra, ez omen duk ateratzen erraza. Bere egia-muturra izango dik; guretik ez zuan behinik behin berehalakoan atera.

Berri txar hori entzundakoan, geron artean hala genioan:

—Urean erre? Zer gertatu ote da hor?

Alderatzekorik ere, ez genian uste hainbestearaino errea izango zenik.

Ikustera joan zirenak, triste, burumakur, etsiak etorri zituan. Jainkoak ez bazuen mirariren bat egiten, harenak egin zuela, sendagileek esan zietean. Gordin eta soil esan zietean egia.

Semea beti izan zuan txiskeroaren<sup>188</sup> etsaia:

—Nahiago nitek txiskero-egileei ahaztuko balitzaie txiskero egiten!

Askotan entzun nioan nik hori, eta azkenean txiskero txar batek galdu zian.

Lanean hasi aurretik, bi lagunen artean bete zitean motorra, ondoan bosten bat litroko gasolina-bidoi erdi hustu bat zeukatela. Semearekin zegoen lagunak zerbaitetarako piztu omen zian txiskero txar bat, ustekabean bidoiko gasolinari su harraraziz. Motorraren inguruko gela txiki hura dena txapazkoa omen zuan, eta semeak hala esan omen zioan:

—Utzi iezaioek bertan gasolina pixar horri sutan, berdin txaparik ez dik erreko eta!

Hori esanda, kanpora ateratzen hasi omen zuan. Lagunak ez zian holakorik pentsatu. Bere erruz piztu zelako-edo, bidoi koxkor hura nolabait hartu omen zian eta leihora tira, zoritxarrez, semea leiho aurretik pasatzerakoan. Honen ertza jota, semearen izterretara erori zuan, gasolinaz busti eta sutuz. Burugabe egindako lana! Halere, ez zioan inork lagunaren aurkako hitz erditxo bat ere entzun semeari; behin baino gehiagotan bai:

---

<sup>188</sup> Txiskero: Pizgailua, sua pizteko tresna; metxeroa.

—Txiskero urde hori!

Orduan zituan istiluak: oraindik gaua, ilun, eta semea garra-sika; hara eta hona jauzi batera, jauzi bestera; gerriz beherakoa dena kiskaltzen. Berak esan zigunez gero, buruaren gainetik pasatzen omen zitzaizkioan sugarrak. Ikusitakoek ziotenez, ez omen zuan su barruan zebilenik ikusten, eta inor hari heltzera ausartu ezin.

Gero berak esan zigunez, lehen bere gerriko uhala ukitzea aski izaten omen zian askatzeko. Orduan korapilatuta geratu omen zitzaioan, ezin askatu eta ezin hautsi; galtzak erantztea aski baitzuen itzaltzeko, haietan baitzeukan gasolina.

Bere oinaze guztien artean ez zian bururik galdu. Hala beharko zian.

Noizbaiten buruan, azaldu omen zuan enkargatua. Orduan bai, berehala itzali zitean; baina berea egin eta gero. Ordurako, suak ere indarrak ahituak zeuzkaan.

Ustekabean egin zuen lagunak ere asko maite zian, eta egun batzuetan ez zian lasaitasun handirik eduki. Bere berri ez zekiagu.

Guk etsi bagenuen, bera ere ez oso etsita —hori hiltzori dagoen batentzat zaila duk—, baina bai erdi etsita. Sartzen zen guztiari zuzen aurpegira begiratzen zioan, eta bestea haren begietatik ihesi nahirik; ez baita erraz hiltzori dagoen maite bati, tristurarik gabe eta begira dagoenak igarri gabe, begietara begiratzea. Gero, hango jendearen etorrera eta denak urduri xamar ikusiz, ez ote zion garbi igarri hiltzera zihoala?

Hil baino lehentxeago, eskuetakoko behatzak zuritzen hasi zitzaizkioan, eta gero eta aurrerago zuritasuna. Eskuak jasoz, noiznahi haiei begira jartzen zuan. Behatz zuri haiek zer esaten ote zioten? Nire semea ez zuan hain ezjakina. Hori eta gehiago ere bazekian hark.

Ez zioan hari inork nola zegoen esan. Sendagilerik ez zuan ausartu; mojarik hain gutxi; Urteberri goizean aitortu eta Jauna



eman zion frantziskotar gazteak hain gutxi. Berak ere ez zioan inori ezer galdetu. Egia jakiteko beldurrak, agian? Litekeena duk. Seme zaharrenak bai, esan zioan, baina ezkutu xamar:

—Errea gauza txarra duk, motel! Hori herorrek ere ondo badakik; eta, badaezpada ere, hobe duk gauzak ondo egin!

Denok poztu gintuen erantzuna eman zioan:

—Ahal ditudan ondoena egiten ditiat nik beti gauza hauek!

Zahagia bezala hazi zitzaizkioan bi izterrak, eta ezagun zuela ari zuan gizajoa ahitzen. Oinazetik bazeukan galdetuta, baietz, baina pasa zuenaren ondoan hura ez zela ezer, erantzun ziguan. Halere, egunean bi aldiz bederenik, morfina ematen ziotean. *Otx!* bat ere ez genioan entzun.

Bere oinaze guztien artean ez zitzaioan Euskal Herririk ahaztu, ez.

Alemana-eta oraindik bero-beroan ari zituan su eta garretan elkar hiltzen, eta ez zituan oraindik amerikanoak European sartu. Ordurako, ordea, leku batzuetan ezinean zebilean alemana.

Hala galdetu zioan bere anaia bati:

—Gerra hau irabazteko ahalgorik ez ditek, noski, alemanek.

—Ezta pentsatu ere! Alemanak atzeraka hasiak dituk, gero eta ahulago; eta besteak indartzen —erantzun zioan anaiak.

Egun tristeak zituan haiexek guretzat. Ahaztu zitzaiguan zer egunetan bizi ginenik ere. Urteberri-jaiak oroitu gabe igaro zituan. Otorduak isil eta pentsakizunez beteak egiten genitian. Joaten ginen bazter denetan beti galdera berdina:

—Zer moduz dago Saturdiño?

Nola erantzun jakin ez askotan. Lagunak bazitian, ez asko, baina bai finak. Bi aurpegiko lagun maltzurrik ez zian ikusi nahi izaten ondoan. Haiak, gehienek, hil eta gerora arte ez zitean ikasi ere Saturninoren berri.

Guk sufritzen genian; ez, ordea, haren alderatzekorik ere.

Urteberri biharamunean, arratsa haren ondoan igaro zitean bere andregai zuenak eta honen aitak. Haiek betiko agurtu zituan harengandik, antzeman baitzioten eguerdira ez zela iritsiko.

Gorakoan sartu zituan gure etxera, oso triste eta malkotsu: arrats gaiztoa igaro zuela Saturninok; eta, jakina, haren ondoan hauek ere bai. Lanerako abian zen seme bati hala esan ziotean:

—Ez zoazela gaur lanera, honezkero ez bada hil ez da urruti ibiliko eta!

Handik berehala, hil zela etorri zuan abisua.

Bere anaia, ahaide eta lagun ale batzuk ondoren zituela, Donostiako kanposantura eraman zitean.

Kanposantuko kontserje zen Aldanondo jaunari eskerrak, Ondarretan hil zituzten bere bi anaiak han zeudean hilobi jakinean, beren izen eta guzti, urte batzuk lehen ehortziak. Haien ondoan ehortzi zitean hau ere.

Hiru seme hil zaizkidak, hirurak sasoirik onenean, hirurak desgaziaz eta hirurak Donostian. Ez zitean mundu honetan suerte handirik izan; bestean errukituko ahal zitzaien Jainkoa. Goian beude!

Euskaldunik jatorren eta sutsuenetako bat zuan hau. Askatasun pixar bat nabaritu zenerako, beti lehenbizikoetan ibili zena. Aberri-egun guztietara joaten zuan, eta gehienez oinez. Herriko hautitz-garaietan<sup>189</sup> ere, ez zuan azkena ibiliko. Mendigoizale bezala, noiznahi ateratzen zuan bere lagunekin. Euskal Herriko mendiek ez zeukatean harentzat ezkuturik; gehienak bere oinpean ikusi baitzituen.

Guda hasi zenean, saltatu zuan, armekin edo armarik gabe, hasiera hartan ez zuan denentzako iristen eta. Lehenengoekin atera zuan hemendik. Beti etsaiaren aurrez aurre Bilbora arte. Ez zekiagu Bizkaiko haren berririk; ez zuan bere meritua airatzen

---

<sup>189</sup> Hautitz-garaiak: Hauteskundeak.

zitzen horietakoa eta. Nahi izanez gero, ikasi genitzakek, bere lagun asko bizi baitira oraindik. Ez diagu beharrik ere; haren jenioaren berri jakitea nahikoa zaiguk ez zela alferkerian egongo jakiteko.

Bizkaia galdu zenean, bere zoramen guztia galdu zian hark ere. Ez zeukaan bereak ez ziren lurrak zaintzera joateko gogorik.

Harrapatu eta Zaragozara eraman zitean, langileen batailoi-  
ra. Hango berri ere ez zekiagu asko; baina, berarekin ibilitako ordiziar batzuek esanda, zerbait bazekiagu.

Nire semeak sukalde-txokoan zeudela, igande-arratsalde ba-  
tean etorri zituan ordiziar batzuk. Hamaika lekutan galdera egi-  
nez, bilatu zitean etxe hau. Ataritik, ate gainean *Bordaxar* irakurri  
zuteneko:

—Eup! —oihu egin zitean—. Non habil, La Judas?

Nire semearen biraorik gaiztoena *La Judas* zuan. Hori askotan  
esango zian, eta *La Judasekin* bataiatu zitean. Semeetakoren bat  
atera zuan kanpora, eta zeinen bila zebiltzan galdetu zian.

—Gurekin Zaragozan langileen batailoian ibilitako Saturnino  
Zapirainen bila! Hemen bizi dela esan zigutek!

Tristatu zuan semearen aurpegia, eta hala erantzun zian:

—Haren bila etorri bazarete, alfer biaje ederra egin duzue!

—Bordaxarren bizi dela esan zigutek, eta hau ez al da  
Bordaxar?

—Bai; hau Bordaxar dela ez zegok ukatzerik. Hemen bizi  
zela ere egia biribila duk; baina gaur ez duzue hemen aurkituko!

—Zerbait gertatu al zaio, bada?

—Bai; oraintxe hilabete batzuk hil zuan gizajoa!

—Hil? Desgraziaren batean edo?

—Bai; bere lantegian gasolinaz erreta!

Atsekabetuta geratu zituan; ez alfer biajea egin zutelako,  
beren laguna hil zelako.

—Hamaika broma eginak gaituk elkarrekin. *La Judas* esateko ohitura zian. Ez genioan bere izenez ere deitzen; beti *La Judas*. Gizajoa! Hark zeuzkan indarrak eta hark zuen osasuna! Zeinek pentsatu behar zuen hau?

—Hark bukatu zitian, bada, mundu honetako eginkizunak. Bala zorrotz eta etsai guztiek ezin zutena gasolina pixar batek egin zian.

Gure sukaldean sagardo edanez, haren gertakari asko esan zizkigutean; baina hura nolakoa zen erakusteko, bi puntu aski ditiagu.

Langileen batailoiko guardietako bat aragoitar kankailu bat omen zuan. Berak zioenez, indarrean berdinek ez zuela uste zuen horietakoa; baina berez atsegin eta otxana. Behin, harro-harro, hala desafio egin omen zian:

—Euskaldunek sona besterik ez duzue! Zalaparta ugari; behartzean, ezer gutxi! Indartsuak zaretela askotan entzun diat. Zuen artean bat baldin bada, datorrela! Jokatuko zioat nahi duena, aurreko harri baldar hau zeinek lehenago jaso!

—Ekar ezak bosteko hori! —bien eskuak estutuz erantzun ziotean—. Egina zegok! Bai; lotsatuko hauen baserritar txiki bat ekarriko diagu!

Etorri omen zuan nire semea; eta, begiratuan, Dabid eta Goliat omen ziruditean biek. Goliatek berehala jan zian bestea, aisa irabaziko ziolakoan. Txotx egin zitean eta semeak irabazi. Honek aukeratu behar zein noiz hasi, eta kankailua hasi zuan lehenengo.

Zutik eta aurrez, egundoko saioak egin omen zitian, baina ezin. Gerritara aisa ekartzen omen zian harria. Hura eta gehiago jasotzeko indarra bai omen zeukaan hark, baina oso baldarra omen zuan harria. Gerritik bizkarrera ezin jaso. Gero, hautsetan etzanda jarririk, harria noizbait bizkarreratu omen zian; eta, bere hura bizkarrean zuela, noizbait zutitu omen zuan, arnaska, gorri-gorri eta hautsez betea.

Ez zuan oso legezkoa, baina jendeak ontzat eman omen zioan. Orduan, *zapla!*, bota omen zian harria, eta besteak zer egiten zuen zain-zain begira jarri omen zuan.

Ez zian semeak horretarako zaletasun handirik, baina nahi-ko ohitu eta aritua zegoan. Harria aurrez aurre hartuta, bi-hiru minutuan jasoaldiren batzuk egin omen zizkioan eta, *zapla!*, bota zian harria hark ere; eta bere gainean oin bat jarritz, kankailuari begiratzuz hala esan omen zioan:

—Gehiago balio ez eta desafio egin diguk bada hik!

Aragoitarra zer pentsatu ez zekiela geratu omen zuan, baina ez omen zuan batere haserretu. Izena ez ezik, izana ere bazutela, bai, euskaldunek, mazal-mazal aitortu omen zian. Geroztik, on besterik ez omen zioan egin aragoitar hark semeari.

Beste puntua, berriz, hau duk: beren batailoiko kapilau zeukatena behin ere apaiz egin behar ez zuen horietako bat omen zuan. Bere hitzaldi guztiak, hasi eta buka, etengabeko iseka besterik ez omen zituan izaten: komentu guztiak erre zituztela, apaizak jatera atera al ziren... Beretarrek egin zituzten okerrak, besteri bota. Errukiz, ez merezi zutelako, geratu zirela bizirik... Hauek eta hauen antzekoak zetozenak ere bai. Hau batailoi askotan gertatzen zena omen zuan.

Pazko-garaiak iritsi zituan. Lehendik beti betetzen ohituak zeuden kristau sinesmendunak izaki, eta kapilau bihurri haren ondora hurbiltzeko bihotzik ez zeukatean, berriz; beste bat eskatzen bazuten, ekartzen bazuten ere, zeresana besterik ez zutela jarriko eta, arrisku guztien gainetik, isilka beste batera joatea erabaki zitean.

Haiek zeuden tokitik, noski, ez zuan urruti egongo; isilka, zortzi-hamarren bat lagun, gauez aterata, frantziskotarren komentu bateko ateak jo zitiztean, goizeko hirurak aldean. Caspe esan zutela uste diat, herriaren izena.

Sugegorria baino erretxinago irten omen zuan bertako atezaina. Haiek han ikusi zituenean eta zertara joan ziren jakinagatik ere, urrutizkinez<sup>190</sup> kuartelera parte eman nahirik hasi omen zuan.

Hango iskanbilak entzunda, leihora atera omen zuan hango nagusi egiten zuena. Fusilatzeraz zeramatzatenak aitortzeko, lehen ere gauerdian horrelako deiak hartzen ohitua egongo zuan. Lasterka jaitsi, bidali omen zian atezain egoskor hura, eta hala galdetu omen zieran:

—Zer zabiltzate, garai hauetan hemen, horrelako mutil gazte pila?

Zer gertatzen zitzaien eta zertara joan ziren esan ziotenean, elizako atea zabaldu eta sarrarazi omen zitian. Beste aita batzuk ere jaiki eta hantxe aitortu omen zituan.

Handik ateeran, hala galdetu omen zieran:

—Inondik ere zuek euskaldunak zarete?

Baietz, hala zirela.

—Ez naiz euskaldunetakoa ni; baina Espainia guztian zuetan bezalako gazterik ez dagoela aitortu beharra daukat, egia badiot. Honantz iheska aitortzera etortzen, ez zarete lehenbizikoak. Nahi duzuenean etorri; zuentzat beti zabalik daude hemengo atea. Ez gara gu ere indarkeria honen aldekoak —esan eta bidali omen zitian.

Larraldeko Madalenak egin zuena bera: hura harrapatu eta hil egin zutela, eta hauek ez zituztela harrapatu.

Holakoxea zuan Saturnino, holakoxeak zituan Ondarretan hil zituzten Joxe Ramon eta Antonio, eta holakoxeak dituk gelditzen zaizkidan beste seiak.

Horiek horrelako zigorrik merezi bazuten, Jainkoarena duk bekatua, ez gurea; hark egin baikaitu euskaldun.

---

<sup>190</sup> Urrutizkin: Telefonoa.



## NIRE AZKEN URTEAK GAUR ARTE

Seme maite hori galdu nuenean, batak eta besteak hor hasi zituan auzitan: semea lanean erre eta hil zelako, aitari zerbait ordaindu beharko zitzaiola, alde batek; besteak ezetz: seme gehiago banituela eta zeinek jasoaren faltarik ez neukala.

Azkenean, noski, batak eta besteak elkar hartuko zitean; eta, biek irabazi balute bezala, itxura pixar bat egin zitean, hileroko hamar duroko bat emanaz.

Ez duk ezer askorik, eta ni horrengatik berdintsu izango ninduan; baina nire aita zenaren iritzikoa nauk ni ere. Hark holaetoan esaten zuena esango diat:

—Hutsa baino hobekak dituk hoge mila duro!

Hilero-hilero, hura kobratzera joan behar izaten nian. Urruti xamar zegoan; baina hilero bueltaxka bat egitea niretzat oraindik ez zuan beste munduko gauza.

Ez zuan hori okerrena. Etxe hartan lan egiten zutenak gehienak euskaldunak zituan, baina ohitura gaizto bat bazeukatean: niri beti erdaraz egin beharra; nik deus ere ez baitakit erdaraz. Beti tripa jaten ateratzen ninduan handik.

Azkenean, besteren diru eske zihoakien lapur bat bezala hartu ninditean: zaunkaka. Haien muturjea ikusita, izua ematen zidaan, gizona. Beti desairea, beti purrusta; bihotz onekorik ez zuan azaltzen aurrera.

Umore txarrean jaitsi nintzen batean, hamar duroko txar harengatik berdintsu izango nintzela, bai, eta ez nuela gehiago han hankarik jarriko esanda alde egin nian. Horren bila ibiliko zituan, noski.

Eginbeharren bat banian udaletxean eta xuxen hara joan ninduan. Eskaileretan gora nindoala, han topo egin nian Alberto bertako kontserjearen alabarekin. Adiskide handietakoa nian



Alberto jauna, eta honekin bizi zen alaba ere bai. Eta, hain haserre ikusi ninduenean, esan zidaan erdi barrez, beti bezala:

—Haserre zabitza, Joxe!

—Haserre? Ez daukat arrazoi faltarik ere! —erantzun nioan.

—Zer dela eta?

Esan nioan aspaldi haietan nola ninderabilten eta zer asmo hartu nuen.

—Hori ere bai? —erantzun zidaan—. Utzi dena nire esku! Behar den egunean eta behar den orduan han edukiko naute! Ez didate niri zaunkarik egingo! Zu, nahi duzunean, honantz etorri, bai, eta hemen edukiko duzu zure hamar durokoa. Ez ote dabilta zu bidali eta berek jasotzeko asmoan?

Batere eskatu gabe, bere borondatez hori eskaintzeak uxatu zitian nire haserre guztiak. Jaunari eskerrak, oraindik badituk bihotz oneko kristauak.

Guda bukatu aurretik alde egin zian seme batek Frantziara. Beren asmoak bazitiztean; asko joan zituan Europako gudaren bukaeran honantz sartzeko asmoan.

Baina kukuak oker jo zigan. Euskaldun horien ametsa, ametsa izaki; hango guda bukatutakoan honantz sartuko zirela uste baikenuen, eta haiekin batean sartzeko asmoan joan zituan. Gu, beti bezala, indarpean geratu gintuan.

Orduan hasi zituan joan-etorriak: Frantziatik beren etxera bidean, gure mendi honetara azaltzen zituan lehenengo; hemen eguna pasa eta gauaz beren etxeetara azalduz.

Handik berehala, beste seme batek ihes egin zidaan, baina fraide: bizardun kaputxino horietara sartu zuan. Hori ez duk aita baten bihotza mintzeko gauza; poztekoa baizik.

Urte horietan hil zitzaizkidan bi, asko maite nituenak. Bat, nire egun larrietan hainbeste lagundu zidan emaztearen anaiarik gazteena. Sasoiko gizona oraindik. Bestea, berriz, gure auzoko bat: Aitzondoko Joxe Martin, gudatean gure etxea berritzen

hainbat lan egin zuena. Mendian galdutako bonba zikin batek hil zian.

Falta nuen semea etorri zuan noizbait Frantziatik.

Laster hasi zituan Antxoko kai alde horretatik beste berri batzuk zabaltzen: itsasontzi asko sartzen zirela eta haiek zekartena antolatzeke leku gehiago beharko zutela, noski; kai inguru horretan moila berriak egin eta lekuak hazteko asmoan hasi zituan.

Horretarako, harria behar zitean; ez nolnani, gainera. Laster hasi zituan, jabearen berri eta baimenik gabe, gure harkaitz alde hau neurtzen.

Deitu ninditean behin, eta harrobi zakar handi hura haiek behar zutela esan zidatean. Hogei mila metro inguru xamar izango zuan, noski. Nik ez nian horrelakorik nahi, baina haiek agintzen omen zitean; eta ordain-neurria ere berek jarri zidatean: hiru pezeta eta erdi metroko.

Niretzat lapurreta handi bat zuan; baina herriaren onerako zela egin behar zuten lana eta, nahi banuen edo ez banuen, indarrean jabetuko zirela esan zidatean.

Ez neukala ukatzeko asmorik esan nieran, herriaren onerako bazen. Haiek hainbeste edo gehiago maite nuela nik herria; baina ea zergatik behartsu gizagaixo batek zeukan holako lanetan dena galdu beharra; ea zergatik berek ere ez zidaten gehixeago ordaindu behar; ez ginela gu ere aukeran bizi eta.

Ez zidatean erantzun; ezta begiratu ere.

Alanbre lodi bat jarri zitean harrobitik kai ondora, eta eraso ziotean lanari.

Kobratzeko asmoan joan ninduan behar zen lekura. Begira iezaio: paper haiek ez zirela aski. Beste paper batzuk ere eramantian, eta betiko leloa: ez zirela aski. Urteetan holaxe ibili ninduan.

Haiek, gure harrobi zenetik eramantian eta eramantian, nahi zitean adina harri; eta gu, haiek ordaintzat jarri zizkigutean txanpon

pixarrak ezin kobraturik. Azkenerako, ez zela gurea esanda bidali ninditean.

Baserritar jendeak, gehienetan, herriko apaizen batengana jotzen dik aholku bila. Nik etsi nuenez gero, semea joan zuan gaur dagoen bikario horrengana. Gauzen berri jakin zuenean, hala esan zioan:

—Nik ez dakit lege horien berri, baina nire abokatua Donostian daukat. Zatoz holako egun eta ordurako, eta hitz egingo dugu.

Esan bezala egin zian. Paperak ikusi zituenean, buruari eraginez, hala esan zioan:

—Bi hauek aski dituzu; beste horiek ateratzen alfer-alferrik nekatu zara.

—Lehenengo joan zenean, horiek eraman zituen nire aitak.

—Gauza bat dago hemen garbi: *Junta de obrasek* dirua jarria daukala. Sos pixar horien atzetik ez dabil. Bitarteko horiek jarri zaizkizu erdian.

—Holako egunetarako ez baduzue ordaintzen, auzitara deituko zaituztet! —esan ziean bitarteko horiei. Bai xuxen asko ordaindu ere.

Niregatik denak galduko zituan; nik ez nian auzitara joko. Behartsuei zenbat horrelako ez ote dizkiete egiten?

Joanak joan, noizbait hartu genian betiko martxa. Hiru seme gazteenak ere ezkondu zituan. Hogeita hamalau urteren buruan sartu zuan emakume berria gurean. Bilobak ere hasi dituk ugaritzen. Hiru senditako aita bezala, nahi dudanean behinik behin, hemen nabilek hara eta hona.

Zutik hasi nintzenez gero eraso nioan lanari, eta zutik nabilen arte ez zioat utziko.

Holaxe, nire maiteen erdian, leku askotatik ihesi, erdaldun jendea besterik ez baitut bilatzen, iritsi nauk laurogeita hiru urtetaraino. Osasun ona zeukaat oraindik. Azkeneko urte ale hauek



bezalakorik ez diat egundo igaro. Nahigabe bat zeramaat: gure negar, oinaze eta odolaren saria ikusi gabe joan beharra mundutik. Bestean emango ahal ziguk Jainkoak!

Gaur arte holaxe joan dituk nire urteak. Honezkero ez gaitik Jainkoak luzaroan edukiko. Ordu onean datorrela, bada, alde egiteko deia; beste gudate bat ikusi baino askoz nahiago diat eta.

Horra oroitzen naizen nire bizitzako gorabehera batzuen lardaska. Muturrik bilatzen badiok, hik jakingo duk nondik hasi eta bukatu.

—Nik ez dut ezer askorik egingo, noski; baina liburugile on batek aterako lioke bere mamia. Eskerrik asko, Joxe, eta urte askotarako osasuna eman diezazula Jainkoak!

—Berdin, Ataño, eta agur! Gauza den arte, hemen ibiliko duk kantari *txantxangorri kantaria*.

Sega bizkarrean, txistuka euskal aire bat joz, han jaitsi zen, ordurako ilunak mendean zeukan bere baserri xaharrera<sup>191</sup>.

---

<sup>191</sup> Honaino iristen da Joxeren kontakizun luzea, lehenengo kapituluan Atañoari egiten hasi zaiona. Bien arteko hizketa ez da, ordea, oraindik amaitu.

## ATEA ZABALDU

Handik zazpi bat hilabetera —inguru xamar izango zen—, bazkalondo batean urrutizkinez deitu ninduten:

Loiola gaineko gaixotegi berrian zegoela Joxe; eta, ikusi nahi banuen, joateko lehenbailehen.

Lekutara eraman dute! Zer gertatu ote zaio?

Hurrengo goizean, lokatz artetik ezin aterarik aldapa gora nindoala, ekaitz bihurria baitzebilien, auzoko andre xahar bat topo egin nuen eta honela galdetu zidan:

—Joxe ikustera joango zara, noski?

—Bai, halaxe noa!

—Gaixoa! Zeinek esan behar zidan? Igande goizean hemen-txe bertan topo egin genuen! «Astigarragara noa! Hamarretako meza entzun nahi nuke eta berandu xamarra izango dut, noski!» esanda, udaberriko txoria bezain alai eta arin, korrika txikian jaitsi zituen aldapa hauek denak. Mendiaren beste aldean ezkutatu zen arte, inbidiaz egon nintzaion begira. Hura baino hamabost urtez gazteagoa naiz ni, eta bost minutuan pasa zituen aldapa horiek ez nituzke ordu-erdian pasako. Bi ordu ez zen izango, hau gertaturik. Astigarragatik zetorren alabak hala esan zidan: «Bordaxarreko Joxe, ondoeza eginda, goiko gaixotegi berrira eraman dute, ama!».

Ez nion sinistu, baina zoritxarrez egia izaki. Meza entzun eta tabernan bertsoan ari zela, perlesiak<sup>192</sup> jo eta erori. Horregatik eraman zuten gaixotegi berrira. Orduan harixe hori gertatu behar zitzaionik! Ez gara inor! Nire aldetik, mesedez, eskumuinak eman iezazkiozu, mundu honetan noski ez dugu gehiago bizirik elkar ikusiko eta. Bereak ikusita utziko du lur hau!

---

<sup>192</sup> Perlesia: Paralisia.

Malda hartan lokatz egin nituen oinetakoak baserri batean garbitu nituen eta igo nintzen gaixotegi berrira. Han zegoen Joxe isil eta geldirik. Ez zen hala ohitua. Ezinak menderatu hura ere. Hemengo argira betiko itzalita zeuzkan begiak. Gorputzik ezin mugitu, ezker aieka hila baitzeukan. Hitz egin nionean, ahotserra ezagutu ninduen. Hitz egin, hitz egiten zuen; ahotsik ezin garbitu. Entzun nindueneko, irribarrez alaitu zitzaion aurpegia eta luzatu zidan oraindik bizirik zeukan eskua. Eseri nintzen bere ondoan; eta, luzatzen zidan esku bakar hura nire bien erdian harturik, galdetu nion:

—Zer moduz, Joxe? Oinazerik bai al daukazu?

—Oinazerik ez, baina nireak egin dik! Ahultzen, ahultzen noak! Ez gintuan, ba, gu ere betiko sortu eta! Bizitza honetako itsaso nahaspila honi alderik alde bira eman zioat. Ez nauk bidean galdu. Ilunbistan iritsi nauk egunsentian atera nintzen lekura. Bertan zeukaat oraintxe atea; zabaldu zain nagok, dakardan gorputz xahar, itsu, nekatu hau utzita, aurrera sartzeko.

—Ordu honetan, azken pauso hau emateko, lasai al daukazu bihotza?

—Bejondeiala, motel! Bizitza triste honetan hainbeste nahigabe pasata, bestera ere oinazetara joatez geroz... Sinesmenez jaso nitian zetozkidan oinazeak, Jainkoaren borondatera dene-tan makurtuz. Agure zahar hau zigorpera botata, zer irabaziko luke Jainkoak? Mundu honetakoak bezalakoa balitz, orduan bai, errukarri nindukek. Halere, izugarria duk etorrerarik ez duen agur hau.

Beste mundura arte noski ez nuela ikusiko-eta agurtu nuen, begi itsu haietatik malkoak isuriz, hala esan zidan:

—Agur, Ataño! Nik bai ez haudala ikusiko, itsu bainago! Nire adiskideei esaiiek honezkero luzetsirik dauzkadan nire emazte, seme eta guraso maiteak ikustera noala bizitza honetatik; eta ordu estu hauetan, mesedez, otoi egiteko nire alde.

Maitasunez estutu nuen bere esku xahar hura bizitza honetan azkeneko aldiz, eta han geratu zen isil eta bakar; berak zioenez, atea zabaldu zain, barrura sartzeko.

Egia esatez geroz, lasai zegoen Joxe bere azken pausoa emateko. Hark ere, jakina, bere bekatuak, bere hutseginak eta bere gorrotoaldiak izango zituen. Hari egin zizkietenak eginda, nork ez luke izango? Azkenerako, ordea, denak menderatuta utziak zituen. Nik ikusi nuenean behinik behin, lasai zegoen aitona. Bataio ezkeror erori gabekoentzat egin bazuen Jainkoak zerua, alferrik egin zuen; itxi lezake.

Handik Donostiako klinika batera ekarri zuten, hobe beharrez, baina alferrik; han ere gero eta ahulago zihoala bere buruari igarririk, hala eskatu zuen:

—Hemen gaizki naukazue! Eraman nazazue etxera, hartu nuen lekuan utzi dezadan bizia!

Etxera ekarri eta handik egun gutxiren burura, ilbeltzaren hogeita zazpian, jaio eta laurogeita lau urtean bizi izan zen baserri maitean, seme batzuk ondoan zituela, eman zuen azken arnasa. Jendetza izugarria lagun zuela, gehiago etorrerarik izango ez zuen lekura eramán genuen. *Txantxangorri kantaria* isildu zen betiko.

Hurrengo Madalenetan seme batek bere jaiotetxean aurkitu zuen hutsuneari jarri zizkion bertsoak, ongi datoz lan honen bukaerako:

Oitu bezela erriko jaitan  
igo nintzan baserrira,  
txikitán alai eduki niñun  
oroitz goxoen kabira;  
sartu orduko biotza illun,  
malko ixillak begira,  
maitagarri bat palta dalako  
gauzak aldatu baitira.



Biotz xamurrez artu niñuten  
anaiak beren artera,  
zenbat alegin etzuten egin  
triste negon au poztera!  
Ni bezelaxe itxuraz alai,  
beren biotzak minbera:  
igaz mai-buru egin zun aita  
aurten palta gendun bera.

Berritutako etxe bikaña,  
sukalde argi txukuna,  
illoba txiki alaien salla  
goxo laztantzen zaituna;  
baña xar ura palta da ortik,  
or dago bere utsuna,  
mundu onetan beste iñortxok  
ongi beteko ez duna.

Nere abotsa entzun orduko  
ezpañetan irriparra,  
nun edo andik azalduko zan  
atarira aita xarra:  
«Ator, Bixente, ator aurrera!»  
aren eskeñi biarra,  
biotz xar artan etzan oraindik  
auldu maitasun-indarra.

«Bazkal-ordua urruti zegok,  
artzak zerbait bixigarri!».  
Bati agindu, bestea deitu,  
eraman eta ekarri;  
gero patxaran nere ondoan  
beraren aulkian jarri,  
urte guziko gertakizunak  
kontatu biar alkarri.

Igaz «Datorren arte!» esanta  
lagundu zidan bidera.  
«Etorri gero!». Ni etorri naiz,  
baña palta zaigu bera;  
eraman zuten ainbat jetxi-igo  
egin zuan maldan bera,  
azkenekua noizbait bear-ta  
etzan itzuli etxera.

Sukal ondoan ez det nabari  
gure aita xar iztuna,  
orixe da gaur gure biotzak  
arkitzen duten utsuna;  
baldartuxia zebillen baño  
bera zan biltzen giñuna,  
biotz erori auek pozteko  
palta bere maitasuna.

Mai-ingurura urbildu giñan,  
gure biotzen goibela!  
Ikusten gendun zizallu xarra  
arek utzi zun bezela;  
bi aita-gure esan ziran palta  
zanaren alde orrela,  
jakin zezala il ta gero're  
semeak maite zutela.

Umore-naia bagendun danok,  
itxuraz nagusi poza,  
bañan aldizka biotz illunduz  
palta zanaren oroitza;  
itza-jario aritu giñan,  
ez gendun bazkari motza;  
aitarik iñork etzun aipatu,  
lotzen baizigun biotza.

Anaiok sorta batean lotzen  
giñun lokarriya bera;  
eten danian, orra erori  
bakoitza bere aldera;  
txoko bero au oztu betiko,  
errira noa minbera,  
gure sutondo xarrean berriz  
noiz bilduko ote gera?

Nai ta nai-ezko gora-bera au  
zeñek ez degu aitortzen?  
Aitona eta aita juan ziran,  
gu're baguaz erortzen;  
ume txikiyak gain artu nairik  
aldamenian koskortzen,  
baña emendik bein joaten danik  
ez da geiago etortzen.

Aren lekua bete da; aurki  
gure lekuko berriya;  
anai maiteak, ez negar egin,  
illunak badu argiya:  
bana-banaka goazeneko  
Jainkuak dauka jarriya  
danok bilduta poztuko geran  
betirako aberriya.





## HIZTEGIA

Hiztegi honetan daude jasoak, batera, oin-oharretan banan-banan argitu ditugun hitzak.

Batik bat, bi hiztegi baliatu ditugu: *Euskaltzaindiaren Hiztegia* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*. Batzuetan, hitzez hitz erabili ditugu horien azalpenak; beste batzuetan, laburtu edo zertxobait moldatu ditugu. Beraz, hiztegi horietara jo beharko du argibide gehiago nahi duenak.

Tarteka, gure azalpenen bat sartu dugu. Eta, gainera, gaztelaniaz [Gazt.] eta frantsesez [Frants.] ere eman dugu zenbait hitzen ordaina.

Esan gabe doa: sarritan motz geratzen dira hemengo azalpenak. Testuak berak asko laguntzen du hemengoa osatzen.

**Aieka:** Aldea, alderdia.

**Aihen:** Beste landare batean edo zernahi gauzatan kiribildurik hazten den landare kimua.

**Aizkatu:** Uxatu, haizatu.

**Aizun:** Faltsua.

**Akuri:** Untxia.

**Alajainkia:** Alajainkoa.

**Alarauka:** Oihu ozenak eginez.

**Alazankoa:** Alajainkoa.

**Albitz:** Lastodunen familiako landarea, hosto luze latzak dituena eta kare gutxiko lurretan hazten dena. (Gazt.: lastón. Frants.: foin, plante de la famille des graminées.)

**Angarila:** Anda. (Gazt.: camilla. Frants.: civière.)

**Ardit:** Balio gutxiko dirua.

**Ardo-muxika:** Melokotoi mota bat.

**Argi-oilar:** Zomorroz-eta elikatzen den txori moko-luzea, buru gainean lumazko mototsa duena. (Gazt.: abubilla. Frants.: huppe.)

**Arra:** Luzera-neurria: eskua zabalduta, hatz lodienaren eta txikienaren arteko bitartea. (Gazt.: palmo. Frants.: empan.)

**Arraitz:** Segarria.

**Arraitzu:** Arraitzez sega zorroztu.

**Arrasta-laino:** Lurrazalaren gaineko lainoa, herrestan mugitzen dena.

**Arreo:** Ezkonsaria, dotea.

**Arte:** Animaliak harrapatzeko tresna; tranpa.

**Artizar:** Egunsentian edo ilunabarrean Eguzkiaren inguruan ikus daitekeen argizagia. (Gazt.: Venus. Frants.: Vénus.)

**Astaputz:** Astakirtena, ergela.

**Astigarraga aldetik jo:** Adarra jo.

**Ateera:** Irteera.

**Aterrune:** Ateri dagoen denbora.

**Atija:** Doministikua.

**Atzaparka:** Eginahala.

**Azienda:** Aberea; haragitarako, esnetarako edo lanerako hazten diren abereen multzoa. Ganadua.

**Azpi:** Abereek bertan lo egin dezaten egiten den iratze, belar edo orbelezko etzalekua.

**Azpil:** Platera.

**Babarrun-aleketa:** Babarrun aletzen.

**Baketa:** Eskopeta garbitzeko erabiltzen den altzairuzko hagaxka, zumea modukoa.

**Barano:** Ingurua.

**Batxo:** Bat.

**Begitan eduki:** Gorrotatu.

**Beraizik:** Berariaz, nahita, propio.

**Berdin:** Izan ere.

**Betizu:** Zaputza, jendearen lagunarteari ihes egiten diona.

**Bibelar:** Behin ebakiz gero urte berean ateratzen den belarra.

**Biga:** Berez, 'biren bat urteko txahal emea'. (Testuan, 'neskatxa'.)

**Bost zohitan:** Bost laiak hartzen duten lur-zabaleran.

**Desaire:** Mespretxua.

**Dolare:** Mahats-aleak, sagarrak eta kidekoak, zukua ateratzeko, zanpatzen diren tresna; tresna hori dagoen tokia.

**Dunda:** Metxa.

**Errainu:** Itzala.

**Erralde:** Ganadua pisatzeko erabiltzen den neurria, hamar libraren baliokidea.

**Erretxin:** Edozein huskeriagatik haserretzeko edo marmarka hasteko joera duena.

**Errola:** Erredura.

**Espera:** Hurriz, erramu, elorri, sastraka, sasi edo otez egindako itxitura, askotan lubaki eta lur-sailen muga eratzen duena.

**Esquere:** Nekazariaren lanabes bat. (Gazt.: rastrillo. Frants.: râteau.)

**Eskuzka norkada:** Bakoitzak eskuz jasotako sorta.

**Espartin:** Abarketa, alpagata.

**Espiritu:** Edari alkoholoduna.

**Estrokatu:** Bere lekutik atera; dislokatu.

**Etzana:** Joera duena.

**Eultze:** Erlauntza.

**Ezko:** Hezetasuna.

**Firrilaka:** Biraka.

**Funtzio:** Saioa.

**Ganbela:** Aska.

**Garatxo:** Pikorta gogorra.

**Gerok:** Geu.

**Geron:** Geure.

**Geronetik:** Geuretik.

**Gia:** Okelaren zaina; okela biltzen duen mintza.

**Gilbor:** Sabela.

**Goitika:** Botaka, gonbitoka.

**Gupida:** Errukia.

**Hagin:** Hosto iraunkorreko zuhaitza, azala gorrixka, zura oso gogorra, eta hosto eta hazi pozoitsuak dituen. (Gazt.: tejo. Frants.: if.)



**Hanpatu:** Puztu.

**Harri bihur...!:** Juramentu moduan erabilitako esaera.

**Hautitz-garaiak:** Hauteskundeak.

**Hazi-burua hartu:** Hazi behar duen guztia hazi.

**Hebaindu:** Zehatu, jipoitu.

**Hesola:** Oholezko edo zurezko atal lodi eta sendoa, lurrean sartu eta finkatzeko mutur puntadun bat duena. (Gazt.: estaca. Frants.: palis, petit pieu de haies.)

**Hirotu:** Usteldu.

**Hitz-aspertu:** Hizketaldi aski luze eta lasaia.

**Horma:** Izotza, jela.

**Horratik!:** Benetan!

**Hortxe-hortxe:** Ia-ia; hor nonbait.

**Ikusi-makusi:** Begira, zer ikusiko.

**Ileki:** Abereen ilea, eta, bereziki, artilea.

**Ilunbista:** Ilunabarra.

**Iratze:** Garoa.

**Irun:** Ehuntzeko gaia hari bihurtu. (Gazt.: hilar. Frants.: filer.)

**Itaurreko:** Idiak gidatzen dituen pertsona.

**Izain:** Zizare mota xurgatzailea, ur gezetan bizi dena eta gorputzetik odola ateratzeko erabiltzen zena. (Gazt.: sanguijuela. Frants.: sagsue.)

**Jalki:** Jaulki, bota; isuri, irten.

**Kataburtxintxa:** Katagorria, urtxintxa. *Katagorri* eta *urtxintxa* hitzez osatutako hitza.

**Katu:** Mozkorraldia.

**Ke-zirrindak:** Ke-zerrendak.

**Kika:** Hortza.

**Kikara:** Ontzi txikia. (Testuan, 'elektrika-harietako posteetako'.)

**Kinkio:** Hotsa.

**Kinto-urteak:** Soldadutza egiteko urteak.

**Kio:** Kantatzen ari dela, norbaiti ihes egiten dion nota altua. (Gazt.: gallo. Frants.: chanter faux.)

**Koartza:** Hegazti zangaluzea eta buru-txikia, moko luze grisa duena. (Gazt.: garza. Frants.: héron.)

**Kroska:** Koska.

**Kuotako joan:** Soldaduskara kuota ordainduz joan, mesede batzuen truke.

**Laket:** Gustura.

**Lastaira:** Ehunezko zaku modukoa, handia, gai bigun edo malguz betea dena, gehienetan somierraren gainean jarriz, lo egiteko erabiltzen dena. (Gazt.: colchón, jergón. Frants.: paillasse.)

**Lauso:** Ikusmen gutxikoa; begi-okerra.

**Lerdekatu:** Zapal-zapal egin.

**Lezoi:** Pezoia, lurrezko hesia.

**Lirdinga:** Gai likatsua, lerdea bezalakoa.

**Lo-susta:** Lo-kuluxka; siesta.

**Luberri:** Zuhaitzak, zuhaixkak, otea, iratzea eta sasiak kenduz, lantzeko prestatu den lurra.

**Lupu beltz:** gaitz kutsakorra.

**Lupu beltzak hilko ahal hau!** maldiziotan erabilitako esaera, norbaiti gauzarik gaiztoena opa izanez.

**Lurmen:** Elurra urtu den lur-zatia.

**Maira:** Orea egiteko erabiltzen den aska modukoa.

**Makatz:** Txertatu gabea.

**Malkor:** Malkarra; toki aldapatsua.

**Mandabide:** Mando-bidea; mandazainek mandoak gidatuz erabiltzen zuten bidea.

**Matxarda:** Pintza, bi besoz osaturiko tresna.

**Merinake:** Emakumezkoek eramaten zuten azpiko gona zabal eta gogorra, batzuetan buelta osoan aro bat ere izaten zuena; gona harrotzeko erabili ohi zuten. (Gazt.: miriñaque. Frants.: crinoline, vaste jupon dont l'ampleur est maintenue par des cercles d'acier ou de baleine.)

**Minzuri:** Zorabioa.

**Muilo:** Pila txikia.

**Munto:** Mendi-muinoa.

**Muzin:** Norbaitek zerbait atsegin edo gogoko ez duela erakusteko egiten duen keinua.

**Nekearen dina:** Nekeak merezi adina, nekearen neurrira.

**No:** Emakumezkoekin hika hitz egitean erabili ohi da, gizonezkoekin to bezala.

**Noizbaiteren buruan:** Halakoren batean.

**Nonbaitik:** Nonbaitetik.

**Nora ezik:** Ezinbestez, halabeharrez.

**Ore:** Masa, pasta.

**Pagauso:** Uso handi basatia, burua, bizkarra eta isatsa gris urdinxkak, sabelaldea zurixka eta hankak moreak dituen, eta habia zuhaitz altuetan eta landetan egiten duena. (Gazt.: paloma torcaz. Frants.: pigeon ramier.)

**Pasadizoa egin:** Kunplitu, minimoak bete.

**Patar:** Aldapa, aldatsa, malda; aldapa handia.

**Pats:** Sagar, mahats eta antzeko fruituetatik, sakatu ondoren gelditzen den hondarra edo hondakina.

**Pegaizo:** Bihurrikeria, maltzurkeria, akzioa.

**Perlesia:** Paralisia.

**Puja:** Kimua.

**Sahats:** *Salix* generoko zenbait zuhaitz edo zuhaixkaren izen arrunta. (Gazt.: sauce. Frants.: saule.)

**Saltatu:** Altxatu, matxinatu. (Gazt.: sublevar. Frants.: révolter.)

**Salutario:** Hainbat gaitz sendatzeko, osatzeko, gaitasuna duena. *Salutadore* ere deitu izan zaio. (Gazt.: saludador. Frants.: on donne ce nom au septième garçon d'une famille, parce qu'on lui attribue la vertu de guérir.)

**Segail:** Pertsoenez mintzatuz, luzea eta mehea, mami gutxi eta hezur handikoa.

**Sokil:** Lur-zati trinkoa; mokorra, zokorra.

**Sona:** Ospea.

**Tarteka:** Tarte, arraila.

**Taupako:** Eztanda.

**Tikili-takulo:** Sahats-egurrez egindako zerbatana moduko bat.

**Tirabide:** Tiramena, (arma baten) helmena edo irispidea.

**Toxa:** Tabakoa gordetzeko zorroa.

**Txantxil:** Ontzi zilindrikoa, esnea neurtu eta banatzeko erabiltzen dena.

**Txapin:** Etxean ibiltzeko oinetako biguna.

**Txara:** Zuhaixka asko hazten den eremua.

**Txinal:** Etxe barruan erabiltzeko oinetako arina, orpoa agerian uzten duena. (Gazt.: chancleta. Frants.: chausson, pantoufle, chaussure sans talon.)

**Txinalka:** Orpoa agerian.

**Txiskero:** Pizgailua, sua pizteko tresna; metxeroa.

**Txolarte:** Txoriak harrapatzeko tranpa.

**Txurnio:** Orkatila.

**Urgun:** Herrena.

**Urrutizkin:** Telefonoa.

**Xurrupa:** Tragoxka.

**Zakote:** Poltsa, zorroa.

**Zaldaleak irabazi:** Lurrean bueltaka ibili. (Batez ere, astoz, zaldiz eta abarrez esan ohi da.)

**Zalu:** Arina, malgua.

**Zanputz:** Globoa.

**Zartaka:** Sastraka.

**Zekendu:** Zeken bihurtu, bihotz-gogortu.

**Ziplatu:** Sartu.

**Zipoka:** Zirikatzen.

**Zipotz:** Ziria.

**Zira:** Arropen gainean jartzen den jantzi irazgaitza. (Gazt.: impermeable. Frants.: imperméable.)

**Zirikaldi:** Tentaldia.

**Zizpun:** Zizpa; antzinako fusil mota.

**Zohi:** Laiaz edo aitzurraz ateratzen den lur-zatia.

**Zotal:** Laiaz edo aitzurraz ateratzen den lur-zati belarduna.





*Txantxangorri kantaria* da Salvador Zapirain “Ataño”ren obra nagusia. Aitaren bizitza nobelatzuz idatzi zuen. Gaur, Koldo Mitxelena Kulturunean dago eskuzkribua, eta [www.kmliburutegia.net](http://www.kmliburutegia.net) webgunean ere ikus daiteke.

Eskuzkribu hori editatuz plazaratu zuen Antonio Zavalak lehen aldiz, 1979an, Auspoa bilduman. Zur eta lur geratu zen euskal irakurlea. Zavalak eta Joakin Berasategik bigarren aldiz argitaratu zuten, Sendoa argitaldarian, 1993an.

Zavalaren lanean oinarrituta, audiorako bertsio bat egin zuen Joxe Ramon Zubimendik 1995ean. HABEK eta Euskadi Irratiak plazaratu zuten, bederatzi kasete eta liburuxkatan.

Orain, lehen aldiz argitaratzen da euskara batuan.

*Badira liburuak bigarren irakurketan ez hain ederrak iruditzen zaizkigunak, eta badira alderantzizkoak, zenbat eta gehiago leitu, orduan eta hobeak iruditzen zaizkigunak: bada, Txantxangorri kantariarekin hauxe gertatu zait.*

Joan Mari Irigoien



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lankidetzeta, Gazteria  
eta Kirol Departamentua

